

Ivan Turgenev

Aita-semeak

euskaratzailea: Jose Morales Belda

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Jose Morales Belda.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1999

Jatorrizkoaren data: 1862

Ivan Turgenev euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=46>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1567>

HITZAURREA

Turgeneven garaian auzi larri bat zuten eztabaidagai Errusiako intelektualek. Zer da Errusia? Nondik dator eta nora doa? Zer bide hartu behar du?: horra hor auziaren muina. Oso herri zaharra izan arren, oso sustrai sakonak izanagatik ere, Errusiaren izateak berak zalantza sakonak sortzen zizkien *intelligentsia* osatzen zuten pentsalariari. Errusiaren izaera baldintzatzen zuten berezitasun nagusi bik eragiten zituzten zalantza horiek. Batetik, Errusiako lur-eremuan bat egiten dute Europako ekialdeak eta Asiako mendebaldeak, Mendebaldeko eta Ekialdeko kulturen elkartoki eta nahasgune da, eta, izan ere, Europaren iritziz Errusia herri asiarra zen, eta Asiaren iritziz, aldiz, herri europarra. Funtsean, kultura errusiarraren oinarriak kultura europarrarenaren berdinak dira, baina, horrekin batera, Errusiak oso ezaugarri bereziak ditu mundu europarraren barruan. Bestetik, European ez bezala, Errusian Eliza ortodoxoa da nagusi. 988 urtean Errusiak kristautasuna hartu zuen Bizantzioren eskueta-

tik, eta, horren ondorioz, euren artean onartu zuten Europako herri kristauek. Jakina denez, 1054an zatiketa handi bat gertatu zen Elizan; Erroma eta Bizantzio elkarrengandik banandu eta bi Eliza sortu ziren: katolikoa eta ortodoxoa. Europako gurutzatuek, 1204an Konstantinopla hartu, eta Bizantzioko Inperioa suntsitu zuten. Ekialdeko kristautasunak hondoa jo zuen eta herri ordotoxo burujabe bakarra geratu zen: Errusia, hain zuzen ere. Mendebaldeko Eliza katolikoaren jokabide horrek biziki mindu zituen errusiarrak, eta, harrezkeroztik, mesfidantzaz begiratu zioten Mendebaldeari. Hori zen, beraz, XIX. mendeko intelektualen arteko gatazkaren oinarria. 1830eko hamarkadan, bi alderditan banatu zen Errusiako *intelligentsia*: mendebaldezaleak eta eslavofiloak.

Mendebaldezaleen ustez, inperio errusiarrak, bere eginkizun historikoa beteko bazuen, oroz gain Mendebaldera begiratu behar zuen, eta hango sistemaren ezaugarriak modernoena bereganatu (erregimen parlamentarioa, joputasunaren ezeztapena, laikotasuna). Eslavofiloek, aldiz, uste zuten Errusiak bere bidea egin behar

zuela, bere sustraieratik abiatu eta Mendebaldean erabaztu hartu gabe. Haien iritziz, Europa, ilustrazioaren filosofia bere egitean, uko egin zuen bere kulturaren erlijio-oinarriari, eta, horrenbestez, ez zuen erabaztu hartu nahi. Haien iritziz, Mendebaldeko zibilizazioa usteldu zegoen eta Erromako Eliza katolikoa Europako akats eta gaitz guztien gordailu zen.

Gatazka latz eta sutsu horretan, Ivan Sergeievitch Turgeniev mendebaldeko alderak lerratu zuen. 1818an jaio zen, aitoren seme eta aberats. Amak, emakume larderiatsu, anker eta gogorra bera, ehun mila hektarea lur eta bost mila jopu zituen. Turgeniev, beraz, joputasunaren krudeltasuna eta bidegabekeriak bertatik bertara ezagutu zituen txiki-txikitik eta, oso gizon sentibera izaki, erabat gaitzesgarri zerritza esklabotasunaren pareko erregimen horri. Besteak beste, horrek eraman zuen mendebaldeko ideiak alde batera. 1852an —Gogol hil zen urtean— *Ehiztari baten idazkiak* kontakizun-bilduma argitaratu zuen. Jopuek jasaten zuten bizimodu latz eta bidegabea salatu zuen obra horretan (gizakien salerosketa, gorputz-zigorrak,

denetariko gehiegikeriak, indarkeria). Gobernuak ez zion barkatu salaketa gordin hori, eta, amorru biziz, urte horretan bertan Gogoli buruz idatzi zuen artikulu «subertsibo» bat aitzakiatzat harturik, atxilotu eta urtebetez bere etxaldetik irtetea debekatu zion. Zigorra betetakoan, Errusiatik alde egin zuen Turgenevek, eta, harrezkeroztik, oso joan-etorri labur eta noizbehinkakoak egin zituen sorterrira. Lehenago ere, askotan izana zen European: gaztetan Filosofia ikasi zuen Berlingo unibertsitatean; 1843an Pauline Viardot sopranoa ezagutu zuen San Petersburgen, eta, maiteminak jorik, haren atzetik ibili zen herriz herri, Europa osoan barrena. Bougival-en hil zen, Paristik hurbil, bere idazle frantses lagunak aldamenean zituela.

Turgenevek, gizarte-arazoek biziki arduratu eta bidegabekeriek oro sakon nahigabetzen zutenez, garai hartan Errusian nagusi zen erregimena aldatu beharra aldarrikatzen zuen, baina, bestetik, gizon bakezalea izaki, ez zuen iraultza onesten. Hori dela eta, iraultzaileek atzerakotzat zeukaten eta kontserbadoreek, aldiz, iraultzailetzat. Bere literatur jardunean estilistika eta

artea bera zituen kezka nagusi, eta horixe da haren obraren balio nagusia. Dena dela, 1830-40 urteetan Errusian bor-bor zegoen giro politikoari bizkarra ezin emanik, apurka-apurkako erreforma odol-isurtzerik gabeak nahi zituen liberaltzat aurkeztu zuen bere burua. Zalantza ugari zituen —«argizaria baino bigunagoa» zen askoren iritziz—, eta ez zen mendebaldezale itsua: haren ustez, Mendebaldeko kulturaren gauzarik onenak soilik bereganatu behar zituen Errusiak, bere sustraiei eta berezko izaerari uko egin gabe. Dostoievskik —eslavofilo porrokatua eta Turgeneven arerio intelektual nagusia baitzen—, Errusiako herria urrunetik ikusten zuela leporatzen zion, denbora gehiago ematen baitzuen atzerrian Errusian baino. Errusiarra izanagatik ere, urruntasun horren eraginez errusiar-atzerri-tar baten erara jokatzeko zuela egozten zion. Guztiarekin ere, batekoek zein bestekoek haren ideiak gogor kritikatzeko zituzten arren, Errusiako idazlerik onenek aitzakiarik gabe goresten zuten haren idazkera.

Aita-semeak eleberria eztabaida-giro horren itzalean idatzirik dago eta haren isla da. Belau-

naldi berriko gazte ikasien pentsamoldea deskribatu zuen Turgenevek obra horretan, aita-semeen arteko eztabaiden bidez nagusiki. Unibertsitateko ikasketak amaitu berriak zituzten gazte sutsu haiek aurreko belaunaldiaren printzipio moral eta sineste guztiak arbuiazen zituzten, eta, gizartearen antolaketa ezin okerragoztat zeukatenez, hura errotik suntsitzea beste irtenbiderik ez zegoela aldarrikatzen zuten. Gerora zabalkunde handia izango zuen hitz bat asmatu zuen Turgenevek gazte oro-ukatzaile eta suntsi-gose haiek izendatzeko: *nihilistak* deitu zien. 1862an argitaraturik, polemika bizia piztu zuen Turgeneven idazlan horrek. Eleberriko protagonista eta «heroia» —Bazarov— nihilista amorratua da, baina Turgenevek, haren ideiekin bat ez badator ere, ez du gaitzesten, eta, beti bezala, gogor eraso zioten alde batekoek zein bestekoek: nihilisten kontrakoek, erabat arbuiazen zutelako protagonistaren pentsamoldea, eta nihilistek berek, karikaturatzat hartu zutelako Bazarov.

Polemikak polemika, Turgenev XIX. mendeko prosalaririk onenetakoa dugu. Haren estiloa oso

zaindua da, halako xumetasun itxurazko baten mozorropean. Hiztegi aberatsa, sintaxi bikaina eta lirismo sakona dira haren idazlanen ezaugarri nagusiak, eta, horrekin batera, deskripzio ederrak, pertsonaien azterketa psikologiko zorrotza eta bere garaiko gizarte-arazoen ikuspegi orokorra.

Jose Morales Belda

— Eta, Piotr? Oraindik ez da ezer ikusten? — galdetu zion 1859ko maiatzaren 20an jaun batek bere mirabeari, *** galtzadako ostatu bateko estalpe apalera txanorik gabe irtenik. Jaunak berrogei bat urte zituen, laukizko galtzak eta hautsez zikinduriko berokia; mirabeak, gazte masaila-handia bera, begi txiki margulak zituen, eta bilo zurixka kokospean.

Zirtzilu urdin berdexka belarri batean, adats ñabar ukenduz gantzutua, keinu adeitsuak: haren ezaugarri guztiek argi adierazten zuten belaunaldi berri-berriko gizona zela, belaunaldi bikaindu horretakoa alegia. Etorkor, bidearen bi aldeetara begiratu, eta erantzun zuen:

— Ez, ez da ezer ikusten.

— Ez da ezer ikusten? —errepikatu zuen jaunak.

— Ez, ez da ezer ikusten —erantzun zuen mirabeak bigarren aldiz.

Jaunak hasperen egin zuen eta jarleku txiki batean eseri zen. Hankak jarlekuaren azpian

tolesturik eta inguruak pentsakor arakutzen eseririk dagoen bitartean, aurkez diezaiogun irakurleari.

Nikolai Petrovitx Kirsanov deritzo. Ostatutik hamabost verstara etxalde ederra dauka, berrehun arimakoa, edo, bere lurrak nekazarien sailetatik bereizi eta «landetxea» sortu zuenetik esaten zuen bezala, bi mila desiatinakoa. Aitak, jenerala bera, esku hartu zuen 1812 urteko gerran; zakarra eta eskola gutxikoa izanagatik ere, ez zen gizon txarra, lan gogaikarrietan eman zuen bizitza osoa, brigada bat zuzendu zuen aurrena, dibisio bat hurrena, eta probintzietan bizi izan zen beti, non, bere graduazioa zela eta, nahikoa itzal handia izan baitzuen. Nikolai Petrovitx Errusiako hegoaldean jaioa zen, Pavel anaia nagusia bezala —aurrerago hitz egingo dugu hari buruz—, eta etxean hezi zuten hamalau urte bete zituen arte, erdipurdiko irakaslez, edekan ozar baina losintzariz eta errejimentuko zein armadaren agintaritza nagusiko bestelako jaunbez inguraturik. Ama —Koliiazindarren familia—koa, ezkongaietan Agathe eta jeneralarekin ezkondu zenetik Agafokleia Kuzminishna Kirsanov

nova— agintzea izugarri atsegin zaien emakume horietakoa zen, buruko harroak eta sedazko soineko zaratatsuak jantzi ohi zituen, elizan lehena hurbiltzen zen gurutzera, ozenki eta asko hitz egiten zuen, goizean eskuan muin egiten uzten zien haurrei, eta gauean berak bedeinkatzen zituen; hitz batean, bere gogara bizi zen. Nikolai Petrovitxek, jeneral baten semea izanik, ausardiarengatik ez nabarmentzeaz gain oilo busti gaitziena merezi bazuen ere, soldadutza egin behar zukeen, anaia Pavelek bezala, baina hanka hautsi zuen armadarako deia iritsi zitzaion egun berean, eta, bi hilabetez ohean egon ondoren, «herrentxo» geratu zen bizitza osorako. Aitak, muzin egin, eta zibila izaten utzi zion. Hemezortzi urte bete bezain laster, Petersburgera eraman eta unibertsitatean sartu zuen. Ordurako, anaia ofiziala zen Guardiako errejimentuan. Bi gazteak elkarrekin bizitzen jarri ziren egoitza batean, Ilia Koliazinek, amaren aldetiko osaba txikia eta goi-mailako funtzionarioa bera, urrunetik zaintzen zituela. Aita bere dibisiora eta emaztearen ondora itzuli zen, eta noizean behin, oso gutxitan, eskribauen ezauga-

rri den idazkera laxo horretaz estu-estu beteriko orri gris handiak bidaltzen zizkien semeei. «Piotr Kirsanof, jeneral-maiorra» idazten zuen orri bakoitzaren amaieran, ardura handiz marrazturiko apaingarri dotorez inguraturik. 1835 urtean Nikolai Petrovitxek unibertsitateko ikasketak amaitu zituen, lizentziadun, eta urte horretan bertan Kirsanov jeneralak erretiroa hartu behar izan zuen emaitza txarreko ikuskatze baten ondorioz, eta, emaztearekin batera, Petersburgera joan zen bizitzera. Etxe bat alokatu zuen Tavritxeski lorategitik hurbil, eta izena eman zuen Klub Ingeleseko bazkide izateko, baina ustekabean hil zen, apoplexiak jota. Agafokleia Kuzminishna laster elkartu zen senarrarekin: ezin izan zen ohitu hiriburuko bizimodura, hain zen berria berarentzat, eta lehengo bizitzaren oroiminak bizia iraungi zion. Nikolai Petrovitx, gurasoak artean bizi zituela eta haien atsekabe handiz, Prepolovenski funtzionarioaren alabaz maitemindu zen. Prepolovenski jauna ikaslegaraiko haren egoitzaren jabea zen, eta alaba, berriz, oso neska liraina, eta, esan ohi denez, buru-jantzia: aldizkarietako «Zientziak» saileko

artikulu sakonak irakurri ohi zituen. Dolualdia amaitu bezain laster ezkondu zen berarekin, eta, Ondare Ministerioa utzirik —aitak, bere itzalaz baliaturik, han sartzea lortu baitzuen—, zoriontsu bizi izan zen bere Masharekin, aurrena Baso Institututik hurbil zegoen datxa batean, hurrena hirian, zurubi txukun-txukuna eta atari freskoa zituen etxebizitza txiki eta on batean, eta azkenik herrian, non behin betiko kokatu baitzen eta, handik gutxira, haien seme Arkadi jaio baitzen. Senar-emazteak oso ondo eta lasai bizi ziren: ia inoiz ez ziren elkarrengandik aldentzen, biek batera irakurtzen zuten, esku lauka jotzen zuten pianoa eta aho bika abesten zuten. Emazteak loreak landatu eta eskortako hegaztiak zaintzen zituen, senarra ehizara joaten zen noizean behin eta etxaldea gobernatzen zuen, eta Arkadi haziz eta haziz zihoan, ondo eta lasai bera ere. Hamar urte igaro ziren, ametsetan bezala. 1847 urtean Kirsanoven emaztea zendu egin zen. Senarrak nekez eraman zuen hain ezbehar latza, eta, aste gutxian, erabat urdindu zitzaion ilea. Atzerrira joatea erabaki zuen, nola edo hala jostatze alde-ra..., baina 1848 urtea iritsi zen. Nahitaez, herri-

ra itzuli behar izan zuen, eta, denbora luzez ezer egin gabe egon ondoren, etxaldea berrantolatzeari ekin zion. 1855 urtean unibertsitatara eramanean zuen semea, eta hiru negu eman zituen berarekin Petersburgen, etxetik oso gutxitan irteten zela eta Arkadiren lagun gazteen adiskide izateko ahaleginak eginez. Azken neguan ezin izan zen Petersburgera joan, eta hortxe dakusagu 1859 urteko maiatzean, guztiz zahar turik, lodi eta konkortuxe: semearen zain dago, lizentziadun-titulua jaso berria baitu, garai batean berak bezala.

Mirabea, begirunezko sentimendu batek eraginik eta, beharbada, nagusiaren ikusmenean geratzeko gogorik ez zuelako, atarian sartu zen eta pipa piztu zuen. Nikolai Petrovitx estalpeko zurubi zaharrari begira geratu zen, burua makurturik. Oilasko ñabar handi bat batera eta bestera zebilen, patxada ederrean eta lurra gogor zapalduz bere hankatzar horixkekin; katu zikin batek, barandan uzkurturik, gogo gaiztoz begiratzen zion tarteka-marteka oilaskoari. Eguzki kiskalgarrria zegoen; zekale-ogi egin berriaren usaina ateratzen zen ostatuko atari itzaltsutik. Gure

Nikolai Petrovitx ametsetan ari zen, esna: «Semea... lizentziaduna... Arkasha...»; atergabe ari zitzaizkion hitz horiek jirabiraka buruan; beste zer baitetan pentsatzeko ahaleginak egiten zituen, baina gogoeta berberak etortzen zitzaizkion behin eta berriro. Gogoan zuen emaztea... «Ez zian itxaron!», zioen bere artean, tristuraz... Uso urdinxka lodi bat, bidean pausatu, eta lasterka joan zen putzuaren alboan zegoen istil txiki batetik edatera. Nikolai Petrovitx begira geratu zitzaion, baina, bat-batean, gurpil-hotsa entzun zuten haren belarriek, gero eta hurbilago...

— Antza denez, badatoz —esan zuen mirabeak, atean azaldurik.

Nikolai Petrovitxek, jauzi batez zutitu, eta bidean josi zituen begiak. Tarantas bat agertu zen, posta-zaldiz osaturiko troika batek tiraturik. Tarantasean une batez begiztatu zituen ikasleek kapelan eraman ohi duten xingola berezia eta berak hain maite zuen aurpegiaren hazpegi eza-gunak...

— Arkasha, Arkasha! —egin zuen oihu Kirsanovek, eta lasterka hasi zen, besoei eraginez... Lipar bat geroago, haren ezpainen sutsuki musu-

katu zituzten lizentziadun gaztearen masaila bizargabe, beltzaran eta hautsez beteak.

— Uztazu hautsa kentzen, aitatxo, bestela goitik beheraino zikinduko zaitut eta —zioen Arkadik, aitaren txerei pozik erantzunez, bideak doi bat garraturik eztarria baina, hala ere, gazte eta zoli ahotsa.

— Berdin zidak, berdin zidak —errepikatzen zuen Nikolai Petrovitxek, hunkiturik irribarre eginenez, eta birritan astindu zituen eskuaz bere berokia eta semearen longainaren lepoa—. Uztak ikusten nolako itxura duan, uztak ikusten —gaineratu zuen, semearengandik aldentzeaz batera, eta pauso bizian joan zen berehala ostanturantz, esanez—: Hona, hona, ekarri zaldiak lehenbailehen!

Nikolai Petrovitxek semea baino askoz ere urduriago zegoela ematen zuen; bazirudien aztoratu samar zegoela, kikildurik. Arkadik geldiarazi egin zuen.

— Aitatxo —esan zuen—, Bazarov aurkeztu nahi dizut. Adiskide mina dut, sarritan idatzi

dizut berari buruz. Denboraldi batez gure etxean geratzeko gonbita onartu dit, hain da adeitsua.

Bizkor jiratu zen Nikolai Petrovitx, eta, borlekiko soingaineko luze eta zabal batez jantzirik tarantasetik jaitsi berria zen gizon garai bategana hurbildurik, gogor estutu zion esku biluzi ederra, nahiz eta hark ez zion behingoan luzatu.

— Pozten nau zu ezagutuak, benetan —hasi zen—, eta eskertzen dizut gurean geratzeko asmo ona; espero dut..., jakin nezake zein diren zure izena eta patronimikoa?

— Jevgeni Vasiliev —erantzun zuen Bazarov-ek, ahots nagi baina sendoz, eta, soingainekoaren lepoa beheraturik, osorik erakutsi zion aurpegia Nikolai Petrovitxi. Luzea zen, zimela eta bekoki-zabala, sudurra zapala zuen goiko aldean eta zorrotza muturrean, begi berdexka handiak eta belarrondoko bizar gaztainkara argiak zituen; irribarre lasai batek argiturik, ziurtasuna eta buruargitasuna adierazten zituen aurpegi hark.

— Espero dut, Jevgeni Vasilitx, ez zarela aspertuko gurean —jarraitu zuen Nikolai Petrovitxek.

Bazarovek apurtxo bat ireki zituen bere ezpain meheak, baina, erantzun beharrean, kapela altxatu besterik ez zuen egin. Haren adatsak, sarria eta hori iluna, ez zituen ikusmenetik ezkututzen burezur zabaleko irtengune nabarmenak.

— Zer, Arkadi, uztartuko ditugu zaldi berriak orain? —mintzatu zen berriro Nikolai Petrovitx, semearenganantz jiraturik—. Ala atsedean hartu nahi duk?

— Ez, etxean hartuko dut atsedean, aitatxo. Agindu zaldi berriak uztartzeko.

— Oraintxe bertan, oraintxe bertan —jarraitu zuen aitak—. Aizak, Piotr! Entzun duk? Ekin lanari, azkar!

Piotr ate atzean desagertu zen berriro. Belau-naldi berri-berriko zerbitzari bikaindu horietakoa zenez, iristean buru-makurtua egin zion urrunetik nagusi jaunaren semeari, haren eskura hurbildu gabe.

— Kalesan etorri nauk, baina hemen baduk troika bat hire tarantaserako —esan zuen, arduratsu, Nikolai Petrovitxek. Semea, bitartean, ura edaten ari zen ostatuko ugazabandreak ekarrita-

ko ontzi burdinazko batetik; Bazarov, berriz, pipa piztu eta gidariarengana hurbildu zen, une hartan zaldiak askatzen ari baitzen.

— Kontua duk kalesan birentzako lekua bakarrik dagoela, eta hire adiskidea ere etorriko denez, bada, ez zekiat...

— Tarantasean joango da —eten zion jarduna Arkadik, ahapeka—. Zuk, aita, konplimendurik ez berarekin, bai? Oso mutil miragarria da, ezin lañoagoa... ikusiko duzu.

Zaldiak ekarri zituen Nikolai Petrovitxen kotxezainak.

— Ea, itzul hadi etxera, bizar-handi hori! —esan zion Bazarovek gidariari.

— Entzun duk, Mitiukha? —sartu zen tartean beste gidaria, eskuak ahari-laruzko beroki luzearen atzealdeko irekiduretan sarturik zeuzkala—. Entzun duk nola deitu dian jaunak? Bizar-handia, alajaina!

Mitiukha, besterik gabe txanoari airean eragin, eta han joan zen, troikaren erdiko zaldi izerditsua hedetik heldurik zeramala.

— Bizkor, bizkor, mutilok, lagundu! —egin zuen oihu Nikolai Petrovitxek—. Vodkatarako emango dizuet!

Handik gutxira, uztarturik zeuden zaldiak; aita-semeak kalesara igo ziren; Piotr gidariaren jarlekuan eseri zen; Bazarovek, jauzi batez tarantasean sartu, eta larruzko bururdian bermatu zuen burua; eta abian jarri ziren bi zalgurdiak.

III

— Hona, bada! Lizentziatu eta etxera itzuli haiz azkenean —zioen Nikolai Petrovitxek, Arkadiri zapladatxoak emanez, noiz sorbaldan, noiz belaunetan—. Azkenean!

— Zer moduz dago osaba?, osasuntsu? —galdetu zuen Arkadik. Poz-pezik zegoen, haur baten antzera ia, baina lehenbailehen ekarri nahi zuen elkarrizketaren haria hunkipenaren eremutik ohiko bide arruntera.

— Bai, osasuntsu zegok. Hire bila etorri nahi zian nirekin, baina, zergatik ez dakidala, asmoz aldatu dik azken orduan.

— Eta zu, luzaz egon zara nire zain? —galdetu zuen Arkadik.

— Bost ordu inguru.

— Zein ona zaren, aitatxo!

Arkadik, aitarenganantz bizkor jiratu, eta musu zaratatsua eman zion masailan. Irri xumea egin zuen Nikolai Petrovitxek.

— Zaldi ederra zeukaat prest hiretzat. Ikusiko duk! —hasi zen aita—. Eta paperez jantzi ditiat hire gelako hormak.

— Eta Bazaroventzat ba al da gelarik?

— Nola ez! Izango duk baten bat berarentzat ere.

— Mesedez, aitatxo, ondo tratatu. Ez dakit nola azaldu zenbaterainoko estimutan daukadan haren adiskidetasuna.

— Aspalditik ezagutzen duk?

— Ez.

— Izan ere, joan den neguan ez nian ikusi. Zertan dabil?

— Natur zientziak ditu ikasgai nagusi. Baina denetarik daki. Medikuntza ikasketak hasi nahi ditu datorren urtean.

— Ah! Medikuntza Fakultatean —esan zuen Nikolai Petrovitxek, eta isilik geratu zen—. Piotr —gaineratu zuen, besoa luzaturik—, gureak dira handik doazen mujik haiek?

Nagusiak seinalaturiko alderantz begiratu zuen Piotrek. Telega batzuk, zaldi bridatu gabeek tiraturik, ziztu bizian zihoazen auzo-bide

estu batetik. Telega bakoitzean mujik bat edo bi zihoazen, ahari-laruzko beroki luzeak askaturik.

— Bai, gureak dira —esan zuen Piotrek.

— Eta nora doaz? Hirira?

— Bai, hirira seguraski. Tabernara —erantzun zuen Piotrek destainaz, eta doi bat makurtu zen gidariarenganantz, uste hori baieza zezan nahi balu bezala. Baina gidariak ez zuen zirkinik ere egin: lehengo era zaharreko gizona zen, eta ez zetorren bat ideia berriekin.

— Buruhauste handiak eman zizkidatek aurtent mujikek —jarraitu zuen Nikolai Petrovitxek, semearenganantz jiraturik—. Ez zizkidatek zergak ordaintzen. Eta hik, zer egiteko asmoa duk?

— Eta pozik zaude soldatako beharginekin?

— Bai —murmurikatu zuen Nikolai Petrovitxek—. Zoritxarrez, zirikatu egiten ditiztek; orain arte ez dituk gogotik ahalegindu. Hondatu egiten ditiztek lanabesak. Dena dela, hainbestean lantzen ditek lurra. Eutsiz gero, konpondu egingo dituk arazo guztiak egunen batean. Etxaldez arduratzen haiz orain, ala?

— Tamalez, etxean ez dugu gerizperik —esan zuen Arkadik, azken galdera horri erantzun gabe.

— Estalki handi bat egin diat iparraldeko balkoiaren gainean —esan zuen Nikolai Petrovitxek—, orain, bazkaldu ere egin daitekek haize zabalean.

— Datxa baten antz ikaragarria izan behar du..., dena dela, huskeriak dira horiek guztiak. Hemengo airea, aldiz, bai paregabea! Zein usain gozoa! Mundu osoan ez dago inguru hauetakoa bezain usain gozorik! Eta zero hau...

Arkadik solasa eten zuen bat-batean; begi-ertzetik atzerantz begiratu, eta isilik geratu zen.

— Jakina —esan zuen Nikolai Petrovitxek—, hi hemen jaio hintzen, berezia iruditu behar zaik hemengo guztia...

— Hara, aitatxo, ez du inolako garrantzirik bat non jaio den.

— Hala ere...

— Ez, horrek ez du batere garrantzirik.

Nikolai Petrovitxek begi-ertzetik so egin zion semeari, eta haien arteko elkarrizketa berriro

hasi zenerako, versta erdia egina zuen zalgurdiak.

— Ez nauk gogoratzen ea idatzi nian hil egin zaigula Jegorovna, hire haurtzaina izandakoa — hasi zen Nikolai Petrovitx.

— Ez da izango! Andre zahar errukarria! Eta Prokofitx, bizi da?

— Bai, bizi duk, eta ez duk batere aldatu. Beti bezain erretxina zegok. Oro har, ez duk aldaketa handirik sumatuko Marinon.

— Lehengo administratzaile bera duzu oraindik?

— Ez, orain beste bat diat haren orde. Erabaki diat ez edukitzea gehiago jopu burujabeturik edo mendeko ohirik, edo, behinik behin, ez uztea haien esku inongo erantzukizunik dakarren eginbeharrik. (Arkadik Piotr seinalatu zion begiekin.) *Il est libre, en effet* —esan zion Nikolai Petrovitxek ahapeka—, baina gelazaina baizik ez duk. Orain dudan administratzailea burges txikia duk, oso mutil zentzuduna eta trebea bera. Berrehun eta berrogeita hamar errublo ordaintzen zizkioat urtean. Bestetik —erantsi zuen Nikolai Petrovitxek, eskuaz bekokia eta bekainak

igurtziz, keinu horrek barruko urduritasuna salatu ohi baitzuen berarengan—, oraintsu esan diat ez duala aldaketa handirik sumatuko Marinon. Ez duk guztiz egia. Ezin baztertuzko betebehartzat zeukaat jakinaraztea ezen...

Zalantzan geratu zen une batez, eta frantsez jarraitu zuen.

— Argi eta garbi hitz egingo diat; moralista zorrotz batek gaitzetsi egingo likek hori, baina, lehenik, ezkutuan ezin gordezko kontua duk, eta, bigarrenik, ondo dakianez, nik oso printzipio bereziak izan ditiat beti aita-semeen arteko harremanei dagokienez. Hik, jakina, aitari kargu hartzeko eskubidea duk. Nire adinarekin... Hitz batean, zera... baduk neskagazte bat..., inondik ere, hik baduk haren aditzea...

— Fenetxka? —galdetu zuen Arkadik hitzetik hortzera.

Gorri-gorri jarri zen Nikolai Petrovitx.

— Mesedez, ez esan ozenki haren izena... Zera... kontua duk orain nirekin bizi dela. Etxera ekarri diat..., bi gela txiki nitian. Dena dela, baze-gok hori aldatzea.

— Mesedez, aita! Zergatik aldatu?

— Hire adiskidea gurean geratuko duk aldi batez... ez duk eroso egongo...

— Ez arduratu Bazarovengatik, otoi! Horren guztiaren gainera dago.

— Azkenik, hiri dagokianez —esan zuen Nikolai Petrovitxek—, etxearen hegal bat izango duk heurtzat; zoritxarrez, egoera kaskarrean zego.

— Mesedez, aitaxo! —eten zion Arkadik—, badirudi barkamena eskatzen ari zarela; ez dizu lotsarik ematen?

— Horixe lotsa ematen didala! —erantzun zuen Nikolai Petrovitxek, gero eta gorriago.

— Aski da, aitaxo, aski da! Ez horrelakorik esan, mesedez!

Arkadik irribarre egin zuen, samurtasunez. «Horregatik barkamena eskatzea ere!», pentsatu zuen bere artean, eta hain aita on eta xaloa-renganako maitasun barkaberazko sentimendu batek bete zion arima, ezkutuko gailentasun-sentipen lauso batekin nahasirik.

— Ez horrelakorik esan, mesedez —errepikatu zuen, bere heldutasunaz eta espirituzko irekitasunaz konturatzeak sortzen zion atseginaz nahi gabe gozatuz.

Nikolai Petrovitxek eskuko atzamarren azpitik begiratu zion, artean ere bekokia igurtzitzen ari baitzen, eta halako ziztada bat nabaritu zuen bihotzean... Baina, berehala, errudun sentitu zen berriro.

— Horra hor gure lurrak —esan zuen isilune luze baten ondotik.

— Eta han aurrean dagoen baso hori, gurea da? —galdetu zuen Arkadik.

— Bai. Baina saldu egin diat. Aurten zuhaitz guztiak botako ditiztek.

— Zergatik saldu duzu?

— Dirua behar nuelako; lur hauek ere mujiketak izango dituk laster.

— Zergak ordaintzen ez dizkizuten mujik horienak?

— Haien kontua duk hori; gainera, ordainduko ditek egunen batean.

— Dohakabea basoa! —esan zuen Arkadik, eta inguruak ikusmiratzeari ekin zion.

Ezin esan liteke inguru haiek oso ederrak zirenik. Soroak amaigabe hedatzen ziren ortze-mugaraino bertaraino, leunki aldats gora leku batzuetan, eta berriro aldats behera beste

batzuetan. Baso txikiak begiztatzen ziren hor-
hemen, eta sakanek, zuhamuxka bakan eta ziz-
trinez josirik, Jekaterinaren garaiko mapa zaha-
rretan zuten itxura berezia gogorarazten zieten
begiei. Ertz malkartsuko errekatxoak ere ikusten
ziren, eta presa meheko urmael txiki-txikiak, eta
teilatu iluneko izba ziztrinez osaturiko herrixkak
—izba haietako askotan teilatua erdi erorita
zegoela—, eta lastategi okertuak aletegi hutsen
aldamenean, adar txirikordatzko hormekin eta
atetxo dantzariekin, eta elizatxoak, adreiluzkoak
batzuk, karea nonahi zartaturik, zurezkoak beste
batzuk, gurutzeak oker eta hilerriak hondakin.
Arkadiri gero eta gehiago uzkuratzen zitzaion
bihotza. Berariaz bezala, aurkitu zituzten mujik
guztiak zarpaz jantzirik zeuden eta zamalko kax-
karren gainean zebiltzan; bidebazterreko saha-
tsek arlote zarpailak ziruditen, pitzaturik zeuka-
ten azala eta apurturik adarrak. Behiek, zargal-
durik eta latz azala —marraskatu baliete beza-
la—, gose biziz jaten zuten bide ondoko lubakie-
tako belarra. Bazirudien halako atzapar hilgarri
eta gupidagabe batzuetatik jaregin berriak zire-
la, eta, abere akitu haien ikuspen negargarriak

deiturik, negu goibel, amaigabearen mamu zuria agertzen zen udaberriko egun eder haren erdian, bere bisutsekin, izotzekin, elurrekin... «Ez —pentsatu zuen Arkadik—, inguru hau ez duk aberatsa, hemen ez zegok inor liluratzeko moduko oparotasunik, ezagun dik lur honek inork ez duela gogoz lantzen; ezin diagu horrela utzi, ezinbestekoa duk aldatzea... baina nola lortu hori?, nondik hasi?...»

Horrelako gogoetak egiten zituen Arkadik... eta, gogoetan zegoela, nagusituz zihoan udaberria. Berde eta urrekara ageri zen inguru guztia; hala zuhaitzak nola zuhamuxkak eta belar-izpiak baratxe eta lasai kulunkatzen ziren, distiratsu, haizetxo epelaren astindu bigunen mendean; kantuan hasi ziren hegazabalak, beren txorrotxio zoli amaigabeak bazter orotara barreiatuz; hegaberek garrasi egiten zuten belardi lauen gaisetarik hegaka, edo lasterka zebiltzan zotalen artean, isilik; belatxingak batera eta bestera ari ziren udaberriko galburu oraindik apalen artean, haien kolore beltzak galsoroetako berde argia edertzen zuela; zekale-sail zuritzen hasietan sartzen ziren, eta noizean behin soilik atzematen

ziren haien buruak uhin kekoloreen erdian. Arkadi luzaz egon zen inguruko ikuspegiari begira, eta haren oldozpenak, arian-arian iraungirik, erabat aienatu ziren azkenean. Longaina zabarki erantzi, eta hain alai begiratu zion aitari mutil gazte baten berezko begiradaz, ezen berriro besarkatu baitzuen hark.

— Hurbil gaudek —esan zuen Nikolai Petrovitxek—, muino horretara igo, eta begien bistan izango diagu etxea. Ezin hobeto biziko gaituk elkarrekin, Arkasha; etxaldea gobernatzen lagunduko didak, baldin eta horrek aspertzen ez bahau. Orain, harreman estuak izan behar ditia-gu elkarrekin, ondo ezagutu behar diagu elkar, ez da hala?

— Jakina! —esan zuen Arkadik—. Bai egun zoragarria gaurkoa!

— Etxera itzuli haizelako, seme! Udaberria bere onenak ematen ari duk, bai. Izan ere, bat natorrek Pushkinekin; gogoan duk *Jevgeni Onegin*-eko bertso hau?:

*Zeinen tristagarri zaidan zure esnatzea,
udaberria, udaberria, maitasun-aroa!*

Zeinen ...

— Arkadi! —iritsi zen tarantasetik Bazaroven ahotsa—. Ekarri pospolo bat, ez zeukaat pipa zerez piztu.

Isilik geratu zen Nikolai Petrovitx, eta Arkadik, nolabaiteko harriduraz baina, aldi berean, nolabaiteko gupidaz aitari entzuten jarria baitzen, zilarrezko pospolo-kutxa bat atera zuen berehala sakelatik, eta Bazarovi bidali zion Piotren bitartez.

— Zigarrorik nahi? —egin zuen oihu berriro Bazarovek.

— Bai, ekarri bat —erantzun zuen Arkadik.

Piotrek, kalesara itzulirik, zigarro beltz handi bat eman zion Arkadiri pospolo-kutxarekin batera. Arkadik astiro piztu zuen zigarroa, tabako zaharraren hats bizi eta garratza bere inguru osoan zabalduz. Nikolai Petrovitxek sekula ez zuen erre bere bizitza osoan, eta beste aldera okertu zuen sudurra, ezinbestez baina Arkadi ez ohartzeko moduan, ez baitzuen semea mindu nahi.

Ordu laurden bat geroago, zurezko etxe berri bateko atariaren aurrean gelditu ziren bi zalgurdiak. Etxea pintura grisez margoturik zegoen eta burdinazko teilatu gorria zuen. Marino zen, Novaia Slobodka, edo, nekazariek esaten zioten bezala, Bobil etxaldea.

IV

Mirabe-saldo ugaririk ez zen irten ataurrera nagusi jaunei harrera egitera; hamabi urte inguruko neskato bat baino ez zen agertu, eta, haren ondotik, Piotren antz handia zuen mutil gazte bat ere atera zen etxetik, morroi-uniforme gris bat soinean eta armarri baten irudia jakako botoi zurietan. Pavel Petrovitx Kirsanoven mirabea zen. Isilik, kalesaren atetxoa ireki eta tarantasaren estalkiko kisketak askatu zituen. Nikolai Petrovitx, semea eta Bazarov egongelarantz abiatu ziren areto ilun eta ia huts batetik zehar, non emakume gazte baten aurpegia azaldu baitzen lipar batez atez bestaldean. Egongela gusturik berrienaren araberako apaingarri eta altzariz horniturik zegoen.

— Etxean gaude azkenean —esan zuen, ozenki, Nikolai Petrovitxek, kapela erantzi eta ilea inarroteaz batera—. Orain, lehen-lehenik, afaldu eta atsedean hartu behar dugu.

— Izan ere, ez zaigu txarto etorriko zer edo zer jatea —esan zuen, nagiak ateraz, Bazarovek, eta dibanean erortzen utzi zuen gorputza.

— Bai, bai, afal dezagun, afal dezagun lehenbailehen —esan zuen Nikolai Petrovitxek, arrazoi nabaririk gabe lurrari ostikoka—. Hara, hona hemen Prokofitx!

Hirurogei urte inguruko gizon bat sartu zen, ileurdina, argala eta beltzarana, kobrezko botoiekiko frak gaztainkara bat soinean eta zapi-txo arrosakolore bat lepo inguruan. Irribarre zabala egin, Arkadiren eskura hurbildu eta, gonbidatuari buru-makurtua eginik, atera itzuli eta bizkarrean uztartu zituen eskuak.

— Hona hemen, Prokofitx —hasi zen Nikolai Petrovitx—, etxean daukagu azkenean... Eta? Zer deritzozu?

— Itxura ezin hobea du —esan zuen agureak, eta irribarre zabala egin zuen berriro, baina berehala zimurtu zituen bere bekain sarriak—. Mahaia jartzea nahi duzu? —esan zuen, serio.

— Bai, bai, mesedez. Baina aurrena ez duzu zeure gelara joan nahi, Jevgeni Vasilitx?

— Ez, eskerrik asko, ez daukat ezertarako joan beharrik. Agindu besterik gabe nire maleta-txoa hara eramateko, eta janzkitxo hau ere bai —gaineratu zuen, soingaineko zabala eranzteaz batera.

— Oso ondo. Prokofitx, hartu longaina. (Prokofitxek, zalantza-antzean, bi eskuekin hartu zuen Bazaroven «janzkitxo», eta, burutik gora altxaturik zeramala, oin-puntetan urrundu zen.) Eta hi, Arkadi, ez haiz joango une batez heure gelara?

— Bai, neure burua txukundu beharra daukat —erantzun zuen Arkadik, eta aterantz abiatzera egin zuen, baina une horretantxe tarteko goibeheko gizon bat sartu zen egongelan, alkandora ingeles ilun batez, modako gorbata txiki batez eta txarolezko bota laburrez jantzirik. Pavel Petrovitx Kirsanov zen. Berrogeita bost urte ingurukoa ematen zuen: haren ile gris laburrak errainu ilunez distiratzen zuen, zilar berriaren antzera; aurpegia, behazunak horixkatua baina zimurrik gabea, izugarri eratsua eta garbia zen, zizel mehe eta fin batez landu balute bezala, eta edertasun miragarri baten aztarnak nabari

zitzaizkion oraindik; bereziki ederrak ziren haren begi argitsu, beltz, luzangak. Arkadiren osabak, liraina eta arraza onekoa izaki, artean ere gordezten zituen bere gorpuzkera guztian gazte-denborako lerdentasuna eta lurra behean utzirik gorantz egiteko nahi hori, zeina, gehienetan, hogeitau urteak betetakoan aienatu ohi baita.

Pavel Petrovitxek, galtzetako sakelatik atera eskua, eta ilobari luzatu zion. Ederra zen esku hura, bere azazkal arrosakara luzeekin, eta are ederragoa agerrarazten zuen mahukaburu zurimin opalo handi bakar batez lotuak. Aurrena, *shake hands* delakoa egin zion, Europako erara, eta gero, Errusian ohitura den legez, hiru musu eman zizkion, hau da, hiru aldiz ukitu zizkion masailak bere bibote urrintsuarekin, eta esan zuen: «Ongi etorri».

Nikolai Petrovitxek Bazarov aurkeztu zion: Pavel Petrovitxek doi-doia okertu zuen bere gerri malgua eta doi-doia egin zuen irribarre, baina ez zion eskua eman eta, horren orde, sakelan sartu zuen atzera.

— Etsirik nengoen ez zinetela gaur etorriko — esan zuen, ahots atseginez, adeitsuki kulunka,

sorbaldei gora eraginez eta bere hortz zuri ederrak erakutsiz—. Zerbait gertatu zaizue bidean?

— Ez, ez zaigu ezer gertatu —erantzun zuen Arkadik—, apur bat berandutu zaigu, besterik ez. Eta orain otso batek baino gose handiagoa dugu. Presa eman Prokofitxi, aitatxo, ni berehalaxe itzuliko naiz.

— Itxaron, hirekin joango nauk! —egin zuen oihu Bazarovek, bat-batean dibanetik altxaturik. Egongelatik irten ziren bi gazteak.

— Nor da? —galdetu zuen Pavel Petrovitxek.

— Arkasharen adiskide bat, oso buruargia, hark dioenez.

— Eta gurean geratuko da?

— Bai.

— Txima-luze hori?

— Bada, bai.

Pavel Petrovitxek mahaia atabalatu zuen azazkalekin.

— Nire ustez, Arkadi s'est dégoûrdi —esan zuen—. Poztu egin naik haren itzulerak.

Afaldu bitartean gutxi hitz egin zuten. Batez ere Bazarovek ez zuen ia ezer esaten, baina asko jaten zuen. Nikolai Petrovitxek bere, berak

esaten zion bezala, landetxetar-bizitzako hainbat gertaera kontatu zituen, eta mintzagai izan zituen gobernuak berehala hartuko zituen hainbat neurri, batzordeak, diputatuak, ezinbestean makinak eskuratu beharra eta abar. Pavel Petrovitx atzera-aurrera zebilen, astiro, jangelan barrena (ez zuen inoiz afaltzen), kopa ardo beltzez beteari noizean behin hurrupaka eta are bakanago iruzkinen bat edo, hobeki esan, oihuhitzen bat egiten zuela, hala nola «Ah! Hara! Jum!». Arkadik aditzera eman zituen Petersburgeko zenbait albiste, baina halako aztoramen xume bat sumatzen zuen barnean, horrelako aztoramena jabetu ohi baita edozein mutil gaztez noiz eta, haur izateari utzi berritan, bera haur gisa ikustera eta horrelakotzat hartzera ohiturik dauden lekura itzultzen baita. Premiarik gabe luzatzen zuen bere solasa, «aitatxo» hitza saihesten zuen eta, behin, «aita» hitza erabili zuen haren ordeaz, baina, hori bai, hortz artean esanik; gehiegizko ozartasunez, nahi baino askoz ere ardo gehiago isuri zuen bere edalontzira, eta dena edan zuen. Prokofitxek ez zuen begietatik galtzen, eta noizik behin ezpainak

mugitu besterik ez zuen egiten. Afaldu eta gero, berehala sakabanatu ziren denak.

— Bitxia duk hire osaba —esan zion Bazarovek Arkadiri, mantala jantzirik haren ohetik hurbil esertzeaz batera eta pipa labur bati indarrez hurrupaka—. Horrelako dotoretasunik herrixka batean! Horiek azazkalak, erakusketa batera bidaltzeko modukoak!

— Hik ez badakik ere —erantzun zuen Arkadik—, arrakasta handiko galaia izan zuan bere garaian. Haren historia kontatuko diat egunen batean. Oso gizon ederra zuan, txoratu egiten zitian emakumeak.

— Hara! Beraz, lehengo lepotik dik oraindik burua. Tamalez, hemen ez zeukak nor limurtu. Dena aztertu diat: lepo txiki horiek, harria bezain zurrinak, eta kokots hori, hain ardura handiz bizar-moztua. Ez al da barregarria, Arkadi Nikolaievitx?

— Balitekek; baina gizon ona duk, benetan.

— Behinolako fenomeno zaharkitua! Hire aita, ordea, gizon jatorra duk. Alferrik esaten ditik olerkiak, eta, inondik ere, ez zekik etxaldea gobernatzen, baina on hutsa duk.

— Aita gizon ezin hobea duk.

— Konturatu haiz kikildurik zegoela?

Arkadik baiezkoa egin zuen buruaz, bera ere kikildurik egon ez balitz bezala.

— Harrigarriak dituk zaharkilo erromantiko horiek! —jarraitu zuen Bazarovek—. Haserretzeko punturaino zirikatzen ditek beren nerbio-sistema... eta oreka galtzen ditek. Ea, agur! Nire gelan konketa ingeles bat zegok, baina atea ez duk ixten. Dena dela, kilikagarria duk: konketa ingelesa, horra aurrerapena!

Alde egin zuen Bazarovek, eta pozezko sentimendu bat jabetu zen Arkadiz. Atsegina zen jaiotetxean lo egitea, betiko ohe ezagunean, esku kuttun batzuek josiriko burusiaren azpian, litekeena baitzen esku haiek, agian, haurtzainaren esku samur, on eta nekaezinak izatea. Jegorov-naz gogoratu zen Arkadi, eta hasperen egin zuen, eta zeruko erreinua opatu zion... Bere buruaren alde ez zuen inoiz otoitz egiten.

Bazarov eta biak berehala lokartu ziren; gainerako etxelagunak, ordea, denbora luzean egon ziren lo ezin harturik. Semearen itzulerak larritu egin zuen Nikolai Petrovitx. Ohean etzan

zen, baina ez zuen itzali kandela, eta, burua eskuan bermaturik, luzaz egon zen hausnarrean. Gauerdia baino askoz beranduago ere, anaia oraindik zegoen bere langelan eseririk, besaulki zabal batean, tximiniaren aurrean, harrikatzaren sua arian-arian iraungiz zihoala. Ez zen biluztu Pavel Petrovitx, soilik orporik gabeko oinetako txinatar gorriek txarolezko bota laburrak ordeztu zituzten haren oinetan. *Galignani* aldizkariaren azken zenbakia zeukan eskuetan, baina ez zuen irakurtzen; tinko begiratzen zion tximiniari, non, aldika iraungiz, aldika berpiztuz, dar-dar egiten baitzuen sugar urdinxka batek... Jainkoak daki non ote zebiltzan, alderrai, haren pentsamen-duak; behinik behin, ez zebiltzan iraganean soilik: bere baitara bildurik eta goibel zegoela adierazten zuen haren aurpegierak, eta ez ohi da hori gertatzen norbera oroitzapenetan soilik murgildurik dagoenean. Eta etxearen atzealdeko gela txiki batean Fenetxka neskagaztea zegoen kutxa handi baten gainean eseririk, larruzko atorra mahukagabe urdin batean bildurik eta zapi zuri bat ile beltzaren estalki; belarriak zorrozten zituen batzuetan, erdi lo geratzen zen tarteka,

eta aterantz begiratzen zuen noizean behin,
ateaz bestaldean sehaska bat ikusten baitzen,
eta haur lokartu baten arnasa beti-berdina
entzuten.

V

Biharamunean, Bazarov beste inor baino goizago esnatu zen, eta lehena irten zen etxetik. «Arraioa! —pentsatu zuen, ingurura begiraturik—. Ez duk oso polita leku hau.» Nikolai Petrovitxek, bere lurrak nekazarien sailetatik bereizi zituenean, lau desiatinako eremu guztiz lau eta soil bat gehitu behar izan zion etxalde berriari. Bizitegia, estalpeak eta abeletxea eraiki zituen, lorategia eratu zuen eta urmaela eta bi putzu egin zituen; baina zuhaitz gazteak txarto errotu ziren, urmaelean oso ur gutxi bildu zen eta putzuetakoak gatz-gustua zuen. Lila eta akaziaz osaturiko itzaltegi bat bakarrik hazi zen ondo; batzuetan, han elkartzen ziren tea hartzeko eta bazkaltzeko. Denbora laburrean, Bazarovek lorategiko bidezidor guztiak ibili zituen, sartu-irten bat egin zuen ukuiluan eta zalditegian, bi mutiko aurkitu zituen eta, berehala haien adiskide egirik, haiekin joan zen etxaldetik versta batera zegoen zingira txiki batera, igelak harrapatzera.

— Zertarako nahi dituzu igelak, jauna? —gal-
detu zion mutikoetako batek.

— Oraintxe azalduko dizut —erantzun zion
Bazarovek, zeinak dohain berezia baitzuen herri
xehearen uste ona bereganatzeko, nahiz eta
inoiz ez zen haiekin bihozbera izaten eta zakar
tratatzen zituen beti—; igela zabaldu, eta haren
barruan zer gertatzen den aztertuko dut; zu eta
biok, oinez ibili arren, igelak bezalakoak gara,
eta horrenbestez, igelak aztertuz gero, gure
barruan zer gertatzen den ere jakingo dut.

— Eta zertarako jakin nahi duzu hori?

— Hutsik ez egiteko gaixotzen bazara eta nik
sendatu behar bazaitut.

— Medikua zara, ala?

— Bai.

— Vaska, entzun, jaun honek dio zu eta biok
igelak bezalakoak garela. Zoragarria!

— Nik beldur diet igelei —esan zuen Vaskak.
Zazpi urte inguru zituen, lihoa bezain zuria zuen
burua, lepo garaiko beroki labur gris batez jantzi-
rik zegoen eta oinutsik zebilen.

— Zergatik izan beldurrik? Hozka egiten dute,
ala?

— Ea, sar zaitezte uretan, filosofoak! —esan zuen Bazarovek.

Bitartean, Nikolai Petrovitx ere esnatu zen, eta Arkadiren gelara jo zuen. Jantzirik aurkitu zuen semea. Terrazara irten, eta estalkiaren hegala babesean eseri ziren biak; ordurako samovarra borborka ari zen barandatik hurbil, mahai gainean, lila-sorta handi batzuen artean. Aurreko egunean iritsi berriei ataurrean harrera egitera lehena atera zen neskato bera agertu zen, eta ahots zoliz esan:

— Fedosia Nikolaievna ondoezik dago eta ezin da etorri; esan dit galdetzeko ea zeuek zerbitzatuko duzuen tea ala Duniasha bidaltzea nahi duzuen.

— Neronek zerbitzatuko dut —esan zuen, bizkor, Nikolai Petrovitxek—. Hik, Arkadi, nola hartu ohi duk tea?, esnegainarekin ala limoiarekin?

— Esnegainarekin —erantzun zuen Arkadik, eta, isilune labur baten ondoren, galdera-doinuz esan—: Aitatxo?

Nikolai Petrovitxek asaldaturik begiratu zion semeari.

— Zer? —esan zuen.

Begiak apaldu zituen Arkadik.

— Barkatu, aitatxo, beharbada desegoki iritziko diozu nire galderari —hasi zen—, baina atzo zuk tolesik gabe mintzatu izanak tolesgabea izatera bultzatzen nau..., ez zara haserretuko?...

— Hitz egin ezak.

— Galdetzeko adorea ematen didazu... Ni hemen naizelako ez dator Fen... ez dator bera tea zerbitzatzera?

Nikolai Petrovitx doi-doia jiratu zen albo bate-rantz.

— Beharbada bai —esan zuen azkenean—, berak uste dik... lotsa ematen ziok...

Arkadik bizkor jaso zituen begiak aitarenganantz.

— Bada, ez du zertan lotsaturik. Lehenik, zuk ondo ezagutzen duzu nire pentsabidea (Arkadik oso gogoko zuen hitz hori esatea), eta bigarrenik, nik sekula ez nuke zure bizimoduan edo zure ohituretan eragozpenik txikiena ere jarriko. Gainera, ziur nago zuk ezin duzula aukera txarrik egin; zurekin etxepe berean bizitzen utzi diozunez, argi dago merezi duela; edonola ere, semea

ez da aitaren epaile, are gutxiago ni, eta are gutxiago zu bezalako aita batena, inoiz eta inola ez baitidazu askatasuna eragotzi.

Arkadi ahots dardaratiz mintzatu zen hasieran: bihotz-zabal sentitzen zen, baina aldi berean konturatzen zen nola edo hala errieta egiten ari zitzaiola aitari berari; nolana ere, norberaren solasaren doinuak eragin handia du gizabanakoarengan, eta Arkadik irmoki eta are adierazkortasun handiz ebaki zituen azken hitzak.

— Eskerrik asko, Arkasha —esan zuen, ahots sorrez, Nikolai Petrovitxek, eta berriro joan zitzaizkion atzamarrak bekokira eta bekainetara—. Izan ere, zuzenak dituk hire usteak. Jakina, neska hori gisakoa ez balitz... Nirea ez duk izan txoriburu baten apeta txoroa. Lotsagarri zaidak hirekin honetaz hitz egitea; baina ulertuko duk berarentzat zaila dela hona agertzea, hi hemen haizela, batez ere etxera itzuli ondoko lehen egunean.

— Orduan, ni joango naiz harengana! —egin zuen oihu Arkadik, bihotz-zabaltasunak berriro

eraginik eta aulkitik ziplo altxatzeaz batera—. Azalduko diot ez duela zertan nire lotsa izanik.

Zutik jarri zen Nikolai Petrovitx ere.

— Arkadi —hasi zen—, egon apur batean, mesedez... han... inondik ere... Oraindik ez haut jakinaren gainean jarri...

Baina ordurako Arkadik ez zion entzuten, eta lasterka alde egin zuen terrazatik. Nikolai Petrovitxek begiekin jarraitu zion, eta egonezinik amildu zen aulkian. Indarrez pilpiraka hasi zitzaion bihotza... Ohartu ote zen, une horretan-txe, semearekiko harremanak halabeharrez bereziak izango zirela etorkizunean?, iruditu ote zitzaion Arkadik ia begirune handiagoa erakutsiko liokeela afera horretaz hitzik esan ez balio?, ahulkeria leporatzen zion bere buruari?, zail da esaten: sentimendu horiek guztiak sumatzen zituen barnean, baina sentipen gisa, eta lauso samar gainera; dena dela, gorritasuna ez zitzaion ezabatzen aurpegitik, eta indarrez jauzika zeukan bihotza.

Arrapaladako urratsak entzun ziren, eta Arkadi terrazara irten zen.

— Elkarren ezaupidea egin dugu, aita! —egin zuen oihu, aurpegian halako alaitasun samur eta xalo bat nabari zitzaiola—. Fedosia Nikolaievna benetan dago gaur ondoezik eta geroago etorriko da. Baina nolatan ez didazu esan anaia bat dudala? Atzo arratsean bertan musukatuko nukeen, orain musukatu dudan bezalaxe.

Nikolai Petrovitxek zer edo zer esan nahi zuen, zutitu eta semea besarkatu nahi zuen... Arkadik lepoa inguratu zion besoekin.

— Zer da hau? Berriro besarkaturik? —entzun zen haien atzean Pavel Petrovitxen ahotsa.

Aita eta semea poztu egin ziren une horretantxe agertu zelako; badira egoera hunkigarriak zeinetatik, hala ere, lehenbailehen atera nahi izaten baita.

— Zergatik harritzen haiz? —esan zuen, alaitasunez, Nikolai Petrovitxek—. Oso denbora luzean egon nauk Arkasharen zain... Atzodanik ez diat izan nahi adina miresteko astirik.

— Ez nauk batere harritzen —jakinarazi zion Pavel Petrovitxek—; aitzitik, nik ere badiat besarkatzeko gogoia.

Arkadik, osabarengana hurbildu, eta berriro sumatu zuen masailetan haren bibote urrintsua-
ren ukitua. Pavel Petrovitx mahaira eseri zen. Ingalaterrako modaren araberako goiz-janzki dotore bat zeukan soinean; buruan, berriz, fez txiki bat. Fez txiki hori eta gorbatatxo nolana-
hi lotua herrikkako bizimodu lasaiaren erakusgarri ziren; alkandoraren lepoak, ordea, ohi bezain gogor estutzen zuen kokots bizar-moztua, nahiz eta, hori bai, alkandora ez zen zuria, ñabarra bai-
zik, horrelaxe baitagokio goizeko janzkerari.

— Non da zure adiskide berria? —galdetu zion Arkadiri.

— Ez dago etxean; goiz jaiki eta nora edo hara joan ohi da. Batez ere, ez diozue arretarik jarri behar, hori da garrantzitsuena: ez ditu gogoko zeremoniak.

— Bai, hori begi bistakoa da —esan zuen Pavel Petrovitxek, eta, patxadatsu, gurina ogian zabaltzeari ekin zion—. Luzaro geratuko da gurean?

— Batek daki. Iragaitzaz dago hemen, aitaren etxerako bidean.

— Eta non bizi da aita?

— Probintzia honetan bertan, hemendik lau-
rogei bat verstara. Etxalde txiki bat dauka han.
Errejimentu bateko sendagile ohia da.

— Hara, hara, hara... Hain zuzen ere, neure
artean galdezka ari nintzen non entzuna ote
dudan nik Bazarov abizena... Nikolai, aitaren
dibisioan ez al zegoen Bazarov izeneko sendagi-
le bat?

— Litekeena duk.

— Bai horixe, bai horixe. Orduan, sendagile
hori haren aita da. Jum! —esan zuen Pavel Petro-
vitxek, bibotea laztanduz—. Eta Bazarov jaun
hori, zer da? —galdetu zuen, astiro.

— Bazarov zer den? —irribarre txikia egin
zuen Arkadik—. Zer den esatea nahi duzu, osa-
batxo?

— Bai, egidazu mesede hori, ilobatxo.

— Nihilista da.

— Zer? —galdetu zuen Nikolai Petrovitxek,
eta Pavel Petrovitxek, berriz, airean jaso zuen
ganibeta, aho zorrotzaren puntan gurin-puska-
txo bat zeukala, eta geldi-geldirik geratu zen.

— Nihilista da —errepikatu zuen Arkadik.

— Nihilista —esan zuen Nikolai Petrovitxek—. Oker ez banago, latinezko *nihil*-etik zetorrek, ezer ez-etik alegia; hitz horrek, beraz, ezer ontzat hartzen ez duen gizakia adierazten dik, bai?

— Hobeto esan, ezer errespetatzen ez duen gizakia —tartekatu zuen Pavel Petrovitxek, eta berriro ekin zion gurinari.

— Gauza guztiei ikuspuntu kritiko batetik begiratzen dien gizakia —argitu zuen Arkadik.

— Ez da gauza bera? —galdetu zuen Pavel Petrovitxek.

— Ez, ez da gauza bera. Nihilista da gizaki bat ezein aginteri men egiten ez diona, ezein printzipiotan sinesten ez duena, delako printzipioa denik eta errespetagarriena izan arren.

— Eta ona da hori? —eten zion Pavel Petrovitxek.

— Nondik begiratzen zaion, osabatxo. Batzuen ustez ona da, eta beste batzuen ustez, ordea, oso txarra.

— Beharko! Dena dela, hori ez dagokigu guri. Guk, belaunaldi zaharrekoak, uste dugu ezen printzipioak (Pavel Petrovitxek gozoki ahoskatu

zuen hitz hori, frantsesek bezala; Arkadik, aldiz, errusieraz dagokion legez ebaki zuen, indarra lehen silaban ezarriz) ezinbestekoak direla; printzipioetan sinetsi ezean, zuk diozun bezala, ez dago urrats bat bera ere egiterik, ez dago arnasa hartzerik ere. *Vous avez changé tout cela*, eman diezazkizuela Jainkoak osasuna eta jeneral-maila; guregandik mirespena baino ez duzue jasoko, jaun... nola esan duzu?

— Nihilistak —zehaztu zuen Arkadik.

— Bai. Lehen hegeliarrak izan ziren, eta orain nihilistak. Ikusiko dugu nola moldatzen zareten ezerezean, hutsean bizitzeko; eta orain, anaia Nikolai Petrovitx, jo ezak txilina, mesedez, neure kakaoa edateko ordua diat.

Nikolai Petrovitxek, txilina jo, eta deiadar egin zuen: «Duniasha!». Baina, Duniasharen ordeztan, Fenetxka bera irten zen terrazara. Gaztea zen, hogeita hiru urtekoa, guztiz zurixka eta guria; ile eta begi ilunak zituen, ezpain gorri haur batenak bezala mamitsuak eta eskutxo samurrak. Kotoizko soineko apain bat zeukan jantzirik; kolore urdin argiko zapi berri batek arinki biltzen zizkion sorbalda mardulak. Kakao-katilu handi

bat zekarren, eta, Pavel Petrovitxen aurrean utzirik, goitik beherainoko lotsa nabaritu zuen barnean; zainetako odol beroa uhin gorrixka baten antzera hedatu zen haren aurpegi politeko azalmintz mehearen azpian. Begiak apaldu, eta mahai alboan geratu zen, gorputza doi-doi bermaturik behatzen punta-puntetan. Bazirudien lotsagarri zitzaiola etorri izana, baina, aldi berean, etortzeko eskubidea zuela sentitzen bide zuen.

Pavel Petrovitxek bekozko iluna jarri zuen, eta Nikolai Petrovitx, berriz, aztoratu egin zen.

— Egun on, Fenetxka —esan zuen, hortz artean.

— Egun on —erantzun zuen neskak, ahots apal baina zoliz, eta, Arkadiri begi-ertzetik so eginik, haren irribarre adiskidetsua ikusi, eta isilik joan zen. Ipurdi-sorbaldak leunki kulunkatuz ibiltzen zen, baina horrek ere ondo ematen zion.

Tartetxo batez, isiltasuna nagusitu zen terrazan. Pavel Petrovitxek, bere kakaoa astiro edaten ari zela, burua jaso zuen bat-batean.

— Horra hor gure jaun nihilista —esan zuen ahapeka.

Izan ere, Bazarov lorategian zebilen, lore-sailen artean. Lokatzez beterik zeuzkan oihalezko galtzak eta longaina; zingirako landare likatsu bat zegoen haren kapela biribil zaharraren goialdean itsatsirik; zaku txiki bat zekarren eskuineko eskuan; zerbait biziduna mugitzen zen zakuaren barruan. Terrazara bizkor hurbildu, buru-makurtua egin, eta esan zuen:

— Egun on, jaunak; barkatu tea hartzera berandu etorria; oraintxe itzuliko naiz; leku egokian gorde behar ditut gatibu hauek.

— Zer dakarzu hor?, izainak?

— Ez, igelak.

— Jan ala hazi egiten dituzu?

— Esperimentuak egiteko dira —esan zuen Bazarovek axolagabeki, eta etxe barrura joan zen.

— Inondik ere, disekezionatu egingo ditu —esan zuen Pavel Petrovitxek—. Ez du printzipioetan sinesten, baina igeletan bai.

Arkadik errukiz begiratu zion osabari, eta Nikolai Petrovitxek, berriz, itzalgaizka jaso zituen sorbaldak. Pavel Petrovitx bera konturatu zen bere ateraldiak ez zuela arrakastarik izan, eta

hizpide hartu zituen etxaldearen gobernu eta administratzaile berria, zeina Foma beharginaz kexatxera etorri baitzitzaion aurreko egunean, esanez «bazter-nahasle porrokatua» zela eta ez zuela agindurik betetzen. «Beti dabil protestaka astakirten hori —esan zuen—, ergel bizi eta ergel hilko da.»

VI

Bazarov itzuli, mahaira eseri, eta tea azkar edaten hasi zen. Bi anaiek isilik begiratzen zioten, eta Arkadik itzalgaizka so egiten zien aitari eta osabari, noiz batari, noiz besteari.

— Urrun ibili zara? —galdetu zuen azkenean Nikolai Petrovitxek.

— Hemen baduzue zingira txiki bat, lertxundi baten alboan. Bost oilagorreko talde bat haizatu dut; hik hil egin ditzakek, Arkadi.

— Zu ez zara ehiztaria?

— Ez.

— Izan ere, fisika ikasten duzu, bai? —galde-tu zuen, bere txandan, Pavel Petrovitxek.

— Fisika, bai; natur zientziak oro har.

— Diotenez, azkenaldion germaniarrek aurre-rapen handiak egin dituzte arlo horretan.

— Bai, horretan alemaniarrek gure maisuak dira —erantzun zuen Bazarovek, axolagabe.

Pavel Petrovitxek ironiaz erabili zuen «germaniarrek» hitza, «alemaniarrek» bazterturik, baina inor ez zen ohartu ironia horretaz.

— Zuk, beraz, oso iritzi jasoa duzu alemaniarrez, bai? —galdetu zuen, itxurazko jendetasunez, Pavel Petrovitxek. Halako amorru gorde bat sentitzen hasia zen. Bazaroven ozartasun erabatekoa sumingarria gertatzen zen haren izaera aristokratikoarentzat. Sendagile baten seme hura ez zen kikiltzen; aitzitik, zakar eta gogoz bestera erantzuten zuen, eta haren ahotsaren doinuaz bazen zerbait latza, ia lotsagabea.

— Hango jakintsuak zentzudunak dira.

— Bai, bai. Errusiako jakintsuez, ordea, ez bide duzu hain uste lausengarririk.

— Baliteke.

— Oso buru-ukitze laudagarria da hori —esan zuen Pavel Petrovitxek, soina tenteturik eta buruari atzera eraginez—. Hala ere, Arkadi Nikolaievitxek oraintsu azaldu digunez, zuk ez duzu ezein aginterik onartzen. Ez duzu agintean sines-ten?

— Eta zergatik onartu behar dut? Zertan sine-tsiko dut? Nik, zentzuz hitz egiten badidate, aintzat hartzen dut esandakoa, besterik ez.

— Eta alemaniar guztiek hitz egiten dute zentzuz? —galdetu zuen Pavel Petrovitxek, ozenki,

eta haren aurpegiak halako aire arduragabe eta urrun bat hartu zuen, arima eta gorputz hodeiez goragoko tontor batera aldatu balitz bezala.

— Guztiek ez —erantzun zuen, aharrausi laburra eginez, Bazarovek. Nabari zitzaion ez zuela eztabaidan jarraitzeko gogorik.

Pavel Petrovitxek Arkadiri begiratu zion, hau esan nahi balio bezala: «Hori gizalegea zure adiskidearena, alafede!».

— Niri dagokidanez —ekin zion berriro, ahale-gintxoa eginez—, nik bekatari honek ez ditut begiko alemaniarrek. Errusiako alemaniarrek ez ditut aipatu ere egingo: jakina da zer-nolako aleak diren. Baina Alemaniako alemaniarrek ere ez zaizkit atsegin. Garai batekoak, tira, onartze-ko modukoak dira; orduan Schiller zeukaten, esaterako, eta zera... *Gette* ere bai... Anaiak estimu handitan dauzka... Baina orain kimikariak eta materialistak baizik ez daude...

— Kimikari on bat edozein poeta baino hogeit aldiz baliagarriagoa da —eten zion Bazarovek.

— Hara bestea! —egin zuen espantu Pavel Petrovitxek, eta doi-doia altxatu zituen becai-

nak, logura balitz bezala—. Zuk, beraz, ez duzu artea onartzen?

— Dirua irabazteko artea, edo odoluzkirik gehiago ez edukitzekoa! —egin zuen oihu Bazarovek, destainazko irribarretxo batekin.

— Ondo da, ondo da. Txantxetarako gogoia duzu. Beraz, zuk erabat arbuiatzen duzu hori? Demagun horrela dela. Orduan, zientzian baka-rik sinesten duzu?

— Lehenago ere esan dizut ez dudala ezertan sinesten. Eta zer da zientzia, zientzia oro har? Askotariko zientziak daude, askotariko ogibideak eta tituluak dauden bezalaxe; baina zientzia oro har ez da existitzen, inondik inora ere.

— Oso ondo. Eta gizartean ezarri ditugun bestelako arauak dagokienez ere, zeure joera negatibo horri eusten diozu?

— Zer da hau?, itaunketa? —galdetu zuen Bazarovek.

Pavel Petrovitx doi-doia zurbildu zen... Nikolai Petrovitxek beharrezkotzat jo zuen elkarrizketan parte hartzea.

— Egunen batean zehaztasun handiagoz mintzatuko gara zurekin gai horretaz, Jevgeni

Vasilix maitea; zure iritzia jakingo dugu eta geurea agertuko dizugu. Niri dagokidanez, oso pozgarri zait zuk natur zientziak ikastea. Entzundanez, Liebig-ek aurkikuntza harrigarriak egin ditu lur-ongarrien arloan. Agian, lagun zeniezadake nire agronomia-lanetan: aholku baliagarriren bat eman zeniezadake.

— Zure esanera nago, Nikolai Petrovitx; baina Liebig gehiegia da guretzat! Aurrena alfabetoa ikasi behar da, eta gero liburuari heldu, baina guk oraindik ez dugu a letra ere ikasi.

«Ikusten dudanez, nihilista hutsa haiz», pentsatu zuen Nikolai Petrovitxek.

— Hala eta guztiz ere, behar izanez gero, onariezadazu zuregana jotzea —gaineratu zuen goraki—. Eta orain, anaia, uste diat administratzailearekin hitz egitera joateko ordua dugula.

Aulkitik jaiki zen Pavel Petrovitx.

— Bai —esan zuen, inori begiratu gabe—, zoritxarrekoa ni, bost urtez bizi izan naiz herrikka honetan, jeinu handiengandik urrun! Horrek erabat ergeltzen du edonor. Gogotik ahalegintzen gara irakatsi digutena ez ahazten, eta hara non bat-batean gertatzen den hori guztia zentzu-

gabea dela, eta jakinarazten digute jende burutsua dagoeneko ez dela horrelako huskeriez arduratzen, eta atzeraturik geratu garella eta zozo hutsak garella. Zer egingo diogu! Bistan dago gazteak gu baino argiagoak direla.

Pavel Petrovitx astiro jiratu zen orpoen arabera eta astiro alde egin zuen; Nikolai Petrovitx haren atzetik joan zen.

— Beti da horrelakoa? —galdetu zion, odola hotz, Bazarovek Arkadiri, atea bi anaien atzean itxi bezain laster.

— Zakarregia izan haiz berarekin, Jevgeni —ohartarazi zion Arkadik—. Mindu egin duk.

— Ezin hasiko nauk, bada, koipekeriatan probintzietako aristokrata hauekin! Buruzaletasuna, lehoi-ohiturak eta harropuzkeria besterik ez ditek! Horrelakoa izaki, Petersburgen geratu behar zian bizitzen, hango gizartean gora egiteko... Tira, Jainkoak gorde dezala! Ur-kakalardo bitxi samar bat aurkitu diat, *Dytiscus marginatus* dik izena, ezagutzen duk? Erakutsi egingo diat.

— Haren historia kontatuko niala hitzeman diat... —hasi zen Arkadi.

— Kakalardoaren historia?

— Aski duk, Jevgeni! Osabaren historia. Konturatuko haiz ez dela hik usten duan bezalakoa. Haren lepotik barre egitea bainoago, errukia merezi dik.

— Ez diat zalantzan jartzen; baina zergatik kezkarazten hau hainbeste?

— Zuzena izan beharra zegok, Jevgeni.

— Nondik atera duk ondorio hori?

— Ez, entzun...

Eta osabaren historia kontatu zion Arkadik. Hurrengo kapituluan aurkituko du irakurleak.

VII

Pavel Petrovitx Kirsanov etxean hezi zuten hasieran, Nikolai anaia gaztea bezala, eta ikaste-txe militar berezi batean gero. Txikitatik, bere edertasun miragarriarengatik nabarmendu zen; gainera, uste handia zuen bere buruarengan, irrilari samarra zen, eta jostagarriri suminkorra: ezinezkoa gertatzen zen mutil hura gogoko ez izatea. Ofizial-mailara iritsi bezain laster, leku guztietan agertzen hasi zen. Begikotasunez eta losintxaz tratatzen zuten denek, eta berak apertak ematen zion guztia egiten zuen, are denetarikozorakeriak eta ziminokeriak ere; baina hori ere eder egiten zitzaion. Emakumezkoek burua galtzen zuten berarengatik, gizonezkoek putzontzizat zeukaten eta ezkutuko ondamua zioten. Lehenago esan dugunez, denboraldi batez egoitza batean bizi izan zen anaiarekin. Zinez maite zuen anaia, haren antzik batere ez zuen arren. Nikolai Petrovitx herren-antzean ibiltzen zen, haren hazpegiak xumeak eta atseginak ziren, baina goibel samarrak, begi beltz txikiak zituen,

eta ile urri, leuna; atsegin zitzaion nagitasuna, baina baita irakurtzea ere, eta herabe zen gizarteko bizitzarako. Pavel Petrovitxek ez zuen arrats bat bera ere igarotzen etxean, ospetsua zen bere bizkortasun eta ausardiarengatik (modan jarri zuen gimnastika gazte munduzaleen artean) eta guztira bospasei liburu frantses irakurri zituen. Hogeita zortzi urte bete zituenerako, kapitaina zen, eta etorkizun distiratsua zeukan aurrean. Bat-batean, ordea, dena aldatu zen.

Garai hartan, oraindik ahaztu ez duten emakume bat agertzen zen noizean behin Petersburgeko gizartean: R. printzesa. Haren senarra erazkoa eta heziketa onekoa zen, baina inozoa, eta ez zuten haurrik. Andrea, berriz, bat-batean atzerrira joaten zen, bat-batean Errusiara itzultzen zen, oro har bizimodu bitxia zeraman. Irtirina eta zentzu gutxikoa zelako ospea zuen, grina biziz ematen zen mota guztietako plazerretara, indarrak ahitzeraino dantzatzen zen, barreak eta txantxak egiten zituen gazteekin —bazkaldu aurretik argitzalean hartzen baitzituen egongelana—, eta gaua negarrez eta otoitzean ematen

zuen, ez zuen inon sosegurik aurkitzen eta, sarri askotan, eguna argitu arte atzera-aurrera ibiltzen zen gelan barrena, eskuak tristuraz bihurritzen zituela, edo eseririk egoten zen, guztiz zurbil eta hotz, salmo-liburua eskuan. Argitzen zuen eguna, eta dama munduzale bihurtzen zen berriro, jaietara joaten zen berriro, barre egiten zuen, berriketan aritzen zen, eta oldarrean abiatzen zen edonolako atseginik ekar ziezaiokeen guztia-
ren bila. Harrigarriro lerdena zen; urre koloreko txirikorda bat zuen, urrea bezain astuna, belau-
nak baino beherago iristen zitzaiona, baina inork ez zuen esango emakume polita zenik; aurpe-
gian, begiak zituen gauza eder bakarra, edo, hobeto esan, ez begiak berak —txikiak eta grisak baitziren—, haien begirada baizik, begirada enigmatiko hura, lasterra eta sakona, ausardia-
raino axolagabea eta malenkoniarraino pentsako-
rra. Ohiz kanpoko zerbaitek distiratzen zuen begirada hartan, are mihiak solasik hutsalenak aletzen zituenean ere. Oso dotore janzten zen. Pavel Petrovitxek dantzaldi batean ezagutu zuen, mazurka bat dantzatu zuen berarekin, eta kartsuki maitemindu zen, dantza-saioan hark

zentsuzko hitz bat ere esan ez zion arren. Nagusitzeraz ohiturik zegoenez, bertantxe erdietsi zuen bere helburua; baina garaipenaren berehalakotasunak ez zion barruko sua moteldu. Aitzitik, lokarri are mingarriago eta estuago batez lotu zitzaion emakume hari, zeinaregan, are inolako oztoporik ematen zenean ere, zerbait ezkurtukoa eta helezina geratzen baitzen, eta ez zegoen hara irits zitekeen gizakirik. Jainkoak daki zer ote zegoen arima haren sakonean! Bazirudien indar gorde eta are berarentzat ezezagun batzuen mende zeukala; nahierara gobernatzen zuten; haren adimen urriak ezin zituen bridatu indar haien gurariak. Haren jokabidea zeharo aldakorra eta zentzugabea zen. Senarrarengan susmo arrazoizkoak sor zitzaketen gutun baka-rrak gizon berarentzat alde-aldean arrotz bati idazten zizkion, baina maitasun hark tristura eragiten zion: harrezkero ez zuen barrerik ez txantxarrik egiten bere bihotzekoarekin, eta nahasirik entzun eta begiratzen zion. Noizean behin, tupustean gehienetan, nahasmedu hori izulaborri hotz bihurtzen zitzaion; haren aurpegiak hilotzen zurbiltasuna hartzen zuen, halako aire

basati batekin batera; bere logelan ixten zen, eta neskameak, belarria sarrailan jarririk, haren negar-zotin sorrak entzun zitzakeen. Behin baino gehiagotan, maitearekin egon ondoren etxera itzultzean, Kirsanovek halako haserre sakon eta mingots bat sentitzen zuen bihotzean, behin betiko porrotaren ondotik sentitzen den haserre hori, alegia. «Zergatik maite dut oraindik?», galdetzen zion bere buruari, bihotza erdibiturik. Behin, harrian esfinge bat zizelaturik zeukan eraztun bat egin zion opari.

— Zer da hau? —galdetu zuen printzesak—. Esfinge bat?

— Bai —erantzun zion—, eta esfinge hau zeu zara.

— Ni? —galdetu zion hark, eta astiro jaso zuen berarenganantz bere begirada enigmatikoa—. Badakizu hau oso lausengarria dela? —erantsi zuen, adierazkortasunik gabeko irribarretxoak eginez eta begiek ohiko modu bitxian begiratzen ziotela.

Pavel Petrovitxek neke latzak igaro zituen are R. printzesak maite zuenean ere, baina haren baitan maitasuna iraungi zenean, eta luzaro

gabe gertatu zen hori, zoratzeko puntuak egon zen. Jeloskortasunak oinazeturik, ez zion bakerik ematen, orpoz orpo jarraitzen zion leku guztietara; gogaitu egin zen R. printzesa hain jazarpen itogarriaz, eta atzerrira joan zen. Pavel Petrovitxek erretiroa hartu zuen, lagunaren aholkuei jaramonik egin gabe, agintarien eskariei entzungor, eta printzesaren atzetik abiatu zen; lau urte eman zituen erresuma arrotzetan, noiz haren aztarnei jarraituz, noiz ikusmenetik galdu nahirik; lotsatu egiten zen bere buruaz, haserretu egiten zen hain koldarra izateagatik... baina ezin bestela jokatu. Sakonegi erroturik zeukan ariman haren irudia, irudi ulertezin, ia zentzugabe baina liluragarri hura. Behin, Baden-en, hasierakoan antzeko harremanak izan zituen berriro berarekin; bazirudien R. printzesak sekula ez zuela hain kartsuki maitatu... baina handik hila-betera amaiturik zegoen dena: sua, azken aldiz piztu, eta betiko itzali zen. Elkarrengandik bereiztea saihestezina zela sumatuz, behinik behin haren adiskide izaten jarraitu nahi izan zuen, horrelako emakume baten kasuan adiskidetasun soila ahalezkoa balitz bezala... R. prin-

tzesa isilgordean joan zen Badenetik, eta orduz geroztik etengabe ihes egiten zion Kirsanovi. Errusiara itzuli zen Pavel Petrovitx, garai batean bezala bizitzen saiatu zen, baina ezinezkoa gertatu zitzaion berriro ere lehengo bizimodu hura eramatea. Pozoiturik balego bezala, nora gabe ibiltzen zen leku batetik bestera; jaietara joaten zen, gizon munduzalearen ohitura guztiak atxiki zituen; beste bizpahiru garaipenez harrotu ahal izan zen; baina jadanik ez zuen ezer berezirik espero ez bere buruarengandik ez besteengandik, eta ez zion ezeri ekiten. Zahartu egin zen, urdindu egin zitzaion ilea; ezinbesteko bilakatu zitzaion arratsak klubean eseririk igarotzea, erresumindurik aspertzea, ezkongabeekin axolagabeki eztabaidatzea, eta, jakina denez, zantzu txarra da hori. Esan gabe doa ezkontzea ez zitzaiola bururatu ere egiten. Hamar urte joan ziren horrela, ilaun, antzu eta azkar, izugarri azkar. Denbora inon ez da Errusian bezain azkar igarotzen; diotenez, espetxean are lasterrago joaten da. Behin batean, bazkaritan, klubean, R. printzesa hil zela jakin zuen Pavel Petrovitxek. Parisen zendu zen, burua zorotasunetik hurbil

zeukala. Mahaitik altxatu, eta luzaz ibili zen klubeko geletan barrena, noizean behin karta-jokalarien alboan gelditzen zela, oinak lurrari josirik, harri eta zur eginik balego bezala; hala ere, ez zen ohi baino lehenago etxeratu. Handik gutxira, bere helbidea zeukan pakete bat jaso zuen: printzesari oparituriko eraztuna zegoen barruan. Gurutze bat ageri zen esfingearen gainean, eta printzesaren aginduz esan zioten gurutze hori zela enigmaren giltza.

48 urtearen hasieran gertatu zen hori, Nikolai Petrovitx, emaztea galdu ondoren, Petersburgera joan zen garaian, alegia. Herrixkan kokatu zenetik, Pavel Petrovitxek oso gutxitan ikusi zuen anaia: Nikolai Petrovitxen ezkontza Pavel Petrovitxen eta printzesaren arteko harremanen hasierako egunekin egokitu zen. Atzerritik itzultakoan, anaiaren etxera joan zen, pare bat hila-betez geratzeko asmoz, haren zorionaren miresle, baina aste bat soilik eman zuen han. Alde handiegia zegoen bi anaien egoeren artean. 48 urtean gutxitu egin zen alde hori: Nikolai Petrovitxek emaztea galdu zuen, Pavel Petrovitxek bere orotzapenak galdu zituen; printzesa hil

enez geroztik, harengan ez pentsatzen ahale-
gintzen zen. Nikolaik, hala ere, bizitza zuzen
bideratu zuelako sentimendua gordetzen zuen
bere baitan, eta semea beraren begien aurrean
hazten zen; Pavel, aldiz, ezkongabe eta bakarrik,
bihozmina itxaropenaren antzekoa eta itxarope-
na bihozminaren antzekoa izaten den sasoi
zehazgabe eta ilun horretan zegoen, gaztaroa
amaitu eta zahartzaroa oraindik hasi ez den
sasoi horretan, alegia.

Sasoi hori beste inorentzat baino latzagoa
gertatu zen Pavel Petrovitxentzat: iragana gal-
tzean, dena galdu zuen.

— Ez haut orain Marinora gonbidatuko —esan
zion behin Nikolai Petrovitxek (emaztearen ome-
nez jarri zion izen hori herrixkari)—; lehen, emaz-
tea bizi nuenean, aspertu egiten hintzen han,
eta orain, inondik ere, asperraren asperraz hilko
hintzateke.

— Garai hartan ergela eta urduria ninduan
artean —erantzun zuen Pavel Petrovitxek—,
harrezkerostik, zentzatu ez banaiz ere, lasaitu
egin nauk behintzat. Orain, eragozpenik ez
baduk, prest nagok hirean betiko geratzeko.

Nikolai Petrovitxek, erantzun ordez, besarkatu egin zuen; baina urtebete eta erdi igaro zen elkarrizketa hartatik, Pavel Petrovitx bere asmoa burutzeraz erabaki zen arte. Hala ere, behin herrixkan kokaturik, ez zuen inoiz utzi, ezta Nikolai Petrovitxek semearekin batera Petersburgen eman zituen hiru negu haietan ere. Irakurtzeari ekin zion, ingelesez gehien bat; oro har, Ingalaterrako ereduaren arabera antolatu zuen bere bizitza osoa, gutxitan ikusten zituen auzolagunak eta hauteskundeetara joateko bakarrik irten zen etxetik, eta, irtenaldi bakan haietan ere, isilik egoten zen ia beti, noizean behin soilik lehengo era zaharreko lurjabeak amorrarazi eta ikaratzen zituen bere purrustada liberalekin eta inoiz ez zen inguratzen belaunaldi berriaren ordezkariengana. Eta hala batzuek nola besteek harrotzat zeukaten; eta hala batzuek nola besteek begirunea zioten, haren manera bikain, aristokratikoengatik, haren garaipenen ospearengatik, oso dotore janzten zelako eta ostaturik oneneko gelarik onena hartzen zuelako beti, ondo bazkaldu ohi zuelako eta behin Wellingtonen eta Luis Feliperen mahaikide izan zelako,

edonora zihoala ere zilarrezko nezeser bat eta bidaietarako bainu-ontzi bat eramaten zituelako aldean, ezohiko urrin «noble» zoragarri bat zeriolako, whistean maisutasunez jokatu arren beti galtzen zuelako; azkenik, bere prestutasun makulagabearengatik errespetatzen zuten. Damen iritziz, gogo iluneko gizon liluragarria zen, baina berak ez zuen harremanik izaten damekin...

— Horra, Jevgeni —esan zuen Arkadik, bere kontakizunari amaiera emateaz batera—, horra zein bidegabea den nire osabari buruz duan iritzia! Eta ez diat kontatu behin baino gehiagotan ezbeharretik atera duela aita, bere diru guztia emanik; beharbada, hik ez dakik ez dutela etxaldea erdi bana egin, baina pozarren laguntzen zioke edonori, eta, besteak beste, nekazarien alde egiten dik beti; egia esan, haiekin hitz egiten duenean, begitartea zimurtu eta Kolonia ura usaintzen dik...

— Jakina, nerbioak direla eta —eten zion Bazarovek.

— Balitekek, baina bihotz ezin zabalagoa dik. Eta ez duk batere ergela. Oso aholku zuhurrak

eman zizkidak... batez ere... batez ere emakumeekiko harremani dagokienez.

— Horratx! Ur beroz errea, hotzaren beldur. Bazekiagu horren berri!

— Hitz batean —jarraitu zuen Arkadik—, oso dohakabea duk, benetan; ez duk zuzena hura arbuiatzea.

— Eta nork arbuiatu du? —ihardetsi zuen Bazarovek—. Kontuak kontu, nire ustez, bere bizitza osoa emakumezkoen maitasunaren kartara jokatu eta, karta hori galtzen duenean, zabartu eta ezertarako gai ez izateraino abailtzen den gizonezkoa ez duk gizona, ez duk arra. Dohakabea dela diok: inondik ere, hik hobeto ezagutzen duk; baina ergeltasuna oraindik ez zaiok erabat ezabatu. Ziur nagok zentzuduntzat daukala bere burua, oso zentzuduntzat, zergatik eta Galiniashka irakurtzen duelako eta hilean behin mujik bat zigorretik salbatzen duelako.

— Baina gogoan izan haren heziketa, gogoan izan bizitzea egokitu zaion garaia —ohartarazi zuen Arkadik.

— Heziketa? —moztu zion Bazarovek—. Giza-banako orok bere burua hezi beharra zeukak,

nola edo hala, nire antzera bada ere, esatera-ko... Eta garaiari dagokionez, zergatik egon behar dut nik garaiaren mende? Hobe duk garaia nire mende egotea. Ez, adiskidea, hori guztia lasaikeria duk, hutsaltasuna! Eta zer dira gizon-emakumeen arteko harreman misteriozko horiek? Guk, fisiologook, bazekiagu zertan diren harreman horiek. Azter ezak begiaren anatomia: nondik atera duk begirada enigmatikoaren kontu hori? Hori guztia erromantizismoa duk, lelokeria, usteldura, artea. Hobe diagu kakalardoa ikustera joan.

Eta bi adiskideak Bazaroven gelara joan ziren, non ordurako medikuntza eta kirurgiako gaien usaina bazter guztietara hedaturik baitzegoen, tabako merkearen usainarekin nahasirik.

VIII

Pavel Petrovitx ez zen luzaz geratu anaiaren eta administratzailearen arteko solasaldia entzuten. Administratzailea gizaseme garai eta iharra zen, begi maltzurak zituen, eta biriketako gaitzak jotako ahots mehea, «Bai zera!, jakina!» esanez erantzuten zien Nikolai Petrovitxen oharpen guztiei, eta mujikak mozkor eta lapur gisa agerrarazten saiatzen zen. Etxaldeak, aspaldi gabe hasi baitziren era berrira gobernatzeko, kirrinka egiten zuen, koipeztu gabeko gurrupilaren antzera, karraska egiten zuen, zur hezez etxean eginiko altzariaren antzera. Nikolai Petrovitxek ez zuen adorea galtzen, baina, maiz aski, hasperen egin eta pentsakor geratzen zen: bazekien dirurik gabe ez zuela atarramendu onik aterako, baina ahituak zituen ia diru guztiak. Egia esan zuen Arkadik: Pavel Petrovitxek askotan laguntzen zion anaiari; sarritan, aurrera ateratzeko modua asmatu ezinik estu eta larri ikusirik, Pavel Petrovitx astiro hurbiltzen zen leihora, eta, eskuak sakeletan sarturik, hortz artean murdus-

katzen zuen: «*Mais je puis vous donner de l'argent*», eta dirua ematen zion; baina egun hartan ez zeukan sosik, eta aukeran nahiago izan zuen handik aldendu. Gogaikarri zitzaizkion etxaldeko auzi-mauziak; gainera, beti iruditzen zitzaion ezen Nikolai Petrovitxek, lanerako gogo eta kemen guztia gorabehera, ez zuela behar bezala gobernatzen etxaldea; hala ere, ez zukeen jakingo esaten zehatz-mehatz zertan egiten zuen huts Nikolai Petrovitxek. «Anaia ez duk oso praktikoa —egiten zuen bere artean—, engainatu egiten ditek.» Eta, alderantziz, Nikolai Petrovitxek uste osoa zuen Pavel Petrovitxen praktikasunean, eta aholku eskatzen zion beti. «Ni gizon biguna nauk, borondate ahulekoa, bazter leku honetan igaro diat bizitza osoa —esaten zion—; hi, ordea, luzaro bizi izan haiz gizartean, ondo ezagutzen duk jendea; arrano-begia daukak.» Pavel Petrovitxek, erantzun gisa, bizkarra ematen zion hitz horiek entzuten zituen bakoitzean, baina ez zuen anaiaren uste ona zapuzten.

Nikolai Petrovitx langelan utzirik, etxearen aurreko aldea atzekotik bereizten zuen korrido-

rean aurrera joan zen, eta, ate apal batera iritsirik, zalantzan gelditu, apur batean biboteari tiraka egon, eta deitu egin zuen.

— Nor da? Sartu —entzun zen Fenetxkaren ahotsa.

— Ni naiz —esan zuen Pavel Petrovitxek, eta atea ireki zuen.

Fenetxka ziplo altxatu zen semetxoarekin eroso eseririk zegoen aulkitik, eta, haurra neska-gazte baten besoetan utzirik, zeinak bertantxe atera baitzuen gelatik, buruzapia egokitu zuen itsumustuan.

— Barkatu eragozpenak —hasi zen Pavel Petrovitx, Fenetxkari begiratu gabe—, bakarrik eskatu nahi nizun... gaur, antza denez, hirira joatekoak dira... agindu te berdea eros diezadaten.

— Zure esanera —erantzun zuen Fenetxkak—. Zenbat erosi behar dute?

— Libra erdi aski izango da, nik uste. Ikusten dudanez, aldaketak egin dituzu hemen —erantsi zuen, inguruari begiratu azkar bat emanik eta lipar batez Fenetxkaren aurpegiari ere erreparatuz—. Errezelak —argitu zuen, Fenetxak ulertu ez ziola ikusirik.

— Bai, errezelak; Nikolai Petrovitxek oparitu dizkigu; baina aspaldi eseki nituen.

— Bai, aspaldion ez naiz hona etorri. Gela hau oso atsegina da orain.

— Nikolai Petrovitxi esker —xuxurlatu zuen Fenetxkak.

— Lehengo hegalean baino hobeto zaude hemen? —galdetu zuen Pavel Petrovitxek, giza-legez baina irribarrerik xumeena ere egin gabe.

— Horixe hobeto nagoela.

— Nor jarri dute orain zure lekuan bizitzen?

— Ikuzleak.

— Ah!

Isilik geratu zen Pavel Petrovitx. «Orain joango dun», pentsatu zuen Fenetxkak; baina ez zen joaten, eta bera zutik zegoen haren aurrean, lurrari iltzaturik bezala, atzamarrak geldoki mugituz.

— Zergatik agindu duzu haurra hemendik eramateko? —esan zuen azkenean Pavel Petrovitxek—. Nik gogoko ditut haurrak: erakuts ieza-dazu.

Goitik beheraino gorritu zen Fenetxka, aztoraturik eta pozik aldi berean. Beldur zion Pavel Petrovitxi, ez baitzion ia inoiz hitz egiten.

— Duniasha —egin zuen oihu—, ekar ezazu Mitia (Fenetxkak zuka egiten zien etxeko guztiei). Baina, ez, egon apur batean, soinekotxo jantzi behar diot.

Ate aldera abiatu zen Fenetxka.

— Berdin dio baina —ohartarazi zion Pavel Petrovitxek.

— Berehala itzuliko naiz —erantzun zuen Fenetxkak, eta lasterka irten zen gelatik.

Bakarrik geratu zen Pavel Petrovitx, eta oraingo honetan arreta handiz arakatu zuen ingurua. Gelatxo txiki eta sabai apaleko hura oso txukuna eta atsegina zen. Zoru margotu berriaren, kamamilaren eta garraiskaren usaina zerion. Bizkarraldea lira-formakoa zuten hainbat aulki ageri ziren hormaren luze osoan; Polonian erosi zituen jeneral zenak, gerra-denboran; zoko batean ohe txiki bat nabarmentzen zen, museliazko errezel batez babesturik, estalki biribileko kutxa burdinurtuzko bat aldamenean; gelaren beste aldean argitxo bat zegoen pizturik Nikolai

Mirarigilearen irudi ilun eta handi baten aurrean; santuak portzelanazko arrautzatxo bat zeukan bularrean, argi-koroari loturiko xingola gorri batetik esekirik; leihoetan, berriz, aurreko urteko konfiturez beteriko poto batzuk zeuden, kolore berde gardenekoak, ardura handiz lotuak; estalkietako papertxoetan Fenetxkak berak idatzia zuen, letra handiz, «Andere-mahatsa»; Nikolai Petrovitxek horixe zuen konfiturarik gogokoena. Sabai azpian, lokarri luze batetik zintzilik, kaiola bat zegoen, txonta buztan-labur batekin; txoria txioka eta jauzika aritzen zen denbora guztian, eta kaiolak dar-dar eta zabu egiten zuen orobat denbora guztian; kalamu-haziak lurrera erortzen ziren hots txikiak ateraz. Leihoen arteko horman, komoda txiki baten gainean, Nikolai Petrovitxi jarrera desberdinetan eginiko argazki-potret batzuk zeuden esekirik, txar samarrak denak, artista ibiltari batek eginak; leku berean, Fenetxkaren beraren argazki guztiz txar bat zegoen: halako aurpegi begirik gabe batek irribarre egiten zuen, gogoz bestera, marko ilunaren barruan, besterik ezin bereiz zitekeen han; eta Fenetxkaren gainean, Jermolov jenerala, burka

batez jantzirik, zemaikor eta bekozko ilunez Kaukasoko mendi urrunetara begira, zapatatxoforma zuen orratz-zorro sedazko baten azpitik, bekokiaren aurre-aurrean zintzilik baitzeukan.

Bost minutu inguru igaro ziren; zurrumurru eta marmarioak entzuten ziren aldameneko gelan. Pavel Petrovitxek liburu koipetsu bat hartu zuen komodaren gainetik, Masalskiren *Tiratzaileak* obraren ale bat hain zuzen; orri batzuk irauli zituen... Atea ireki, eta Fenetxka sartu zen. Mitia zekarren besoetan, lepo gogorreko alkandoratxo gorri batez jantzirik, iletxoak orrazturik eta aurpegia xukaturik; haurrak nekez hartzen zuen arnasa, gorputz osoa mugitu eta eskutxoei eragiten zien, haur osasuntsu guztiek egiten duten bezala, baina, nabari zitzaionez, alkandoratxo dotoreak bere eragina izan zuen: haurraren gorputz mardulak atsegintasuna agertzen zuen alde guztietan. Fenetxkak txukun orrazturik zeukan bere ilea ere, eta hobeto jantzirik buruzapia; baina lehen bezalaxe gera zitekeen. Izan ere, ba al da munduan ezer xarmagariagorik haur osasuntsu bat besoetan daukan ama gazte eder bat baino?

— Bai haur osasuntsu eta potoloa —esan zuen, etorkor, Pavel Petrovitxek, eta hatz erakusleko azazkal luzearen muturraz kili-kili egin zion Mitiari kokots bikoitzean; haurrak txontan josi zituen begiak, eta barrez hasi zen.

— Hau osaba duzu —esan zion Fenetxkak, aurpegia beheraturik eta haurra leunki astinduz; bitartean, Duniashak, ezer esan gabe, usain gozoko kandela piztu bat ipini zuen leihoan, txanpon baten gainean.

— Zenbat hilabete ditu? —galdetu zuen Pavel Petrovitxek.

— Sei; laster egingo ditu zazpi, hilaren hamaikan.

— Ez dira zortzi izango, Fedosia Nikolaievna? —sartu zen tartean Duniasha, ez lotsarik gabe.

— Ez, zazpi; horrelakorik esatea ere!

Haurra barrez hasi zen berriro, begiak kutxan jarri eta, bat-batean, sudurretik eta ezpainetatik heldu zion amari eskuko bost atzamarrekin.

— Bihurritxo hori —esan zion Fenetxkak, aurpegia haurraren atzamarretatik aldendu gabe.

— Nire anaiaren antza du —ohartarazi zuen Pavel Petrovitxek.

«Norena izan behar zuen, bada?», pentsatu zuen Fenetxkak.

— Bai —jarraitu zuen, bere buruarekin ari balitz bezala, Pavel Petrovitxek—, antz nabarmena.

Arretaz, ia tristuraz begiratu zion Fenetxkari.

— Hau osaba duzu —errepikatu zuen hark, baina ahapeka orain.

— Ah! Pavel! Hemen haiz! —entzun zen tupustean Nikolai Petrovitxen ahotsa.

Pavel Petrovitxek, ziplo jiratu, eta bekozko iluna jarri zuen; baina hain poz eta esker on handiz begiratzen zion anaiak, ezen irribarre batekin erantzun behar izan baitzion ezinbestean.

— Ederra hire semetxoa —esan zuen, eta erlojuari begiratu zion—, tea dela eta etorri nauk hona...

Eta, aurpegiera axolagabea jarririk, bertan-txe irten zen gelatik Pavel Petrovitx.

— Bere kabuz etorri da? —galdetu zion Fenetxkari Nikolai Petrovitxek.

— Bai; atea jo eta sartu egin da.

— Eta Arkasha ez da hemen izan berriro?

— Ez. Ez nuke lehengo hegalaria itzuli behar, Nikolai Petrovitx?

— Zergatik?

— Agian hobe litzateke, aurreneko egunotan.

— E... ez —esan zuen, zalantzan, Nikolai Petrovitxek, eta bekokia igurtzi zuen—. Lehenik eta behin... Kaixo, mutiko —atera zitzaion, bat-batean zuzpurturik, eta, haurraren gaur hurbildurik, musu eman zion masailan; gero, doi bat makurtu, eta ezpainak Fenetxkaren eskuan ipini zituen, zeina esnea bezain zuri ageri baitzen Mitiaren alkandoratxo gorriaren alboan.

— Nikolai Petrovitx! Zer ari zara? —esan zuen, totalka, eta begiak apaldu zituen, astiro jaso zituen gero... Xarmagarria zen haren begirada, noiz eta zeharka-antzean begiratu eta irribarre samur eta doi bat lañoa egiten baitzuen.

Nikolai Petrovitxek honela ezagutu zuen Fenetxka. Behinola, hiru urte lehenago, gau egin behar izan zuen hiri urrun bateko ostatuan. Txunditurik utzi zuten han eman zioten gelaren txukunak eta oheko izaren garbiak. «Alemaniarra ote da ostatu honetako ugazabandrea?», egin zuen bere artean. Baina ugazabandrea

errusiarra zen, berrogeita hamar bat urtekoa, janzkeraz apaina, aurpegi atseginekoa, ernea eta mintzo zuhurrekoa. Tea hartzen zuen bitartean, hizketan aritu zen berarekin; biziki gustatu zitzaion. Nikolai Petrovitx garai hartantxe aldatua zen etxalde berrira, eta, bere mendean jopujenderik nahi ez zuenez, soldatapeko bila zebilen; ugazabandrea, bere aldetik, kexu zen hiritik igarotzen ziren bidaiarien urriaz eta garaiaren latzaz; Nikolai Petrovitxek bere etxean lan egitea proposatu zion, administratzaile gisa; ugazabandreak baiezkoa eman zion. Aspaldi hil zitzaion senarra, alaba bakarra utzirik, Fenetxka hain zuzen. Bi aste geroago, Arina Savishna (horrela zeritzon administratzaile berriari) Marinora iritsi zen alabarekin batera, eta etxe-hegalean kokatu ziren biak. Nikolai Petrovitxen hautaketa ezin egokiagoa gertatu zen. Arinak ordena ezarri zuen etxean. Fenetxkaz, zeinak hamazazpi urte bete baitzituen orduan, inork ez zuen hitz egiten, eta oso gutxitan ikusten zuten: bizimodu eratsu eta apala zeraman, eta igandeetan soilik ikusten zuen Nikolai Petrovitxek haren aurpegi zuriaren

soslai fina, elizan, baztertxo batean. Urte bat baino gehiago igaro zen horrela.

Goiz batean, Nikolai Petrovitxen langelan agertu zen Arina, eta, ohi zuenez kilimusi handia eginik, galdetu zion ea alabari laguntzerik bazeukan, estufako txinpart bat erori baitzitzaion begian. Nikolai Petrovitx, etxezale guztiak bezala, sendagintzan aditua zen, eta homeopatiako sendagai-kutxa bat ere bazeukan etxean. Bertantxe agindu zion Arinari gaixoa ekar ziezaien. Fenetxka oso beldurtu zen nagusi jaunak beregana deitzen ziola jakin zuenean, baina, hala ere, amarekin joan zen. Nikolai Petrovitxek leihora hurbildu zuen eta burua hartu zion bi eskuekin. Haren begi gorritu eta handitu hura ondo aztertutakoan, kolirio bat agindu zion, baita berak hantxe bertan prestatu ere, eta, bere sudurzapia zatiturik, nola hezetu behar zuen erakutsi zion. Fenetxkak, hark esandako guztia entzun, eta joatera egin zuen. «Muin egiozu eskuan nagusi jaunari, tentel horrek», esan zion Arinak. Nikolai Petrovitxek ez zion eskua eskaini, eta, urduri, berak eman zuen musua, neskaren buru makurtuan, artesian. Fenetxkari

laster sendatu zitzaion begia, baina Nikolai Petrovitxengan eragin zuen zirrara ez zen behingoan ezabatu. Une oro agertzen zitzaion aurrean aurpegi garbi, samur, herabetasunez doi bat jaso hura; ile leun haiek sumatzen zituen eskuahurren azpian, hortxe ikusten zituen ezpain aratz, doi-doia ireki haiek, zeinen atzean hortz perlakarek heze distirutzen baitzuten eguzkitan. Orduz geroztik, arreta handiz begiratzen zion elizan, berarekin hitz egiten saiatzen zen. Fenetxkak ihes egiten zion hasieran, eta behin batez, ilunabarrean, oinezkoek zekale-soroetan urratu-riko bidezidor mehar batean berarekin topo egin zuelarik, zekale garai sarrian ezkutatu zen, asentsio-belar eta nabar-lore hazien artean, begiz jo ez zezan soilik. Nikolai Petrovitxek haren burutxo atzeman zuen zekaleburuek osaturiko sare urrekarak zehar, handik begira baitzeukan, basapiztitxo baten antzera, eta gozoki oihukatu zion:

— Kaixo, Fenetxka! Nik ez dut hozka egiten.

— Kaixo! —murmurikatu zuen neskak, bere gordelekutik irten gabe.

Fenetxka, arian-arian, harengana ohituz joan zen, baina, artean ere haren presentzian kikiltzen zelarik, ama hil zitzaion ustekabean, kole-rak jota. Zer gertatuko ote zen Fenetxkarekin? Ganora, zentzua eta ordenaren alderako zaletasuna heredatu zituen amarengandik; baina hain zen gaztea, hain zegoen bakarrik; Nikolai Petrovitx hain zen ona eta apala... Gainerakoak ez du azalpenik behar...

— Beraz, anaia zu ikustera etorri da? —galdetu zion Nikolai Petrovitxek—. Atea jo eta sartu egin da?

— Bai.

— Ondo dago hori. Emadazu Mitia, kulunkatu egingo dut.

Eta Nikolai Petrovitx hortxe hasi zen gorantz jaurtitzen, ia sabairaino bertaraino, haurtxoaren atsegin handirako eta amaren larritasun ez txikiagorako, hegaldi bakoitzean besoak luzatzen baitzituen haren oin biluzietarantz.

Pavel Petrovitx bere langelan zegoen berriro, zeina oso dotorea baitzen: kolore biziko paper polita hormetan, hainbat arma Pertsiaiko tapiz ñabar batean esekirik, intxaur-zurezko altzari

oihal berde ilunez jantziak, haritz-zur beltz zaharrez eginiko liburutegi renaissance bat, brontzezko estatuatxoak idazmahai guztiz ederraren gainean, tximinia... Dibanaren gainera abaildu, eskuak buruaren atzean jarri, eta geldirik geratu zen, ia etsipenez sabaiari begira. Zela hornei berei ezkutatu nahi zielako aurpegian gertatzen zitzaiona, zela beste arrazoiren batek eraginik, kontua da dibanetik jaiki, leihoko errezel astunak hedatu eta berriro amildu zela dibanean.

IX

Egun horretan bertan, Fenetxkaren ezaupidea egin zuen Bazarovek ere. Lorategian zebilen Arkadirekin batera, eta azaltzen ari zitzaion zergatik zuhaitz batzuk, bereziki haritz gazteak, ez ziren errotu.

— Hemen, makalak landatu behar dituk, eta izeiak, eta, agian, ezkiak ere bai, lur beltza gehiturik. Horko itzaltegi hori ondo hazi duk —erantsi zuen— akaziak eta lilak landare zintzoak direlako, ez zegok zaindu beharrik. Bah! Baina hor baduk norbait.

Fenetxka itzaltegian eseririk zegoen Dunias-ha eta Mitiarekin batera. Gelditu egin zen Bazarov, eta Arkadik, berriz, buru-mugimendu batez agurtu zuen Fenetxka, aspaldiko laguna balu bezala.

— Nor da? —galdetu zion Bazarovek, handik urrundu eta berehala—. Zein polita den!

— Nortaz ari haiz?

— Argi zegok: bat bakarra zuan polita.

Arkadik, ez aztoramenik gabe, hitz gutxitan azaldu zion nor zen Fenetxka.

— Hara! —egin zuen Bazarovek—. Hire aitak, bistan denez, bazekik egokierez baliatzen. Atsegin zaidak hire aita, alajaina! Gizon jatorra duk. Baina ezagutu beharra zeukaat —erantsi zuen, eta itzaltegirantz joan zen atzera.

— Jevgeni! —egin zion oihu Arkadik atzetik, beldurrez—. Tentuz ibili, Jainkoarren.

— Ez kezkatu —esan zuen Bazarovek—, eskarmentu handia zeukaagu guk, hirian bizi izan gaituk.

Fenetxkaren parera iristean, kapela erantzi zuen.

— Utz iezadazu neure burua aurkezten —hasi zen, adeitasunezko kilimusia eginez—, Arkadi Nikolaitxen adiskidea nauzu, eta gizon baketsua.

Fenetxkak, jarlekutik doi-doia altxatu, eta isilik begiratu zion.

— Bai haur zoragarria! —jarraitu zuen Bazarovek—. Ez larritu, oraindik ez diot begizkorik egin inori. Zergatik dauzka hain gorri masailak? Hortzak ateratzen ari zaizkio, ala?

— Bai —erantzun zuen Fenetxkak—, lau hortz atera zaizkio jadanik, eta orain berriro dauzka handiturik oiak.

— Utzi ikusten... ez izan beldur, sendagilea naiz.

Bazarovek besoetan hartu zuen haurra, zeinak, Fenetxkaren eta Duniasharen harridurarako, ez baitzion inola ere gogor egin, ezta izurik agertu ere.

— Ikus dezagun, ikus dezagun... Arazorik ez, behar bezala dago dena: hortz ederrak izango ditu. Zerbait gertatzen bazaio, jakinaraz iezadazu. Eta zu, ondo zaude osasunez?

— Bai, Jainkoari eskerrak.

— Jainkoari eskerrak, bai, sari hoberik ez dago. Eta zu? —erantsi zuen Bazarovek, Duniasharenganantz jiraturik.

Duniashak, etxean oso serioa eta kalean irri-zalea baitzen, barre egin zuen erantzun gisa.

— Ederto. Hartu zeure bogatira.

Fenetxkak besoetan hartu zuen haurra.

— Zein lasai egon den zurekin —esan zuen, ahapetik.

— Nirekin haur guztiak egoten dira lasai —
erantzun zuen Bazarovek—. Badakit nola jokatu
behar den haiekin.

— Hurrek sumatu egiten dute nork maite
dituen —ohartarazi zuen Duniashak.

— Hala da, bai —baietsi zuen Fenetxkak—.
Mitia, esaterako, inola ere ez da joaten besteren
besoetara.

— Nireetara ere ez? —galdetu zuen Arkadik,
apur batean urrun egon ondoren itzaltegiara hur-
bildu zelarik.

Besoetan hartzeko keinua egin zion Mititari,
baina Mitia, burua atzera bota, eta mainak egi-
ten hasi zen, eta horrek zeharo nahasirik utzi
zuen Arkadi.

— Beste egun batean hartuko dut, ohitzen
zaidanean —esan zuen, eramankor, Arkadik, eta
han joan ziren bi adiskideak.

— Nola du izena? —galdetu zuen Bazarovek.

— Fenetxka... Fedosia —erantzun zuen Arka-
dik.

— Eta patronimikoa? Hori ere jakin beharra
dago.

— Nikolaievna.

— Bene. Gustatu egin zaidak, ez baita lar aztoratu. Beste batek, beharbada, gaitzetsi egingo likek berezitasun hori. Zentzugabekeria handiagorik! Zergatik aztoratu? Ama duk, eta zuzen zegok.

— Zuzen zegok, bai —esan zuen Arkadik—, baina horra nire aita...

— Bera ere zuzen zegok —eten zion Bazarovek.

— Ez, nik ez diat horrela uste.

— Inondik ere, ez zaik atsegin beste oinordeko bat izatea.

— Ez dik lotsarik ematen niri horrelako pentsamendurik egozteak? —esan zuen Arkadik, sutsuki—. Nire iritziz, aita ez zegok zuzen, baina ez ikuspuntu horretatik; uste diat ezkondu egin beharko lukeela berarekin.

— Horratx! —esan zuen Bazarovek, patxada-tsu—. Bai gogo-zabalak, gu! Oraindik ere garrantzia ematen diok ezkontzeari; ez nian hiregandik horrelakorik espero.

Bi adiskideek isilik egin zituzten urrats batzuk.

— Goitik behera aztertu diat hire aitaren etxaldea —ekin zion berriro Bazarovek—. Abereak txarrak dituk, eta zaldiak leher eginik zeudek. Eraikuntzak ere kaxkarrak dituk, eta langileak zorria baino alferragoak iruditu zaizkidak; eta ez zekiat administratzailea ergela ala maltzurra den, oraindik ez zioat ondo erreparatu.

— Zorrotza hago gaur, Jevgeni Vasilitx.

— Are mujik onek ere iruzur egiten ziotek hire aitari, ondo egin ere. Badakik zer dioen esaera zaharrak: «Mujik errusiarra Jainkoa bera irenste-ko gai».

— Osabarekin bat etortzen hasiko nauk —ohartarazi zion Arkadik—, iritzi txarra duk errusiarroz.

— Hara bestea! Errusiarrek gauza bakarra dik ona: bere buruaz duen iritzi ezin txarragoa. Bi eta bi lau direla duk garrantzizkoa, gainerako guztia huskeria duk.

— Natura ere huskeria da? —esan zuen Arkadik, pentsakor urrunera begira, zelai ñabarretara, eguzki jadanik behera etorriak eder eta motel argiturik baitzeuden.

— Bai, natura bera ere huskeria duk, hik ematen dioan zentzuan. Natura ez duk tenplua, lantegia baizik, eta gizakia, berriz, horko behargina.

Une horretantxe, biolontxelo baten soinu astiroa iritsi zitzaien etxetik. Norbait Schubert-en *Itxarotea* jotzen ari zen, sentimenduz baina esku antzegabez, eta melodia atsegin hura gozoki hedatzen zen airean.

— Nor da? —galdetu zuen Bazarovek, txunditurik.

— Aita.

— Hire aitak biolontxeloa jotzen du?

— Bai.

— Baina zenbat urte ditu?

— Berrogeita lau.

Bazarov barre-algaraka hasi zen tupustean.

— Zeri egiten diok barre?

— Barkatu! Berrogeita lau urteko gizon bat, *pater familias*, bazter leku honetan, biolontxeloa jotzen!

Bazarovek barrez jarraitu zuen; Arkadik, aldiz, bere maisua zinez miresten zuen arren, oraingoan ez zuen irribarrerik ere egin.

X

Bi aste inguru igaro ziren. Bizitza ohiko bide-tik zihoan Marinon: Arkadi sibaritarren antzera bizi zen, Bazarovek lan egiten zuen. Etxeko guz-tiak, ordurako, ohiturik zeuden haren izaerara, haren manera zabarretara, haren mintzo urri eta etenera. Batez ere Fenetxka hain ondo etortzen zen berarekin, ezen, gau batean, esna zezaten agindu baitzuen: gorputz-ikarak zituen Mitiak; joan zen Bazarov haren gelara, eta, ohi bezala erdi txantxetan erdi aharrausika, bi ordu eman zituen han, haurra zaintzen. Pavel Petrovitxek, aldiz, bere arimako indar guztiekin gorrotatzen zuen Bazarov, harroputz, lotsagabe, ziniko eta plebeiutzat baitzeukan; susmatzen zuen ezen Bazarovek ez ziola inolako begirunerik eta, beharbada, arbuiatu ere egiten zuela, nor eta bera, Pavel Kirsanov! Nikolai Petrovitxek nola-baiteko beldurra zion «nihilista» gazteari, eta ez zuen uste eragin onik izango zuenik Arkadirengan; baina gogo onez entzuten zion, gogo onez izaten zen fisika eta kimika arloan egiten zituen

saioen lekuko. Bazarovek mikroskopio bat ekarria zuen berekin, eta orduak ematen zituen handik begira. Mirabeak ere haren adiskide egin ziren, nahiz eta berak haien lepotik barre egiten zuen noizean behin: haiek, nolana ere, sumatzen zuten beretar zutela, ezen ez jaun. Dunias-hari, atsegin zitzaion berarekin barre egitea, eta begirada adierazkorrak egozten zizkion begi-ertzetik, «galepertz» baten antzera haren inguruan hara-hona ibiliz; orobat Piotr, beti kopetazimur egoten zen gizon izugarri buruiritzi eta inozoa bera, zeinak adeitasunez begiratzea, silabaka irakurtzea eta bere jakatxoa eskuila txiki batez sarri garbitzea beste tasunik ez baitzuen, maltzurki irribarre egin eta biziki alaitzen zen Bazarovek arretarik jartzen zion bakoitzean; herrixkako mutikoak lasterka ibiltzen ziren beti «doktorearen» atzetik, zakurtxoak bailiran. Prokofitx zaharrak soilik ez zuen gogoko Bazarov, bekozko ilunez jartzen zion janaria mahai gainean, «larrutzailea» eta «alproja» deitzen zion, eta belarrondoko bizar haiekin zerri zikina ematen zuela esaten zuen. Prokofitx, bere erara, Pavel Petrovitx bezain aristokrata zen.

Iritsi ziren urteko egunik onenak, esan nahi baita, ekaineko lehen egunak. Eguraldia ederra zen; hori bai, kolerak mehatxu egiten zuen urrutetik, baina probintzia hartako biztanleak ohiturik zeuden haren bisitetara. Bazarovek, oso goiz jaiki, eta bi edo hiru verstako bidea egiten zuen egunero, ez paseatzeko —ezin jasan zitzakeen helbururik gabeko ibilaldiak—, ezpada belarrak eta intsektuak biltzeko. Batzuetan, Arkadi eramaten zuen lagun. Itzuleran, eztabaidan jardun ohi zuten biek, eta Arkadi irten ohi zen galtzaile, lagunak baino gehiago hitz egiten zuen arren.

Behin batean, asko berandutu zitzaien; Nikolai Petrovitx haien bila atera zen lorategira, eta, itzaltegira iritsi zenean, bi gazteen ahotsak eta urrats lasterrak entzun zituen ustekabean. Itzaltegiaren beste aldean zebiltzan eta ezin zuten bera ikusi.

— Hik ez duk ondo ezagutzen nire aita — zioen Arkadik.

Ezkutatu egin zen Nikolai Petrovitx.

— Ona duk hire aita —esan zuen Bazarovek—, baina gizon erretiratua duk, harenak egin dik.

Nikolai Petrovitxek belarriak zorroztu zituen... Arkadik ez zuen ezer erantzun.

«Gizon erretiratu» pare bat minutuz egon zen hantxe geldirik, eta astiro itzuli zen etxera.

— Herenegun ikusi nuenez, Pushkin irakurtzen dik —jarraitu zuen Bazarovek—. Azaliezaiok, mesedez, horrek ez duela ezertarako balio. Ez duk umea: badik garaia burugabekeria horiek baztertzeko. Gaur egun erromantikoak gogoko izatea ere! Emaiok irakurtzeko zerbait praktikoa.

— Zer eman niezaioke? —galdetu zuen Arkadik.

— Aurrena, Büchner-en *Stoff und Kraft*, esaterako.

— Bat natorrek hirekin —onetsi zuen Arkadik—. *Stoff und Kraft* herri-hizkeran idatzirik zegok.

— Horrenbestez —ziotson egun horretan bertan, bazkalostean, Nikolai Petrovitxek anaiari, haren langelan eseririk zegoela—, hi eta biok gizon erretiratuak gaituk, gureak egin dik. Zer egingo zioagu! Beharbada, arrazoi dik Bazarovek; baina, aitor diat, niri gauza bat bakarra zai-

dak mingarri: espero nian ezen, hain zuzen ere orain, harreman estu eta adiskidetsuak izango nituela Arkadirekin, eta gertatu duk ni atzean geratu naizela, berak aurrera egin duela eta ezinezko zaigula elkar ulertzea.

— Zertan egin du aurrera? Eta nondik nora da guregandik hain desberdina? —egin zuen oihu Pavel Petrovitxek, egonezinik—. *Seigneur* horrek sartu zizkiok ideia horiek guztiak buruan, nihilista horrek. Begitan zeukaat petrikilo hori; nire ustez, iruzurti hutsa duk; igel horiek guztiak gorabehera, ziur nagok ez dela oso urrun iritsi fisikan.

— Ez, anaia, ez horrelakorik esan: Bazarov buruargia eta jakintsua duk.

— Eta bere buruaren eder-itsusi nazkagarria dik —eten zion berriro Pavel Petrovitxek.

— Bai —onartu zuen Nikolai Petrovitxek—, buruzaletasun handia dik. Baina, agi danean, hori gabe ez zegok ezer lortzerik; dena dela, baduk gauza bat ezin uler dezakedana. Uste diat ahalegin guztiak egiten ditudala atzean gelditu gabe neure garaiari eusteko: lurra eman zieat nekazariei, landetxea eratu diat, eta, horren

ondorioz, are gizon ohoragarritzat naukatek probintzia osoan, nire laudagarri; irakurtzen diat, ikasten diat, oro har gaur egungo eskakizunen mailan egoten saiatzen nauk, eta haiek ziotek nireak egin duela. Bada, anaia, neu ere pentsatzen hasia nauk halaxe dela, nireak egin duela.

— Zergatik, gero?

— Hona zergatik. Gaur goizean Pushkin irakurtzen ari ninduan... Gogoan diat *Ijitoak* egokitu zaidala... Bat-batean, Arkadi inguratu zaidak, eta, hitzik esan gabe, halako erruki samur bat aurpegian, emeki, umea banintz bezala, liburu hori eskuetatik kendu eta beste bat eman zidak, alemaniarra... irribarre egin eta han joan duk, eta berekin eraman dik Pushkin.

— Ez da izango! Eta zein liburu eman dik?

— Hauxe.

Eta Nikolai Petrovitxek jakaren atzeko sakelatik atera zuen Büchner-en liburu ospetsua, bederatzigarren argitaraldia.

Pavel Petrovitxek jirabiraka erabili zuen eskuetan.

— Jum! —egin zuen marru—. Arkadi Nikolaievitx hire heziketaz arduratzen duk. Eta zer, saiatu haiz irakurtzen?

— Saiatu nauk, bai.

— Eta?

— Edo ni ergela nauk, edo hau zentzugabekeria hutsa duk. Seguraski, ergela nauk.

— Baina ez zaik ahaztu alemaniera? —galdetu zuen Pavel Petrovitxek.

— Ulertzen diat, alemaniera.

Pavel Petrovitxek berriro erabili zuen liburua eskuetan jirabiraka, eta begi-ertzetik begiratu zion anaiari. Isilik geratu ziren bi-biak une batez.

— Aizak —hasi zen Nikolai Petrovitx, hitz beste egiteko gogo nabariz—, Koliazin-en gutun bat jaso diat.

— Matvei Ilitx-ena?

— Bai, berarena. ***ra etorri duk, probintzia ikuskatzera. Handi-mandi horietakoa duk orain, eta idatzi zidak ezen, ahaideak garenez, gu ikusteko gogo duela eta hirira gonbidatzen gaituela gu biok eta Arkadi.

— Jango haiz? —galdetu zuen Pavel Petrovitxek.

— Ez; eta hi?

— Ni ere ez. Ez diat berrogeita hamar versta-ko bidea egingo inongo premiarik gabe. Mat-hieuk bere ospearen gailurrean agertu nahi dik-gure aurrean; deabruak daramala! Aski dik pro-bintziako guztien koipekeria, konponduko duk gu gabe ere. Isilpeko kontseilaria, hori kargu garrantzitsua! Ni, zerbitzuan jarraitu izan banu, lan gogaikarri horretan iraun izan banu, jeneral laguntzailea nindukek orain. Gainera, gu biok gizon erretiratuak gaituk.

— Bai, anaia; inondik ere, hilkutxa eskatzeko eta besoak bular gainean gurutzatzeko ordua iri-tsi zaiguk —esan zuen, hasperen eginez, Nikolai Petrovitxek.

— Bada, nik ez diat behingoan amore eman-go —murduskatu zuen anaiak—. Zainak ematen zidak liskarren bat izango dugula oraindik senda-gile horrekin.

Liskarra egun horretan bertan gertatu zen, arratseko tearen orduan. Pavel Petrovitx borro-karako gertu jaitsi zen egongelara, suminkor eta oldartsu. Etsaiari erasotzeko aitzakiaren zain zegoen, baina luze joan zen aitzakia agertzea.

Bazarovek gutxi hitz egin ohi zuen «Kirsanov zaharren» presentzian (horrela deitzen zien bi anaiei), baina arrats hartan ez zegoen aldarte oneko, eta isilik edaten zuen tea, katilukada bat beste baten atzetik. Pavel Petrovitx ezinegonak amorratzen zegoen; azkenean, bete egin zen haren nahia.

Inguru hartako lurjabe bati buruz hitz egiten hasi ziren. «Zaborra, aristokratakondoa», ohar-tarazi zuen, axolagabeki, Bazarovek, Petersburgetik ezagutzen baitzuen.

— Esadazu, mesedez —ekin zion Pavel Petrovitxek, eta dardaraka hasi zitzaizkion ezpainak—, zure ustez «zabor» eta «aristokrata» hitzek esanahi berbera dute?

— «Aristokratakondoa» esan dut —zehaztu zuen Bazarovek, teari zurrutada nagi bat egiteaz batera.

— Hala da, bai, baina nago iritzi berbera duzula aristokratez eta aristokratakondoez. Bada, betebehartzat daukat zuri jakinaraztea ez natorrela bat iritzi horrekin. Zuk ez badakizu ere, liberaltzat eta aurrerazaleztat ezagutzen naute denek; baina hain zuzen ere horrexegatik erres-

petatzen ditut aristokratak, benetakoak. Gogoan izan, jaun agurgarri hori (hitz horiek entzutean, Bazarovek begiak jaso zituen Pavel Petrovitxengana), gogoan izan, jaun agurgarri hori —errepikatu zuen, amorruez— aristokrata ingelesak. Haiek ez diote uko egiten beren eskubiderik xehenari ere, eta horrexegatik errespetatzen dituzte besteen eskubideak; haiekiko harremanetan norberaren eginbeharrak betearazten dizkiete besteei, eta horrexegatik betetzen dituzte haiek beren eginbeharrak. Aristokratek eman zioten askatasuna Ingalaterrari, eta beraiek eusten diote.

— Askotan entzun dut lelo hori —esan zuen Bazarovek—, baina zer frogatu nahi didazu horrekin?

— *Eftim* frogatu nahi dizut, jaun agurgarri hori (Pavel Petrovitxek, haserretzen zenean, berariaz esaten zuen *eftim* eta *efto*, nahiz eta ondo asko zekien gramatikak ez duela horrelako hitzik onartzen. Alexandroren garaiko tradizioaren hondar zuen bitxikeria hori. Garai hartako handi-mandiek, inoizka, ama-hizkuntzan mintzatzeko zirelarik, *efto* erabiltzen zuten batzuek eta

ekhto beste batzuek: gu, esaten zuten, errusiar peto-petoak gara, baina orobat handikiak, eta zilegi dugu eskolako arauetara muzin egitea), *eftim* frogatu nahi dizut ezen, norberaren duintasunaren sentimenik gabe, norberarenganako begirunerik gabe, eta sentimen horiek oso zabaldurik daude aristokraten artean, gizarte... *bien public* delakoak... gizartearen eraikinak alegia ez duela oinarri sendorik. Nortasuna da garrantzitsuena, jaun agurgarri hori; gizabanakoaren nortasunak harkaitza bezain irmoa izan behar du, beraren gainean altxatzen baita dena. Nik ondo asko dakit, esaterako, zuk barregarri deritzezula nire ohiturei, nire janzkera dotoreari, nire txukuntasunari azken batean, baina neure buruarenganako begirunearen ondorio da hori guztia, eginbeharraren zentzua du sorburu, bai, bai, eginbeharra. Herrixka batean bizi naiz, bazter leku batean, baina ez naiz apaltzen, gizakia errespetatzen dut neure baitan.

— Barkatu, Pavel Petrovitx —esan zuen Bazarov-ek—, zuk zeure burua errespetatzen duzu eta besoak antxumaturik egoten zara; zer-nolako onura ateratzen da hortik *bien public* delakoa-

rentzat? Zeure burua errespetatuko ez bazenu ere, horixe bera egingo zenuke.

Zurbil ipini zen Pavel Petrovitx.

— Guztiz bestelako kontua da hori. Nik ez dut orain inondik inora zuri zertan azaldurik zergatik egoten naizen besoak antxumaturik, zuk diozun bezala. Bakarrik esan nahi dut aristokrazia printzipio bat dela, eta gure garai honetan jende moralgabea edo buruarina soilik bizi daitekeela printzipiorik gabe. Horixe esan nion Arkadiri iritsi eta biharamunean, eta zuri errepikatzen dizut orain. Ez da hala, Nikolai?

Nikolai Petrovitxek baiezkoa egin zuen buruaz.

— Aristokrazia, liberalismoa, printzipioak — zioen bitartean Bazarovek—, horra zenbat hitz arrotz... eta alferrikako! Errusiarrak ez ditu ezertarako behar.

— Eta, zure ustez, zer behar du orduan? Zuri entzunik, badirudi gu gizaditik kanpo gaudela, gizarteko legeetatik kanpo. Barkatu, baina historiaren logikak eskatzen du...

— Baina zertarako behar dugu logika hori? Ondo moldatzen gara gabe ere.

— Nola, bada?

— Bada, halaxe. Inondik ere, zuk ez duzu logikaren beharrik ahora ogi-puska bat eramateko gose zarenean, hala espero dut behintzat. Ez dugu horrelako abstrakzioen premiarik batere!

Pavel Petrovitxek gora eragin zien eskuei.

— Dagoeneko ez zaitut ulertzen. Irain egiten diozu Errusiako herriari. Ez dut ulertzen nolatan bizi daitekeen inor printzipiorik gabe, araurik gabe! Zeren arabera jokatzan duzue zuek?

— Lehenago ere esan dizut, osaba, guk ez dugula ezein aginterik onartzen —sartu zen tartean Arkadi.

— Baliagarritzat jotzen dugunaren arabera jokatzan dugu —esan zuen Bazarovek—. Gaur egun, ukoa da baliagarriena, eta guk uko egiten dugu.

— Guztiari?

— Guztiari.

— Nolatan dateke? Ez bakarrik arteari, poesiari... baita... izugarria da ahotan erabiltze hutsa.

— Guztiari —errepikatu zuen Bazarovek, ezinago lasai.

Pavel Petrovitxek tinko begiratu zion. Ez zuen horrelakorik espero, eta Arkadi, berriz, are gorritu ere egin zen, atseginarean atseginez.

— Dena dela, onar iezadazu oharpen bat — esan zuen Nikolai Petrovitxek—. Zuek dena ukatzen duzue, edo, zehatzago esanik, dena suntsitzen duzue... Baina eraiki ere egin behar da.

— Hori ez da gure eginkizuna... Aurrena, oztopo guztiak kendu behar dira eraiki nahi den lekutik.

— Herriaren gaurko egoerak hori eskatzen du —erantsi zuen Arkadik, serio—, guk jaramon egin behar diogu eskari horri, ez dugu eskubiderik norberekeriari amore emateko.

Azken esaldi hori, antza, ez zitzaion gustatu Bazarovi; filosofia zerion, erromantizismoa alegia, zeren Bazarovek erromantizismo baitzeritzaion are filosofiari ere; baina ez zuen beharrezkotzat jo bere jarraitzaile gazteari kontra egitea.

— Ez, ez! —egin zuen oihu Pavel Petrovitxek, ustekabeko adorez—. Ez dut sinetsi nahi zuek Errusiako herria ondo ezagutzen duzuenik, haren behar eta nahien ordezkari zaretenik! Ez, Errusiako herria ez da zuek imajinatzen duzuen

bezalakoa. Sakratua balitz bezala errespetatzen du tradizioa, patriarkala da, ezin da federik gabe bizi...

— Ez dut hori zalantzan jarriko —eten zion Bazarovek—, areago, prest nago onartzeko arrazoi duzula *horretan*.

— Bada, arrazoi dudanez...

— Horrek, hala ere, ez du ezer frogatzen.

— Ez du ezertxo ere frogatzen —errepikatu zuen Arkadik, eskarmentu handiko xakelari baten ziurtasunaz, zeina ez baita urduri jartzen aurkariaren jokaldi itxuraz arriskutsuaren aurrean, aldez aurretik antzeman dio eta.

— Ez duela ezer frogatzen? —murduskatu zuen, harriturik, Pavel Petrovitxek—. Zeuen herriaren kontra zaudete, hortaz?

— Eta horrela balitz ere, zer? —egin zuen oihu Bazarovek—. Herriak uste du ezen, trumoia jotzen duenean, Elias profeta bere karrozan dabilela batera eta bestera zeruan barrena. Eta zer? Ados egon behar dut herriarekin? Eta gainera, haiek errusiarrek dira, bai, baina ni ere ez al naiz errusiarra?

— Ez, esan berri duzun guztia esanda, zu ez zara errusiarra! Nik ezin zaitut errusiartzat eza-gutu.

— Nire aitonak lurra lantzen zuen —ihardetsi zuen Bazarovek, destainazko harrotasunez—. Galdetu zeure mujiketako edozeini gutariko nor daukan aberkideagotzat, zu ala ni. Zu ez zara gauza haiekin hitz egiteko ere.

— Zuk, ordea, haiekin hitz egiten duzu eta arbuia egiten dituzu aldi berean.

— Eta zer egingo diot nik, arbuioa merezi dute eta! Gaitzetsi egiten duzu nire pentsabidea, baina nork esan dizu halabeharraren zoriaz sortua dela?, nork esan dizu ez dela zuk hain sutsuki aldezten duzun herri-espíritu horren emaitza?

— Oso beharrezkoak dira nihilistak, bai horixe!

— Ez dagokigu guri erabakitzea beharrezkoak diren ala ez. Dena dela, zuk ere onurakotzat daukazu zeure burua.

— Jaunak, jaunak, mesedez, elkarren aipamen zuzenik ez! —egin zuen oihu Nikolai Petrovitxek, zutik jartzera eginez.

Pavel Petrovitxek irribarre egin zuen, eta, eskua anaiaren sorbaldan jarririk, berriro eser-tzera behartu zuen.

— Ez kezkatu —esan zuen—. Ez nauk neure senetik irtengo, hain zuzen ere duintasunaren zentzu horrengatik, zeinaren kontura hain zakar-tasun handiz barre egiten baitu jaun... jaun medikuak. Zuk —jarraitu zuen, Bazarovi zuzen-durik—, antza denez, zure doktrina berria dela uste duzu. Bada, oker zaude. Predikatzen duzun materialismo hori boladan egon da behin baino gehiagotan, eta antzua gertatu da beti...

— Hitz arrotzak berriz ere! —eten zion Baza-rovek. Sumintzen hasia zen, eta haren aurpegiak halako kobre-kolore latz bat hartu zuen—. Lehe-nik eta behin, guk ez dugu deus predikatzen; gure ohituretan ez da horrelakorik...

— Zer egiten duzue orduan?

— Hona zer egiten dugun. Lehen, denbora asko ez dela, esaten genuen gure funtzionarioek eskupeko diru zikinak onartzen dituztela, gure erresuman ez dagoela biderik, ez merkataritza-rik, ez epaitegi zuzenik...

— Bai, bai, jakina, salatzaile zarete, horrela esaten bide zaio horri. Ni neu ados nago zuen salaketa horietako askorekin, baina...

— Gero, ordea, konturatu ginen ezen berriketan aritzeak, besterik egin gabe denbora guztian gure gaitzez berriketan aritzeak ez duela nekerik merezi, horrek arrunkeriarra eta doktrinakeriara baino ez daramala; ohartu ginen ezen gure jakintzuek, aurrerazale eta salatzaile deritzeten horiek alegia, ez dutela ezertarako balio, funsgabekeriez arduratzen garela, mintzagai izaten dugula artea, oharkabeko sorkuntza, parlamentarismoa, abokatutza eta deabruak daki zer gehiago, eta kontua, aldiz, eguneroko ogia dela, denik eta sineskeriarik gordinenak itotzen gaituela, gure sozietate anonimo guztiek porrot egiten dutela jende zintzorik ez dagoelako soilik, gobernuak kudeatzen duen gure askatasun horrek ezer gutxirako balio duela, zeren eta gure mujikak, tabernan mozkortze aldera, gai baitira lapurreta egiteko are beren buruari ere.

— Beraz —eten zion Pavel Petrovitxek—, beraz, horretaz guztiaz jabetu zineten eta erabaki zenuten ezertxori ere serio ez ekitea.

— Eta erabaki genuen ezertxori ere ez ekitea —errepikatu zuen Bazarovek, goibel. Bat-batean, bere buruarekin haserretu zen, jaun horren aurrean hain azalpen luzeak emateagatik.

— Eta soil-soilik irainak botatzea?

— Eta irainak botatzea.

— Eta horri deritzo nihilismoa?

— Eta horri deritzo nihilismoa —errepikatu zuen Bazarovek berriro, berealdiko ozartasunez oraingoan.

Pavel Petrovitxek doi-doia kliskatu zituen begiak.

— Hori da eta! —esan zuen, ahots harrigarri-
ro lasaiz—. Nihilismoak gaitz guztiak sendatuko ditu, eta zuek, zuek gure salbatzaile eta heroiak zarete. Ondo da. Baina bada zuek ohoratzen duzuenik, salatzaile horiek berak esaterako; zer dela eta? Ez ote zarete zuek ere kalakari hutsak, denak bezala?

— Bestelako bekaturik leporatu ahal digute, baina hori ez —esan zuen, hortz artean, Bazarovek.

— Nola? Ezer egiten al duzue zuek? Erabaki duzue zer edo zer egitea?

Bazarovek ez zuen ezer erantzun. Pavel Petrovitxek zirgiti egin zuen, baina bertantxe menderatu zuen bere burua.

— Jum!... Jardutea, suntsitzea... —jarraitu zuen—. Baina nolatan suntsi daiteke ezer, zergatik ere jakin gabe?

— Indarra gara, horrexegatik suntsitzen dugu —ohartarazi zuen Arkadik.

Pavel Petrovitxek, ilobari begiratu, eta irribarretxoak egin zuen.

— Bai, indarra, inori konturik ematen ez dion indarra —esan zuen Arkadik, eta tente jarri zen.

— Gizagaixoa! —egin zuen garrasi Pavel Petrovitxek, ordurako ez baitzegoen gehiago jasateko moduan—. Pentsatuko ahal zenuen zer sustengatzen duzun Errusian zure esaera arrunt horrekin! Ez, horrek egonarria galaraz diezaioke are aingeru bati ere! Indarra! Kalmuko basati horiek eta mongoliarrek ere badute indarrik, eta zertarako balio digu? Guk zibilizazioa maite dugu, bai, bai, jaun agurgarri hori; haren fruituak maite ditugu. Eta ez iezadazu esan fruitu horiek

hutsalak direnik: sasimargolaririk txarrena, *un barbouilleur*, gau-jai bakoitzeko bost kopek jasozten dituen edozein piano-jole zuek baino baliagarriagoa da, zeren haiek zibilizazioa ordezkatzeko baitute, eta ez mongoliarren indar aberekoa! Aurreratutzat daukazue zeuen burua, baina kalmuko nomaden oihal-etxoletan egon beharko zenukete! Indarra! Eta azkenik, jaun indartsuok, gogoan izan zuek lau oilo zaretela, eta bestek, aldiz, milioika, eta ez dizuete utziko haien sinesmen sakratuak oin azpian zapaltzen, deuseztatu egingo zaituztete!

— Bai, beharbada deuseztatuko gaituzte; zer egingo diogu! —esan zuen Bazarovek—. Baina hori ikusteko dago. Ez gara zuk uste duzun bezain gutxi.

— Nola? Benetan uste duzue nagusituko zaretela, herri osoa zuen aldera ekarriko duzue-la?

— Dakizunez, kandela xume batek eragin zuen Moskuko sutea —erantzun zuen Bazarovek.

— Hara, hara! Hasieran harrokeria ia satanikoa, eta gero iseka. Horra, horra zerez zaletzen den gazteria, horra zerk liluratzen dituen gazte-

txoen bihotz eskarmentugabeak! Begira, hona hemen haietako bat, zure aldamenean eseririk, gurtu egiten zaitu ia, txoraturik daukazu. (Arkadik, jiratu, eta bekokia zimurtu zuen.) Eta izurri hori ikaragarri hedatu da jadanik. Kontatu didatenez, Erroman gure pintoreek ez dute zapaldu ere egiten Batikanoa. Ia ergeltzat daukate Rafael, zeren eta, haiek diotenez, itzal handiko gizona baita; eta haiek berak nazka emateraino geldo eta antzu dira, haien irudimena ez doa *Neskagazteak iturri ondoan* margolanetik urrunago. Eta neskagazte horiek ezinago txarto pintaturik daude. Baina, zure ustez, mutil bipilak dira, ezta?

— Nire ustez —erantzun zuen Bazarovek—, Rafael hutsaren hurrena da, baina haiek ez dira bera baino hobeak.

— Brabo, brabo! Entzun, Arkadi... entzun nola hitz egin behar duten gaur egungo gazteek! Nolatan ez dira, bada, zuen atzetik joango! Lehengo gazteek ikasi egiten zuten; ez zuten nahi ezjakintzat har zitzatzen, eta lanari ekiten zioten ezinbestean. Oraingoek, ordea, aski dute esatea «Mundu honetan dena da zentzugabea!»,

eta kito. Pozik dago gazte-jendea. Izan ere, lehen ergelak baino ez ziren, orain ordea nihilista bihurtu dira bat-batean.

— Horra nola huts egin dizun duintasunaren zentzu zorioneko horrek —ohartarazi zion Bazarovek, patxadaz; Arkadi, aldiz, sutan zegoen, begiak bi txinpart eginik—. Urrunegi joan da gure eztabaida... Hobe dugu bertan behera utzi. Hala ere —erantsi zuen, zutik jartzeaz batera—, prest nago zurekin bat etortzeko, baldin aurkezten badidazu gure garaiko instituzio bat, bat bakarra, familiaren zein gizartearen arlokoa, gaitzespenik biribilena eta zorrotzena merezi ez duena.

— Horrelako milioika instituzio aurkeztu ahal dizkizut —egin zuen oihu Pavel Petrovitxek—, milioika! Horra hor, esaterako, erkidegoa.

Irribarre hotz batek okertu zituen Bazaroven ezpainenak.

— Erkidegoari buruz —esan zuen—, hobe duzu anaiarekin hitz egin. Orain, dirudienez, jakin badaki zer den erkidegoa, kauzio solidarioa, alkoholik ez edatea eta horrelako zozoke-riak.

— Familia, azkenik, familia, gure nekazarien artean existitzen den bezala! —egin zuen oihu Pavel Petrovitxek.

— Gai horri dagokionez, orobat uste dut zuek zeuek hobe zenuketela xehetasunetan sartuko ez bagina. Ez al duzu erraina ohelagun duten aitaginarreben aditzerik? Aintzat hartu nire aholkua, Pavel Petrovitx, eman zeure buruari bi eguneko epea, behingoan ez baituzu ezer aurkituko. Azter itzazu gure gizarteko klase guztiak eta behar bezala hausnartu haietako bakoitza zertan den, bitartean Arkadik eta biok...

— Gauza guztiez iseka egin behar duzue —moztu zion Pavel Petrovitxek.

— Ez, igelak aztertu behar ditugu. Goazen, Arkadi; ikusi arte, jaunak!

Gelatik irten ziren bi adiskideak. Bakarrik geratu ziren anaiak, eta hasieran elkarri begiratu besterik ez zuten egin.

— Horra —hasi zen Pavel Petrovitx azkenean—, horra nolakoak diren gaurko gazteak! Horra hor, gure ondorengoak!

— Ondorengoak —errepikatu zuen Nikolai Petrovitxek, etsipenezko hasperena eginez.

Eztabaidak irau zuen bitarte guztian urduri egon zen, txingarretan eseririk bezala, noizean behin Arkadiri ezkutuko begirada minduak egozten zizkiola—. Badakik zer etorri zaidan gogora, anaia? Behinola, istilua izan nian gure ama zena-rekin: garrasika ari zitzaidaan, ez zidaan entzun nahi... Azkenean, esan nioan: «Zuek ezin gaituzue ulertu, bakoitza belaunaldi batekoak gara». Izugarri mindu zuan ama, eta nik pentsatu nian: «Zer egingo zioat!». Mingotsa duk pilula, baina irentsi egin behar. Eta orain guri etorri zaiguk txanda, eta gure ondorengoek esan ahalko zigutek: «Zuek ez zarete gure belaunaldikoak, irents ezazue pilula».

— Onegia eta apalegia haiz —ihardetsi zion Pavel Petrovitxek—; ni, aldiz, ziur nagok gu biok jaun horiek baino askoz ere zuzenago gaudela, nahiz eta, beharbada, gure hizkera zaharkitu samarra den, *vieilli* alegia, eta ez dugun handiuste ozar hori... Izan ere, hain dituk harroputzak gaurko gazteak! Galdetu haietako edozeini ardoa beltza ala zuria nahi duen. «Beltza nahia-go izateko ohitura dut», erantzungo dik, baxu-

ahotsez eta aurpegi serioz, une horretantxe uni-
bertso osoa berari begira baleuka bezala...

— Te gehiago nahi duzue? —galdetu zuen
Fenetxkak, burua atetik agertuz: ez zen ausartu
gelan sartzen eztabaidan ari zirenen ahotsak
han barruan entzun ziren bitartean.

— Ez, samovarra eramateko agin dezakek —
erantzun zuen Nikolai Petrovitxek eta, zutiturik,
harengana joan zen. Pavel Petrovitxek «*Bon
soir*» esan zion, zakar, eta bere langelara joan
zen.

XI

Ordu erdi geroago, Nikolai Petrovitx lorategira abiatu zen, bere itzaltegi kuttunera. Gogoeta ilunak etorri zitzaizkion burura. Lehen aldiz zekusan argi semearengandik bereizten zuen aldea; alde hori egunean-egunean handiagoa izango zela susmatzen zuen. Horrek esan nahi zuen, beraz, alferrik igaro zituela egun osoak, Petersburgeko neguan, azken orduko argitalpenik berrienen aurrean eseririk; alferrik entzun zituela gazteen arteko elkarrizketak; alferrik poztu zela haien solas sutsuetan bere hitza tartekatzea lortu zuen bakoitzean. «Anaiak zioz zuzen gaudela —zioen bere artean—, eta, neure buruarenganako estimu guztia alde batera utzirik, niri ere iruditzen zaidak haiek gu baino urrunago daudela egiatik, baina aldi berean sumatzen diat haien atzean badela guk ez daukagun zerbait, halako abantaila bat dutela gure aldean... Gaztetasuna ote? Ez, ez duk soilik gaztetasuna. Ez da izango haiek guk baino jauntasun-hondar gutxiago dituztela?, ez ote dute hori abantaila?»

Burua makurtu zuen Nikolai Petrovitxek, eta eskua aurpegitik igaro.

«Baina poesiarik uko egitea ere! —pentsatu zuen berriro—. Arterik, naturari ez ederrestea ere!...»

Eta ingurura begiratu zuen, ulertu nahi balu bezala nolatan zitekeen naturari ez ederrestea. Iluntzen ari zuen; gordea zen eguzkia lorategitik versta erdira zegoen lertxundi txikiaren atzean: haren itzala amaierarik gabe hedatzen zen zelai geldietan. Mujik bat tipi-tapa zihoan, zalditxo zuri baten gainean, basotxo inguratzen zuen bidezidor mehar ilunetik: ilunpetan zebilen arren, argi ikusten zen mujika, oso-osorik, are sorbalda batean zeukan adabakia bera ere; zehaztasun atseginez atzematen ziren orobat zalditxoaren hankak. Eguzki-izpiak, berriz, basotxoan sartzen ziren, eta, adarrarte zeharkaturik, hain argi epelez janzten zituzten lertxunen enborrak, ezen pinu-enborren antza ematen baitzieten, eta hostoak ia urdin ageri ziren, eta haien gainean zeru urdin argia ikusten zen, ilunabarrak doi-doia gorritaturik. Enarak hegan zebiltzan zeru goian; bare-bare zegoen haizea;

erle berankorrek zabar eta nagi egiten zuten burrunba amañi-lilietan; eltxoak estu-estu bildurik zeuden urruneko adar bakarti baten gainean. «Ene Jainkoa, hau edertasuna!», pentsatu zuen Nikolai Petrovitxek, eta bere bertsorik gogokoenak etorri zitzaizkion ezpainetara; Arkadiz eta *Stoff und Kraft* liburuaz gogoratu zen, ordea, eta isildu egin zen, baina eseririk jarraitu zuen, pentsamendu bakartien jolas mingarri eta aldi berean atseginari emana. Laket zitzaion amets egitea; herrixkako bizitzak garatu zuen haren baitan gaitasun hori. Aspaldi gabe egona zen horrelaxe ametsetan, ostatuan semearen zain zegoelarik, baina, harrezkeroztik, gertatua zen aldaketa, zehaztuak ziren semearekiko harreman orduan lausoak... eta nola! Gogora etorri zitzaion berriro emazte zena, baina ez urte askotan ezagutu zuen bezala, ez etxekoandre maratz eta on gisa, ezpada gerri meheko neszagazte gisa, bere begirada xalo ikusberarekin, bere txirikorda trinkoarekin haur-lepoaren gainean. Gogoratu zitzaion nola egin zuen haren ezaupidea. Bera ikasle zen artean. Ustekabean aurkitu zuen bere egoitzako zurubian, eta, nahi gabe

bultzatu baitzuen, jiratu, barkamena eskatu nahi, eta «*Pardon, monsieur*» bakarrik murduskatu ahal izan zuen, eta neska, berriz, burua makurtu, irribarretxo egin, eta, bat-batean izutu balitz bezala, lasterka joan zen, eta, zuru-biaren bihurgunera iritsirik, begiratu azkar bat egotzi, itxura serioa hartu, eta gorri-gorri jarri zen. Eta, gero, aurreneko elkartze herabetiak, erdizkako hitzak, erdizkako irribarreak, eta zalantzak, eta tristura, eta sualdia, eta, azkenik, poz itogarri hura... Nora aienatua zen hori guztia? Emaztetzat hartu zuen, zoriontsua izan zen, lurrean gutxi bezala... «Baina —zioen bere artean—, hasierako une ezitsu haiek, zergatik ezin dira betiko izan, zergatik ezin dira hilezkor bizi?»

Ez zen saiatzen bere pentsamenduak bere buruari argitzen, baina sumatzen zuen oroitza-pen hutsa baino zerbait sendoagoaz eutsi nahi ziola garai zoriontsu hari; berriro ukitu nahi zuen bere Mariaren hurbiltasuna, haren berotasuna eta arnasa sentitu, eta iruditu zitzaion ezen bere gainean...

— Nikolai Petrovitx —entzun zen berarengandik hurbil Fenetxkaren ahotsa—, non zara?

Zirgit egin zuen. Ez zen minberatu, ezta lotsatu ere... Ez zuen onartzen emaztearen eta Fenetxkaren arteko konparaziorik egin zitekeenik ere, baina deitoratu zuen Fenetxkari beraren bila etortzea bururatu izana. Haren ahotsak bat-batean gogorarazi zizkion bere ile urdinak, bere zahartasuna, bere oraina...

Dar-dar txiki bat egin zuen lilurazko mundu hark, zeinean murgildua baitzen, zeina iragane-ko garai lanbrotsuetatik agertua baitzitzaion, eta bertantxe aienatu zen.

— Hemen naiz —erantzun zuen—, banoa, zoaz hemendik. «Hona hemen jauntasunaren hondarrak», pentsatu zuen lipar batez. Fenetxkak, isilik, begiratu azkar bat egin zion itzaltegiari, bera zegoen aldera, eta han joan zen; eta bera harriturik konturatu zen gaua sartu zela ametsetan egon zen bitartean. Oro ilun eta bare zegoen inguruan, eta tartetxo batez ikusi zuen Fenetxkaren aurpegia, hain zurbil eta txikia bera. Jaikitza egin zuen, etxera abiatzeko asmoz; baina haren bihotz beratuak ez zuen

sosegurik aurkitzen bularrean; astiro ibiltzen hasi zen lorategian barrena, noiz pentsakor, oin azpian zeukanari so, noiz begiak zerurantz jasorik, non izarrak keinuka ari baitziren ordurako. Asko ibili zen, indarrak ahitzeraino ia, baina larritasuna, larritasun lehiatsu, lauso, goibel hura, ez zitzaion inola ere baretzen. Nola egingo zukeen barre Bazarovek beraren lepotik, baldin eta jakin balu une horretan gertatzen zitzaionaren berri! Arkadik berak kargu hartuko ziokeen horregatik. Bera, berrogeita lau urteko gizona, agronomoa eta etxejabea, negar-malkotan, arrazoirik gabe negarrez; biolontxeloia jotzea baino ehun aldiz okerragoa zen hori.

Ibiltzen jarraitu zuen Nikolai Petrovitxek, ezin baitzen erabaki etxean sartzera, habia baketsu eta atsegin hartan, zeinak hain abegitsu begiratzten baitzion bere leiho argitu guztiekin; ez zuen indarrik bertan behera uzteko iluntasuna, lorategia, aire hozkirriaren sentipena aurpegian, tristura hura, larritasun hura...

Pavel Petrovitxek berarekin topo egin zuen bidezidorraren bihurgune batean.

— Zer gertatzen zaik? —galdetu zion Nikolai Petrovitxi—. Mamu bat bezain zurbil hago; ondoezik hago, zergatik ez haiz oheratzen?

Nikolai Petrovitx, bere arimaren egoera hitz gutxitan azaldu, eta urrundu egin zen. Pavel Petrovitx lorategiaren amaieraraino joan zen, eta pentsakor geratu zen bera ere, eta zerurantz jaso zituen begiak berak ere. Baina haren begi ilun ederretan ez zen deus islatu, izarren argia izan ezik. Ez zen erromantiko jaio, eta haren arima suhar, zakar, grinatsu, frantses erara misantropoak ez zekien amets egiten.

— Badakik? —ziotson gau hartan bertan Bazarovek Arkadiri—, ideia bikain bat etorri zaidak burura. Gaur goizean hire aitak esan dik zuen ahaide itzaltsu horren gonbidapena jaso duela. Hire aita ez duk joango; beraz, joan gaitetzen gu biok ***ra; izan ere, jaun horrek hi ere gonbidatu hau. Begira nola aldatu den hemengo eguraldia; osteratxo bat egingo diagu, hiria eza gutuko diagu. Bospasei egunez hara eta hona ibili, eta kito!

— Eta gero hona itzuliko haiz?

— Ez, aitarenera joan behar diat. Badakik, ***tik hogeita hamar verstara bizi duk. Aspaldian ez diat ikusi, eta ama ere ez; atsegin eman behar zieat zaharrei. Onak dituk nirekin, aita batez ere; oso dibertigarria duk. Ni nauk geratzen zaien seme bakarra.

— Eta luzaro geldituko haiz haienean?

— Ez diat uste. Seguraski, aspertu egingo nauk.

— Eta itzulerako bidean gurera inguratuko haiz?

— Ez zekiat... ikusiko diagu. Ea, zer diok? Joango gara?

— Ondo zegok —esan zuen Arkadik, zabar.

Barru-barruan, oso poztu zuen adiskidearen proposamenak, baina beharrezkotzat jo zuen bere sentipen hura ezkutatzea. Ez al zen, bada, nihilista?

Biharamunean, ***ra abiatu zen Bazarovekin batera. Haiek joatea atsekabe izan zen Marinoko gazte-jendearentzat; Duniashak negar ere egin zuen... baina zaharrek arindurik hartu zuten arnasa.

XII

*** hiria, zeinera abiatu baitziren gure adiskideak, aldi berean aurrerazale eta despota zen gobernadore gazte horietako baten agindupean zegoen, hori oso ohikoa baita Rus-en. Bere agintaldiaren lehen urtea aski izan zuen etsaitzeko ez bakarrik probintziako gobernuburuarekin —zaldieriako kapitainorde erretiratu, zalditegi baten jabe eta gizon abegitsua bera—, baita bere funtzionarioekin ere. Horren kariaz pizturiko liskarrak hain bilakatu ziren larri, ezen Petersburgeko ministerioak ezinbestekotzat jo baitzuen konfiantzazko gizon bat bidaltzea ordena ezartzera. Agintariek Matvei Ilitx Koliazin hautatu zuten zeregin horretarako, zeina, hain zuzen, garai batean Kirsanov anaiak bere ardurapean izan zituen Koliazin haren semea baitzen. Bera ere «gazte» horietakoa zen, hau da, berrogei urte bete berriak zituen, baina ordurako ahalegin guztiak egiten zituen estatu-jendeen artean leku bat izateko, eta izar bat zeraman bularraren alde bakoitzean. Izar haietako bat, egia esan,

atzerrikoa zen, balio gutxikoa. Epaitu behar zuen gobernadorearen antzera, berak ere aurrerazale-ospea zuen, eta, ordurako handi-mandia izanik ere, ez zuen handi-mandi gehienen antzik. Iritzirik jasoena zuen bere buruaz; haren handiusteak ez zuen mugarik, baina xaloki jokatzeko zuen, onespenez begiratzen zuen, etorkor entzuten zuen, eta hain onbera egiten zuen barre, ezen hasiera batean «mutil zoragarri»tzat har baitzitekeen. Hotsandiko egoeretan, hala ere, bazekien, esan ohi denez, bere hautsa harrotzen. «Kemena ezinbestekoa da —esaten zuen horrelakoetan—, *l'énergie est la première qualité d'un homme d'état*»; baina, guztiarekin ere, barregarri gelditu ohi zen, eta eskarmentu apur bat zuen edozein funtzionariok bere gogara erabil zezakeen. Matvei Ilitxek begirune handiz hitz egiten zuen Guizot-i buruz, eta gogotik ahalegintzen zen mundu guztiari frogatzen bera ez zela ohitura hutsez jarduten duten burokrata atzeratu horietakoa, kontu ematen ziela gizarteko bizitzaren gorabehera garrantzitsu guzti-guztiei... Ondo zekizkien tankera horretako hitz guztiak. Gainera, hurbiletik jarraitzen zion bere garaiko

literaturaren nondik norakoari, baina, hori bai, destainazko arrandiaz, hala nola gizon heldua, kalean mutiko-saldo batekin topo eginik, haiekin elkartzen baita batzuetan. Funtsean, Matvei Iltx ez zen asko urrundu Alexandroren garaiko estatu-gizonengandik, zeinek, Petersburgeko Svetxina andrearen gau-jai batera joatekoak ziren bakoitzean, Condillacen orrialde bat irakurtzen baitzuten goizean; alde bakarra zen berak bestelako manierak zituela, bere garaikoagoak. Kortesano maltzurra zen, ezinago amarrutsua, besterik ez; ez zen aditua, ez zen buruargia, baina bazekien bere egitekoak bideratzen: horretan behintzat, ezin inork bera menderatu, eta hori zen funtsezkoena.

Matvei Iltxek handiki ikasi batek berezko duen ontasunaz eta, gehiago esango dugu, are bozkarioz ere hartu zuen Arkadi. Harritu egin zen, hala ere, berak gonbidaturiko ahaideak herrian geratu zirela jakin zuenean. «Hire aita beti izan duk gizon bitxia», adierazi zuen, belusezko mantal ederreko borlei eraginez, eta, batbatean, uniformeko botoiak txukun-txukun loturik zeuzkan funtzionario gazte batenganantz jira-

tu, eta kezkatu-antzean oihukatu zion: «Zergatik?». Gazteak, zeinak ezpainak elkarri itsatsirik baitzeuzkan isilaldi luzearen eraginez, jaikitsera egin eta nahasirik begiratu zion nagusiarri... Baina, mendekoa harri eta zur utzitakoan, Mattei liltzek ez zion arreta gehiagorik jarri. Gure handikiek, oro har, gogoko dute mendekoak harri eta zur uztea; askotariko bideak baliatu ohi dituzte helburu hori erdiesteko. Honako hau dute erabiliena, *is quite a favourite*, ingelesek dioten bezala: handikiak hitzik arruntenak ere ulertze-ri uzten dio ustekabeen, gorrarena egiten du. Galdetzen du, esaterako: zer egun da gaur?

Begirunerik handienaz jakinarazten diote: «Gaur ostirala da, Berorren ...t...t...t...tasuna».

— Eh? Zer? Zer esan duzu? —errepikatzen du, biziki, handikiak.

— Gaur ostirala da, Berorren ...t...t...t...tasuna.

— Nola? Zer? Zer da ostirala? Nongo ostirala?

— Ostirala, Berorren ...t...t...t...tasuna, asteko egun bat da.

— Baina, baina... niri irakasteko asmoa duzu, ala?

Matvei Ilitx, liberal-ospea izanagatik ere, handikia zen.

— Gobernadoreari bisita egitera joan beharko zenuke, nire lagun hori —esan zion Arkadiri—. Ulertuko duzunez, ez dizut aholku hori ematen agintarien aurrean burua makurtzera joatea ezinbestekotzat daukan uste zaharra ontzat ematen dudalako, baizik eta, besterik gabe, gobernadorea gizon zintzoa delako; horrez gain, seguraski, hemengo gizartea ere ezagutu nahiko duzu... zeren, zu ez zara gazte moldakaitz horietakoa izango, ezta? Bada, gobernadoreak dantzaldi handi bat emango du etzi.

— Joatekoa zara dantzaldi horretara? —galdetu zuen Arkadik.

— Nire omenez antolatu du —esan zuen Matvei Ilitxek, ia atsekabez—. Zuk dantzan egiten duzu?

— Bai, baina txarto.

— Tamalgarria da. Hemen hauetan oso neska politak daude, eta mutil gazte batentzat lotsagarria da dantzan ez jakitea. Oraingoan ere, ez naiz mintzo antzinako pentsamolde zaharraren arabera; ez dut inondik inora uste adimenak oinetan

egon behar duenik, baina byronismoa barre-garria da egun, *il a fait son temps*.

— Baina, nik, osaba, byronismotik ez dut deus...

— Hemengo andereñoak aurkeztuko dizkizut, neure babespean hartuko zaitut —eten zion Matvei Ilitxek, eta barrez hasi zen, bere buruarekin pozik—. Atsegina izango da zuretzat, bai?

Mirabe bat sartu zen eta iragarri zuen iritsia zela zerga-etxeko burua, begi samur eta ezpain zimurtsuekiko agure bat, zeinari biziki atsegin baitzitzaion natura, batez ere udako egunetan, zeren eta, zioenez, horrelako egunetan «erletxo bakoitzak polen apurtxo bat hartzen du loretxo bakoitzetik...». Alde egin zuen Arkadik.

Hirira iristean geratuak ziren tabernan aurkitu zuen Bazarov, eta luze jardun zuen gobernadorearenera joatera limurtzen. «Zer egingo zioagu! —esan zuen azkenean Bazarovek—. Behin hasiz gero, amaitu egin behar. Handi-mandiak ikustera etorri gaituk, ikus ditzagun, bada!» Gobernadoreak harrera adeitsua egin zien bi gazteei, baina ez zien eserlekurik eskaini, eta bera ere ez zen eseri. Lanpeturik eta laster-

beharririk ibiltzen zen beti. Goizetik janzten zituen uniforme estua eta gorbata izugarri gogor lotua, gutxi jan eta gutxi lo egiten zuen, beti zegoen aginduak ematen. Probintzian Burdal deitzen zioten, baina ez Bourdaloue izeneko predikari frantses ospetsuarengatik, burda izeneko edari kaxkarrarengatik baizik. Dantzaldira gonbidatu zituen Kirsanov eta Bazarov, eta bi minutu geroago bigarren aldiz gonbidatu zituen, biak elkarren anaiatzat harturik eta Kaiserov deituz bie.

Gobernadorearenetik beren etxera zihoazela, ustekabean, gizon bat jauzi batez jaitsi zen haien aldamenetik igaro zen drojki batetik. Garaiera apalekoa zen eta eslavofiloek erabili ohi dituzten husar-jaka horietako bat zeraman soinean; «Jevgeni Vasilix!» deiadar egin, eta Bazarovengana oldartu zen.

— Ene! Zu zara, herr Sitnikov —esan zuen Bazarovek, espaloian aurrera jarraituz—. Zer dela eta hemen?

— Hau halabeharraren ezustea! —erantzun zuen hark, eta, drojkira jiraturik, eskuari bost aldiz eragin eta oihuka esan zuen—: Etorri gure atzetik, etorri! Aitak zereginak ditu hemen —

jarraitu zuen, lubaki baten gainetik jauzieginik—, eta berarekin etortzeko eskatu dit... Etorri zarelakin jakin dut gaur goizean, eta zurean izan naiz jadanik... (Izan ere, bi adiskideek, beren egoitzara itzuli zirenean, txartel bat aurkitu zuten, ertzak tolesturik eta Sitnikoven izenarekin, alde batean frantsesez idatzia eta bestean, berriz, eslavieraz.) Espero dut ez zatoztela gobernadorearen etxetik!

— Ez ezazu horrelakorik espero, hortik gatoz eta.

— Ah! Orduan, ni ere joango naiz hara... Jevgeni Vasilitx, aurkeziezadazu zure... haien...

— Sitnikov, Kirsanov —murduskatu zuen, ibiltzeari utzi gabe, Bazarovek.

— Biziki pozten naiz —hasi zen Sitnikov, haien aldamenean ipini, erdi irribarre egin eta bere eskularru dotoreegiak presaka erantziz—. Askotan entzun dut... Jevgeni Vasilitxen aspaldiko laguna nauzu, eta esan dezaket haren jarraitzaile naizela. Berari zor diot nire pentsabidean gertaturiko aldaketa...

Begiratu zion Arkadik Bazaroven jarraitzaileari. Halako zurruntasun asaldagarri eta adie-

razgabe bat ageri zen haren aurpegi txukunduegiaren alderdi fin eta atseginetan; haren begi txiki, harritu-irudikoek tinko eta urduri begiratzzen zuten, eta urduri egiten zuen barre, halako irri labor eta mekaniko batez.

— Sinets iezadazu —jarraitu zuen—, Jevgeni Vasilitxek nire aurrean lehen aldiz esan zuenean ez dagoela agintea zertan onarturik, hain poz biziak hartu ninduen... begiak argitzea bezala izan zen! Hona hemen gizon bat, pentsatu nuen, gizon bat aurkitu dut azkenean! Aizu, Jevgeni Vasilitx, hutsik egin gabe joan behar duzu hemengo dama bat ikustera. Guztiz da gai zu ulertzeko, eta izugarri poztuko du zure bisitak. Inondik ere, baduzu haren aditzea.

— Nor da? —galdetu zuen, gogoz bestera, Bazarovek.

— Kukshina, Eudoksie, Evdoksia Kukshina... Izaera miragarriko emakumea, aurrerazalea, *émancipée*, hitz horren zentzurik egiazkoenean. Goazen oraintxe bertan hirurok batera berarengana. Hemendik oso hurbil bizi da... Han bazkalduko dugu. Oraindik ez duzue bazkaldu, ezta?

— Ez, oraindik ez.

- Ederto. Ez badakizue ere, senarrarengandik banandu da, ez da inoren mende bizi.
- Polita da? —eten zion Bazarovek.
- E... ez, ezin esan polita denik.
- Arraioa, orduan zertarako eraman nahi gaituzu haren etxera?
- Zein bromazela zaren!... Xanpaina-botila bat aterako digu.
- Hori da eta! Hona gizon praktiko bat. Eta, horretaz ari garela, zure aita herritarrei zergak kobratzetik bizi da oraindik?
- Bai —erantzun zuen Sitnikovek bizkor, eta barre ozena egin zuen—. Zer? Joango gara?
- Egia esan, ez dakit.
- Ez al huen jendea ezagutu nahi?; hoa, hortaz! —esan zion Arkadik ahapeka.
- Eta zuk zer diozu, Kirsanov jauna? —galdetu zuen Sitnikovek—. Etorri zu ere, mesedez. Zu gabe ez daukagu joaterik.
- Baina nolatan agertuko gara hirurok horrela, ustekabean?
- Ez kezkatu. Kukshina emakume berezia da.

— Izango da, beraz, xanpaina-botilarik? —
galdetu zuen Bazarovek.

— Hiru! —egin zuen oihu Sitnikovek—. Hitze-
maten dizut.

— Zer jokutzen duzu?

— Neure burua!

— Aukeran nahiago nuke zure aitaren dirua...
Tira, goazen.

XIII

Avdotia Nikitishna (edo *Evdoksia*) Kukshina Moskukoen tankerako jauretxe txiki batean bizi zen, *** hirian aspaldi gabe erre ziren kaleetako batean; gauza jakina da gure probintzietako hiri-buruak bost urtez behin erretzen direla. Atean, kanpaitxoaren heldulekua ageri zen oker iltzaturiko bisita-txartel baten gainean, eta bebarruan, berriz, ez neskame eta ez andre-lagun ez zen emakume kofiadun batek egin zien harrera iritsi berriei, etxekoandrearen joera aurrerazalearen seinale nabarmena hori guztia. Sitnikovek galde-tu zuen ea Avdotia Nikitishna etxean zen.

— Zu zara, Victor? —entzun zen ahots zoli bat aldameneko gelan—. Sartu.

Emakume kofiaduna bertantxe desagertu zen.

— Ez nago bakarrik —esan zuen Sitnikovek, ozenki. Ozartasunez erantzi zuen husar-jaka, zeinaren azpian podiovka edo longain lasai baten antzeko zerbait agertu baitzen, eta begirada erne bat egotzi zien Arkadiri eta Bazarovi.

— Ez dio ardurarik —erantzun zuen ahotsak—

. *Entrez.*

Barrura sartu ziren hiru gazteak. Atsedenerako baino gehiago lanerakoa ematen zuen gela batean aurkitu ziren. Askotariko paperak eta gutunak zeuden mahai hautsak hartuen gainean hedaturik, bai eta hainbat aldizkari errusiarren ale mardulak ere, artean ebaki gabe gehienak; zigarrokinak ikusten ziren nonahi, zuri. Larruzko dibanean dama bat zegoen erdi etzanik, artean gaztea, ilehoria, txima-jario samarra, sedazko soineko ez oso garbi batez jantzirik, eskumuturreko handiak beso laburretan eta farfailezko zapi bat buruan. Dibanetik altxatu, katazuri-larru horixkatuz forraturiko beroki belusezko bat sorbalden gainean zabar jantzi, eta nagiki esan zuen: «Egun on, Victor», eta eskua estutu zion Sitnikovi.

— Bazarov, Kirsanov —esan zuen Sitnikovek zakar, Bazarov imitatuz.

— Ongi etorri —erantzun zuen Kukshinak. Bazarovengan jarri zituen bere begi biribilak, zeinen artean zurtz eta gorri ageri baitzen sudurtxo

harro bat, eta gaineratu—: Lehendik ezagutzen zaitut —eta eskua estutu zion berari ere.

Bekokia zimurtu zuen Bazarovek. Emakume askatu haren irudi txiki eta xarma gutxikoan ez zegoen ezer itsusirik; haren aurpegiera, hala ere, desatsegina gertatzen zitzaion ikusleari. Nahi gabe, besteak beste honakoa galdetzeko gogoaz pizten zuen: «Zer gertatzen zaizu?, goseak zaude?, asperturik?, kikildurik? Zergatik zaude atezuan?». Sitnikovek bezala, hark ere beti zeukan atsekabeturik arima. Oso zalua eta aldi berean traketsa zen hala hizkeran nola mugitzeko moduan ere: nabari zitzaionez, izaki on eta tolesgabetzat zeukan bere burua, eta, bestetik, egiten zuena egiten zuela, beti ematen zuen ez zela hori egin nahi zuena; bazirudien haren egin-tza guztiak berariazkoak zirela, hau da, ez besterik gabeak, ez berezkoak.

— Bai, bai, lehendik ezagutzen zaitut, Bazarov —errepikatu zuen. (Gizonezko bat ezaguturik, lehen egunetik bertatik abizenaz deitzeko ohitura zuen, probintzietako zein Moskuko dama askok bezala.)—. Zigarrorik nahi?

— Zigarroak zigarro —esan zuen Sitnikovek, ordurako besaulki batean zabal-zabal eseririk eta oinak jasorik baitzegoen—, eskainiezaguzu bazkaria ere. Goseak amorratzen gaude; eta agin ezazu xanpaina-botilatxo bat ekartzeko.

— Sibaritarra zara, gero! —esan zuen Evdoksiak, eta barrez hasi zen. (Barre egiten zuenean, goiko oia agerian geratzen zitzaion hortzen gainean.)—. Ez al da egia, Bazarov, sibaritar hutsa dela?

— Bizimodu ona maite dut —esan zuen, arrandiaz, Sitnikovek—. Horrek ez dit eragozten liberala izatea.

— Horixe eragozten dizula, horixe eragozten dizula! —egin zuen espantu Evdoksiak, baina, hala ere, bai bazkaria eta bai xanpaina ekartzeko agindu zion bere zerbitzariari—. Zuk zer deritzozu? —gaineratu zuen, Bazarovi zuzendurik—. Ziur nago nire uste berekoa zarela.

— Bada, ez —ihardetsi zuen Bazarovek—, okela-zati bat ogi-puska bat baino hobea da, are kimikaren ikuspuntutik ere.

— Kimika ikasten duzu, ala? Izugarri atsegin zait niri. Ore bat asmatu ere egin dut, nik neuk.

— Ore bat? Zuk?

— Bai, nik. Eta badakizu zertarako? Panpinak egiteko, burutxoak apur ez dadin. Izan ere, praktikoa ere banaiz. Baina oraindik ez daukat prest. Liebig irakurri behar dut oraindik. Aizu, irakurri duzu Kilsiakov-ek emakumearen lanari buruz *Moskovskie Vedomosti*-n argitaratu duen artikulua? Irakur ezazu, mesedez. Zeren, inondik ere, interesatzen zaizu emakumearen gaia, bai? Eta eskolarena? Zer du lanbide zure adiskideak? Nola du izena?

Kukshina andreak berariazko axolagabetasun laxoz isurtzen zituen bere galderak bata bestearen atzetik, erantzunaren zain geratu gabe; ume mainatuek horrelaxe hitz egiten dute haurtzainekin.

— Arkadi Nikolaitx Kirsanov dut izena —esan zuen Arkadik—, eta ez dut lanik egiten.

Barrez lehertu zen Evdoksia.

— Hori jendetasuna! Eta?, ez duzue erretzen? Victor, badakizu haserre nagoela zurekin?

— Zer dela eta?

— Diotenez, berriro ibili zara George Sand goraiatzaren. Atzeraturik geratu da emakume

hori, guztiz atzeraturik! Nolatan jar daiteke Emerson baten parean? Tutik ere ez daki, ez hezkuntzaz, ez fisiologiaz, ez ezertaz. Ziur nago enbriologia zer den ere ez dakiela; eta zer egin daiteke gaur egun hori gabe? (Besoak zabaldu zituen Evdoksiak.) Oi zein artikulu ederra idatzi duen Elisevitx-ek gai horretaz! Jeinua da jaun hori, jeinua! (Evdoksiak beti erabiltzen zuen «jaun» hitza «gizon» hitzaren ordeez.) Bazarov, eser zaitez nire ondoan dibanean. Ohartu ez bazara ere, izugarritzko beldurra dizut.

— Zergatik? Jakiteko irrikan nago.

— Jaun arriskutsua zara, kritikari zorrotza. Ah, ene Jainkoa! Bai barregarria!, estepako lurjabe baten antzera hitz egiten ari naiz. Dena dela, horixe naiz, lurjabea. Nik neuk gobernatzen dut etxaldea, eta kontu egin ezazue badudala arduradun bat, Jerofei, gizaseme miresgarria bera, Cooper-en Patfainder haren antzekoa: badu halako berezkotasun bat. Behin betiko kokatu naiz hemen; jasanezina da hiri hau, ezta? Baina zer egingo diot!

— Beste edozein hiri bezalakoa da —erantzun zuen, hotz, Bazarovek.

— Hain interes ziztrinak dituzte denek, izugarria da! Lehen, Moskun igarotzen nituen neguak... baina orain han bizi da nire senarra, *mesié* Kukshin. Orain, gainera, Mosku... ez dakit nola esan... ez da lehengo bera. Atzerrira joateko asmoa dut; iaz ere erabaki sendoa neukan harturik.

— Parisera edo? —galdetu zuen Bazarovek.

— Parisera eta Heidelberg-era.

— Zergatik Heidelbergera?

— Galdetzea ere! Han bizi da Bunsen.

Bazarovek ez zuen horretarako erantzunik aurkitu.

— Pierre Sapojnikov... ezagutzen duzu?

— Ez, ez dut ezagutzen.

— Ez da izango! Pierre Sapojnikov... oraindik ere sarritan izaten da Lidia Khostatova-ren etxean.

— Andre hori ere ez dut ezagutzen.

— Bada, jaun hori nire bidelaguna izateko prest agertu da. *Jainkoari eskerrak*, aske naiz, ez dut seme-alabarik... Hara zer atera zaidan: Jainkoari eskerrak! Tira, berdin dio.

Evdoksia, bere hatz tabakoaren keak belztuekin zigarro bat bildu, mihia paperetik igaro, hurrupatu, eta erretzen hasi zen. Zerbitzaria sartu zen, erretilu bat eskuan.

— Hona hemen bazkaria! Jan nahi duzue? Victor, kendu kortxoa botilari; zure egitekoa da hori.

— Nire egitekoa, nire egitekoa —murduskatu zuen Sitnikovek, eta barre-algara zoliak egin zituen berriro ere.

— Hemen bada neska politik? —galdetu zuen Bazarovek, hirugarren kopa husteaz batera.

— Bai —erantzun zuen Evdoksiak—, baina hain dira denak buruarinak. Esaterako, *mon amie* Odintsova ez da batere itsusia. Tamalez, haren omena hain da... Nolanahi ere, horrek ez du garrantzirik, baina haren pentsamoldeak ez du inolako askatasunik, inolako zabaltasunik, inolako... zerik. Goitik behera aldatu beharra dago hezkuntza-sistema. Behin baino gehiagotan erabili dut hori buruan; gure emakumeak oso txarto hezita daude.

— Alferrikakoa duzu haietaz arduratzea, ez duzu ezertxo ere lortuko —esan zuen Sitniko-

vek—. Arbuioa merezi dute, eta arbuiatzen ditut nik, erabat eta guztiz! (Arbuiatu eta bere arbuioa adierazi ahal izatea sentipen guztietan atsegine-
na zen Sitnikoventzat; batez ere, emakumezkoei erasotzen zien, susmatu ere egin gabe hilabete batzuk geroago burua makurtuko zuela bere emaztearen aurrean, zergatik eta, soil-soilik, jaiotzez Durdoleosova printzesa zelako.) Haieta-
ko bat bera ere ez litzateke gai gure elkarrizketa hau ulertzeko; haietako batek ere ez du merezi guk, gizon serioak baikara, berari buruz hitz egi-
tea!

— Baina haiek ez dute inolako beharrik gure elkarrizketak ulertzeko —esan zuen Bazarovek.

— Nortaz ari zarete? —sartu zen tartean Evdoksia.

— Emakume politez.

— Nola? Bat zatozte Proudhon-en ideiekin?

Tente jarri zen Bazarov, harro-harro.

— Ni ez nator bat inoren ideiekin: neureak ditut.

— Behera agintea! —egin zuen oihu Sitniko-
vek, Bazaroven presentzian zakar mintzatzeko

aukerak alaiturik, har baten antzera herrestatzen baitzen haren aurrean.

— Baina Macaulay bera... —hasi zen Kukshina.

— Behera Macaulay! —egin zuen orro Sitnikov— . Neska txoriburu horien alde zaude?

— Ez nago neska txoriburu horien alde, emakumezkoen eskubideen alde baizik, neure azken odol-tanta isurtzeraino eskubide horiek aldeztuko ditudala zin egin dut eta.

— Behera! —Baina hortxe gelditu zen Sitnikov—. Nik ez ditut ukatzen eskubide horiek —esan zuen.

— Ez, ikusten dudanez, eslavofiloa zara!

— Ez, ez naiz eslavofiloa, nahiz eta, hori bai,

...

— Ez, ez, ez! Eslavofiloa zara. *Domostroi*-ren jarratzaile sutsua zara. Zigorra eskuan, horixe bakarrik falta zaizu.

— Zigorra gauza ona da —ohartarazi zuen Bazarovek—, baina azken tantaraino iritsi gara...

— Zerena? —eten zion Evdoksiak.

— Xanpainarena, Avdotia Nikitishna ohoragarria, xanpainarena, ez zure odolarena.

— Ezin ditut axolagabe entzun emakumezkoen kontrako erasoak —jarraitu zuen Evdoksiak—. Izugarria da hori, izugarria. Haien aurka egin beharrean, hobe Michelet-en *De l'amour* liburua irakurriko bazenute. Zoragarria da! Hitz egin dezagun maitasunaz, jaunok —erantsi zuen Evdoksiak, besoa dibaneko bigungarri zimurtuaren gainera erortzen utziz.

Bat-batean, isiltasuna nagusitu zen.

— Ez. Zertarako hitz egin maitasunaz? —esan zuen Bazarovek—. Odintsova aipatu duzu lehen-txeago... Horrela deitu diozu, bai? Nolakoa da andre hori?

— Xarmagarria, xarmagarria! —ekin zion Sitnikovek, garrasika—. Aurkeztuko dizuet egunen batean. Buruargia, aberats okitua, alarguna. Zoritxarrez, oraindik ez da behar bezain burujantzia: harreman estuagoa izan beharko luke gure Evdoksiarekin. Zeure osasunerako, Eudokhie! Egin dezagun topa! *Et toc, et toc, et tin-tin-tin! Et toc, et toc, et tin-tin-tin!!*

— Bihurria galanta zu, Victor!

Asko luzatu zen bazkaria. Lehen xanpainabotilaren ondotik beste bat etorri zen, eta hiru-

garren bat eta are laugarren bat ere... Evdoksia hitz eta pitz ari zen; Sitnikovek arrazoia ematen zion. Luze eztabaidatu zuten ezkontza zer den, aurreiritzia ala krimena, eta ea gizaki guztiak berdinak jaiotzen diren ala ez, eta indibidualismoa zertan datzan zehatz-mehatz. Eta azkenean, Evdoksia, gorri-gorri edandako ardoaren eraginez eta bere azazkal kamutsekin piano gozakaiztuaren teklak joz, ahots sendoz abesten hasi zen, ijito-kantak aurrena, Seymour-Schiff-en *Erdi lo dago Granada logalea* erromantza hurrena, eta Sitnikovek, lepo-berogarria buruan lotu, eta hil zorian dagoen maitalearena egin zuen, hitz hauek esanez:

*Hire ezpainak eta nireak
musu kartsu batean elkartu.*

Arkadik ezin izan zuen gehiagorik jasan. «Jau-nak, Bedlam-en antza hartzen ari da hau», ohar-tarazi zuen ozenki. Bazarov, zeinak noizean behin isekazko hitzen bat sartzen baitzuen elkar-rizketan —xanpaina zuen ardura nagusi—, aha-rrausi zaratatsua egin, zutik jarri, eta, etxeoan-

drea agurtu gabe, kanpora irten zen Arkadirekin batera. Sitnikov ziplo abiatu zen haien atzetik.

— Eta? Eta? —galdetzen zuen, losintxari, noiz eskuinetara eta noiz ezkerretara lasterka—. Esan nizuen eta: emakume miragarria da! Horrelako emakume gehiago behar ditugu hemen! Bere erara, moraltasun handiko fenomeno da.

— Eta hire aitaren establezimendu hori ere moraltasunezko fenomeno da? —esan zuen Bazarovek, hatzaz taberna bat seinalatuz, une horretan haren aldamenetik igarotzen ari baitziren.

Sitnikovek barre-algara zoliak egin zituen berriro. Oso lotsatzen zen bere jatorriaz, eta ez zuen jakin balakagarritzat ala mingarritzat hartu behar zuen Bazaroven hiketa ustekabeko hura.

XIV

Zenbait egun geroago, gobernadoreak dantzaldia eman zuen etxean. Matvei Ilitx «jaiko heroia» izan zen; probintziako gobernuburuak guzti-guztiei jakinarazi zien harenganako begiruneak soilik ekarri zuela dantzaldira, eta gobernadoreak, berriz, are dantza-saioan bertan ere, «aginduak ematen» jarraitzen zuen, geldi-geldirik. Matvei Ilitxen manera atseginak beraren hotsandiarekin soilik pareka zitezkeen. Guztiak balakatzen zituen, nazka-ukitu batekin batzuk, begirunezko ñabardura batekin beste batzuk; *en vrai chevalier francais* lausengatzen zituen damak, eta barrez zegoen beti, irri zabal, ozen eta berdingabe batez, goi-mailako funtzionario bati dagokion legez. Zapladatxo batzuk eman zizkion Arkadiri bizkarrean, eta «ilobatxo» deitu zion goraki; orobat ohoratu zuen Bazarov, zeina frak zahartxo batez jantzirik baitzegoen, arreta handirik gabeko begirada arin baina barkabera batez eta marru ilun baina bihozkor batez, zeinetik «ni» eta «oso» hitzak soilik ulertu baitziren;

hatza luzatu zion Sitnikovi, eta irribarre egin, baina berehala jiratu zuen burua; are Kukshinari berari ere, zeina merinakerik gabe eta eskularru zikinekin baina ilean paradisuko hegazti bat zeukala agertu baitzen dantzaldira, are Kukshinari berari ere esan zion: «*Enchanté*». Jende asko zegoen, eta ez zen galairik falta; zibil gehienak hormaren alboan bildurik zeuden; militarrek, aldiz, dantza egiten zuten denbora guztian, batez ere haietako batek, zeina sei bat astez bizi izan baitzen Parisen, han askotariko oihu ozarrak ikasi zituela, hala nola «*zut*», «*ah fichtrrrre*», «*pst, pst, mon bibi*» eta abar. Bikain ebakitzen zituen, Parisko doinu chic peto-petoaz, eta, aldi berean, «*si j'aurais*» esaten zuen «*si j'avais*» esan beharrean, eta «hutsik egin gabe» zentzua ematen zion «*absolument*» hitzari; labur esanik, errusieraren eta frantsesaren nahaste zen hizkera mordoilo bat erabiltzen zuen; frantsesek, hain zuzen ere, barre egiten diote hizkera horri, noiz eta ez baitute inolako beharrik errusiarroi sine-tsarazteko aingeruek bezala egiten dugula haien hizkuntzan, «*comme des anges*» alegia.

Arkadik, dakigunez, txarto egiten zuen dantza, eta Bazarovek, berriz, ez zuen inola ere dantzarik egiten; bazter-zoko batean kokatu ziren biak; Sitnikov haiekin elkartu zen. Bere irribarre destainazkoa aurpegian eta iruzkin garratzak eginez, lotsagabeki begiratzen zuen ingurura, eta bazirudien benetako plazerra sentitzen zuela. Bat-batean, mudatu egin zitzaion aurpegiera, eta, Arkadirenganantz jiraturik, urduri-antzean esan zion: «Iritsi duk Odintsova».

Arkadik, begiekin ingurua arakatu, eta emakume garai bat ikusi zuen aretoko atean, soineko beltz batez jantzirik. Txunditurik utzi zuen haren irudiaren xarmak. Beso biluziak eder ageri ziren gorputz-enbor lirainaren alde banatan luze; eder erortzen zitzaizkion abartxo fuksiakolore batzuk ile-adats distiratsutik sorbalda leunetaraino; lasai eta adimentsu, batez ere lasai, baina ez pentsakor, horrelaxe begiratzen zuten haren begi argiek bekoki zuri doi bat irtenaren azpitik, eta ezpaineak, berriz, irribarre sumagaitza egiten zuten. Halako indar samur eta gozo bat zerion aurpegi hari.

— Ezagutzen duzu? —galdetu zion Arkadik Sitnikovi.

— Lagun minak gara. Aurkeztuko dizut?

— Bai, mesedez... kontradantza hau amaitzen denean.

Bazarovek ere arreta jarri zion Odintsovare.

— Nor da emakume polit hori? —esan zuen—. Ez du gainerakoan antzik.

Kontradantza amaitu arte itxaron zuten. Sitnikovek Odintsovarenganaino eraman zuen Arkadi; baina ez zirudien lagun mina zuenik: harekin mintzatzean, korapilatu egin zitzaizkion hitzak, eta emakumeak nolabaiteko harriduraz begiratu zion. Hala ere, haren aurpegiak begikotasuna adierazi zuen Arkadiren abizena entzun zuenean. Ea Nikolai Petrovitxen semea zen galdetu zion.

— Bai horixe.

— Pare bat aldiz ikusi dut zure aita, eta askotan entzun ditut berari buruzkoak —jarraitu zuen—. Oso pozten nau zu ezagutuak.

Une horretantxe, edekan bat inguratu eta kontradantzarako gonbita egin zion. Baiezkoa eman zion Odintsovak.

— Dantza egiten duzu? —galdetu zion Arkadik, begirune handiz.

— Bai. Zergatik uste duzu ez dudala dantza egiten? Zaharregi deriztazu, ala?

— Ez hurrik eman ere... Orduan, onar iezadazu mazurka bat dantzatzeko gonbita.

Odintsovak irribarretxea egin zuen, barkaberra.

— Atsegin handiz —esan zuen, eta arreba ezkonduak neba gaztetxoei begiratzen dieten bezala begiratu zion Arkadiri, ezen ez handikeriaz.

Odintsova Arkadi baino zaharxeagoa zen, hogeita bederatzi urte zituen, baina Arkadi eskola-ume, ikasle xehe sentitzen zen haren presentzian, bien arteko adin-aldea oso handia balitz bezala. Matvei Ilitx hurbildu zitzaion, handientsu eta losintxa-jario. Arkadi bazter batera aldendu zen, baina Odintsova zelatatzen jarraitu zuen: ez zuen ikusmenetik galdu kontradantzak iraun zuen bitarte guztian. Goi-mailako funtzionario batekin bezain eroso hitz egiten zuen dantza-lagunarekin; astiro mugitzen zuen burua, emeki kliskatzen zituen begiak, eta ahapekako barre-

txoak egin zituen birritan. Lodi samarra zuen sudurra, errusiar gehienek bezalaxe, eta azal-mintzaren kolorea, berriz, ez guztiz aratza; hori guztia ikusirik, Arkadik erabaki zuen sekula ez zuela ordu arte hain emakume liluragarririk eza-gutu. Haren ahotsaren doinua ez zitzaion ezabaz-tzen belarrietatik; soinekoaren tolesek berek ere beste emakumeenen desberdinak ematen zuten, egokiagoak eta lasaiagoak, eta haren mugimenduak bereziki zaluak ziren, eta guztiz naturalak aldi berean.

Mazurkaren lehen doinuak entzun zirelarik, halako kikiltze bat sumatu zuen Arkadik biho-tzean: bere damaren aldamenean eseri zen, eta, solasari ekiteko prest, eskua iletik igaro baino ez zuen egin, hitzik aurkitu ezinik. Baina ez zuen luze iraun kikildurik eta aztoraturik; Odintsovak bere lasaitasuna kutsatu zion berehala: ordu laurden bat igarotzerako, jario errazez ari zen hizketan aitaz, osabaz eta Petersburgeko zein herrixkako bizitzaz. Odintsovak adeitasunezko arretaz entzuten zion, haizemailea leunki zabaldu eta biltzen zuela; Arkadiren hitz-jarioa eten egiten zen galairen batek Odintsova dantza-

lagun hautatzen zuen bakoitzean; Sitnikovek bi aldiz egin zion dantzarako gonbita. Itzultzen zen Odintsova, berriro eseri eta atzera hartzen zuen haizemailea, eta haren bularrak ez zuen lehen baino azkarrago hartzen arnasa, eta Arkadik berriro ekiten zion solasari, zorionez gainezka beraren aldamenean zegoelako, berarekin hizketan, bertatik bertara so beraren begietara, beraren bekoki ederrera, beraren aurpegi atsegin, serio, adimentsura. Gutxi hitz egiten zuen Odintsovak, baina haren hitz bakanek bizitza ezagutzen zuela erakusten zuten; haren iruzkin batzuetatik Arkadik ondorioztatu zuen ezen emakume hark, gazte izanagatik ere, asko jasan eta hausnartu zuela ordurako...

— Norekin zeunden —galdetu zion Odintsovak— Sitnikovek niregana ekarri zaituenean?

— Begi eman diozu? —galdetu zuen Arkadik—. Ez da egia oso gizon erakargarria dela? Bazarov da, nire adiskidea.

«Bere adiskidea»z hitz egiten hasi zen Arkadi.

Hain sutsuki gorai patu zuen, hainbeste xehe-tasun eman zizkion, ezen Odintsovak, haren-

gantz jiratu, eta adi-adi begiratu baitzion. Ordu-rako, amaitzear zegoen mazurka. Tamalgarri zitzaion Arkadiri harengandik bereiztea: hain gustura igaro zuen ordu bete inguru berarekin! Egia esan, bitarte horretan guztian Arkadik sentitu zuen Odintsovak samurtasunez tratatu zuela, eta esker ona zor ziola horren ordainez... baina sentipen hori ez da eragozpen izaten bihotz gazteentzat.

Isildu egin zen mazurka.

— Merci —esan zuen Odintsovak, jaikitzeaz batera—. Bisita egingo didazula hitzeman didazu, ekar ezazu zeure adiskidea ere. Irrikaz nago ezertan ere ez sinesteko adorea duen gizon bat ezagutzeko.

Gobernadorea Odintsovarengana hurbildu zen, afaria prest zegoela jakinarazi, eta besoa eskaini zion, arduratsu. Alde egitean, Arkadirenganantz jiratu zen Odintsova, azken aldiz irribarre egiteko eta buruaz agurtzeko. Arkadik, bere aldetik, kilimusi nabarmena egin zion, begiekin atzetik jarraitu (zein lirain ageri zen haren gorputza seda beltzaren distira grisaxkak bildurik!), eta pentsatu zuen: «Une honetantxe, nitaz ahaz-

tu duk jadanik»; eta halako etsipen sotil bat sumatu zuen ariman...

— Zer moduz? —galdetu zion Bazarovek Arkadiri, bazter-zokora itzuli bezain laster—. Pozik hago? Handi-mandi horietako batek orain-txe bertan esan zidak emakume hori zera dela, ai-ai-ai; baina delako handi-mandi hori ergela duk inondik ere. Zer diok hik?, ai-ai-ai da?

— Ez diat ondo ulertzen definizio hori —erantzun zuen Arkadik.

— Horrelakorik! Hi bai inozoa!

— Nolanahi ere, ez diat hire handi-mandi hori ulertzen. Odintsova oso atsegina duk, inolako zalantzarik gabe, baina hain jokutzen dik hotz eta zorrotz...

— Begira nazak ur gelditik... badakik! —esan zuen Bazarovek—. Hotza dela diok. Hain zuzen ere, horixe zeukak xarmarik handiena. Ez zaizkik gustatzen izozkiak?

— Balitekek —murduskatu zuen Arkadik—, ezin diat hori epaitu. Ezagutu nahi hau, eta beraren etxera nirekin eramateko eskatu zidak.

— Imajinatzen diat nola pintatu nauan! Dena dela, ondo egin duk. Eraman nazak berarenga-

na. Dela probintzietako mari-apain bat, dela *émancipée* horietako bat, edozer dela ere, aspaldian ez diat ikusi harenak bezalako sorbaldarik.

Mindu zen Arkadi Bazaroven zinismoarekin, eta kargu hartu zion adiskideari, baina, sarritan gertatu ohi denez, ez preseski gogaikarri gertatu zitzaion horrengatik...

— Zergatik ez diek onartu nahi emakumezko-ei pentsatzeko askatasuna? —galdetu zuen aha-peka.

— Bada, egiaztatu dudanez, emakume itsusiek bakarrik pentsatzen dutelako askatasunez, nire adiskide hori.

Hortxe bukatu zen elkarrizketa. Afaria amaitu eta berehala, etxera joan ziren bi gazteak. Kuks-hinak gorrotozko barre urduri batez baina ez herabetasunik gabe agurtu zituen: izugarri mindurik zeukan bere buruarenganako estimua, ez batak ez besteak batere jaramonik egin ez ziotelako. Inor baino beranduago arte geratu zen dantzaldian, eta gaueko lauak aldera polka-mazurka bat dantzatu zuen Sitnikovekin Parisko erara. Ikuskizun eredugarri horrekin amaitu zen gobernadorearen jaia.

XV

— Ikus dezagun ugaztunen zein kategoriari dagokion ale hau —ziotson biharamunean Bazarov-ek Arkadiri, biak Odintsovaren ostatuko zurbian gora zihoazela—. Susmo txarra hartzen zioat nik honi.

— Harritzekoa! —egin zuen espantu Arkadik—. Zer dugu, gero? Hik ere, Bazarov, hik ere eusten diok moral estu horri...

— Zein aldrebasa haizen! —eten zion Bazarov-ek, zabar—. Ez al dakik gure hizkeran eta gutarrentzat «txarra»k «ona» esan nahi duela? Baderla probetxu onik, alegia. Gaur hik heuk esan duk Odintsova oso modu estrainoan ezkondu zela; nire ustez, ordea, zahar aberats batekin ezkontzea ez duk inondik inora estrainoa, zuhurra baizik. Nik ez ditiat sinesten hiriko esamesak, baina atsegin zaidak pentsatzea ezen, gure gobernadore ikasi horrek dioenez, egiazkoak direla.

Arkadik ez zion ezer erantzun eta gelako atea jo zuen. Libreaz jantziriko mirabe gazte batek gela handi batera eraman zituen bi adiskideak.

Txarto altzariturik zegoen, Errusiako ostatuetako gela guztiak bezala, baina lorez apaindurik. Berehala agertu zen Odintsova bera, goiz-soineko soil batez jantzirik. Gazteagoa ematen zuen udaberriko eguzkiaren argitan. Arkadik Bazarov aurkeztu zion, eta isileko harriduraz ohartu zen adiskidea aztoraturik-edo zegoela; Odintsova, aldiz, lasai-lasai zegoen, aurreko egunean bezalaxe. Aztoraturik zegoela konturatu zen Bazarov bera ere, eta bere buruarekin haserretu zen. «Arraioa! Emakume baten aurrean kikiltzea ere!», pentsatu zuen, eta, besaulki batean amildurik, ez Sitnikovek egingo zuen baino era txarragoz, gehiegizko ozartasunez hasi zen hizketan, eta Odintsovak ez zituen bere begi argiak berarengandik bereizten.

Anna Sergeievna Odintsova Sergei Nikolaievitx Loktev-engandik jaio zen, zeina entzute handiko gizon ederra izan baitzen, iruzurtia eta jokalaria. Hamabost bat urte iraun zuen Petersburgen eta Moskun bizitzen, zalaparta handia ateraz nonahi, eta, azkenik, den-dena jokoan galdurik, herrixka batera joan behar izan zuen bizitzera, non, bestetik, laster hil baitzen, fortuna ezinago

urria utzirik bi alabei: Anna, hogei urtekoa, eta Katerina, hamabi urtekoa. Haien ama, Kh*** printzearen familia txirotuko kidea bera, Petersburgen zendu zen, senarra artean bere ahalen gorenean zelarik. Anna oso egoera latzean geratu zen aita hildakoan. Petersburgen heziketa ezin hobea jaso zuen arren, ez zegoen prestaturik etxaldea gobernatzeko eta etxeko zereginez arduratzeko, ezta bazter herri batean bizitzeko ere. Ez zuen inguruko inortxo ere ezagutzen, eta ez zeukan aholku nori eskaturik. Aita beti ahalegindu zen auzolagunekin inolako harremanik ez izaten, gutxietsi egiten zituen, eta haiek ere, zeinek bere erara, gutxietsi egiten zuten bera. Guztiarekin ere, Annak ez zuen burua galdu, eta berehala deitu zion beregana amaren ahizpari, Avdotia Stepanovna Kh*** printzesari. Emakume zaharra zen, maltzurra eta buruiritzia; ilobaren etxean kokatu zelarik, beretzat hartu zituen gelarik onenak, marmarka eta erremuskadaka aritzen zen goiz eta arrats, eta bere mirabe bakarraz lagundurik soilik ibiltzen zen are lorategian ere. Mirabe goibela zen hura, hiru adarreko kapela batez eta galoi urdinekiko librea maiztu

ilarkolore batez jantzia. Annak egonarriz eramaten zituen izebaren apeta guztiak, ahizparen heziketaz arduratzen zen, eta, nonbait, bazter leku hartan zimelduko zela etsi zuen... Baina bestelako patua egokituko zitzaion. Halabehararren zoriaz, berarengan erreparatu zuen Odintsov izeneko gizon batek, oso aberatsa bera, berrogeita sei urtekoa, bitxia, hipokondriakoa, lodia, zakarra eta erretxina, baina, bestetik, ez ergela eta ez gaiztoa ere, zeinak, maitemindurik, ezkontzeko mandatu egin baitzion. Onartu egin zuen Annak haren emaztea izatea. Odintsov sei urtez bizi izan zen berarekin, eta, hiltzean, bere ondasun guztiak utzi zizkion. Senarra hil ondoren, Anna Sergeievnak urtebete inguru egin zuen herrixkatik irten gabe; gero, atzerrira joan zen ahizparekin batera, baina Alemanian soilik izan ziren; herriminak jota, bere Nikolskoe kuttunera itzuli zen, zeina *** hiritik berrogei bat bertara baitzegoen. Etxe dotore eta apain askoa zeukan han, eta lorategi zoragarri bat, berotegi eta guzti: Odintsov zenak ez zion ezer ukatzen bere buruari. Anna Sergeievna oso gutxitan joaten zen hirira, bere zereginek hartaraturik gehie-

netan, eta inoiz ez zen luzaz egoten han. Ez zuten maite probintzia hartan, izugarri gogor gaitzesten zuten denek Odintsovekiko ezkontza, denetariko gezur-laidoak zabaltzen zituzten berari buruz, esaten zuten aitari laguntzen ziola iruzur eta azpikerietan, eta ez zela besterik gabe joan atzerrira, zoritxarreko ondorioak ezkutatu beharrak eraginik baizik... «Badakizue zertaz ari naizen, ezta?», esaten zuten berri-ontzi haserreek. «Asko ibilia da mundu zabalean», esaten zuten beraren gainean, eta probintziako zirtolari ezagun batek hau erantsi ohi zuen: «Bide estuetan, ordea». Haren belarrietara iristen ziren esamesa horiek guztiak, baina ez zien jaramonik egiten: burujabea eta nahikoa kementsua zen berez.

Eseririk zegoen Odintsova, besaulkiaren bizkarraldean bermaturik, eta, eskua esku gainean, Bazarovi entzuten zion. Bazarov, ohi zuenaz bestera, berritsu samar zegoen eta ahalegin nabariak egiten zituen solaskidearen arreta pizteko, eta horrek berriro harritu zuen Arkadi. Ezin esan zezakeen, hala ere, Bazarov bere helburua erdiesten ari ote zen. Annaren aurpegian nekez

igar zitekeen zer sentitzen zuen: aurpegiera atsegin eta gizabidetsu berbera erakusten zuen denbora guztian; haren begi ederrek jakinminez distiratzen zuten, jakinmin barez baina. Bisitaren aurreneko minutuetan, gozakaitz iritzi zien Bazaroven imintzio nabarmenegiei, hala nola gozakaitza gertatzen baita kiratsa edo durundi zolia; baina berehala ohartu zen bisitaria aztoraturik zegoela, eta are balakagarri gertatu zitzaion hori. Arruntasunak soilik gogaitarazten zuen, baina Bazarovi ezin inork leporatu gizon arrunta zenik. Arkadiren harridurak ez zuen etenik izango egun hartan. Espero zuen Bazarovek bere iritzi eta ideiei buruz hitz egingo ziola Odintsovari, emakume argia baitzen: hark berak adierazi zuen «ezertan ere ez sinesteko adorea duen gizon bati» entzuteko irrikaz zegoela; baina, horren ordeaz, medikuntzaz, homeopatiatz eta botanikaz mintzo zen. Odintsovak, nabari zitzaionez, ez zuen denborarik galdu bere bakaraldian: hainbat liburu on irakurri zituen eta ondo egiten zuen errusieraz. Musikara eramane zuen solasaren haria, baina, Bazarovek artea onartzen ez zuela konturaturik, botanikara lerra-

tu zen arian-arian, nahiz eta Arkadi herri-doinuen garrantziaz mintzatzen hasia zen. Neba gaztea balu bezala tratatzen jarraitzen zuen Odintsovak: zirudienez, ontasuna eta tolesgabetasuna bakarrik balioesten zituen berarengan. Hiru ordu eta gehiago iraun zuen solasaldiak, baratxe, oparo eta bizi.

Zutitu ziren noizbait bi adiskideak, eta agurtzeari ekin zioten. Anna Sergeievnak amultsuki begiratu zien, bere esku zuri ederra biei luzatu eta, apur batean pentsakor egon ondoren, irribarre zalantzati baina polit batez esan zien:

— Aspertzearen beldur ez bazarete, jaunak, etorri egunen batean Nikolskoera.

— Zurekin ez dago aspertzerik, Anna Sergeievna! —egin zuen oihu Arkadik—. Niretzat zorion paregabea litzateke...

— Eta zu, *mesié* Bazarov?

Bazarovek buru-makurtua besterik ez zuen egin, eta Arkadi azken aldiz harritu zen: adiskidea gorri ipini zela ohartu zen.

— Eta? —galdetu zion kalean—. Oraindik uste duk ai-ai-ai dela?

— Batek daki! Ikusi duk zein hotza den! —
erantzun zuen Bazarovek, eta, isilune laburra
eginik, erantsi—: Dukesa ematen dik, erregina.
Soingaineko dindirriduna atzean arrastaka eta
koroa buru gainean, horixe bakarrik falta zaiok.

— Gure dukesek ez ditek horrela hitz egiten
errusieraz —ohartarazi zion Arkadik.

— Garai latzetan, nire adiskide hori, geure
ogi beretik jan zian honek.

— Nolanahi ere, xarmagarria duk —esan
zuen Arkadik.

— Zeinen gorputz ederra! —jarraitu zuen
Bazarovek—. Anatomiako anfiteatroan erakuste-
ko modukoa.

— Isilik egon hadi, Jevgeni, Jainkoaren ize-
nean! Horrelakorik esatea ere!

— Ea, ez haserretu, milika halakoa. Kalitate-
rik onenekoa duk, bai horixe. Harenera joan
behar diagu.

— Noiz?

— Etzi bertan. Zer egin behar dugu hemen?
Xanpaina edan Kukshinarekin? Hire ahaide
handi-mandi liberal horri entzun?... Etzi abiatuko
gaituk. Gainera, nire aitaren etxaldetxoa handik

hurbil zegok. Nikolskoe hori ***ko bidean zegok, ezta?

— Bai.

— *Optime*. Ez zegok gerotik gerora zertan ibilirik; ergelak bakarrik ibiltzen dituk gerotik gerora, eta buruargiak ere bai. Lehen ere esan diat: zeinen gorputz ederra!

Hiru egun geroago, Nikolskoeko bidean ziren bi adiskideak. Argitsu zegoen eguna, ez zuen bero handiegirik egiten, eta posta-zaldi ondo janarituak lauoinka zihoazen denak batera, buztan kiribildu eta txirikordatuei leunki eraginez. Arkadik irribarretsu begiratzen zion bideari, zergatik ez zekiela.

— Zorionak eman behar dizkidak —egin zuen oihu Bazarovek ustekabeen—, gaur ekainaren 22a duk, nire santuaren eguna! Ikusiko diagu nola babesten nauen. Gaur, nire zain egongo dituk etxean —gaineratu zuen, ahotsa beheraturik—. Zain egon daitezela, bada, garrantzi gutxi-ko kontua duk hori!

XVI

Anna Sergeievna bizilekutzat zeukan etxaldea malda leuneko muino soil batean zegoen; harrizko eliza hori bat zeukan hurbil, teilatua berde, zutarriak zuri eta, sarrera nagusiaren gainean, *al fresco* eginiko margolan bat, «Jesukristoren berpiztea» irudikatzen zuena, estilo «italiarrean». Lehen planoan bereziki nabarmentzen zen, bere ertzinguru biribilarekin, buru-oskoldun gerlari beltzaran baten irudi zabala. Elizaz harago herrixka luze bat zegoen, bi ilaratan hedaturik, hor-hemen tximiniak ageri zirela lastozko teilatuetan. Jauretxea elizaren estilo berean eraikirik zegoen, gure herrian Alexandrotarra deritzoten estilo horretan alegia; hura ere horiz margoturik zegoen, eta teilatu berdea zuen, eta zutarri zuriak, eta aurrealde armarriduna. Odintsovenak ezin jasan zezakeen ezein berritasun alferrikako eta berezkorik, berak esaten zuen bezala, eta haren oniritziarekin altxatu zituen probintziako arkitektoak bi eraikinak. Lorategi zaharreko zuhaitz ilunek bi aldetatik biltzen zuten etxea;

izei adar-motzez osaturiko ibilbide batek sarrera-raino zeraman.

Libreaz jantziriko bi mirabe lerdenek egin zieten harrera gure bi adiskideei etxeko atarian; haietako bat lasterka joan zen otseinburuaren bila. Otseinburua, frak beltz batez jantziriko giza-
seme lodia bera, berehala agertu zen, eta tapi-
zez estaliriko zurubi batean gora gidatu zituen
gela berezi bateraino, non jadanik antolatuak
baitzituzten bi ohe eta norberaren garbiketarako
beharrezkoak diren zer guztiak. Nabaria zen
ordena zela nagusi etxe hartan: txukun zegoen
dena, eta halako urrin gozo bat aditzen zen
nonahi, ministerioetako harrera-geletan bezala.

— Anna Sergeievnak eskatzen dizue ordu
erdi barru joateko berarengana —jakinarazi zien
otseinburuak—. Bitartean, ez duzue ezeren
beharrik?

— Ez, ez dugu ezeren beharrik, lagun ohora-
garri hori —erantzun zuen Bazarovek—. Eskertu-
ko genizuke kopa bana vodka ekartzea, besterik
ez.

— Zuen esanera —erantzun zuen otseinburuak, ez harridurarik gabe, eta han joan zen, botak kirriz-karraz.

— Zeinen *grand genre!* —bota zuen Bazarovek—. Horrela esaten diozue zuek, ezta? Benebenetako dukesa duk.

— Dukesa ona, alajaina! —ihardetsi zuen Arkadik—. Ezagutu bezain azkar, bere etxera gonbidatu ditik gu bezalako aristokrata handi bi.

— Batez ere, ni, sendagilegaia eta sendagile baten seme eta sakristau baten biloba... Ez hekien sakristau baten biloba naizela?... Speranski bezala —erantsi zuen Bazarovek, isilune laburra eginik eta ezpainak okerturik—. Dena dela, ondo mainatzen dik bere burua; oi, nola mainatzen duen bere burua andre honek! Fraka jantzi beharko dugu?

Soinak goratu besterik ez zuen egin Arkadik... baina halako urduritasun bat sentitu zuen berak ere.

Ordu erdi geroago, egongelara jaitsi ziren Bazarov eta Arkadi. Gela zabal eta garaia zen, luxu handi samarrez baina gustu berezirik gabe apaindua. Altzari astun garestiak ohiko ordena

zorrotzaren arabera banaturik zeuden hormaren alboan, zeina zerrenda urrekarekiko paper gaztainakara batez jantzirik baitzegoen; Odintsov zenak Moskutik ekarrarazi zuen horma-paper hura, adiskide eta merkataritza-artekari zuen ardo-saltzaile baten bitartez. Erdiko dibanaren gainean, gizon guri ilehori baten potreta zegoen esekirik, eta bazirudien gogo gaiztoz begiratzen ziela gonbidatuei. «Inondik ere, *bera* duk —xuxurlatu zion Bazarovek Arkadiri, eta, sudurra zimurturik, gaineratu—: Hanka egingo dugu?» Baina une horretantxe etxekoandrea sartu zen gelan. Artilezko soineko arin batez jantzirik zegoen; ileak, belarrien aztean leun orrazturik baitzeukan, dontzeila-itxura ematen zion haren aurpegi garbi eta samurrari.

— Estimutzen dizuet zeuen hitza bete izana —hasi zen—. Gera zaitezte denboraldi batez hemen: ez zaizue damutuko, benetan. Ahizpa aurkeztuko dizuet; ondo jotzen du pianoa. Zuri, *mesié* Bazarov, bost axola horrek; baina zuk, *mesié* Kirsanov, gogoko bide duzu musika. Ahizpaz gain, izeba zahar bat ere bizi da hemen nirekin, eta auzolagun bat kartetan jokatzera etor-

tzen da noizean behin: hori da gure gizarte guztia. Baina eser gaitezen.

Odintsovak berebiziko argitasunez egin zuen hitzaldi labur hori, buruz ikasi balu bezala; gero, Arkadirenganantz jiratu zen. Kontua zen Arkadiren amak haren ama ezagutu zuela bere garaian, eta, are gehiago, Nikolai Petrovitxekiko maitasun-gorabeheren ezagukide izan zuela. Arkadi kartsuki hitz egiten hasi zen ama zenari buruz; Bazarovek, bitartean, albumak miratzeari ekin zion. «Zeinen otzan bihurtu naizen», zioen bere artean.

Lepoko urdineko erbi-zakur eder bat lasterka sartu zen egongelan, lurra zapaltzean azazkalekin zarata ateraz, eta haren atzetik, berriz, hemezortzi urte inguruko neska bat. Ilebeltza eta beltzarana zen, aurpegi bete samarra baina atsegina zuen, eta begi txiki ilunak. Lorez beteriko saski bat zeukan eskuetan.

— Hona hemen nire Katia —esan zuen Odintsovak, buruaren mugimendu batez neska seinatuz.

Katia, buru-makurtu arina egin, ahizparen aldamenean eseri, eta loreak antolatzen hasi

zen. Erbi-zakurra, zeinari Fifi baitzeritzon, txandaka hurbildu zen bi gonbidatuengana, buztanari eraginez, eta eskuak ukitu zizkien bere sudur hotzarekin.

— Zeuk bildu dituzu lore horiek guztiak? — galdetu zion Odintsovak Katiari.

— Bai, neuk —erantzun zuen Katiak.

— Eta izeba, tea hartzera etorriko da?

— Bai, etorriko da.

Mintzatzean, oso irribarre polita egiten zuen Katiak, herabe eta xaloa, eta behetik gora begiratzen zuen halako zorroztasun jostagarri batez. Artean gaztea eta heldugabea zuen dena: ahotza, aurpegi osoa biltzen zion biloa, esku arrosa-koloreak eta ahurretako biribilki zurixkak, sorbalda doi bat estua...

Etengabe lotsagorritzen zen eta bizkor hartzen zuen arnasa.

Bazarovenganantz jiratu zen Odintsova.

— Adeitasunarengatik soilik zaude hor irudiak ikusten, Jevgeni Vasilix —hasi zen—. Hori ez zaizu interesatzen. Hurbil zaitez guregana eta eztabaida gaitezen honetaz edo hartaz.

Hurbildu zen Bazarov.

— Zertaz hitz egingo dugu? —galdetu zuen.

— Zuk nahi duzunaz. Aldez aurretik jakinarazten dizut ikaragarria naizela eztabaidatzeko orduan.

— Zu?

— Ni. Badirudi harrigarri zaizula hori. Zergatik?

— Bada, orain arte ikusi dudanaren arabera, lasaia eta hotza zarelako, eta eztabaidatzeko sutsua izan beharra dago.

— Eta nolatan jakin duzu, hain denbora laburrean, nolakoa naizen? Lehenik, urduria eta tematsua naiz, galdeiozu, bestela, Katiari; eta, bigarrenik, oso erraz berotzen naiz.

So egin zion Bazarovek Anna Sergeievnari.

— Baliteke; zuk hobeto jakingo duzu hori. Eztabaida nahi duzu, beraz. Has gaitezen, bada. Lehentxeago Suitza Saxoiko ikuspegiak miratzen ari nintzen albumean, eta zuk ohartarazi didazu ezinezkoa dela niri hori interesatzea. Arte-sentimenik ez dudala uste duzulako esan duzu hori, eta, izan ere, ez dut halakorik; baina litekeena da irudi horiei interesgarri iriztea geologiaren

ikuspuntutik, mendien formazioaren ikuspuntu-
tik, esaterako.

— Barkatu, baina, geologo gisa, lehenago
joko zenuke liburuetara, horri buruzko obra bere-
zietara alegia, marrazkietara baino.

— Marrazki batek argi eta garbi erakusten dit
liburu batean hamar orrialdetan azaldurik dato-
rrena.

Isilik geratu zen Anna Sergeievna.

— Beraz, arte-sentimenik batere ere ez duzu?
—esan zuen, ukondoak mahai gainean bermatu-
rik, eta mugimendu horrek berak Bazarovenga-
na hurbildu zion aurpegia—. Nola moldatzen
zara hori gabe?

— Eta zertarako behar dut?

— Bada, gutxienez, jendea ezagutzen eta
aztertzen jakiteko.

Irribarre txikia egin zuen Bazarovek.

— Lehenik, bizitzaren esperientzia dago
horretarako, eta bigarrenik, jakinarazi behar
dizut ez duela merezi gizakiak banaka aztertzea.
Gizabanako guztiak elkarren antzekoak dira hala
gorputzez nola arimaz; gutariko bakoitzaren
barruan, berdin eraturik daude burmuina, barea,

bihotza eta birikak; eta tasun moralak deritzeten horiek ere berdinak dira guztiongan: aldaera txikiak ez dute inolako garrantzirik. Aski da giza ale bakar bat aztertzea, gainerako guztiak nolakoak diren jakiteko. Gizabanakoak basoko zuhaitzak bezalakoak dira; ez dago botanikaririk urki-ale guztiak banan-banan aztertuko lituzkeenik.

Katiak, inolako presarik gabe loreak banan-banan hautatzen ari baitzen, harriduraz jaso zituen begiak Bazarovenganantz, eta, haren begirada bizkor eta arduragabearekin topo eginik, belarrietaraino gorritu zen. Anna Sergeievna ezezka ari zen buruaz.

— Basoko zuhaitzak —errepikatu zuen—. Beraz, zure iritziz, ez dago inolako alderik pertsona ergelen eta argien artean, gizaki onen eta gaiztoen artean?

— Ez, badago alderik, gaixoaren eta osasundunaren artean bezalaxe. Hetikak jota dagoenaren birikak eta gureak ez daude egoera berean, nahiz eta hala harenak nola gureak antzera eratuak diren. Gutxi gorabehera, badakigu nondik datozen gorputzeko gaitzak; gaixotasun moralak, berriz, heziketa txarretik datoz, txikitatik

jendearen buruan sartzen dituzten hutsalkeria guztietatik; hitz batean, gizartearen antolamendu okerretik. Konpondu gizartea, eta ez da gai-xotasunik izango.

Halako moldez esan zuen Bazarovek hori guztia, ezen bai baitzirudien aldi berean honela zioela bere kolkorako: «Ez dit axolarik sinesten didazun ala ez!». Astiro laztantzen zituen belarrondoko bizarrak bere hatz luzeekin, eta begiak, berriz, bazterrik bazter zebilzkion.

— Eta, zure ustez —esan zuen Anna Sergeievna—, gizartea konpontzen denean, ez da izango ez ergelik eta ez gaiztorik?

— Behinik behin, zuzen antolaturiko gizarte batean axola gutxiko kontua izango da gizabakoa ergela edo argia, ona edo gaiztoa den.

— Bai, ulertzen dut; bare bakarra izango dute denek.

— Halaxe da, andrea.

Arkadirenganantz jiratu zen Odintsova.

— Eta zuk zer uste duzu, Arkadi Nikolaievitx?

— Bat nator Jevgenirekin —erantzun zuen.

Begi-ertzetik begiratu zion Katiak.

— Harritzen nauzue, jaunok —esan zuen Odintsovak—, baina geroko utzi beharko dugu gure eztabaida hau. Orain, entzuten dudanez, tea hartzera dator izeba; erruki gaitzen haren belarriez.

Anna Sergeievnaren izeba —Kh*** printzesa, alegia— argala zen eta txikia, ukabil estu bilduaren antzekoa zuen aurpegia, eta haren begi doilorrek ez zuten zirkinik ere egiten ileorde zuria-zen azpian. Egongelan sartu eta, gonbidatuei buru-makurtu arina eginik, hortxe amildu zen belusezko besaulki zabal batean, zeinean, berak izan ezik, inork ez baitzuen esertzeko eskubiderik. Katiak aulkitxo bat ipini zion oinen azpian; atsoak ez zion eskerrik eman, begiratu ere ez zion egin, gorputz erkina ia osorik biltzen zion sorbalda-oihal horiaren azpian besoak mugitu besterik ez zuen egin. Printzesak gogoko zuen kolore horia: xingola horiminez apaindurik zeukan burukoa.

— Zer moduz lo egin duzu, izeba? —galdetu zion Odintsovak, ahotsa goraturik.

— Berriro hemen dabil zakur hau —murduskatu zuen, erantzun gisa, atso zaharrak, eta, iku-

sirik Fifik bi urrats zalantzati eginak zituela bera-
renganantz, oihuka esan zuen—: Alde! Alde!

Katiak, Fifiri deitu, eta atea ireki zion.

Fifi ziztu bizian joan zen kanpora, pozik,
paseatzera aterako zutelakoan, baina, atiaz
bestaldean bakarrik utzi zutelarik, atzamarka
eta intzirika hasi zen. Bekozko iluna jarri zuen
printzesak. Katiak handik alde egiteko gogo
zuen...

— Uste dut prest dagoela tea —esan zuen
Odintsovak—. Goazen, jaunak; tea hartu nahi
duzu, izeba?

Printzesa, ezer esan gabe besaulkitik altxatu,
eta lehena irten zen egongelatik. Haren atzetik
abiatu ziren denak jangelara. Libreaz jantziriko
mirabe gazte batek zarataka aldendu zuen
mahaitik besaulki orobat berezi bat, bigungarriz
estalia, non amildu baitzen printzesa. Katiak, tea
zerbitzatzan hasi, eta aurrena berari eman zion
kikara bat armarri bat margoturik zeukana. Atso-
ak ezta bota zuen bere kiharara (uste zuen tea
azukrearekin hartzea txarra zela, eta garestia,
nahiz eta berak ez zuen ezertarako ere sosik

gastatzen), eta ustekabean galdetu zuen, ahots erlatsez:

— Eta zer idatzi du Ivan printzeak?

Inork ez zion erantzun. Bazarov eta Arkadi berehala konturatu ziren ez ziotela jaramonik egiten, nahiz eta, hori bai, begirune handiz tratatzen zuten beti. «Beren printze-jatorriaz harrotzeko aukera ematen dielako bakarrik jasaten ditek», pentsatu zuen Bazarovek. Tea hartu ondoren, paseatzera joatea proposatu zuen Anna Sergeievnak; baina euri lanbroa hasi zuen, eta egongelara itzuli zen talde osoa, printzesa izan ezik. Karta-jokoa atsegin zuen auzolagun hura iritsi zen orduan. Porfiri Platonitx zeritzon, gizona zen, ileurdina, oso adeitsua eta irribera, eta zizelatu-antzeko hanka laburrak zituen. Anna Sergeievnak, nagusiki Bazarovekin hitz egiten baitzuen, galdetu zion ea nahi zuen *préférence* izeneko karta-jokoan aritu, aspaldiko moda zaharrari jarraiki. Baiezkoa eman zion Bazarovek, esanez ezen, egunen batean herriko sendagile izango bazen, alde zuretik prestatu behar zuela bere burua lanbide horretarako.

— Argi ibili —ohartarazi zion Anna Sergeiev-
nak— Porfirik eta biok aise menderatuko zaitu-
gu. Eta zuk, Katia —erantsi zuen—, jo ezazu zer-
bait Arkadi Nikolaievitxentzat; berak gogoko du
musika, guk bidenabar entzungo dugu.

Katia gogoz bestera hurbildu zen pianora; eta
Arkadi, musika zinez maite bazuen ere, gogoz
bestera joan zen haren atzetik: iruditzen zitzaion
Odintsovak bere aldamenetik bidaltzen zuela,
eta, ordurako, adin horretako edozein mutil gaz-
teri gertatuko zitzaion bezala, maitasunaren
auresentipenaren antzeko sentimendu lauso
eta abailgarri bat ernea zen haren bihotzean.
Katiak, pianoaren estalkia jaso, eta, Arkadiri
begiratu gabe, ahapeka esan zuen:

— Zer joko dizut?

— Nahi duzuna —erantzun zuen Arkadik, axo-
lagabeki.

— Zein musika-mota duzu gogokoena? —gal-
detu zuen atzera Katiak, jarreraz aldatu gabe.

— Klasikoa —erantzun zuen Arkadik, lehengo
ahots-doinu berberaz.

— Atsegin zaizu Mozart?

— Bai, atsegin zait Mozart.

Mozarten re bemoleko sonata-fantasia auke-ratu zuen Katiak. Oso ondo jotzen zuen, baina latz eta lehor samar. Zurrun eta zuzen eseririk zegoen, begiak partituran tinko eta ezpainak gogor estaturik, eta sonataren amaiera aldera soilik piztu zitzaion aurpegia, eta ile-xerlo jare bat bekain ilunaren gainera erori zitzaion.

Gutziz ere txunditu zuen Arkadi sonataren azken parteak, zeinean, melodia laxoaren alaitasun liluragarriaren erdian, bat-batean sortzen baita halako samintasun goibel eta ia trajiko baten soinu-erauntsia... Baina Mozarten doinuek eragiten zizkioten gogoetek ez zuten zerikusirik Katiarekin. Berari begira zegoela, pentsamendu bakarra zuen buruan: «Ederto jotzen dik andereño honek, eta ederra duk bera ere».

Sonata amaitutakoan, Katiak, eskuak klavieretik altxatu gabe, galdetu zuen: «Aski duzu?». Arkadik esan zion ez zuela gehiago nekarazteko adorerik, eta Mozarti buruz hitz egiten hasi zen berarekin, galdetu zion ea berak hautatu zuen sonata hura ala baten batek gomendatu zion. Baina Katiak silababakarrez erantzun zion: *ezkutatatu* egin zen, bere baitara bildu. Hori gertatzen

zitzaionean, ez zen behingoan ateratzen bere baitatik; horrelakoetan, haren aurpegiak berak halako aire setatsu bat hartzen zuen, ia ergela. Ez zen lotsakorra, fidakaitza baizik, eta nolabaiteko beldurra zion ahizpari, bere hezkuntzaren arduradun baitzuen, nahiz eta hark, jakina, ez zuen beldur horren susmorik. Arkadik, azkenean, Fifiri deitu zion, gelara itzulia baitzen, eta, *contenance* egiteko, haren burua laztantzen hasi zen, onginahizko irribarrea aurpegian. Katiak atzera ekin zien bere loreei.

Bazarovek, bitartean, behin eta berriro galtzen zuen, saio bat beste baten atzetik. Anna Sergeievnak maisutasunez jokatzeko kartertan, eta Porfiri Platonitx ere jokalaria ona zen. Ez zuen diru askorik galdu Bazarovek, baina, hala ere, hori ez zitzaion batere atsegina gertatu. Afaritan, Anna Sergeievna botanikaz hitz egiten hasi zen berriro.

— Bihar goizean, paseatzera joango gara — esan zion Bazarovi—, basalandareen berezitasunak eta latinezko izenak ikasi nahi ditut zuregandik.

— Zertarako jakin nahi dituzu latinezko izenak? —galdetu zion Bazarovek.

— Ordena behar da gauza guztietan —erantzun zuen.

— Zein emakume miragarria den Anna Sergeievna! —egin zion oihu Arkadik lagunari, izendatu zieten gelan bakarrik geratu zirelarik.

— Bai —erantzun zuen Bazarovek—, andre buruduna duk. Eta asko ikusia!

— Zein zentzutan esan duk hori, Jevgeni Vasilitx?

— Zentzu onean, Arkadi Nikolaievitx maitea, zentzu onean! Ziur nagok ezin hobeto gobernatzen duela bere etxaldea. Baina zoragarriena ez duk bera, ahizpa baizik.

— Nola? Beltzarantxo hori?

— Bai, beltzarantxo hori. Berria duk, ukigabea, izukorra, isila eta nahi duan guztia. Berak bai merezi dik arreta. Gogoak ematen dian guztia lor dezakek berarengandik; ahizpa, aldiz, zakur zaharra duk.

Arkadik ez zion ezer erantzun Bazarovi, eta ohean sartu ziren biak, nork bere gogoetak buruan.

Arrats hartan, bere gonbidatuengan pentsatu zuen Anna Sergeievna ere. Gustatu zitzaion Bazarov, limurtzaile horietakoa ez zelako eta haren ideien garrantzarengatik ere bai. Zerbait berria zekusan berarengan, ordu arte inorengan aurkitu ez zuen zerbait, eta jakinminez zegoen.

Anna Sergeievna izaki bitxi samarra zen. Ez zuen inolako aurreiritzirik, ezta inolako sinesmen sendorik ere, ez zuen ezeren aurrean atzera egiten eta ez zuen jomuga zehatzik. Gauza asko ikusten zituen argi, gauza asko interesatzen zitzaizkion, eta ezerk ez zuen erabat gogobetetzen; baina, inondik ere, ez zuen erabateko gogobetetasunik nahi. Haren adimena jakinzale eta axolagabea zen aldi berean: zalantzak inoiz ez zitzaizkion ahanzturaraino ezabatzen eta inoiz ez zitzaizkion larritasuneraino hazten. Aberatsa eta burujabea izan ez balitz, beharbada, borrokari ekingo zion eta grina zer den jakingo zuen... Baina, batzuetan aspertu arren, aise bizi zen, egunez egun, presarik gabe eta oso gutxitan artekatzen zela. Inoizka, kolore atseginak pizten zitzaizkion begien aurrean, baina lasaitu egiten zen kolore haiek iraungitzen zirenean, eta

ez zuen haien damurik izaten. Haren irudimena ohiko moralaren legeek onargarritzat jotzen zutenaren mugaz harago joan ohi zen; baina, horrelakoetan ere, odola lehen bezain bare ibiltzen zen haren gorputz liluragarri, lerden eta lasaian barrena. Batzuetan, bainu urrintsutik ateratzean, dena epel eta laxo, burura etortzen zitzaizkon bizitzako huskeriak, nahigabeak, nekeak eta zoritxarrak... Ustekabeko adorez betetzen zitzaion arima, asmo onez borborka jartzten zitzaion barrua; baina haizeño mehe bat sartzen zen orduan leiho erdi irekitik, eta Anna Sergeievna, goitik beheraino dardaraka, kexatu eta ia haserretu egiten zen, eta gauza bakarra nahi izaten zuen une horretan: haize zital hori berarenganaino ez iristea.

Maitatzea lortu ez duten emakume guztiek bezala, zer edo zer irrikatzen zuen, baina ez zekien zehazki zer. Egia esan, ez zuen ezer desiratzen, dena desiratzen zuela iruditzen zitzaion arren. Nekez jasan zuen Odintsov zena (komeni zitzaiolako ezkondu zen berarekin, nahiz eta, seguraski, gizon ontzat eduki ez balu, ez zuen onartuko beraren emaztea izatea), eta isileko

gorrotoa hartu zien gizonezkoei, narras, zakar, baldar eta ezinago gogaikarri baitzeritzen guztiguztiei. Behin, atzerrian, suediar gazte bat eza-gutu zuen; ederra zen, haren aurpegierak gizalegea adierazten zuen, begi urdin garbiak zituen bekoki argiaren azpian: zirrara handia eragin zion, baina horrek ez zion eragotzi Errusiara itzultzea.

«Zein gizon bitxia den sendagile hau!», pentsatu zuen, bere ohe guztiz dotorean etzanik, farfailezko bigungarrien gainean, sedazko burusi arinaren azpian... Anna Sergeievna luxuzaletasunaren parte txiki bat heredatu zuen aitarendik. Oso maite izan zuen aita, bekataria baina ona baitzen, eta aitak, berriz, maitasun neurrigabea zion, adiskide gisa aritzen zen txan-txetan berarekin, bere berdintzat harturik, uste osoa zuen berarengan eta aholku eskatzen zion. Oso lausoa zuen, aldiz, amaren oroitzapena.

«Zein bitxia den sendagile hau!», errepikatu zuen bere ar-tean. Nagiak atera, irribarre egin, eta buruaren atzean ipini zituen eskuak; gero, frantsesezko eleberri txaldan baten orrialde bi gaingiroki irakurri, liburua erortzen utzi, eta lo

hartu zuen, dena garbi eta hotz, izara garbi eta urrintsuen artean.

Biharamun goizean, gosaldu bezain laster, Anna Sergeievna botanikan jardutera joan zen Bazarovekin, eta bazkaltzeko ordua jo aurretixe itzuli zen; Arkadi ez zen inora joan eta ordu bete inguru eman zuen Katiarekin. Ez zen aspertu berarekin, Katia prest agertu baitzen aurreko eguneko sonata berriz jotzeko, baina Odintsova itzuli zenean, bere aurrean ikusi zuenean, bihotza estutu zitzaion lipar batez... Nekatu-antzean zebilen lorategian; gorri zeuzkan masailak, eta begiek ohi baino argitsuago distiratzen zuten lastozko kapela biribilaren azpian. Basaloretxo baten zurtoin mehea zerabilen jirabiraka atzamar artean, lepo-oihal arina ukondoetaraino iristen zitzaion, eta bularrari itsatsirik zeramatzan kapelako xingola gris zabalak. Bazarov haren atzean zihoan, ustetsu eta arduragabe, beti bezala, baina haren aurpegiera, alaia eta are gozoa bazen ere, ez zitzaion gustatu Arkadiri. Bazarov, hortz artean «Egun on!» murduskatu, eta bere gelara joan zen, eta Odintsovak bestela

bezala estutu zion eskua Arkadiri eta gelditu

gabe igaro zen bera ere haren aldamenetik.

«Egun on! —pentsatu zuen Arkadik—. Gaur

ez dugu elkar ikusi?»

XVII

Denbora (gauza jakina da) txoria bezala hegan doa batzuetan, zizarea bezala herrestan beste batzuetan; baina, gizabanakoa, laster edo astiro doan ohartu ere egiten ez denean dago benetan gustura. Arkadik eta Bazarovek hain zuzen ere horrelaxe igaro zituzten hamabost bat egun Odintsovarenean. Neurri batean, Odintsovak hala bere etxean nola bere bizitzan ezarria zuen ordenak lagundu zuen horretan. Estu lotzen zitzaion bera ordena horri, eta zorrotz betearazten zien besteei. Eguneko zeregin bakoitza ordu jakin batean egiten zen. Goizean, zortzi-zortzietan, tea hartzeko elkartzen ziren etxeko bizilagun guztiak; gero, bazkaltzeko ordua arte, gogoak ematen ziona egiten zuen bakoitzak; etxekoandreak etxaldeko gorabeherrez jarduten zuen administratzailearekin (errentan utziak zizkien lurak nekazariei), otseinburuarekin, giltzain nagusiarekin. Bazkaldu aurretik, berriro elkartzen ziren denak, solasean aritzeko edo irakurtzeko; arratsaldea, berriz,

paseatzeko, kartetarako edo musikarako tenorea zuten; hamar eta erdietan, bere gelara biltzen zen Odintsova, biharamuneko aginduak eman, eta lotara etzaten zen. Bazarovek ez zuen laket eguneroko bizitzaren arautasun zehatz, nolabait hotsandiko hura. «Estu bideraturik zegok hemen bizitza», esaten zuen; mirabe libreaz jantziek eta otseinburu zeremoniatsuek mindu egiten zioten bere sentimen demokrati-koa. Iruditzen zitzaion ezen, gauzak horrela, ingelesen erara jantzirik bazkaldu beharko luke-tela: frakez eta gorbata zuriz, alegia. Behin, hala jakinarazi zion Anna Sergeievnari berari. Halako moldez jokatzeko zuen etxekoandreak, ezen jende guztiak bere iritzia agertzen baitzizkion inolako zalantzarik gabe. Entzun zion Odintso-va, eta esan: «Zure ikuspuntutik, arrazoi duzu, eta, kasu horretan, andre goikoa nauzu ni; baina herrixkan ezinbesteko zaigu ordena, bizitza zeharo aspergarria litzateke bestela»; eta bere ohiko jokabideari eusten zion. Erremuskadak egiten zituen Bazarovek; baina, hain zuzen ere, bera eta Arkadi horrexegatik bizi ziren hain aise Odintsovarenean, hango bizitza «estu bideratu-

rik» zegoelako. Hala ere, Nikolskoeko egonaldiko lehen egunez gero, aldaketa gertatu zen bi gazteengan. Bazarovengan, zeinari Anna Sergeiev-nak, nahiz eta gutxitan egoten zen ados berarekin, onginahi nabaria erakusten baitzion, ordu arte inoiz sentitu gabeko larritasun bat hasi zen sortzen: erraz gozakaizten zen, gogoz bestera hitz egiten zuen, haserre begiratzen zuen eta ezin zen geldirik egon, bazirudien zerbait ari zitzaiola barrena marraskatzen; Arkadi, zeinak behin betiko etsi baitzuen Odintsozaz maitemindurik zegoela, goibeltasun isil batera lerratzen hasi zen. Goibeltasun horrek, hala ere, ez zion eragozten Katiaregana hurbiltzea; alderantziz, lagundu ere egin zion neskarekin harreman gozo, adiskidetsuak izaten. «*Berak* ez naik aintzakotzat hartzen! Bego horretan!... Baina horra hor izaki on bat baztertzen ez nauena», pentsatzen zuen, eta haren bihotzak berriro dastatzen zuen gogo-jasotasunezko sentipenen gozotasuna. Katia lausoki ohartzen zen Arkadi halako poz-bide baten bila inguratzen zitzaiola, eta ez zion ukatzen, ez hari eta ez bere buruari, adiskidetasun erdi lotsakor, erdi zintzoaren atsegin xaloa.

Anna Sergeievna presentzian ez zuten hitz egiten elkarrekin: Katia beti uzkurtzen zen ahizparen begirada zorrotzaren azpian, eta Arkadiri, maitemindu guztiei gertatzen zaien bezala, maittea hurbil egonik ezinezkoa zitzaion arreta beste ezertan jartzea; eroso sentitzen zen, ordea, Katiarekin bakarrik zegoenean. Konturatzen zen ez zela gai Odintsova erakartzeko; kikildu eta nahasi egiten zen harekin bakarka zegoenean; eta hark ez zuen jakiten zer esan berari; gaztegia zen Odintsovarentzat. Katiarekin, ordea, etxean bezala sentitzen zen; etorkor jokatzeko zuen berarekin, ez zion eragozten kontakizun zein olerkiak irakurtzeak, musikak eta bestelako huskeriek eragiten zioten zirrara adieraztea, eta ez zen ohartzen edo ez zuen aitortu nahi *huskeria* haiek bazutela eraginik berarengan ere. Katiak, berriz, ez zion tristura eragozten. Arkadi ondo konpontzen zen Katiarekin, eta Odintsova Bazarovekin, eta, horrenbestez, honakoa gertatu ohi zen: bi bikoteak, apur batean elkarrekin egon ondoren, bereizi eta zein bere aldetik joaten ziren, paseatzeko tenorean batez ere. Katiak izugarri maite zuen natura, eta Arkadik gogoko

zuen, hori aitortzera ausartzen ez bazen ere; Odintsovari, aldiz, ez zion axola handirik, Bazarovi bezala. Gure adiskideen bereizte ia etengabe hura ez zen ondoriorik gabekoa gertatu: aldatzen hasi ziren haien arteko harremanak. Bazarovek bertan behera utzi zuen Arkadirekin Odintsovaz hitz egiteko ohitura, eta utzi zion orobat haren «manera aristokratikoak» gaitzesteari; egia esan, lehen bezalaxe goraiatzat zuen Katia, eta samurberatasunerako joera baztertzea beste aholkurik ez zion ematen, baina arrapaladakoak izaten ziren haren laudorioak, zakarrak aholkuak, eta, oro har, lehen baino askoz gutxiago hitz egiten zuen Arkadirekin... bazirudien ihes egiten ziola, adiskideaz lotsatzen zela...

Ohartzen zen Arkadi horretaz guztiaz, baina beretzat gordetzen zituen bere egiaztapenak.

Odintsovak Bazarovengan ernatu zuen sentimendua izan zen «berrikuntza» horren guztiaren benetako eragilea. Oinaze-iturri eta amorragarri zitzaion sentimendu hori Bazarovi, eta baten batek aditzera eman balio horrelakorik gerta zekiokelako irudipenik lausoena ere, bertantxe

ukatuko zuen berak, destainaz barreka eta birao zinikoren bat eginez. Biziki atsegin zitzaizkion Bazarovi emakumeak eta haien edertasuna, baina maitasuna zentzu ideal edo, berak esaten zuen legez, erromantikoan zozokeria iruditzen zitzaion, ezin barkatuzko ergelkeria, eta akats edo gaixotasun baten parekotzat zeuzkan gizon-tasun-sentimenduak oro, eta behin baino gehiagotan agertzen zuen bere harridura Toggenburg eroetxean sartu ez zutelako bere kobleri eta trobadore guztiekin batera. «Emakume bat atsegin bazaik —esan ohi zuen—, saia hadi onura ateratzen; eta ezin baduk, ez kezkatu, bazter utzi emakume hori, mundua ez duk hor amaitzen.» Atsegin zitzaion Odintsova: hari buruz zabalduriko zurrumurruak, haren pentsamenduen askatasun eta beregaintasuna, erakusten zion begikotasun nabaria, hori guztia bere alde zuela begitantzen zitzaion Bazarovi; laster jabetu zen, hala ere, harengandik ez zuela «onurarik aterako», baina, bere harridurarako, ezin zuen bazter utzi. Irakiten jartzen zitzaion odola Odintsovaz gogoratze hutsarekin; aise menderatuko zukeen odolaren beroa, baina beste zerbait ere sortua

zitzaion barnean, inondik inora onartzen ez zuen zerbait, beti barregarria iruditu zitzaion eta bere harrotasun guztia mintzen zion zerbait. Anna Sergeievnarekiko solasaldietan, lehen baino are sarriago agertzen zuen erromantizismo ororen aurkako arbuio axolagabea; bakarrik geratzen zelarik, ordea, haserre kausion zuen erromantiko bat bere baitan. Horrelakoetan, basora joan eta hara-hona ibiltzen zen pauso-luzeka, lurrera eroritako adarrak apurtuz eta ahapeka errieta eginez Odintsovari eta bere buruari; edo lastategian gordetzen zen, eta, begiak setaz itxirik, lo hartzen saiatzen zen, nahiz eta, esan gabe doa, askotan ez zuen bere helburua lortzen. Bat-batean kontu egiten zuen ezen, egunen batean, beso lizungabe haiek lepoa inguratuko ziotela, ezpain harro haiek musuka erantzungo ziotela, begi argi haiek samurtasunez —bai, samurtasunez— begiratuko ziotela, eta zorabiatu egiten zen orduan, eta liluraren mende geratzen une batez, harik eta haserrea berriro pizten zitzaion arte. Mota guztietako pentsamendu «lotsagarrietan» murgildurik harrapatzen zuen bere burua, deabruak berak kitzikatuko balu bezala.

Batzuetan iruditzen zitzaion Odintsova bera ere aldatzen ari zela, haren aurpegieran zerbait berezia agertzen ari zela, agian... Baina, horra iritsirik, lurrari ostikoka hasten zen, edo hortzak karraskatzen zituen, eta ukabilaren mehatxua egiten zion bere buruari.

Ez zegoen guztiz oker Bazarov. Irudimena kilikatua zion Odintsovari, erakargarri zitzaion, askotan pentsatzen zuen berarengan. Bera kanpoan zelarik, Odintsova ez zen aspertzen, ez zen beraren zain egoten, baina agertzen zenean, berehala pizten zen; atsegin zitzaion berarekin bakarka egotea eta solasean aritzea, are hase-rrerazten zuenean edo bere gustu onarentzat, bere ohitura finentzat iraingarri gertatzen zitzaionean ere. Bazirudien Bazarov probatu eta bere burua saiatu nahi zuela.

Behinola, lorategian paseatzen ari zirela, Bazarovek ahots goibelez jakinarazi zion luze gabe aitaren herrira joatekoa zela... Zurbil jarri zen Odintsova, bihotza ziztatu baliote bezala, hain mingarriro ziztatu ere, ezen harritu egin baitzen, eta gero luzaz egon baitzen horren esanahia hausnartzen. Joatekoa zela jakinarazi zion,

beraz, Bazarovek, baina ez Odintsova probatze-ko asmoz edo horrek zer-nolako ondorioak ekartz-en zituen ikustearren: ez zuen inoiz «gezurrik» esaten. Goiz hartan, hizketan egona zen aitaren administratzailearekin. Timofeitx zeritzon eta jagole izana zuen haurtzaroan. Timofeitx hura agure zimel eta zalua zen, ile hori margula zuen, haizeak lakarturiko aurpegi gorria eta malkotxo ñimiñoak begi uzkurtuetan. Ustekabean agertu zen Bazaroven aurrera, larruzko uhal batez lotu-riko beroki gris urdinxka lodi bat eta txarolezko botak jantzirik.

— Aspaldiko, egun on! —egin zuen oihu Baza-rovek.

— Egun on, Jevgeni Vasilitx jauna —hasi zen agurea, pozik, eta irribarre egitean zimurrez bete zitzaion aurpegia.

— Zer dela eta hemen? Nire bila bidali zaituz-te?

— Mesedez, jauna, horrelakorik pentsatzea ere! —esan zuen Timofeitxek, totalka (abiatu aurretik nagusi jaunak emaniko agindu zorrotzaz gogoratu zen)—. Hirira nindoan nagusi jaunaren mandatuak egitera, eta zure berri jakin dut, eta

zera... bide batez zu ikustera etortzea bururatu zait... bestela ez nizuke inola ere enbarazurik egingo!

— Gezurrik ez esan —eten zion Bazarovek—. Hiriko bidea hemendik igarotzen da, ala?

Zalantzan geratu zen Timofeitx, eta ez zuen ezer erantzun.

— Ondo dago aita?

— Bai, Jainkoari eskerrak.

— Eta ama?

— Arina Vlasievna ere ondo dago, Jaungoikoari eskerrak.

— Nire zain daude?

Agureak alde batera okertu zuen burutxo.

— Ai, Jevgeni Vasilix, nolatan ez dira zure zain egongo? Jainkoaren izenean zin egiten dizut bihotza tristuraz erdibitzen zaidala zure gurasoei begiratzen diedan bakoitzean.

— Ondo da, ondo da! Ez eman xehetasun gehiagorik. Esaiezu laster izango naizela haiekin.

— Zure esanera —erantzun zuen, hasperen eginez, Timofeitxek.

Etiket irtendakoan, bi eskuekin kapela buruan sartu, iristean ate aurrean utzi zuen droj-

ki kaxkarrera igo, eta han joan zen trosta astiroan, baina ez zuen hiri aldera jo.

Egun horretan bertan, arratsaldean, Odintsova bere gelan zegoen Bazarovekin, eta Arkadi poliki zebilen egongelan barrena, Katiari entzuten, pianoa jotzen ari baitzen. Printzesa bere gelara igoa zen lehenago; oro har, jasanezinak gertatzen zitzaizkion gonbidatuak, eta are gehiago «araugabe berri» haiek, berak hala esaten baitzien. Etxeko gela nagusietan, bekozko iluna jarri besterik ez zuen egiten; bere gelan, ordea, neskamearekin bakarrik zegoela, hain amorrubiziak hartzen zuen, ezen burukoa dardaraka hasten baitzitzaion ileordearekin batera. Odintsovak bazekien horren guztiaren berri.

— Zer dela eta erabaki duzu joatea? —hasi zen—. Ahaztu zaizu agindutakoa?

Zirgit egin zuen Bazarovek.

— Zer, gero?

— Ahaztu zaizu? Kimika eskola batzuk eman nahi zenizkidan.

— Zer egingo diot! Zain daukat aita; ezin naiz gehiago luzatu hemen. Gainera, Pelouze et Fremy-ren *Notions générales de Chimie* irakur

dezakezu; liburu ona da eta argi idatzirik dago. Hortxe aurkituko duzu behar duzun guztia.

— Baina gogoan izan zuk zeuk esan didazula liburuek ezin dutela ordeztu... ahaztu zait nola adierazi zenuen, baina badakizu zer esan nahi dudan... gogoan duzu?

— Zer egingo diot! —errepikatu zuen Bazarovek.

— Zergatik joan? —esan zuen Odintsovak, ahotsa apaldurik.

Begiratu zion Bazarovek. Odintsovak besaulkiaren bizkarraldean jarri zuen burua, eta bularrean gurutzatu besoak, ukondoraino biluzik. Zurbil ageri zen gelako kriseilu bakarraren argitan, kriseilua paperezko argiaurre moztu batez bildurik baitzegoen. Soineko zuri zabalak osorik estaltzen zion gorputza bere toles leunekin; ozta-ozta ikusten zitzaizkion oin-muturrak, haiek ere gurutzaturik.

— Eta zergatik geratu? —erantzun zuen Bazarovek.

Odintsovak doi bat itzuli zuen burua.

— Nola zergatik? Ez zaude pozik nire etxean? Edo uste duzu hemen ez garela zure minez egongo?

— Ziur nago horixe gertatuko dela.

Isilik geratu zen Odintsova.

— Ez duzu bidezko hori pentsatzea. Dena dela, ez dizut sinesten. Inondik ere, ez duzu hori seriotan esan, ezinezkoa da.

Bazarovek eseririk jarraitzen zuen, mugitu gabe.

— Zergatik zaude isilik, Jevgeni Vasilitx?

— Zer esango dizut, bada? Ez du merezi inoren oroimina izatea, eta are gutxiago nirea.

— Zergatik?

— Gizon positiboa naiz, inolako xarmarik gabea. Ez dakit hitz egiten.

— Konplimendu eske ari zara, Jevgeni Vasilitx.

— Ez dut horretarako ohiturarik. Ez dakizu niri iristezina zaidala bizitzaren alde dotorea, zuk hain estimu handitan daukazun alde hori?

Odintsovak hozka egin zion sudurzapiaren mutur bati.

— Pentsa ezazu nahi duzuna, baina ni aspertu egingo naiz zu joandakoan.

— Arkadi hemen geratuko da —ohartarazi zion Bazarovek.

Odintsovak doi bat goratu zituen sorbaldak.

— Aspertu egingo naiz —errepikatu zuen.

— Benetan? Nolanahi ere, zure asperraldia ez da luzea izango.

— Zergatik uste duzu hori?

— Bada, zuk zeuk esan didazulako zure ordena hausten denean soilik aspertzen zarela. Hain zorroztasun akatsgabek antolatu duzu zeure bizitza, ezen haren barruan ezin baita lekurik egon ez asperrera, ez tristurarako... ez ezein sentimendu goibeletarako.

— Zuk uste duzu akatsgabea naizela... hau da, hain zorroztasun handiz antolatu dudala neure bizitza?

— Bai horixe! Hona adibide bat: minutu gutxi barru hamarrak joko dute, eta alde zurretik badakit hemendik egotziko nauzula.

— Ez, ez zaitut egotziko, Jevgeni Vasilix. Gera zaitzke. Ireki leiho hori... itolarria dut.

Bazarovek, zutitu, eta bultza egin zion leihoari. Alderik alde zabaldu zen bultzadaren eraginez... Bazarovek ez zuen espero hain erraz irekiko zenik; bestetik, dardaraka zeuzkan eskuak. Gau iluna bare agertu zen leihoaz bestaldean, bere zeru ia beltzarekin, zuhaitzen zurrumurru apalekin eta haize zabal, garbiaren usain freskoarekin.

— Jaitsi errezelak eta eser zaitez —esan zuen Odintsovak—, zurekin hitz egin nahi dut joan baino lehen. Kontadazu zerbait zeure buruaz; inoiz ez duzu zeure buruaz hitz egiten.

— Zurekin, Anna Sergeievna, gai onuragarriez hitz egiten saiatzen naiz.

— Oso apala zara... Baina zer edo zer jakin nahi nuke zutaz, zure familiaz, zure aitaz, berarengatik utziko gaituzu eta.

«Zergatik ari da horrelakoak esaten?», pentsatu zuen Bazarovek.

— Hori guztia ez da batere interesgarria —esan zuen ozenki—, batez ere zuretzat; jende iluna gara gu...

— Eta, zure ustez, ni aristokrata naiz?

Odintsovarengantz jaso zituen begiak Bazarovek.

— Bai —erantzun zuen, zakarregi aukeran. Irribarre txikia egin zuen Odintsovak.

— Ikusten dudanez, azaletik soilik ezagutzen nauzu, nahiz eta ziur zauden gizabanako guztiak berdin-antzekoak direla eta ez duela merezi banaka aztertzea. Neure bizitza kontatuko dizut egunen batean... baina aurrena zeurea kontatu behar didazu zuk.

— Azaletik soilik ezagutzen zaitut, beraz —errepikatu zuen Bazarovek—. Beharbada, arrazoi duzu; beharbada, gizabanako bakoitza enigma bat da. Zu zeu, esaterako: ihes egiten diozu jendearen lagunarteari, gogaituta zaude gizar-teaz, eta zeure etxera gonbidatzen dituzu ikasle bi. Hain buruargia izaki, hain ederra izaki, zergatik bizi zara herrixka batean?

— Nola? Zer esan duzu? —bota zuen, bizitasun handiz, Odintsovak—. Ni... ederra naizela? Bekokia zimurtu zuen Bazarovek.

— Berdin dio —murduskatu zuen—, esan nahi nuen ez dudala ondo ulertzen zergatik kokatu zaren herrixka honetan.

— Ez duzu ulertzen... Hala ere, zergatikoren bat aurkituko zenion honezkero.

— Bai... nire aburuz, gehiegi mainatzen duzu zeure burua, biziki maite duzu erosotasuna, ongizatea, eta ezer gutxi axola dizu gainerako guztiak, horrexegatik zaude beti leku berean.

Irribarre txikia egin zuen Odintsovak berriro.

— Zeharo etsita zaude ez naizela gai inolako grinarik sentitzeko?

Begi-ertzetik begiratu zion Bazarovek.

— Baliteke gai izatea, baina jakinminarengatik soilik, ez beste ezerengatik.

— Benetan? Orain ulertzen dut zergatik konpontzen garen gu biok; ni bezalakoxea zara.

— Konpontzen gara... —esan zuen Bazarovek, ahots garratzez.

— Bai!... Baina ahaztuta neukan alde egin nahi duzula.

Zutik jarri zen Bazarov. Kriseiluak argi mote-la egiten zuen gela ilun, urrintsu, bakartian. Errezel aldika kulunkatuen artetik gauaren freskotasun narritagarria sartzen zen, haren hots misterioitsuak entzuten ziren. Odintsovak ez zuen gorputz-adar bat ere mugitzen, baina, arian-arian,

zirrara ezkutu bat jabetuz zihoan haren barneaz... Kutsatu egin zion zirrara hori Bazarovi. Bat-batean jabetu zen bakarka zegoela emakume gazte eder batekin...

— Nora zoaz? —esan zion Odintsovak, astiro.

Bazarov aulkian amildu zen ezer erantzun gabe.

— Horrenbestez, izaki gupera, belaxka eta mainatutzat naukazu —jarraitu zuen Odintsovak, lehengo doinu berberaz eta begiak leihoan tinko—. Nolanahi ere, nik badakit oso dohakabea naizela.

— Zu dohakabea! Zer dela eta? Garrantzirik ematen diezu esamesa doilor horiei?

Bekozko iluna jarri zuen Odintsovak. Atseka-beturik zegoen Bazarovek *horrela* ulertu ziolako.

— Arregatu ere ez naute egiten esamesa horiek, Jevgeni Vasilix, eta ez diet utziko nire gogoasaldatzen, harroegia naiz horretarako. Dohakabea naiz... ez dudalako bizitzeko gogorik, ez dudalako bizi nahi. Sinesgogor begiratzen didazu, zera pentsatzen ari zara: «aristokrata» batek dio hori, apain-apain jantzirik, belusezko besaulki batean eseririk. Ez dut ukatuko, maite

dut zuk erosotasuna deritzozun hori, eta, aldi berean, gogo urria dut bizitzeko. Nahi duzun bezala ezkon ezazu kontraesan hori. Bestetik, hori guztia erromantizismoa da zuretzat.

Bazarovek ezker-eskuin eragin zion buruari.

— Osasuntsua zara, burujabea, aberatsa; zer gehiago nahi duzu?

— Zer nahi dudan —errepikatu zuen Odintsovak, eta hasperen egin zuen—. Oso nekaturik nago, zaharra naiz; iruditzen zait oso bizitza luzea izan dudala. Bai, zaharra naiz —erantsi zuen, lepo-oihalaren ertzetik astiro tiraka bere beso biluziak estaltzeko. Topo egin zuten haren begiek Bazaroven begiekin, eta doi-doia gorritu zen—. Iraganeko oroitzapen ugari ditut: Petersburgeko bizitza, aberastasuna, txirotasuna gero, aitaren heriotza ondoren, ezkontza, atzerriko bidaia gero... oroitzapen ugari ditut, bai, baina zer oroiturik ez, eta nire aurrean, berriz, bide luze-luzea, baina jomugarik ez... Ez dut bide hori ibiltzeko gogorik.

— Horrenbestearaino zaude etsia harturik? — galdetu zuen Bazarovek.

— Ez —esan zuen Odintsovak, pausatuki—, baina ez nago gogobeterik. Agian, zerbaiti gogor atxikitzeke gai banintz...

— Maitatzeko gogoia duzu —eten zion Bazarovek—, eta ezin duzu maitatu: horixe da zure zoritxarra.

Lepo-oihalaren mahukak aztertzeari ekin zion Odintsovak.

— Ez naiz maitatzeko gai? —esan zuen.

— Antza, ez! Baina arrazoirik gabe deitu diot horri zoritxarra. Alderantziz, zer hori gertatzen zaiona da errukarria.

— Zer gertatu?

— Maitatzea.

— Eta zuk nola dakizu hori?

— Entzutez —erantzun zuen Bazarovek, haserre.

«Xarmakeriatan habil —pentsatu zuen—, aspertu egiten haiz eta, beste zereginik ezean, ni zirikatzea erabaki dun, baina ni...» Izan ere, lehertzeaz zeukan bihotza.

— Gainera, beharbada, zorrotzegia zara —esan zuen, gorputz osoa aurrerantz makurturik eta besaulkiko litsekin jolasean.

— Baliteke. Nire iritziz, dena ala ezer ez. Bizitza bizitzaren truke. Hartu nirea eta eman zeurea, damurik eta atzera egiterik gabe. Hori baino hoberik ez dago.

— Hara! —bota zuen Bazarovek—. Zuzena da hitzarmen hori, eta harrigarri zait nola orain arte ez duzun... nahi duzuna aurkitu.

— Eta uste duzu erraza dela nork bere burua besteri osorik ematea?

— Ez da erraza hausnarrean hasten bazara, zer etorriko geratzen bazara, zeure buruari bate-re baliorik ematen badiozu, hau da, zeure burua maite baduzu; hausnartu gabe, ordea, oso erraza da nork bere burua ematea.

— Baina nolatan ez maite nik neure burua? Inolako baliorik ez badut, nork behar du nire sakrifizioa?

— Hori ez da nire kontua; besteek erabaki behar dute zein den nire balioa. Nork bere burua ematen jakitean dago gakoa.

Bereizi egin zen Odintsova besaulkiaren bizkarraldetik.

— Zuri hori guztia gertatu balitzaizu bezala mintzo zara —hasi zen.

— Ez, Anna Sergeivna, zuk badakizu niri bost axola didala horrek guztiak.

— Baina gai zinateke zeure burua emateko?

— Ez dakit, ez dut harroputz agertu nahi.

Odintsovak ez zuen ezer esan, eta Bazarov isilik geratu zen. Pianoaren doinua iritsi zitzaien egongelatik.

— Berandu ari da Katia pianoa jotzen —ohar-tarazi zuen Odintsovak.

Zutik jarri zen Bazarov.

— Bai, berandu da, lo egiteko ordua duzu.

— Egon apur batean; norako presa duzu? Gauza bat esan behar dizut.

— Zer?

— Egon —xuxurlatu zion Odintsovak.

Bazarovengan josi zituen begiak; bazirudien arretaz aztertzen ari zela.

Bazarov gelan batera eta bestera ibili zen puska batean; gero, ustekabeen Odintsovarengana hurbildu, arrapaladan «agur» esan, ia garrasi eragiterainoko indarrez eskua estutu, eta gelatik irten zen. Odintsova, hatzak bildu, ezpainetara eraman, eta puzka hasi zitzaien, eta bat-batean, adorez gainezka besaulkitik jaiki, eta

atera abiatu zen urrats lasterrez, Bazarov itzulaz nahi balu bezala... Neskamea sartu zen gelan, zilarrezko erretilu batean pegar bat zekarrela. Odintsova, gelditu, neskameari alde egiteko agindu, eta berriro eseri zen, eta hausnarrean hasi zen berriro. Askatu egin zitzaion txirikorda, eta sorbaldetara erori suge beltz baten antzera. Kriseilua luzaz egon zen pizturik Anna Sergeievnaren gelan, eta bera luzaz egon zen geldi-geldirik, noizean behin soilik atzamarrak besoetatik igaroz, dar-dar txikiak egiten baitzituzten gaueko hotzaren eraginez.

Bazarov bi ordu geroago itzuli zen bere logelara, botak ihintzez heze, txima-jario eta goibel. Idazmahaiaren aurrean eseririk aurkitu zuen Arkadi, liburu bat eskuetan, jaka goraino loturik.

— Oraindik ez haiz oheratu? —esan zuen, haserre-antzean.

— Luze egon haiz gaur Anna Sergeievnarekin —esan zion Arkadik, galderari erantzun gabe.

— Bai, berarekin egon nauk hi Katerina Sergeievnarekin pianoa jotzen egon haizen denbora guztian.

— Nik ez diat jo... —hasi zen Arkadi, eta isil-

du egin zen. Malkoak begietara zetozkiola naba-

ritu zuen, eta ez zuen negarrez hasi nahi bere

adiskide isekariaren aurrean.

XVIII

Biharamunean, Odintsova tea hartzera agertu zenerako, Bazarovek denbora luzea zeraman bere kikararen gainean makurturik, eta bat-batean begiratu zion... Berarenganantz jiratu zen Odintsova, bultzatu balu bezala, eta Bazarovi iruditu zitzaion aurpegia apur bat zurbildu zitzaiola gauean. Odintsova laster joan zen bere gelara, eta ez zen itzuli bazkaltzeko ordua arte. Eguraldia euritsu zegoen goizetik, ezin zen paseatzera joan. Egongelan elkartu ziren etxeko bizilagun guztiak. Arkadi, aldizkari baten azken zenbakia hartu, eta irakurtzen hasi zen. Printzesak, ohi zuenez, aurrena harridura azaldu zuen aurpegian, Arkadi itsuskeriaren bat egiteko asmoan balebil bezala, eta gero gorrotoz begiratu zion, baina Arkadik ez zion arretarik jarri.

— Jevgeni Vasilitx —esan zuen Anna Sergeievnak—, zatoz nirekin... Gauza bat galdetu nahi dizut... Eskuliburu bat aipatu zenidan atzo...

Zutik jarri, eta atera abiatu zen. Printzesak ingurura begiratu zuen, eta aurpegian igarri

zitzaion honelako zerbait esan nahi zuela: «Ikus ezazue, ikus ezazue zein harriturik nagoen!»; eta berriro josi zituen begiak Arkadirengan, baina Arkadik ahotsa goratu zuen, eta, Katiarekin begirada bat trukaturik, haren aldamenean eseririk baitzegoen, irakurtzen jarraitu zuen.

Odintsova urrats lasterrez joan zen bere langelara. Bazarov bizkor zihoan haren atzetik, begiak altxatu gabe eta belarria adi beraren aurrean mugitzen zen sedazko soinekoaren firfira eta zurrumurru arinari. Odintsova aurreko eguneko besaulki berean amildu zen, eta Bazarovek bezperako leku berbera hartu zuen.

— Nola du izenburua liburu horrek? —ekin zion Odintsovak, isilune labur baten ondoren.

— *Pelouze et Fremy, Notions générales...* — erantzun zuen Bazarovek—. Baina Ganot ere gomendatu ahal dizut, *Traité élémentaire de physique expérimentale*. Obra horretako irudiak argiagoak dira, eta, oro har, eskuliburu hori...

Besoa luzatu zuen Odintsovak.

— Barkatu, Jevgeni Vasilitx, baina ez dizut hona deitu eskuliburuez hitz egiteko. Berriro ekin

nahi diot atzoko elkarrizketari. Hain ustekabean joan zinen... Ez zara aspertuko?

— Zure esanera naukazu, Anna Sergeievna. Baina zertaz hitz egin genuen atzo?

Odintsovak begi-ertzetik begiratu zion Bazarovi.

— Oker ez banago, zorionaz jardun genuen. Neure buruaz hitz egin nizun. Eta, «zorion» hitza ahotan hartu dudanez, esadazu zergatik, are gustura gaudenean ere, musikaz, gau-jai on batez edo jende atseginarekiko solasaldiaz gozatzan, esaterako, zergatik duen horrek guztiak hor nonbait existitzen den halako zorion muga-gabe baten antza, eta ez benetako zorionarena, hau da, guk sentitzen dugun zorion horrena. Zergatik? Ala zuk ez duzu inoiz horren antzekorik sentitu?

— Badakizu zer dioen esaera zaharrak: «Guton, hobeto beste edonon» —ihardetsi zuen Bazarovek—; gainera, atzo zuk zeuk esan zenuen ez zaudela gogobeterik. Nik, ordea, sekula ez dut horrelako gogoetarik egiten.

— Barregarri deritzezu, ala?

— Ez, baina ez zait horrelakorik bururatzen.

— Benetan? Badakizu izugarri gustatuko litzaidakeela jakitea zertan pentsatzen *duzun* zuk?

— Zer? Ez dizut ulertzen.

— Entzun, aspaldi da azalpenak eskatu nahi nizkizula. Ez dizut esan behar, zerorrek ondo dakizu eta, ez zarela gizon arrunta; gaztea zara oraindik, bizitza osoa daukazu aurrean. Zertarako prestatzen ari zara? Nolako etorkizuna espero duzu? Esan nahi dut, zein helburu lortu nahi duzu?, nora zoaz?, zer darabilzu gogoan? Hitz batean, nor zara?, zer zara?

— Harritu egiten nauzu, Anna Sergeievna. Badakizu natur zientziak ikasten nabilela, eta nor naizen...

— Izan ere, nor zara?

— Dagoeneko jakinarazi dizut herriko sendagile izango naizela.

Ezinegonezko keinu bat egin zuen Anna Sergeievnak.

— Zergatik diozu hori? Zerorrek ere ez duzu sinesten. Arkadik erantzun liezadake horrela, baina zuk ez.

— Arkadiri dagokionez...

— Ez jarraitu! Nolatan liteke zu gogobeterik geratzea hain lanbide xumearekin? Gainera, beti ari zara esaten medikuntza ez dela existitzen zuretzat. Herriko sendagile zu, zaren bezalako buruiritzia! Niregandik libratzeko erantzuten didazu horrela, ez baituzu inolako konfiantzarik niregan. Bada, jakin ezazu, Jevgeni Vasilitx, gai nintzatekeela zu ulertzeko: ni ere behartsua eta buruiritzia izana naiz, zu bezala; beharbada, zuk pairatu dituzun neke berberak pairatu ditut nik.

— Oso ondo dago hori guztia, Anna Sergeievna, baina barkatuko didazu... ez naiz neure iritzia jendaurrean agertu zale, eta hain alde handia dago gu bion artean...

— Nolako aldea? Berriro esango didazu aristokrata naizela? Aski da, Jevgeni Vasilitx; ustedut dagoeneko frogatu dizudala...

— Eta, gainera —eten zion Bazarovek—, zertarako hitz egin eta pentsatu etorkizunaz, gehienetan ez baitago gure esku? Zer edo zer egiteko abagunea sortzen bada, ederto, eta sortzen ez bada, gutxienez pozik egongo zara ez zarelako alde zurreko berriketa alferretan aritu.

— Berriketa deitzen diozu lagunarteko solasari... Ala, beharbada, emakumezko naizenez, ez naukazu zure uste onaren duintzat? Emakume guztiok arbuiatzen gaituzu!

— Zu ez zaitut arbuiatzen, Anna Sergeievna, badakizu hori.

— Ez, nik ez dakit ezer... baina bego horretan: ulertzen dut zure etorkizuneko lanbidez hitz egiteko gogorik eza; baina orain zure baitan gertatzen dena, aldiz...

— Gertatu! —errepikatu zuen Bazarovek—. Estatu edo gizarte bat banintz bezala ari zara! Dena dela, hori ez da batere interesgarria; eta, bestetik, gizabanakoak beti aldarrikatu ahal du beraren baitan «gertatzen» den guztia?

— Nik behintzat ez dut ulertzen zergatik ezin den adierazi norberak arima barruan daraman guztia.

— *Zuk* ahal duzu? —galdetu zuen Bazarovek.

— Bai, ahal dut —erantzun zuen Anna Sergeievnak, une batez zalantzan egon ondoren.

Burua makurtu zuen Bazarovek.

— Nik baino zori hobea duzu.

Jakinminez begiratu zion Anna Sergeievnak.

— Nahi duzun bezala —jarraitu zuen—, niri, hala ere, zerbaitek esaten dit arrazoiren bategatik elkartu garela, adiskide onak izango gara. Ziur nago azkenean desagertu egingo dela zure larritasun hori, zure, nolabait esatearren, zuhurtasun hori.

— Larritasuna sumatu duzu niregan?... nola esan duzu?... zuhurtasuna?

— Bai.

Bazarov zutitu eta leihora hurbildu zen.

— Eta larritasun horren arrazoia jakin nahi zenuke?, nire baitan zer gertatzen den jakin nahi zenuke?

— Bai —errepikatu zuen Odintsovak, artean ulertzen ez zuen izu halako batez.

— Ez zara haserretuko?

— Ez.

— Ez? —Bazarov hari bizkarra emanik zegoen—. Orduan, jakin ezazu maite zaitudala, ergel baten antzera, ero legez... Horra zer lortu duzun.

Odintsovak aurrerantz luzatu zituen bi besoak, eta Bazarovek leihoko beiraren kontra jarri zuen bekokia. Arnasestuka zegoen; nabarmenki dardaraka zeukan gorputz osoa. Harena ez zen,

hala ere, gazteengan herabetasunak eragiten duen dardara hori, haren barrenaz jabetu zena ez zen aurreneko maitasun-aitorpenaren ikara gozo hori: grina zen barruan zeukana, grina bizi eta bortitza, amorruren antzekoa, eta, behar bada, haren kidea... Odintsovak beldurra eta errukia sentitu zituen aldi berean.

— Jevgeni Vasilix... —esan zuen, eta nahi gabeko samurtasun bat aditu zen haren aho-tsean.

Bazarovek, Odintsovarenganantz bizkor jiratu, bertan irentsi nahi balu bezala begiratu, eta, bi eskuetatik heldurik, bere bularraren kontra estutu zuen bat-batean.

Odintsova ez zen behingoan askatu Bazaroven besarkadatik, baina lipar bat geroago berarengandik urrun zegoen gelako bazter batean, eta handik begiratzen zion. Harengana oldartu zen Bazarov...

— Ez nauzu ulertu —xuxurlatu zuen Odintsovak, bat-bateko izuz. Nonbait, Bazarovek beste urrats bat egin balu, garrasika hasiko zen... Bazarovek, ezpainak hozkatu, eta alde egin zuen.

Ordu erdi geroago, neskameak Bazaroven ohar bat eman zion Anna Sergeievnari; lerro bakarra zeukan: «Gaur bertan joan behar dut ala bihar arte gera naiteke?».

«Zergatik joan? Nik ez zaitut ulertzen eta zuk ez nauzu ulertu», erantzun zion Anna Sergeievnak, eta bere artean esan: «Neure burua ere ez ninan ulertzen».

Anna Sergeievna ez zen azaldu bazkaltzeko ordua arte; aurrera-atzera zebilen bere gelan, eskuak atzean uztarturik, noizean behin leihoaren edo ispiluaren aurrean geldituz, eta astiro igarotzen zuen eskuzapia lepotik, orban kiskalgarri bat zeukala iruditzen baitzitzaion. Bere buruari galdetzen zion zerk bultzatu ote zuen Bazaroven egia-aitorpena «lortzera», hark esan zuen bezala, eta ea lehenagotik ez ote zuen berak zer edo zer susmatu... «Nirea dun errua — zioen ozenki—, baina ezin ninan igarri horrelakorik gertatuko zenik.» Pentsakor geratu eta gorri jartzen zen gogoratzen zuenean nolako pizti aurpegia zuen Bazarovek berarengana oldartu zenean.

«Ala...?», esan zuen bat-batean, eta gelditu egin zen, eta kizkurrak inarrosi zituen... Bere irudia ikusi zuen ispiluan; begitandu zitzaion ezen bere buru atzeraka jarriak eta begi zein ezpain erdi ireki erdi itxietako irribarre enigmatikoak are berari ere asaldagarri zitzaion zerbait adierazten ziotela une horretan...

«Ez —erabaki zuen azkenean—, batek zekin nola amaituko litzatekeen hori, gauza horiek ez ditun txantxetan hartzekoak; nolana ere, lasaitasuna baino ezer hoberik ez zegon munduan.»

Ez zuen galdu lasaitasuna; baina goibeldu egin zen, eta behin malkoak isuri ere egin zituen, zergatik ez zekiela, baina mindurik zegoelako ez behintzat. Ez zen iraindurik sentitzen: errudun sentitzen zen beste ezer baino gehiago. Askotariko sentimendu lausoek eraginik, bizitza laburtuz zihoakiolako kontzientziak eta gauza berrien desirak bultzaturik, muga jakin bateraino iritsi zen, atzera begiratu zuen, eta han ikusi zuena ez zen amildegia, ezereza baizik... edo galbidea.

XIX

Odintsovak bere burua menderatzen zuen beti, aurreiritzi guztien gainetik egon ohi zen, baina, hala eta guztiz ere, urduri zegoen bazkalorduan jangelara agertu zenean. Osterantzean, nahikoa ondo joan zen bazkaria. Porfiri Platonitx bertaratu zen, eta hainbat istorio kontatu zituen; hiritik itzuli berria zen. Besteak beste esan zuen ezen Burdalu gobernadoreak ezproiak eramateko agindu ziela mandatu berezietarako zituen funtzionario guztiei, denborarik gal ez zezaten nonbaitera zaldi gainean bidaltzen bazituen. Arkadi ahapeka mintzatzen zen Katiarekin, eta, diplomatikoki, atsegin ematen zion printzesari. Bazarov, goibel, isiltasunean tematzen zen. Odintsovak pare bat aldiz begiratu zion aurpegi-
ra —nabarmenki, ez itzalgaizka—; zorrotz eta gozakaitz kausitu zuen, begiak apal, destainazko erabakitasun baten aztarna hazpegi guztietan, eta pentsatu zuen: «Ez... ez... ez...». Bazkaloste-
tean, beste guztiekin joan zen lorategira, eta, Bazarovek berarekin hitz egiteko gogoia erakus-

ten zuela ikusirik, taldetik urrats batzuk urrundu eta gelditu egin zen. Hurbildu zitzaion Bazarov, baina ez zituen begiak jaso, eta ahots mehez esan zion:

— Barkamena eskatu nahi dizut, Anna Sergeievna. Inondik ere, sumindurik egon behar duzu nirekin.

— Ez, ez naiz haserretu zurekin, Jevgeni Vasilix —erantzun zuen Odintsovak—, baina atseka-beturik nago.

— Are okerragoa da hori. Nolanahi ere, zigor latza jaso dut jadanik. Ergel baten pare geratu naiz, horretan behintzat bat etorriko zara nirekin. Idatzi didazu: zergatik joan? Baina ezin naiz geratu, eta, gainera, ez dut nahi. Bihar ez naiz hemen izango.

— Jevgeni Vasilix, zergatik...

— Zergatik joango naizen?

— Ez, ez nuen hori esan nahi.

— Ez gaitezen lehengora itzuli, Anna Sergeievna... dena dela, goizago edo beranduago, gertatu dena gertatuko zen ezinbestean. Alde egin beharra daukat, benetan. Hemen geraraz nintzakeen baldintza bat bakarra bururatzen

zait; baina baldintza hori ez da sekula beteko. Izan ere, zuk, eta barkatu nire ausarkeria, ez nauzu maite eta ez nauzu inoiz maitatuko, ez da hala?

Bazaroven begiek lipar batez distiratu zuten bekain ilunen azpian.

Anna Sergeievnak ez zion ezer erantzun. «Beldur zionat gizon honi», pentsatu zuen une batez.

— Agur —esan zuen Bazarovek, pentsamendu igarri balio bezala, eta etxera abiatu zen.

Anna Sergeievna astiro eta isilik joan zen haren atzetik; deitu Katiari, eta besotik heldu zion. Ilundu arte ez zen ahizparengandik aldentu. Ez zuen kartetan jokatu, eta gero eta barre gehiago egiten zuen, nahiz eta hori ez zettorren inondik inora bat haren aurpegi zurbildu eta larrituarekin. Arkadik, harriturik, Odintsova zelatatzen zuen denbora guztian, gazteek zelatatu ohi duten bezala, hau da, behin eta berriro bere buruari galdetuz: zer esan nahi ote du horrek? Bazarov bere gelan itxi zen; hala ere, itzuli egin zen tearen orduan. Anna Sergeievnak hitz gozo-

ren bat esan nahi zion, baina ez zekien nola hasi...

Ustekabeko gertaera batek atera zuen kinka horretatik: otseinburuak jakinarazi zuen Sitnikov iritsia zela.

Zaila da hitzez adieraztea nolako zalapartaz sartu zen aurrerazale gaztea gelan. Berez mutirria izaki, ez bat eta ez bi erabaki zuen ozta-ozta ezagutzen zuen eta bere etxera joateko gonbitik inoiz egiten ez zion emakume baten herrixkara joatea, hain buruargi eta hurkotzat zeuzkan lagun bi han zirela jakinik, baina, bertaratu orduko, hezur-muinetaraino kikildu zen eta, aldez aurretik buruz ikasiak zituen desenkusak eta konplimenduak esan orde, halako zozokeria bat murduskatu zuen, alegia, Evdoksia Kukshinak Anna Sergeievna-ren osasunaz galdetzera bidali zuela eta Arkadi Nikolaievitxek ere lausengurik handinez hitz egiten ziola beti berari buruz... Horra iritsirik, hainbestearaino trabatu eta nahasi zen, ezen bere kapelaren gainean eseri baitzen. Hala ere, inork gelatik egotzi ez eta gainera Anna Sergeievnak izeba eta ahizpa aurkeztu zizkionez, berehala zuzpeltu, eta lasai asko hasi

zen berriketan. Sarritan, arruntasunaren agerpe-
na onuragarri gertatzen da bizitzan: zoliegia goza-
turiko hariak ematzen ditu, harrotasuna zein
buru-ukatzea apaltzen ditu, sentimendu horiek
ahaide hurbil dituela gogoraraziz. Sitnikov heldu
zenetik, kamutsago bilakatu zen dena, hutsala-
go, eta arruntago; asko afaldu zuten denek eta
ohi baino ordu erdi lehenago joan ziren lotara.

— Orain nik errepikatu ahal diat hiri —esan
zion, ohean etzanik, Arkadik Bazarovi, adiski-
deak ere arropak erantziak zituela— hik behin
esan hidana: «Zergatik hago hain triste? Egiteko
sakraturen bat bete duk, ala?».

Azken aldion halako burlatasun itxuraz adis-
kidetsu bat sortua zen bi gazteen artean, eta
hori ezkutuko nahigabearen edo isileko gogan-
beharraren aztarna izaten da beti.

— Bihar aitarenera joango nauk —esan zuen
Bazarovek.

Arkadi, ohean agondu, eta ukondoan bermat-
tu zen. Harritu eta, zergatik ez zekiela, poztu ere
egin zen.

— Ah! —esan zuen—. Eta horregatik hago
triste?

Aharrausi egin zuen Bazarovek.

— Zahartzen haizenean, asko jakingo duk.

— Eta Anna Sergeievna? —jarraitu zuen Arkadik.

— Zer gertatzen da Anna Sergeievnarekin?

— Esan nahi diat ea utzi hauen.

— Ez ninduan haren alokairuko.

Pentsakor geratu zen Arkadi, eta Bazarovek, berriz, ohean etzan eta horma aldera jiratu zuen burua.

Minutu batzuk eman zituzten isilik.

— Jevgeni! —egin zuen oihu, bat-batean, Arkadik.

— Zer?

— Ni ere bihar joango nauk, hirekin.

Bazarovek ez zuen ezer erantzun.

— Neure etxera, baina —jarraitu zuen Arkadik—. Elkarrekin joango gaituk Khokhlovski herrixkaraino, eta han zaldiak aldatuko dituk Fedot-enean. Gustatuko litzaidakek hire gurasoak ezagutzea, baina beldur nauk ez ote nintzatekeen eragozpen izango hala haientzat nola hiretzat ere. Gero berriro etorriko haiz gurera?

— Han utzi ditiat neure gauzak —ihardetsi zuen Bazarovek, jiratu gabe.

«Zer dela eta ez dit galdetzen zergatik joango naizen, eta bera bezain ustekabea?», pentsatu zuen Arkadik. «Izan ere, zergatik joango naiz ni eta zergatik joango da bera?», jarraitu zuen hausnartzen. Ezin izan zion taxuzko erantzunik eman bere galderari, eta halako garratzasun batez bete zitzaion bihotza. Sumatzen zuen zaila gertatuko zitzaiola etxe hura uztea, hain zegoen hango bizimodura ohiturik; baina, nola edo hala, bitxia litzateke han bakarrik geratzea. «Zerbait gertatu duk haien artean —esan zuen bere kolkorako—, zertarako ibiliko naiz Odintsovaren inguruan Bazarov joandakoan? Behin betiko gogaituko diat; azken aukera galduko diat.» Anna Sergeievna irudikatzeari ekin zion; gero, apurka-apurka, beste hazpegi batzuk agertzen hasi zitzaizkion alargun gaztearen aurpegi ederre-
retik zehar.

«Errukarria Katia!», xuxurlatu zion Arkadik bururdiari, ordurako malko batez bustia zuela... Bat-batean, ilea inarrosi, eta ozenki esan zuen:

— Zer arraio dela eta etorri da hona Sitnikov ergel hori?

Bazarov, aurrena ohean bihurritu, eta honela mintzatu zen gero:

— Ikusten dudanez, are ergelagoa haiz hi, adiskidea. Ezinbestekoak ditiagu Sitnikovak. Nik, ea ulertzen duan hori, horrelako inozoak behar ditiat. Izan ere, zeregin arruntak ez dituk jainko-entzat!

«Hara! —egin zuen Arkadik bere artean, eta orduan soilik zabaldu zen beraren aurrean, unetxo labur batez, Bazaroven handiuste guztiaren amildegi hondogabea—. Beraz, hi eta biok jainkoak gara? Edo, zehatzago esanda, hi jainkoa haiz, eta ni ergela ote?»

— Bai —errepikatu zuen Bazarovek, goibel—, hi are ergelagoa haiz.

Biharamunean, Odintsovak ez zuen harridura handirik erakutsi Arkadik esan zionean Bazarovekin batera joango zela; gogo-barreiatua eta nekatua zirudien. Katiak isilik eta serio begiratu zion Arkadiri; printzesak gurutzearen seinalea egin zuen sorbalda-oihalaren azpian, Arkadik nahitaez atzemateko moduan; Sitnikov, ordea,

zeharo asaldatu zen. Gosaltzera jaitsi berria zen jantzi dotore baina ez eslavofilo batekin; aurreko egunean txunditurik utzi zuen izendatu zioten morroia aldean ekarritako arropa zuriaren ugarirekin, eta orain bertan behera utziko zuten adiskideek! Urrats labur-laster batzuk egin zituen batera eta bestera, bihurritu egin zen baso-ertzean esetsiriko erbiaren antzera, eta, ustekabean, ia izuz, ia oihuka esan zuen berak ere joateko asmoa zuela. Odintsovak ez zuen gerarazteko ahaleginik egin.

— Oso kalesa egokia daukat —gaineratu zuen gazte dohakabeak, Arkadiri zuzendurik—, zu nirekin etor zaitezke, eta Jevgeni Vasilitxek zure tarantasa har dezake, erosoago joango da horrela.

— Ez, eskerrik asko, zuk beste bide bat hartu behar duzu, eta nire etxea urrun dago.

— Berdin dio, berdin dio; denbora asko daukat eta, gainera, zereginak ditut inguru haietan.

— Zergak kobratzea, agian? —galdetu zuen Arkadik, gehiegizko destainaz.

Baina Sitnikovek, ohiz bestera, ez zuen barrerik egin, hain zegoen etsiak harturik.

— Nire kalesa ezin erosoagoa da, benetan —
murduskatu zuen—, eta denontzako lekua egongo da.

— Ez atsekabetu *mesie* Sitnikov ezezko batekin —esan zuen Anna Sergeievna...

Arkadik, begiratu, eta buru-makurtu adierazkorra egin zion.

Gosaldu ondoren abiatu ziren gonbidatuak. Agurtzeko tenorean, Odintsovak eskua luzatu zion Bazarovi, eta esan:

— Berrero ikusiko dugu elkar, bai?

— Zuk agintzen duzun bezala —erantzun zuen Bazarovek.

— Orduan, elkar ikusiko dugu.

Arkadi lehena irten zen ataurrera; Sitnikoven kalesan sartu zen. Otseinburuak adeitasunez lagundu zion igotzen, baina berak atseginez emango ziokeen muturreko bat edo hantxe hasiko zatekeen negarrez. Bazarovek leku hartu zuen tarantasean. Khokhlovski herrixkara iritsirik, Arkadi zain gelditu zen Fedot ostalariak zaldiak uztartzen zituen bitartean, eta, tarantasera hurbildurik, garai bateko irribarreez esan zion Bazarovi:

— Jevgeni, eraman nazak hirekin; hire etxera joan nahi diat.

— Igo hadi —esan zuen, hortz artean, Bazarovek.

Sitnikov astiro zebilen bere zalgurdiko gurpil-
len inguruan, bizitasunez txistuka, eta aho zaba-
lik geratu zen hitz haiek entzun zituenean; baina
Arkadik, lasai asko bere puskek kalesatik atera,
Bazaroven aldamenean eseri, eta, bidelagun
ohiari gizalegezko buru-makurtua eginik, oihuka
esan zuen: «Aurrera!». Tarantasa abian jarri, eta
berehala galdu zen ikusmenetik... Sitnikovek,
erabat nahasirik, bere kotxezainari begiratu
zion, baina gizona zigorrarekin jolasean ari zen
laguntza-zaldiaren buztanaren gainean. Orduan,
Sitnikov, jauzi batez kalesara igo, eta orroka
esan zien une horretan haren aldamenetik igaro
ziren bi mujiki: «Jantzi kapela, kaikuok!»; eta gel-
diro joan zen hirira. Oso berandu iritsi zen, eta
biharamunean, Kukshinarenean, bereak eta bi
esan zituen bi «harroputz nazkagarri eta mane-
ragabe» haien kontra.

Tarantasean Bazaroven aldamenean eseri
zenean, Arkadik gogor estutu zion eskua eta

denbora luzean ez zuen hitzik esan. Antza, Bazarovek ulertu eta aintzat hartu zituen hala esku-estutzea nola isiltasuna ere. Bart ez zuen begirik bildu eta ez zuen erre, eta baziren egun batzuk ezer gutxi jaten zuela. Haren soslai argaldua goibel eta zakar ageri zen kapela ondo sartuaren azpian.

— Aizak, adiskidea —esan zuen azkenean—, eman zigarro bat... Eta, mesedez, begiratu ea hori daudakan mihia.

— Bai, hori daukak —erantzun zuen Arkadik.

— Banengoan ni... ez zioat gusturik hartzen zigarroari. Hondaturik zegok makina.

— Izan ere, aldatu egin haiz azken bolada honetan —ohartarazi zion Arkadik.

— Hori ez duk kezkatzekoa! Zuzpertuko gaituk! Gauza bat bakarrik zaidak gogaikarri: nire ama hain duk errukiorra, ezen min itzela hartzen baitu semea loditzen ez bada eta egunean hamar aldiz jaten ez badu. Aita bestelakoa duk, denetarik ikusi dik mundu honetan, gosea eta aseaz ezagutu ditik. Ez, ezin diat erre —gaineratu zuen, eta bideko hautsera jaurti zuen zigarroa.

— Hogeita bost versta zeudek hemendik hire etxera, ezta? —galdetu zuen Arkadik.

— Hogeita bost, bai. Baina hobe duk askojakin horri galdetu.

Atzamarraz seinalatu zuen gida-aulkian eseririk zihoan mujika, Fedoten behargina bera. Baina askojakinak bere herriko hizkeraren ukitu nabarmenez erantzun zuen ez zekiela, han inork ez zituela verstak neurtu, eta troikaren erdiko zaldiari errieta egiten jarraitu zuen, «buruaz ostikoka ari zelako», hau da, burua alde batera eta bestera mugitzen zuelako.

— Irakasbide ederra, nire adiskide gazte hori —hasi zen Bazarov—, erakutsi oneko adibidea, alajaina! Egundoko ergeltasuna gurea, mila deabru! Gizabanakoak hari mehe batetik zintzilik zeukak bizia, amildegia unean-unean zabal daitekete haren azpian, eta, hala ere, denetariko eragozpenak asmatzen ditik, alferrik galtzen dik bizona.

— Zer adierazi nahi duk horrekin? —galdetu zuen Arkadik.

— Ez diat ezer adierazi nahi, argi eta garbi zioat gure jokabidea ezinago burugabea izan

dela. Begien bistan zegok hori! Nolanahi ere, klinikan nenbilenean, gauza batez ohartu ninduan: bere oinazearen kontra sumintzen denak beti garaitzen dik mina.

— Ez diat ondo ulertzen —esan zuen Arkadik—; nire ustez, hik ez duk zertaz kexaturik.

— Bada, ondo ulertu ez duanez, zera esango diat: nire iritziz, hobe duk bidean harri txikitzen jardutea, emakume bati are atzarmar-punta batez ere jabetzen uztea baino. Hori guztia... —Bazarov «erromantizismo» bere hitz kuttuna esateko zorian egon zen, baina horretarako gogoari eutsi eta honela jarraitu zuen—: ergelkeria hutsa duk. Orain ez didak sinetsiko, baina hona zer diodan: denboralditxo batez emakumezkoen lagunartean bizitzea egokitu zaiguk, eta atsegingarria izan duk guretzat; baina lagunarte hori uztea egun sargori batean ur hotzetan bainatzearen pareko gertatu zaiguk. Gizonezkoak ez dik astirik horrelako huskerietan ibiltzeko; gizonezkoak basa behar dik izan, zuhur-hitz espainiar bikain batek dioen bezala. Hik baduk emazterik, azkar usteko horrek? —gaineratu

zuen, gida-aulkian eseririk zihoan mujikari zuzendurik.

Mujikak bere aurpegi zapal begilaburra erakutsi zien bi adiskideei.

— Emazterik? Bai horixe. Nolatan ez izan emazterik?

— Eta jo egiten duk?

— Emaztea? Batzuetan bai, batzuetan ez. Guk ez dugu arrazoirik gabe jotzen.

— Ederto. Eta berak hi jotzen hau?

Mujikak hedeei eragin zien.

— Horrelakorik esatea ere, jauna! Adarra jotzeko gogoia duzu?...

Nabari zitzaion mindurik zegoela.

— Entzun duk, Arkadi Nikolaievitx? Gu, ordea, jo gaitiztek..., horra zer esan nahi duen ikasia izateak.

Arkadik gogoz bestera barre egin zuen; Bazarovek, berriz, alde batera jiratu, eta bide osoan ez zuen berriro zabaldu ahoa.

Hogeita bost verstak berrogeita hamar iruditu zitzaizkion Arkadiri. Baina, azkenean, Bazarov-en gurasoak bizi ziren herrixka agertu zen muino bateko aldapa leunean. Herrixkaren albo-

an, urkidi gazte batean, jauretxe txiki bat ageritzen, lastozko teilatuarekin. Lehen izbako atean bi mujik zeuden, txanoak jantzirik eta elkarri irainka. «Zerria galanta hi —ziotson batak besteari—, urde zikina alaena!» «Eta sorgin hutsa hire emaztea!», erantzun zion besteak.

— Horko bi horien jokabidearen berezkotasunetik eta hizketamoduaren bizitasunetik aterako huenez —ohartarazi zion Bazarovek Arkadiri—, nire aitaren mujikak ez zeudek zapalduegi. Baina, horra, aita bera irten duk etxeko atarira. Inondik ere, troikaren kanpaitxoak entzun dik. Bera duk, bai, bera duk, segituan antzeman zioat. Ene, baina nola urdindu zaion ilea gizajoarri!

XX

Bazarovek burua atera zuen tarantaseko leihotik; Arkadik, adiskidearen bizkarraren atzetik lepoa luzatu, eta gizon garai argal bat ikusi zuen jauretxeko atarian, txima-nahasia eta sudur kako zorrotzekoa, lotu gabeko militar-jaka zahar batez jantzia. Zutik zegoen, hankak zabalik, pipa luze bat erretzen eta begiak txiloturik eguzkitik babesteko.

Gelditu egin ziren zaldiak.

— Itzuli haiz azkenean —esan zuen Bazaroven aitak, erretzeari utzi gabe, nahiz eta txibukia dardaraka ari zitzaion atzamarren artean—. Baina jaitsi, jaitsi kotxetik, hator nire besoetara.

Semea besarkatzen hasi zen... «Jeniusha, Jeniusha», entzun zen emakume baten ahots dardaratsua. Alderik alde ireki zen atea, eta adineko emakume mozkote bat agertu zen atala-sean, kofia zuri batez eta atorra ñabar labur batez jantzirik. Aieneka hasi, aldaro egin, eta lurrera eroriko zen Bazarovek eutsi ez balio. Bertantxe uztartu zituen bere beso lodiak semearen

lepoaren inguruan, haren bularraren kontra jarri zuen burua, eta isilik geratu zen dena. Amaren zotin etenak besterik ez zen entzuten.

Bazarov zaharrak sakon hartzen zuen arnasa, begiak lehen baino are txilotuago.

— Ea, aski da, aski da, Arisha! —hasi zen, Arkadirekin begirada bat trukaturik, gaztea geldirik baitzegoen tarantasaren alboan, eta, bitartean, mujika ere atzerantz jiratu zen bere jarlekuan—. Ez dugu horrelakorik behar! Utziozu negar egiteari, mesedez.

— Ai, Vasili Ivanitx —esan zuen, ahots estuz, andre zaharrak—, aspaldian ez nuen ikusten nire seme laztana, nire Jeniushenka maitea... —eta, besoak lasaitu gabe, bere aurpegi zimurtu, hunkitu eta malkoz bustia Bazarovengandik bereizi, begi zoriontsu eta alaiz begiratu, eta berriro estutu zen haren kontra.

— Bai, jakina, naturala da hori guztia —esan zuen Vasili Ivanitxek—, baina hobe etxera sartzzen bagara. Jevgenik gonbidatu bat ekarri du. Barkatu —gaineratu zuen, Arkadirenganantz jiratutik eta oinarekin takateko arina joz—, badaki-

zu, emakumezkoen ahultasuna, amaren bihotza...

Berak ere dardaraka zeuzkan ezpainak eta bekainak, eta ikaraz kokotsa... baina, nabari zitzaionez, bere burua menderatu nahi zuen, eta ia axolagabe agertu. Buru-makurtua egin zuen Arkadik.

— Bai, amatxo, goazen barrura —esan zuen Bazarovek, eta etxera eraman zuen bere ama zahar ahuldua. Besaulki eroso batean eseri zuen; berriro ere aita arrapaladan besarkatu, eta Arkadi aurkeztu zion.

— Zinez pozten nau zu ezagutuak —esan zuen Vasili Ivanovitxek—, baina barkabera izateko eskatu behar dizut: gure etxean oso xumea da dena, armadakoaren tankerako bizimodua daramagu. Arina Vlasievna, lasai zaitez, arren, ez izan hain txepela! Gaitzetsi egingo zaitu gure gonbidatuak.

— Jauna —esan zuen, malko artean, andre zaharrak—, ez dut zure izena eta patronimikoa jakiteko ohorea...

— Arkadi Nikolaievitx —xuxurlatu zion, seriotasunez, Vasili Ivanovitxek belarrira.

— Barkatu hain tuntuna izatea. —Zintz egin zuen andre zaharrak, eta, buruari ezker-eskuin eraginez, ardura handiz xukatu zuen begi bat eta gero bestea—. Barkatu. Uste nuen nire seme ku... u... u... ttuna berriro ikusi gabe hilko nintze-la.

— Bada, berriro ikusi duzu —eten zion Vasili Ivanovitxek—. Taniushka —esan zion gero hamahiru urte inguruko neskato bati, zeinak, oinutsik eta kotoizko soineko gorribizi batez jantzirik, lotsaz begiratzen baitzuen atearen beste aldetik—, ekarri etxekoandreari edalontzi bete ur, erretilu batean, entzun dun? Eta zuek, jaunok, plazer baduzue —gaineratu zuen, moda zaharreko umore halako batez—, zatozte gerlari zahar erretiratu honen langelara.

— Utzi beste besarkadatxo bat ematen, Jeniushetxka —esan zuen, zinkurinka, Arina Vlasievnak. Haren aldera makurtu zen Bazarov—. Nola edertu haizen!

— Ez dakit edertu den ala ez —ohartarazi zuen Vasili Ivanovitxek—, baina gizon-gizon eginda dago, *ommfe* bat, esan ohi denez. Eta orain, Arina Vlasievna, dagoeneko zeure ama-

bihotza ase duzunez, espero dut zure gonbidatu maiteak asetzeaz arduratuko zarela, zeren, daki-zunez, urretxindorra ez baita alegiaz elikatzen.

Besaulkitik altxatu zen andre zaharra.

— Berehala egongo da jarrita mahaia, Vasili Ivanitx, neu jaitsiko naiz oraintxe bertan sukaldera eta samovarra prestatzeko aginduko dut, denetarik egongo da, denetarik. Hiru urte egon naiz semea ikusi gabe, jaten eman gabe, edaten eman gabe; samurra al da hori?

— Zoaz zeure zereginetara, etxekoandre maratz hori, eta argi ibili, lotsagarri gera ez gaitzen; eta zuek, jaunok, etorri nirekin, mesedez. Begira, Jevgeni, hor daukak Timofeitx, hi agurtzera etorria. Inondik ere, zakur zahar hori ere poztuko duk hi ikusirik. Zer, pozik hago, zakur zahar hori? Zatozte nire atzetik, mesedez.

Eta lehiatsu jo zuen aurrera Vasili Ivanovitxek, oinetako takoigabeak tipi-tapa herrestatuz.

Haren etxetxoak sei gela bakarrik zituen, txiki-txikiak denak. Haietako bati, nora eraman baitzituen gure bi lagunak, langela deitzen zion. Mahai hanka-lodi batek bi leihoen arteko leku guztia hartzen zuen, zaharraren zaharraz belztu-

riko hauts-geruza batez estalirik, paper kedarrereztatuz jantzirik balego bezala; hormetan, hormehemen esekirik ageri ziren fusil turkiar batzuk, larruzko zartailuak, sableak, bi mapa, anatomi irudi batzuk, Hufeland-en potret bat, ilez eginiko monograma bat marko beltz batean eta diploma bat beira baten atzean. Kareliako urki-zurezko armairutzar biren erdian larruzko diban bat zegoen, alde batzuetan hondoratua eta urratua. Apaletan, berriz, nahas-mahas eta estu pilaturik ageri ziren askotariko liburuak, kutxatilak, txori diseatuak, potoak eta flaskoak; bazter batean makina elektriko apurtu bat zegoen.

— Lehenago ere gaztigatu dizut, nire gonbidatu maitea —hasi zen Vasili Ivanovitx—, gu, nolabait esatearren, haize zabaleko kanpaleku batean bezalatsu bizi garela hemen...

— Baina, aita, zer dela eta ari zara barkamen eske? —eten zion Bazarovek—. Kirsanovek ondo asko daki gu ez garela Kreso bezalako aberatsak eta zure etxea ez dela jauregia. Non kokatuko dugun, hori da arazoa.

— Ez kezkatu, Jevgeni, gelatxo bikain bat zeukaat etxearen hegalean, ederto egongo duk hor.

— Hegal bat egin duzu, ala?

— Bai horixe; bainutegia dagoen tokian — sartu zen tartean Timofeitx.

— Alegia, bainutegiaren alboan —zehaztu zuen berehala Vasili Ivanovitxek—. Udan gaude-nez... Oraintxe joango nauk hara, dena antolatzera; eta hik, bitartean, ekarri haien gauzak, Timofeitx. Hiri, Jevgeni, nire langela uziko diat, esan beharrik ere zegok. *Suum cuique*.

— Hori duk nire aita, zaharkilo irrieragingarri eta onegi hori! —esan zuen Bazarovek, Vasili Ivanovitx joan bezain laster—. Hirea bezain xelebrea duk, baina beste era batera. Izugarri berri-tsua duk.

— Ama ere, antza denez, oso emakume ona duk —ohartarazi zuen Arkadik.

— Bai, ez duk batere maltzurra. Ikusiko duk nolako bazkaria prestatzen digun.

— Ez genekien gaur etortzekoa zinenik, jauna, ez dugu behirik ekarri —esan zuen

Timofeitxek, Bazaroven maletarekin itzuli berria baitzen.

— Moldatuko gaituk behikirik gabe ere, ezina ezin. Diotenez, aberats izatea baino, ospe ona hobe.

— Zenbat arima ditu hire aitak? —galdetu zuen, bat-batean, Arkadik.

— Etxaldea ez duk berarena, amarena baizik; oker ez banago, hamabost arima ditik.

— Hogeita bi guztira —zuzendu zion Timofeitxek, gogoz bestera.

Oinetakoen herresta-hotsa aditu zen, eta berriro agertu zen Vasili Ivanovitx.

— Minutu gutxi barru, zu hartzeko prest izango duzu gela —egin zuen oihu, handikiro—, Arkadi... Nikolaitx? Hala duzu patronimikoa, bai? Hona hemen zure morroia —gaineratu zuen, berarekin batera etorria zen mutiko kaskamotz bat seinalatuz, zeinak ukondoetan zarrastaturiko jaka urdin bat eta besteren botak baitzeramatzan jantzirik—. Fedka du izena. Semeak debekatu badit ere, barkabera izateko eskatu nahi nizuke berriro. Bestetik, mutikoak badaki pipa betetzen. Erretzen duzu, ezta?

— Bai, baina zigarroak batik bat —erantzun zuen Arkadik.

— Oso jokabide zentzuzkoa da hori. Nik ere nahiago ditut zigarroak, baina bazter leku honetan ikaragarri zailak dira lortzen.

— Aski da, aita, utzi zure zoriaz arranguratzeari —eten zion ostera Bazarovek—. Hobe dibanean esertzen bazara, ondo aztertu nahi zaitut.

Vasili Ivanovitx, barrez hasi, eta dibanean eseri zen. Haren aurpegia semearenaren oso antzekoa zen, baina baxuagoa eta estuagoa zuen bekokia, eta apur bat zabalagoa ahoa, eta ez zen geldirik egoten, sorbaldei eragiten zien behin eta berriro —janzkiak galtzarbean min emango balio bezala—, begiak kliskatu, eztul egin eta atzamarrak mugitzen zituen etengabe; semeak, aldiz, halako gelditasun nagi bat zuen ezaugarri.

— Nire zoriaz arranguratu! —errepikatu zuen Vasili Ivanovitxek—. Ez ezak pentsa, Jevgeni, gure gonbidatua errukiarazi nahi dudala zer-nolako bazter lekuan bizi garen azaldurik. Alderantziz, uste diat bazter lekurik ez dela gizon adi-

mentsuarentzat. Ni behintzat ahal dudan neurrian saiatzen nauk ez aberetzen, nire garaiaren atzean ez gelditzen.

Vasili Ivanovitxek, Arkadiren gelara joan zenean hartu zuen lepozapi hori berri bat sakelatik atera, eta hizketan jarraitu zuen, lepozapiari airean eraginez:

— Nik, esaterako, neuretzako sakrifizio nabarmenaz, errentan eman zizkieat lurrak mujikei, eta erdi bana egiten ditiagu orain etekinak. Nire eginbehartzat neukaan hori; zentzuak agintzen zian kasu horretan, nahiz eta beste lurjabeek horretan pentsatu ere ez duten egiten. Baina orain ez nauk horretaz ari; ez, orain zientziez ari nauk, irakaskuntzaz.

— Bai, ikusten dudanez, hor daukazu *Osasunaren laguna* liburua, 1855 urtekoa —ohartarazizion Bazarovek.

— Aspaldiko lagun batek bidali zidak liburu hori, adiskidetasunarengatik —esan zuen Vasili Ivanovitxek berehala—, baina guk, besteak beste, badakigu zer edo zer frenologiaz ere —gaineratu zuen, oraingoan batez ere Arkadiri zuzendurik, eta armairua seinalatu zuen, non

igeltsuzko buru txiki bat baitzegoen, lauki zenbakidunetan banaturik—, Schenlein eta Rademacher ere ez zaizkigu ezezagunak.

— *** probintzian oraindik sinesten dute Rademacherrengan? —galdetu zuen Bazarovek.

Eztulka hasi zen Vasili Ivanovitx.

— Probintzia honetan... Baina, zalantzarik gabe, zuek hobeto dakizue hori, jaunok; nolatan jarriko gara gu zuen mailan? Gu ordeztara etorri zarete. Nire garaian oso barregarriak iruditzen zitzaizkigun Hoffman izeneko humorista bat eta Brown delako bat bere bitalismo guztiarekin, eta ospe handia izan zuten bolada batez. Zuek beste norbait hobetsi duzue Rademacherren ordeztara, eta gurtu egiten duzue, baina hogeitau urte barru, beharbada, barre egingo diote dena delako horri ere.

— Kontsolatze aldera jakinaraziko dizut —esan zuen Bazarovek— guk orain medikuntza guztiari barre egiten diogula eta ez garela inoren aurrean makurtzen.

— Nolatan liteke! Ez duk medikua izan nahi?

— Bai, nahi dut, baina bata ez du bestea eragozten.

Vasili Ivanovitxek hiru atzamarrez astindu zuen pipa, non errauts gori apur bat geratzen baitzen oraindik.

— Balitekek, balitekek, ez diat zalantzan jarriko. Izan ere, zer naiz ni? Mediku militar erretiratu bat, *volatu*, orain agronomo sartua. Zure aitona eta biok brigada berean zerbitzatu genuen —zuzendu zitzaion berriro Arkadiri—, bai, bai. Gauza asko ikusi nituen nire denboran. Denetarikoz jendeak ezagutu ditut! Askotariko lagunekin ibili naiz! Nik, nik neuk, orain aurrez aurre daukazuen honek, pultsua hartu diet Wittgenstein printzeari eta Zukovski-ri berari! Hegoaldeko gudarostean, hamalagarren urtean, badakizu (eta hor modu adierazkorrean estutu zituen ezpainak Vasili Ivanovitxek), zirenak eta ez zirenak ezagutzen nituen. Baina hori ez da nire kontua; nirea ziztailua da, eta kito! Baina zure aitona oso gizon ohoragarria zen, militar petoa.

— Aitor ezazu astakirten galanta zela! —esan zuen Bazarovek, nagiki.

— Ene, Jevgeni, nolakoak esaten dituan! Izan hadi errukiorra... Jakina, Kirsanov jenerala ez zen...

— Utzi behingoz gai hori! —eten zion Bazarovek—. Hona hurbiltzean, poztu egin naiz zure urkiditxoa ikusirik: ondo hazi da.

Zuzpertu egin zen Vasili Ivanovitx.

— Bada, ikusiko duk nolako lorategia daukadan orain! Neronek landatu ditiat landare guztiak. Badituk fruitu-arbolak, eta baiak, eta askotariko sendabelarrak. Zuek, jaun gazteok, ideia korapilatsuak dituzue, baina Paratzeltso zaharrak egia handia esan zian: *in herbis, verbis et lapidibus...* Nik, ondo dakianez, bertan behera utzia diat jarduna, baina astean pare bat aldiz lanbideari heldu behar izaten zioat atzera. Aholku eske etortzen zaizkidak, eta ezin ditiat besterik gabe egotzi. Behartsuak etortzen dituk laguntza eskatzera. Izan ere, inguru hauetan ez zegok sendagilerik. Inguruotan bizi den maior erretiratu bat ere sendaketan aritzen duk, hortik atera kontuak! Behin galdetu nian ea medikuntza ikasi duen, eta erantzun zidatean ezetz, ez duela ikasi, batez ere filantropiarengatik egiten duela... Ja, ja, filantropia! Egundo horrelakorik! Ja, ja! Ja, ja!

— Fedka! Bete iezadak pipa! —esan zuen Bazarovek, garratz.

— Behin, mediku bat etorri zuan gaixo bat sendatzera —jarraitu zuen, nolabaiteko etsipenez, Vasili Ivanovitxek—, eta gaixoa *ad patres* zegoan ordurako. Morroiak ez zioan utzi etxean sartzen, harrezkero haren premiarik ez zutela esanik. Medikuak ez zian horrelakorik espero, eta, nahasirik, galdetu zian: «Jaunak zotina izan du hil aurretik?». «Bai, zotina izan du.» «Asko?» «Bai, asko.» «Ah, ondo dago hori», eta alde egin zian. Ja, ja, ja!

Agureak bakarrik egin zuen barre; Arkadik irribarretxo baten imintzioa egin zuen. Bazarovek kea irentsi baino ez zuen egin. Solasaldiak horrelaxe jarraitu zuen ordu bete inguru; Arkadik bere gelan sartu-irten bat egiteko denbora izan zuen. Bainutegiaren ondoko aldagela zen, baina oso atsegina eta garbia. Azkenean, Taniusha sartu, eta bazkaria prest zegoela jakinarazi zien. Vasili Ivanovitx altxatu zen lehena.

— Goazen, jaunak! Barkadazue, arren, asper-tu bazaituztet. Agian, etxekoandreak nik baino atsegin handiagoa emango dizue.

Bazkaria, arrapaladan prestatuagatik ere, oso ona gertatu zen, are oparoa ere, nahiz eta ardoa, esan ohi denez, burutsu samarra izan: Timofeitxek hirian merkatari ezagun bati erosita-ko jerez ia beltz bat zen, noiz eztiaren noiz kolofoniaren dasta zuena, eta euliek ere gogait eragiten zuten. Mutiko batek uxatu ohi zituen adar berde handi batez; baina egun hartan Vasili Ivanovitxek norabait bidali zuen, belaunaldi gaztearen gaitzespenaren beldur baitzen. Arina Vlasievnak denbora izan zuen apain janzteko: sedazko xingolekiko buruko garai bat eta adaxka-irudiekiko sorbalda-oihal bat zeuzkan soinean. Berriro ere, malko batzuk isuri zituen bere Jeniusha ikusi bezain laster, baina senarrak ez zion kargu hartu beharrik izan: emazteak berak berehala xukatu zituen malkoak, sorbalda-oihala ez lohitzearren. Gazteek soilik jaten zuten: senar-emazteak aspaldi bazkalduak ziren. Fedkak ziharduen zerbitzari, besteren bota haiek nabarmenki unaturik, eta Anfisushka izeneko emakume begibakar gizon-aurpegi bat zuen laguntzaile, zeinak, bestetik, giltzain, eskortazain eta ikuzle karguak baitzituen bere gain.

Bazkariak iraun zuen bitarte guztian, Vasili Ivanovitx astiro ibili zen batera eta bestera gelan barrena, eta itxura guztiz zoriontsu eta are xaloz hitz egiten zuen Napoleonen politikak eta Italia-ko auzi korapilatsuak eragiten zizkioten gogan-behar guztiz larriez. Arina Vlasievnak ez zion arretarik jartzen Arkadiri, ez zion inolako adeitasun-erakutsirik egiten; bere aurpegi biribila ukabiltxoan bermaturik, gerezi koloreko ezpaintxo mardulek eta masailtako zein bekainen gaineko orbantxoek oso aire onbera ematen ziotela, ez zituen begiak semearengandik bereizten, eta hasperen egiten zuen etengabe; irrika bizian zegoen semea zenbat denborarako etorria zen jakiteko, baina galdetzeko beldur zen. «Eta esango balu bi egunez geratuko dela?», pentsatzen zuen, eta gelditu egiten zitzaion bihotza. Errekiaren ondoren, Vasili Ivanovitxek, unetxo batez lekutu, eta xanpaina-botila erdi bat ekarri zuen, irekirik. «Horra —egin zuen oihu—, bazter leku batean bizi bagara ere, badaukagu zerez alaitu egokiera hotsandikoak!» Hiru kopa eta kopatxo bat bete, «gain-gaineko bisitarien» osasunari topa egin, eta, militarrek ohi dutenez,

trago batean hustu zuen bere kopa, eta kopa-txoaz azken tantaraino edanarazi zion Arina Vlasievnari. Konfituren txanda etorri zenean, Arkadik, jaki gozoak ezin jasan bazitzakeen ere, bete-behartzat jo zuen lau konfitura labetik atera berri haiek dastatzea, areago ikusirik Bazarovek ezezko biribila eman ziela eta bertantxe piztu zuela zigarro bat. Gero, tea azaldu zen eszenan, esne-gainarekin, gurinarekin eta zortzi-formako gozopilekin batera; hurrena, Vasili Ivanovitxek lorategira eraman zituen guztiak, arratsaldearen ederra mireste aldera. Jarleku baten aldamenetik igarotzean, belarrira xuxurlatu zion Arkadiri: «Gogoko dut hemen eseririk filosofatzea, ilunabarrari begira: egokia da hori anakoreta baten-tzat. Eta han, urrunago, Horaziok maite zituen zuhaitz horietako batzuk landatu ditut».

— Zer zuhaitz dira horiek? —galdetu zuen Bazarovek, erne baitzeuzkan belarriak.

— Akaziak..., jakina.

Aharrausika hasi zen Bazarov.

— Uste dut ordua dela bidaiariak Morfeoren besoetara joan daitezen —ohartarazi zuen Vasili Ivanovitxek.

— Hau da, lotara joateko ordua dela! —bota zuen Bazarovek—. Uste zuzena da hori. Ordua da, bai.

Ama agurtzean, musu eman zion bekokian; amak, semea besarkatu, eta, hark bizkarra eman ziolarik, hiru aldiz bedeinkatu zuen, isilgordeka. Vasili Ivanovitxek gelaraino lagundu zion Arkadiri, eta «zure adin zorioneko horretan nik izaten nuena bezalako atsedeen bizkorgarria» opatu zion. Eta, izan ere, Arkadik ederki lo egin zuen bainutegiaren ondoko aldagelan: mendausaina zegoen, eta bi kilker kri-kri ari ziren estufaren atzean, zein baino zein logalegarriago. Vasili Ivanovitx, Arkadiren gelatik bere langelara joan, eta dibanean eseri zen semearen oinen alboan, berarekin mintzatzeko asmoz, baina Bazarovek bertantxe egotzi zuen handik, logura zela esanik; hala ere, goiza arte ez zen lokartu. Begiak zabal-zabalik, gaiztotasunez begiratzen zuen iluntasunera: haurtzaroko oroitzapenek ez zuten ahalmenik haren gainean, eta oraindik ez zuen lortu azken zirrara mingotsak ezabatzerik. Arina Vlasievnak, aurrena, ahoa neurri otoitz egin zuen; hurrena, luze-luze egon zen Anfisush-

karekin hizketan, zeinak, oinak lurrari iltzatuta etxeakoandrearen aurrean zutik eta bere begi bakarra berarengan josirik, xuxurla misteriozko batez jakinarazi baitzizkion Jevgeni Vasilievitxi buruzko bere irudipen eta gogoeta guztiak. Andre zaharrak zorabiatuak zeukan burua poza-
ren, ardoaren eta zigarroaren kearen eraginez; senarra berarekin hitz egiten saiatu zen, baina bertan behera utzi behar izan zuen saioa.

Arina Vlasievna lehengo era zaharreko aitoren alaba errusiar peto-petoa zen; berrehun urte lehenago bizi beharko zukeen, Mosku antzinakoa. Oso elizkoia eta sentikorra zen, itsuki sinesten zuen denetariko zantzu, iragarkizun, azti-hitz eta ametsetan; orobat sinesten zuen arlote igarleengan, domovoi-engan, leshi-engan, topaketa gaiztoetan, aztiak ekarritako gaixotasunetan, sendagai herrikoietan, osteguneko gatzean, munduaren bukaera berehalakoan; sinesten zuen ezen, Erramu Igandearen bezperan argizariak pizturik utziz gero, arto beltza ondo hazten dela, eta perretxikoek hazteari uzten diotela giza begiak atzematen baditu; sinesten zuen ezen deabruak gogoko duela ura dagoen lekuetan ibil-

tzea, eta hebraitar guztiek orbantxo odolkolore bat dutela bularrean; beldur zien saguei, suguei, igelei, txolarreei, izainei, trumoiari, ur hotzari, haize-lasterrei, zaldiei, akerrei, jende ilegorriari eta katu beltzei, eta animalia lohitzat zeuzkan kilkerrak eta zakurrak; ez zuen jaten txahalkirik, ez usorik, ez karramarrorik, ez gaztarik, ez zainzuririk, ez bedaurrik, ez erbirik, ez angurririk, zeren angurri ebakiak San Joan Bataiatzailearen burua gogorarazten baitu; eta izu-ikaraz soilik aipatzen zituen ostrak; atsegin zitzaion jatea, eta zorrotz egiten zuen barau; egunean hamar ordu lo egiten zuen, baina, Vasili Ivanovitxek buruko mina izanez gero, esna ematen zuen gau osoa; ez zuen libururik irakurri bere bizitza osoan, *Aleksisa*, edo *basoko etxola* izan ezik, urtean gutun bat edo gehienez ere bi idazten zituen, bazekien etxea gobernatzen, fruituak idortzen eta konfitura egiten, baina ez zuen ezertxo ere bere eskuez ukitzen eta, oro har, ez zitzaion gustatzen lekutik mugitzea. Oso ona zen Arina Vlasievna, eta, bere erara, ez batere inozoa. Bazekien munduan badirela jaunak, agintzeko, eta herritar xeheak, zerbitzatzeko, eta

horregatik ez zituen arbuiazen ez morroitasuna ez lurra ukitzerainoko gorputz-makurtzeak; baina samurtasunez eta amultsuki tratatzen zituen mendekoak, ez zuen pobre bat bera ere limosnarik gabe uzten eta sekula ez zion inori kargurik hartzen, nahiz eta batzuetan marmarrean aritzen zen. Gaztetan, oso polita izan zen, klabikordia jotzen zuen eta frantses apur bat zekien; gogoz kontra ezkondu zen, eta, urte askoan senarrarekin hara eta hona ibili ondoren, gehiegi loditu zen, eta musika zein frantsesa ahaztu zituen. Neurrigabeko maitasun eta beldurra zion semeari; Vasili Ivanovitxen kargu utzia zuen etxaldearen administrazioa, eta, harrezkerotik, berak ez zuen ezertan esku hartzen: bere zaharra etorkizunean egin asmo zituen aldaketetz eta bestelako planez hitz egiten hasten zitzaion bakoitzean, zinkurin egin, eskuzapiari eraginez gizona uxatu, eta, izuaren izuz, gero eta gorago jasotzen zituen bekainak. Irudikorra zen, unean-unean ustekabeko ezbehar larriren bat gertatuko zelakoan zegoen beti, eta negarez hasten zen gertaera tristeren batez gogortu orduko... Gaur egun, gero eta bakanagoak

dira horrelako emakumeak. Jainkoak daki pozga-

ria ote den hori!

XXI

Ohetik jaikitakoan, leioa ireki zuen Arkadik, eta Vasili Ivanovitx izan zen begietaratu zitzaion aurreneko zera. Bujariako mantal batez jantzirik eta sudurzapi bat gerriaren jiran loturik zeukala, baratzea aitzurtzen ari zen agurea, maratz. Bere gonbidatu gaztea hautemanik, aitzurrean bermatu eta oihuka esan zion:

— Egun on! Zer moduz lo egin duzu?

— Ezin hobeto —erantzun zuen Arkadik.

— Bada ni, ikusten duzunez, hemen nabil harako Cincinato haren antzera, arbi berantiarren azpiko lurra harrotzen. Gure garai honetan, Jainkoari eskerrak, nork bere eskuekin lortu behar du mantenua, ez dago besterengandik ezertxo ere espero izaterik: norberak ekin behar dio lanari. Eta gertatu da Jean Jacques Rousseauk arrazoi duela. Orain dela ordu erdi, jauna, jarrera zeharo bestelako batean ikusiko ninduzun. Kexuka etorri zait emakume bat; beherakoa zuela zioen, baina guk disenteria esaten diogu gaitz horri, eta nik... nola azalduko nizuke?...

opioa xiringatu diot. Hagin bat atera diot beste bati; eterra eskaini diot, baina ez du onartu. *Gratis* egiten dut hori guztia, *anamater*. Dena dela, ez da harritzekoa: izan ere, plebeiu naiz, *homo novus*, ez naiz aitoren seme, nire emaztea ez bezala... Baina ez duzu etorri nahi hona, gerizpe-
ra, tea hartu aurretik goizeko hozkirria arnaste-
ra?

Arkadi, etxetik irten, eta harengana joan zen.

— Ongi etorri berriro ere! —esan zuen Vasili Ivanovitxek, burua estaltzen zion kapela kraka-
tsuaren hegalaria eramanik eskua, militarrek
agurtu ohi duten bezala—. Badakit luxura eta
erosotasunera ohiturik zaudela, baina mundu
honetako handikiek ere ez liokete ukorik egingo
etxola baten babesean denboralditxo bat igaro-
tzeari.

— Horrelakorik! —egin zuen espantu Arka-
dik—. Nondik nora naiz ni mundu honetako han-
diki bat? Eta ez nago luxura ohiturik.

— Bai zera, bai zera! —esan zuen Vasili Iva-
novitxek, adeitasunezko keinutxo bat eginez—.
Zokoraturik bizi naiz orain, baina ni ere mundu
zabalean ibilia naiz, eta hegan egiteko modutik

ezagutzen dut txoria. Neure erara, psikologo eta fisiognomista ere banaiz. Dohain hori gabe, eta barkatuko didazu horri horrela deitzeko ausardia, aspaldi egin zuen nireak; gizon xumea naitenez, aise zapalduko ninduten. Gauza bat esango dizut inolako konplimendurik gabe: zinez pozten nau zu eta nire semearen artean igartzen dudan adiskidetasun horrek. Oraintsu topo egin dut berarekin: ohi duenez, eta inondik ere zuko ondo asko dakizu haren ohituren berri, oso goiz jaiki eta inguruetan osteratxo bat egitera joan da. Barkatu nire jakinmina, baina aspalditik ezagutzen duzu nire Jevgeni?

— Aurtengo negutik.

— Bai? Onar iezadazu beste galdera bat... baina ez genuke hobe eseri?... uztazu galdetzen, aita naizen aldetik, inolako tolesik gabe: zer deritzozu nire Jevgeniri?

— Zure semea inoiz ezagutu dudan gizonik miresgarrienetako bat da —erantzun zuen Arkadik, sutsuki.

Bat-batean, biribil-biribil ireki ziren Vasili Ivanovitxen begiak, eta doi bat gorritu masailak. Eskuetatik erori zitzaion aitzurra.

— Beraz, zuk uste duzu... —hasi zen.

— Ziur nago —esan zuen Arkadik— zure semeak etorkizun handia duela eta ospea ekarriko diola zure deiturari. Argi eta garbi daukat hori elkar ezagutu genuen egunetik beretik.

— Nola... nola gertatu zen hori? —esan zuen, nekez, Vasili Ivanovitxek. Bozkariozko irribarre batek zabalduak zizkion ezpainak, eta ez zitzaion ezabatzen.

— Nola ezagutu genuen elkar, hori jakin nahi duzu?

— Bai... eta, oro har...

Odintsovarekin mazurka dantzatu zuen arratsean baino are sutuago, are gogo biziagoz hasi zen Arkadi Bazarovez hitz egiten eta mintzatzen.

Vasili Ivanovitxek adi-adi entzuten zion, entzun, zintz egin, bi eskuekin zapia estutu, eztul egin, ileak laztandu, eta azkenean ezin izan zuen bere burua gehiago menderatu: Arkadirenganantz makurtu, eta musu eman zion besaburuan.

— Guztiz zoriontsu egin nauzu —esan zuen, irribarre egiteari utzi gabe—. Aitortu behar dizut... zera... izugarri maite dudala semea; eta

ez dizut esango zenbaterainoko maitasuna dion nire emazte zaharrak: ama da, ez dago azalpen gehiagoren beharrik! Dena dela, ez naiz ausartzen nire sentimendua haren aurrean azalera-tzen, berak ez baitu hori gogoko. Samurtasun-agerpen ororen etsai da; askok gaitzetsi ere egi-ten dute haren izaeraren gogortasun hori, han-diustearen eta axolagabetasunaren erakusgarri-tzat harturik; baina bera bezalako jendearekin ezin da ohiko neurria erabili, ez da hala? Adibide bat jarriko dizut: haren lekuan, beste edonork ahal beste diru kenduko lieke gurasoei, baina, sinetsiko didazu?, berak sekula ez digu behar baino kopek bat gehiago ere onartu, zin egiten dizut!

— Zintzoa eta eskuzabala da —ohartarazi zuen Arkadik.

— Eskuzabala, bai. Baina ni, Arkadi Nikolaitx, izugarri maitatzeaz gain, harro ere banago semeaz, eta amets bakarra daukat, alegia, egu-nen batean haren biografian honako hitz hauek agertzea: «Haren aita sendagile militar xume bat izan zen, zeinak, hala ere, semea garaiz balioes-ten jakin, eta ahal zuen guztia egin baitzuen

eskola ona emateko...» —Ahotsa eten zitzaion agure zaharrari.

Besoa estutu zion Arkadik.

— Zuk zer uste duzu? —galdetu zuen Vasili Ivanovitxek, isilune laburra eginik—, medikuntzaren arloan lortuko du zuk iragartzen diozun ospe hori?

— Beharbada medikuntzan ez, baina arlo horretan ere aditurik jakintsuenetako bat izango da.

— Orduan, non, Arkadi Nikolaitx?

— Zaila da orain esatea, baina ospetsua izango da.

— Ospetsua izango da! —errepikatu zuen agureak, eta gogoetetan murgildu zen.

— Tea prest dagoela jakinarazteko agindu dit Arina Vlasievnak —esan zien Anfisushkak, masusta-gorri umoz beteriko erretilu izugarri handi batekin haien aldamenetik igarotzean.

Piztu egin zen Vasili Ivanovitx.

— Esnegain hotza egongo da masusta-gorriekin?

— Bai.

— Egizan kontu hotz egon dadin! Konplimenturik ez, Arkadi Nikolaitx, hartu gehiago. Eta nolatan ez da etorri Jevgeni?

— Hemen naiz —iritsi zen Bazaroven ahotsa Arkadiren gelatik.

Bizkor jiratu zen Vasili Ivanovitx.

— Hara! Bisita egin nahi hion hire adiskideari; baina berandu ibili haiz, *amice*, eta guk biok solasaldi luzea izan diagu jadanik. Orain, tea hartzera joan behar diagu: zain zegok ama. Dena dela, hirekin hitz egin behar diat.

— Zertaz?

— Hemengo mujik batek minoria dik...

— Larumina esan nahi duzu?

— Bai, minori kronikoa eta zitala oso. Belarmina eta milazuloa agindu zizkioat, azenarioa janarazi, soda eman; baina horiek guztiak sendagai *aringarriak* dituk, zerbait eraginkorragoa behar diagu. Hik barre egiten diok medikuntzari, baina, hala ere, ziur nagok aholku egokiren bat eman ahal didaala. Baina gero hitz egingo diagu horretaz. Orain, goazen tea hartzera.

Vasili Ivanovitx, jarlektik zalutasunez jaiki, eta Roberto-ko pasarte hau abesten hasi zen:

*Goga... goga... gogara bizi
Lege, lege, hori dugu lege!*

— Hori bizitasuna! —esan zuen Bazarovek, leihotik urruntzeaz batera.

Eguerdia iritsi zen. Eguzkia kiskalgarri zegoen hodei zurixkek osaturiko errezel mehe tartegabeaz bestaldean. Isilik zegoen dena, oilarrak soilik ari ziren, erronkari, elkarri deika herrixkan, entzuten zieten guztiengan logale eta aspertasun sentipen bitxi bat sorraraziz; eta han goian, zuhaitzen adaburuetan, aztore gazte baten txio etengabea aditzen zen, negar-intzirin baten antzeko. Arkadi eta Bazarov belar-meta txiki baten gerizpean etzanik zeuden, bi besakada belar kraskari-idor baina artean berde eta lurrintsu azpian hedaturik.

— Hango zurzuri hark —hasi zen Bazarov— haurtzaroa gogorarazten zidak; adreiluzko estalpe batetik gelditu den lubakiaren ertzean zegok, eta ni, garai hartan, etsita nengoan hala lubakia nola zurzuria talisman berezi baten botereaz horniturik zeudela: haien alboan ez ninduan inoiz

aspertzen. Orduan ez nian ulertzen haurra nintzelako ez nintzela aspertzen. Orain, aldiz, heldua nauk, eta talismanak ez dik inolako eraginik niregan.

— Guztira zenbat denbora igaro huen hemen? —galdetu zuen Arkadik.

— Bi urte osorik bata bestearen ondoren, gero noizean behin soilik etortzen gintuan. Bizitza ibiltaria generamaan; hiriz hiri ibiltzen gintuan beti.

— Eta etxe hau aspaldikoa da?

— Bai, aspaldikoa duk. Aitonak eraiki zian, amaren aitak.

— Zer zen bera, hire aitona?

— Deabruak zekik. Kapitain laguntzailea omen zuan. Suvoroven garaian zerbitzatu zian, eta behin eta berriro kontaktzen zian Alpeen zeharkaldia. Inondik ere, gezurra esaten zian.

— Izan ere, Suvoroven potreta daukazue egongelan esekirik. Gustatzen zaizkidak hirea bezalako etxetxo zaharrak, atseginak dituk, eta usain berezia ditek.

— Itsabalkiaren eta kriseiluetako olioaren usaina duk hori —esan zuen Bazarovek, aharrau-

sika—. Baina zenbat euli dauden etxetxo gozo haueetan... Puf!

— Esadak —hasi zen Arkadi, isilune labur baten ondoren—, haur-denboran ez hinduten zapaltzen?

— Ikusi duk nolakoak diren nire gurasoak. Ez dituk zorrotzak.

— Maite dituk, Jevgeni?

— Bai, maite ditiat, Arkadi!

— Haiek izugarri maite haute!

Isilik geratu zen Bazarov.

— Badakik zer ari naizen pentsatzen? —esan zuen azkenean, eskuak buruaren azpian jarririk.

— Ez zekiat. Zer?

— Pentsatzen ari nauk zein ederra den nire gurasoentzat mundu honetako bizitza! Aitak hirurogei urte ditik, eta ez duk geldirik egoten, sendagai *aringarriez* hitz egiten dik, jendea sendatzen dik, eskuzabala duk nekazariekin; hitz batean: dibertitu egiten duk; eta ama ere ondo bizi duk: hain zeuzkak egun guztiak denetariko zereginez, ai-enez eta ene-badaz mukuru betetarik, ezen ez baitu astirik ezertan pentsatzeko ere; baina nik...

— Baina hik?

— Baina nik zera pentsatzen diat: hemen nagok belar-meta honen alboan etzanik... Betezen dudan leku txiki hau ñimiñoa duk gainerako espazioaren aldean, non ez bainago eta non ez baitut ezer egitekorik; eta biziko naizen denboratartea hutsaren hurrena duk betikotasunaren aldean, non ez bainaiz ez izan eta ez izango... Baina atomo honetan, puntu matematiko honetan, ibili zebilek odola, lan egiten dik burmuinak, eta zer edo zer nahi dik... Izugarria duk! Hau ezereztasuna!

— Nolanahi ere, uztak ohartarazten ezen hik dioan hori, oro har, mundu guztiari gertatzen zaiola...

— Arrazoi duk —esan zuen Bazarovek—. Zera esan nahi nian, haiek, nire gurasoak, lanpeturik bizi direla eta beren ezereztasunak ez dituela kezkatzen, ez zaiela kirasgarri... baina ni, aldiz... gogaitasuna eta haserrea besterik ez diat sentitzen.

— Haserrea? Zergatik haserrea?

— Zergatik? Nola zergatik? Ahaztu duk?

— Dena diat gogoan, baina, hala ere, ez diat onartzen hik haserre egoteko eskubiderik duanik. Zorigaiztokoa haiz, horretan bat natorrek hirekin, baina...

— Eh! Ikusten dudanez, hik, Arkadi Nikolaievitx, belaunaldi berri-berriko gaztetxoek bezala ulertzen duk maitasuna: purra, purra, purra, oiloa, eta oiloa hurbiltzen hasi bezain laster, ospa! Ni ez nauk horrelakoa. Baina utz dezagun gai hori. Lotsagarria duk konpontzerik ez dagoenaz hitz egitea. —Beste aldera jiratu zen—. Hara! Begira inurri kementsu horrek nola daraman euli erdi hil bat herrestan. Eraman ezak, adiskidea, eramán ezak! Gogor egiten badik ere, hi lasai: animalia haizenez, gupida-sentimendua ez ezagutzeko eskubidea duk, balia hadi, bada, eskubide horretaz, zeren guk, geure burua hondatu dugun gizakiok, ez baitugu horrela jokatzetik!

— Hik ez huke horrelakorik esan beharko, Jevgeni! Noiz hondatu duk hik heure burua?

Burua altxatu zuen Bazarovek.

— Horretaz soilik nagok harro. Ez diat neure burua hondatu, eta ezein emakume ernek ere ez

zidak hondatuko. Amen! Aski duk! Ez duk nire ahotik horri buruzko hitz gehiagorik entzungo.

Bi adiskideak isilik egon ziren apur batean.

— Bai —hasi zen Bazarov—, izaki bitxia duk gizakia. «Aitek» bazter leku honetan daramaten bizitza bakartiari soslai eta urrunetik begiratzen dioanean, hori baino hoberik ez dagoela iruditzen zaik. Jaten duk, edaten duk, eta badakik modurik zuzen eta zentzuzkoenean jokatzeko duala. Baina ez; aspertasuna nagusitzen zaik. Jende artean ibili nahi duk, agiraka egiteko beharbada, baina besteekin ibili.

— Une bakoitza garrantzitsua izateko moduan antolatu beharko genikek bizitza —esan zuen Arkadik, pentsakor.

— Hori duk eta! Garrantzitsua, batzuetan gezurrezkoa izanik ere, gozoa gertatzen duk beti; eta bazegok ezdeuskeriarekin etsia hartzerik ere... esamesa duk gaitza, esamesa..

— Esamesarik ez zegok aintzat hartu nahi ez dituenarentzat.

— Jum... hik esan duan hori *kontrako egia arrunta* duk.

— Nola? Zer adierazi nahi duk hitz horiekin?

— Hauxe: irakaskuntza onuragarria dela esatea, adibidez, egia arrunta duk; eta irakaskuntza kaltegarria dela esatea, aldiz, kontrako egia arrunta. Dotoreagoa dirudien arren, funtsean gauza bera duk.

— Eta non dago egia, zein aldetan?

— Non? Oihartzunak bezala erantzungo diat: non?

— Gogoilun hago gaur, Jevgeni.

— Bai? Inondik ere, eguzkiak makaldu egin naik, eta, gainera, ez duk ona hainbeste masusta-gorri jatea.

— Orduan, ez legokek txarto lo kuluxka bat egitea —esan zuen Arkadik.

— Balitekek; baina ez iezadak so egin: gizabanakoak ergel-aurpegia dik lo dagoenean.

— Baina hiri ez dik bost axola jendeak zer pentsatzen duen hitaz?

— Ez zekiat zer erantzun horri. Benetako gizakiak ez dik horretaz kezkatu behar; benetako gizakiari, men egin edo gorroto izan behar zaiok, hari buruz ezer pentsatu gabe.

— Harrigarria! Nik ez zioat gorrotorik inori — esan zuen Arkadik, apur batean pentsakor egonik.

— Nik, ordea, askori. Hi belaxka haiz, arima bigunekoa; nolatan gorrotatuko duk inor? Txepela haiz, ez duk uste handirik heure buruarengan...

— Eta hik —eten zion Arkadik— uste handia duk heure buruarengan? Oso iritzi jaso duk heure buruaz?

Isilik geratu zen Bazarov.

— Nire aurrean amore ematen ez duen gizabanako bat aurkitzen dudanean —esan zuen, astiro—, neure buruaz dudana iritzia aldatuko diat. Gorrotatzea! Gaur, esaterako, Filip gure sindikuaren izbaren aldamentetik igaro garenean, hain eder eta zuri ikusirik, hik esan duk Errusiak perfekzioa lortuko duela azken mujikak horrelako etxe bat daukanean eta gutariko bakoitzak horretan lagundu beharra daukala... Eta nik gorroto hartu zioat azken mujik horri, Filip zein Sidor deitu, zeinarengatik zazpi ahalak egin behar baititut eta eskerrak ere ez baitizkit eman-go... eta, gainera, zertarako behar dut nik haren

esker ona? Tira, izba zuri batean biziko duk bera, eta lapa-belarra haziko duk nire gainean; eta gero zer?

— Aski duk, Jevgeni... gaur, hiri entzunik, edonor egongo lukek ados printzipiorik ez dugula leporatzen digutenekin.

— Hire osabak bezala hitz egiten duk. Ez zegok printzipiorik, oraindik ez haiz horretaz ohartu! Sentipenak zeudek. Haien mende zegok dena.

— Nola da hori?

— Bada, horrelaxe. Ni, esaterako: nik dena ukatzeko joera diat, sentipenen eraginez. Atsegin zaidak ukatzea, horrela eginda zegok nire burmuina, eta kito! Zergatik gustatzen zait kimika? Zergatik maite dituk hik sagarrak? Sentipenen eraginez. Dena bat duk. Jendeak inoiz ez dik gehiago sakonduko. Hori ez dik edonork esango, eta nik ere ez diat berriro esango.

— Orduan, zintzotasuna ere sentipena da?

— Bai horixe!

— Jevgeni!... —hasi zen Arkadi, ahots goibelez.

— Bai? Zer? Ez da hire gustukoa? —eten zion Bazarovek—. Ez, adiskidea! Dena segatzea erabaki duanez, hasi heure oinen azpitik!... Baina nahikoa filosofatu diagu. «Naturak loaren isiltasuna eragiten du», esan zian Pushkinek.

— Pushkinek ez zian inoiz horrelakorik esan —ohartarazi zuen Arkadik.

— Tira, beharbada ez zian esan, baina, poeta zenez, esan zezakean eta esan behar zian. Bestetik, armadan zerbitzatu bide zian.

— Pushkin sekula ez zuan gerlari izan!

— Bai zera, orrialde guztietan idatzi zian: borrokara! borrokara! Errusiaren ohoretan!

— Nolako ipuinak asmatzen dituan! Irain hutsak!

— Irainak? Horra nolako hitza bururatu zaian laguna ikaratzeko! Gizabanakoak, edozein irain jasota ere, funtsean, zerbait hogei aldiz okerragoa merezi dik.

— Hobe diagu lo egin! —esan zuen Arkadik, haserre.

— Oso atsegín handiz —erantzun zuen Bazarovek.

Baina ezin zuten lorik hartu, ez batak eta ez besteak. Halako sentimendu ia etsaitasunezko bat jabetua zen bi gazteen bihotzaz. Bost bat minutu geroago, begiak ireki eta isilik begiratu zioten elkarri.

— Begira —esan zuen bat-batean Arkadik—, astigar-hosto ihartu hori adarretik bereizi eta lurrera zoak; haren mugimenduak tximeletaren hegadaren antz-antzekoak dituk. Ez da bitxia? Goibelena eta hilena alaienaren eta bizienaren antzekoa duk.

— Oi, Arkadi Nikolaitx, nire adiskidea! —egin zuen espantu Bazarovek—. Gauza bat bakarra eskatzen diat: ez eder mintzatu, arren!

— Dakidan bezala hitz egiten diat. Hirea despotismo hutsa duk, gero! Ideia bat etorri zaidak burura; zergatik ez adierazi?

— Ondo zegok; baina zergatik ez ditut nik ere neure oldozpenak adieraziko? Nire ustez, eder mintzatzea ez duk gisakoa.

— Eta zer da gisakoa, orduan? Irain egitea?

— Et-et-et! Bai, ikusten dudanez, heure osabatxo horren oinatzei jarraitzea erabaki duk.

Nola poztuko litzatekeen babo hori, entzungo balik!

— Nola deitu diok Pavel Petrovitxi?

— Doakion bezala deitu zioat: baboa.

— Hori guztiz onartezina duk! —egin zuen oihu Arkadik.

— Ah! Horra odolaren mintzoa! —esan zuen Bazarovek, lasai—. Lehenago ere ohartuta nengoan ahaidetasunaren sentimenak oso sustrai sakonak dituela jendearengan. Gizakia prest egoten duk edozeri uko egiteko, aurreiritzi guztietatik baztertzeke, baina zapiak osten dituen anaia lapurra dela ezagutzea, aldiz, buruz gainera gertatzen zaiok. Izan ere, *nire* anaia duk, *nirea*; nolatan liteke, bada, jeinu bat ez izatea?

— Zuzentasunaren sentimen soila mintzo duk *nire* ahoan, inondik ere ez odola —esan zuen Arkadik, sutsuki—. Baina hik, sentimendu hori ulertzen ez duanez, *sentipen* hori ez duanez, ezin duk haren gainera iritzirik eman.

— Beste hitz batzuekin esanda: Arkadi Kirsanov jasoegia duk *nire* ulermenerako; burua makurtu eta isilik geratuko nauk beraz.

— Mesedez, Jevgeni, aski duk; liskartu egingo gaituk azkenean.

— Bai, Arkadi, arren, liskar gaitezen behingoz behar den bezala, mugarik gabe, elkar suntsitu arte.

— Baina horrela, azkenean, gerta litekek...

— Borroka egitea? —eten zion Bazarovek—. Eta? Hemen, belarretan, leku idiliko honetan, mundutik eta jendearen begietatik urrun, lasai asko egin zezakeagu borroka! Baina ez nauk menderatuko. Oraintxe bertan lepotik helduko diat...

Bere hatz luze eta latzak zabaldu zituen Bazarovek... Arkadi, jiratu, eta, jolasean bezala, buru egiteko prestatu zen... Baina hain iruditu zitzaion gaiztoa Bazaroven aurpegiera, hain mehatxu larria atzeman zion ezpainenako irribarre makurrean eta begietako su bizian, ezen, nahi gabe, zalantza nabaritu baitzuen bere baitan...

— Ah! Horra non ezkutatu zareten! —entzun zen une horretantxe Vasili Ivanovitxen ahotsa, eta gazteen aurrean agertu zen sendagile militar zaharra, etxean eginiko oihalezko jaka batez jan-

tzirik eta orobat etxean eginiko lastozko kapela bat buruan—. Luzaz ibili naiz zuen bila... Baina leku ezin hobea aukeratu duzue, eta egiteko ezin ederrago bati ekin diozue. «Lurrean» etzanik «zerura» begiratu... Badakizue horrek esanahi berezia duela?

— Nik, usin egin nahi dudanean soilik begiratzeko dut zerura —egin zuen marmar Bazarovek, eta, Arkadirenganantz jiraturik, ahapeka gaineratu zuen—: Damurik eragotzi diguten!

— Aski diagu —xuxurlatu zuen Arkadik, eta adiskidearen eskua estutu zuen ezkutuan—. Baina ez zegok hain liskar larritik onik atera daitekeen adiskidetasunik.

— Zuei begiratu, nire solaskide gazteok —zioen bitartean Vasili Ivanovitxek, buruari eraginez eta, eskuak gurutze, berak trebetasun handiz txirikordaturiko makila batean bermaturik, zeinak turkiar baten irudia baitzeukan eskutokitzat—, zuei begiratu, eta miretsirik geratzen naiz ezinbestean. Nolako indarra, zein gaztetasun sasoitsua zuena, nolako ahalmena, nolako adimena! Hitz batean... Kastor eta Polux!

— Ez hasi berriro mitologiarekin gora eta behera! —esan zuen Bazarovek—. Berehala igaritzen zaizu zure garaian latinzale amorratua izan zinela! Oker ez banago, zilarrezko domina eman zizuten idazlan batengatik, ezta?

— Dioskurook, dioskurook! —errepikatu zuen Vasili Ivanovitsek.

— Aski da, aita, losintxarik ez!

— Zilegi da behin edo behin losintxak egitea —murduskatu zuen agureak—. Dena dela, jaunok, ez nenbilen zuen bila hitz gozoak esateko, baizik eta, lehenik, laster bazkalduko dugula jakinarazateko, eta, bigarrenik, jakinaren gainean jarri nahi haudalako, Jevgeni... Gizon argia haiz, jendea ezagutzen duk, emakumezkoak ere ezagutzen dituk, eta, horrenbestez, barkabera izango haiz... Hire amak elizkizun bat agindu nahi zian etxera itzuli haizela eskertzeko. Ez pentsa elizkizun horretara joateko eskatuko diadanik... amaitu duk dagoeneko; baina aita Aleksei...

— Popea?

— Bai, apaiza; bada, zera... gurean bazkalduko dik. Nik ez nian horrelakorik espero, gonbitik

ere ez zioat egin... baina hala gertatu duk... aita Alekseik ez zidak ulertu... Egia esan, Arina Vlasievnak ere... Dena dela, oso gizon ona eta zentzuduna duk.

— Nire partea jango du? —galdetu zuen Bazarovek.

Barre egin zuen Vasili Ivanovitxek.

— Hi bai hi! Horrelakorik!

— Ez dut besterik eskatzen. Osterantzean, prest nago mahaira edonorekin esertzeko.

Vasili Ivanovitxek ondo jarri zuen kapela.

— Aldez aurretik ziur nengoan —esan zuen— hi aurreiritzi guztien gainera hagoela. Ni ere, hirurogeita bi urte baditut ere, aurreiritzirik gabeko gizona nauk. (Vasili Ivanovitx ez zen ausartzen aitortzera berak ere elizkizuna egin nahi izan zuela... Emaztea bezain elizkoia zen.) Aita Alekseik gogo handia dik hi ezagutzeko. Gustatuko zaik, ikusiko duk. Ez dik eragozpenik izaten kartetan egiteko, eta gainera... baina hori gure artean gera dadila... pipa erretzen dik.

— Bai? Orduan, bazkalostean *jeralash* partida bat jokatuko dugu, eta irabazi egingo diot.

— Je, je, je, ikusiko diagu! Ez erosi zintzarria idia baino lehen.

— Zer, gazte-denborara itzultzeko gogoaz duzu, ala? —esan zuen Bazarovek, doinu berezi batez.

Doi bat gorritu ziren Vasili Ivanovitxen masail brontzekarak.

— Ez dik lotsarik ematen, Jevgeni?... Iragana iragana duk. Baina bai, prest nagok hire adiskidearen aurrean aitortzeko gaztetan zaletasun hori izan nuela; eta larrutik ordaindu nian, alajaina! Ene, hau beroa! Utz iezadazue zuen aldamean esertzen. Ez dizuet eragotziko?

— Inola ere ez —erantzun zuen Arkadik.

Belarretan eseri zen Vasili Ivanovitx, hasperenka.

— Zuen etzaleku honek, jaunok —hasi zen—, gudarostean nenbileneko garaia dakarkit gogorra, haize zabaleko kanpalekuak, eritegiak; gu ere edonon etzaten ginen, eta eskerrak ematen genizkion Jainkoari belar-meta baten babesa aurkitzen bagenuen. —Hasperen egin zuen—. Neke asko eta asko igaro nituen nire denboran.

Besteak beste, nahi baduzue, Besarabiako izurriaren istorioa kontatuko dizuet.

— Horregatik eman zizuten Vladimiroa, ezta? —tartekatu zuen Bazarovek—. Badakigu, badakigu... Baina zergatik ez duzu aldean eramaten?

— Lehen ere esan diat aurreiritzirik gabeko gizona naizela —murduskatu zuen Vasili Ivanovitxek (aurreko egunean bertan agindu zuen zerrenda gorria jakatik aska ziezaioten), eta izurriaren istorioa kontatzeari ekin zion—. Lo gelditu da! —xuxurlatu zion ustekabean Arkadiri, Bazarov seinalatuz eta ontasunezko begi-keinu bat eginez—. Jevgeni! Jaiki hadi! —gaineratu zuen, ozenki—. Goazen bazkaltzera...

Kontuak kontu, aita Aleksei —gizaseme sendo eta itxura onekoa bera— oso bizkorra eta burutsua zen. Ile sarria zuen, ardura handiz orraztua, eta gerriko brodatu bat zeraman sedazko sotana morearen jiran. Lehiatsu, bera joan zen lehena Arkadiri eta Bazarovi eskua estutzera, beraren bedeinkapenaren beharrik ez zutela igarri balu bezala, eta, oro har, askatasun handiz gobernatu zen. Ez zuen bere burua saldu, ezta inor mindu ere; barre egin zion seminarioko

latinari eta, aldi berean, bere gotzaina aldeztu zuen; bi kopa ardo edan zituen, baina uko egin zion hirugarrenari; zigarro bat onartu zion Arkadiri, baina ez zuen piztu, etxera eramango zuela esanik; gauza bat bakarra ez zen batere atsegina berarengan: behin eta berriro altxatzen zuen eskua, astiro eta zuhurtasunez, aurpegian pausatzen zitzaizkion euliak harrapatzeko, eta, gainera, bat edo beste zapaltzen zuen noizean behin. Neurrizko atseginez eseri zen mahai berdera, eta bi errublo eta hamabost kopek irabazi zizkion Bazarovi, diru-paperetan, zeren Arina Vlasievnaren etxean ez baitzegoen zilarraren arrastorik ere... Ama, beti bezala, semearen alboan zegoen eseririk (berak ez zuen kartetan egiten), masaila ukabiltxoan bermaturik, beti bezala, eta beste jakiren bat zerbitza zezaten agintzeko soilik jaikitzen zen. Semea laztantzeko beldur zen, eta hark ez zuen horretaratzen, ez zion laztanik eskatzen; gainera, semeari lar ez «eragozteko» aholkua emana zion Vasili Ivanovitxek. «Gazte jendeari ez zaio gustatzen hori», esana zion hamaika bider (ez dago azaldu beharrik nolakoa izan zen egun hartako bazkaria:

egunsentian Timofeitx bera lauhazka bizian joan zen halako behiki zirkasiar berezi bat erostera; sindikua beste leku batera joan zen aholatz, zarbo eta karramarro bila; emakumeek kobrezko berrogeita bi kopek jaso zituzten perretxikotarako bakarrik); baina Arina Vlasievnaren begiek, denbora guztian Bazarovengan josirik, ez zuten mirespena eta samurtasuna soilik adierazten: tristura ere nabari zitzaien, jakinminarekin eta izuarekin nahasirik, halako erantzuki apal bat nabari zitzaien.

Dena dela, Bazarov ez zegoen amaren begiek zehatz-mehatz zer adierazten zuten asmatzen ibiltzeko aldarrean; oso gutxitan mintzatzen zitzaion, eta galdera laburrak eginez soilik. Behin, eskua eskatu zion, «zorte ona» ekar ziezaion. Amak isilik jarri zuen bere esku biguna semearen ahur latz eta zabalean.

— Eta? —galdetu zion handik apur batera—, zorte ona izan duk?

— Lehen baino txarragoa —erantzun zuen semeak, irribarretxo hotz batez.

— Gehiegi arriskatzen dira —esan zuen aita Alekseik, errukitsu-antzean, eta bere bizar gorria laztandu zuen.

— Napoleonen jokabidea, aita Aleksei, Napoleonen jokabidea —tartekatu zuen Vasili Ivanovitchek, eta bateko bat bota zuen.

— Hain zuzen ere, jokabide horrek eraman zuen Santa Elena uhartera —esan zuen aita Alekseik, eta batekoari nagusitu zitzaion triunfo batekin.

— Ez duk andere-mahats urik nahi, Jevgeni? —galdetu zuen Arina Vlasievnak.

Bazarovek sorbaldak jaso besterik ez zuen egin.

— Ez! —esan zion Arkadiri biharamunean—. Hemendik alde egingo diat bihar. Aspertuta nagok; lan egin nahi diat, baina hemen ezinezkoa duk. Hire herrixkara joango nauk berriro; han utzi ditiat nire prestakin guztiak. Hire etxean, gutxienez, bazegok bakartzerik. Hemen, ordea, aitak behin eta berriro esaten zidak: «Heuretzako daukak nire langela, inork ez dik enbarazurik egingo hor», baina orpoz orpo jarraitzen zidak denbora guztian. Eta lotsagarri zaidak

aitari muzin egitea. Eta ama ere berdin. Entzuten ditiat haren hasperenak hormaz bestaldean, baina, berarengana jo, eta ez nauk ezer esateko gauza izaten.

— Oso triste jarriko duk —esan zuen Arkadik—, eta aita ere bai.

— Itzuliko nauk egunen batean.

— Noiz?

— Petersburgera joaten naizenean.

— Batez ere hire amaren erruki nauk.

— Zer dela eta? Baiak opariturik limurtu hau, ala?

Begiak apaldu zituen Arkadik.

— Ez duk heure ama ezagutzen, Jevgeni. Emakume miragarria ez ezik, oso buruargia ere baduk, benetan. Gaur goizean, ordu erdi egon duk nirekin hizketan, eta haren solasa oso zentzuzkoa eta interesgarria izan duk.

— Inondik ere, nitaz aritu duk! Oker nago?

— Ez diagu hitaz bakarrik hitz egin.

— Balitekek; hik beste ikusgune batetik begiratzen diok. Dena dela, seinale ona duk emakumezko bat ordu erdiko solasaldia egiteko gai izatea. Nolanahi ere, alde egingo diat.

— Ez zaik samurra gertatuko gurasoei horren berri ematea. Beti zeudek bi aste barru zer egingo dugun pentsatzen.

— Ez duk erraza izango, ez. Zorigaiztoan gaitzitu diat gaur aita: lehengo egunean, bere mujik zergapeko bat zigorkatzeko agindu zian, eta oso ondo egin zian; bai, bai, ez begiratu izu-aurpegi horrekin, oso ondo egin zian, zeren mujik hori lapur eta mozkor porrokatua baita; kontua duk aitak ez zuela espero ni jakinaren gainean egotea. Erabat aztoratu dik horrek, eta orain, gainera, beste atsekabe bat eman behar zioat... Baina ez duk ardura! Sendatuko duk zauria.

«Ez duk ardura!», esan zuen Bazarovek, baina egun osoa igaro zen Vasili Ivanovitxi bere asmoaren berri jakinaraztea erabaki zuenerako. Azkenean, langelan gabonak ematen ari zitzaio- la, gogorik gabe aharrausika esan zion:

— Ah!... ia ahaztu zitzaidan gauza bat esatea... Agin ezazu bihar gure zaldia Fedotenera eramán ditzaten, postarako.

Harriturik geratu zen Vasili Ivanovitx.

— Alde egingo du Kirsánov jaunak, ala?

— Bai; eta ni berarekin joango naiz.

Vasili Ivanvoitx atzera jiratu zen zegoen tokian.

— Bahoala?

— Bai... alde egin beharra daukat. Ardura zaitetz zaldiez, mesedez.

— Ondo zegok... —hasi zen, totelka, agure zaharrak—, postarako... ondo zegok... baina... baina... Zer dela eta?

— Haren etxera joan behar dut aldi labur baterako. Gero, berriro itzuliko naiz hona.

— Bai! Aldi labur baterako... Ondo zegok. — Vasili Ivanovitxek, zapia atera, eta zintz egin zuen, lurra ia ukitzeraino makurtuz—. Zer egingo zaiok! Baina uste nian... luzaroago geratuko hintzela etxean. Hiru egun... Hori, hori gutxi duk hiru urteren ondotik, gutxi, Jevgeni!

— Esan dizut laster itzuliko naizela. Nahitaezkoa zait joatea.

— Nahitaezkoa... Zer egingo zaiok! Oroz gain, eginbidea bete beharra zegok... Orduan, zaldiak bidaliko ditut? Ondo zegok. Arinak eta biok, jakina, ez genian hau espero. Hire amak loreak eskatu berri zizkiok auzolagun bati, hire gela apaindu nahi zian. (Vasili Ivanovitxek ez

zuen aipatu ezen goizero, eguna argitu orduko, oinetakoak galtzerdirik gabe jantzi, Timofeitxengana jo, eta, atzamarrak dardaraka hainbat diru-paper urratu banan-banan aterata, askotariko erosketak agintzen zizkiola, batez ere jakiak eta ardo beltza, zeina, ohartu zenez, oso gustatu baitzitzaien gazteei.) Askatasuna duk garrantzizkoena; hori duk nire arau nagusia... ez duk oztoporik jarri behar... ez...

Bat-batean isildu, eta atera abiatu zen.

— Laster ikusiko dugu berriro elkar, aita, benetan.

Baina Vasili Ivanovitx, atzera jiratu gabe, eskuari eragin eta gelatik irten zen. Logelara itzulirik, ohean aurkitu zuen emaztea, eta ahapeka hasi zen otoitz egiten, esna ez zedin. Itzarri egin zen, hala ere.

— Zu zara, Vasili Ivanitx? —galdetu zion.

— Bai, ni naiz.

— Jeniusharekin izan zara? Kezkaturik nago: ondo lo egiten ote du dibanean? Bururdi berriak eta zure bidai lastaira txikia jartzeko agindu diot Anfisushkari; gure lumatxa eskaintzeko asmoa

nuen, baina gogoratu naiz ez duela gogoko bigun lo egitea.

— Ez kezkatu, maitea, ez kezkatu. Ondo dago. Barka gaitzazu, Jauna, bekatari baikara — ekin zion berriro bere otoitzari, ahapeka. Emazte zaharraren erruki zen Vasili Ivanovitx: ez zion gauean esan nahi nolako nahigabea zeukan zain.

Bazarov eta Arkadi biharamunean joan ziren. Goiz-goizetik, tristura jabetu zen etxeaz; Anfi-sushkari eskuetatik erortzen zitzaizkon ontziak; Fedka bera ere harri eta zur zegoen, eta botak erantzi zituen azkenean. Vasili Ivanovitx inoiz baino urduriago zebilen: itxuraz kemendurik, ozen hitz egin eta gogor zapaltzen zuen lurra, baina zimeldurik zeukan aurpegia, eta haren begiek semea saihesten zuten denbora guztian. Arina Vlasievnak isilka egiten zuen negar; goizean goiz senarra bi ordu osoz hitz bihotz-altxagarriekin lasaitzen aritu ez balitzaio, zeharo erotu eta ez zen gehiago bere buruaren jabe izango. Noiz eta Bazarov, luzeenaz ere hilabete barru itzuliko zela behin eta berriro agindu, eta, eusten zioten besarkadetatik behingoan jaregi-

nik, tarantasera igo baitzen; noiz eta zaldiak abian jarri, kanpaitxoak tintinka eta gurpilak jiraka hasi, eta ordurako zalgurdiari atzetik begiratzeari alferrikakoa gertatu eta hautsa berriro lurreratu baitzen, eta Timofeitx, konkorkonkoreginik eta aldaroka, urrats astunez bere gelazulora itzuli baitzen; noiz eta guraso zaharrak bakarrik geratu baitziren etxean, zeinak bai baitzirudien ezen, haiek bezalaxe, zimurtu eta zahartu egin zela tupustean, orduantxe, Vasili Ivanovitxek, oraindik apur batez etxeko atarian zapiari adoretzu eraginez jardun ondoren, aulki batean amildu eta bular gainera abaildu zuen burua. «Abandonatu, abandonatu egin gaitik — zioen, totelka—, abandonatu; gogaitu duk gurekin. Bakarrik nagok orain, bakar-bakarrik», errepikatu zuen hamaika aldiz, eta aldi bakoitzean aurrera eramaten zuen eskua, hatz erakuslea luzaturik. Orduan, Arina Vlasievna hurbildu zitzaion, eta, bere buru ileurdina haren buru ileurdinean bermaturik, esan zuen: «Zer egingo diogu, Vasia! Semeak habia utzi du. Belatza bezalakoa da: nahi duenean etorri, nahi duenean joan. Zu eta biok, ordea, elkarri itsatsiriko bi

perretxikoren antzekoak gara, elkarren aldame-
nean egongo gara beti. Ni bakarrik izango nauzu
behin betiko zurekin, eta nik zu bakarrik izango
zaitut nirekin».

Vasili Ivanovitxek, eskuak aurpegitik kendu,
eta bere emaztea, bere laguna besarkatu zuen,
are gaztaroan ere inoiz besarkatu zuen baino
gogorrago: triste zegoelarik, emazteak arindu
zion bihotza.

XXII

Isilik joan ziren Fedoteneraino, noizean behin soilik hitz hutsal batzuk trukatu. Bazarov ez zegoen guztiz pozik bere buruarekin. Arkadi gaitziturik zegoen berarekin. Jende gazte-gazteak soilik ezagutzen duen tristura arrazoirik gabeko hori sentitzen zuen bihotzean. Kotxezainak zaldi berriak uztartu zituen eta, berriz ere gida-aulkira igorik, galdetu zuen:

— Ezkerretara ala eskuinetara?

Zirgit egin zuen Arkadik. Eskuinetatik bideak hirira zeraman, eta handik etxera; ezkerretatik, berriz, Odintsovarenera zeraman.

So egin zion Bazarovi.

— Jevgeni —galdetu zion—, ezkerretara?

Jiratu egin zen Bazarov.

— Burugabekeria handiagorik! —murduskatu zuen.

— Bazekiat burugabekeria dela... —erantzun zuen Arkadik—. Ez duk, ordea, gure lehen burugabekeria izango!

Bazarovek bekokiraino sartu zuen kapela.

— Nahi duan bezala —esan zuen azkenean.

— Ezkerretara! —egin zuen oihu Arkadik.

Nikolskoera abiatu zen tarantasa. Baina, burugabekeria egitea erabakirik, adiskideak lehen baino egoskorrago tematu ziren isiltasunean, eta haserre ote zeuden ere ematen zuen.

Odintsovaren etxeko otseinburuak atarian egin zien harrera ikusirik, bi adiskideak aise konaturatu ziren batere zuhurtasunik gabe jokatu zutela, bat-bateko apeta igarokor bati emore emanik. Nabaria zen han ez zituztela espero. Luze samar eta aurpegi ergel samarrez egon ziren egongelan eseririk. Azkenean, Odintsova azaldu zen. Bere ohiko jendetasunaz agurtu zituen, baina harriturik zegoen hain laster itzuli zirelako, eta, haren mugimendu eta hitzen moteltasunak salatzen zuenez, horrek ez zuen gehiegi poztu. Haiek berehala azaldu zioten iragaitzaz soilik zeudela han, eta lau ordu barru bideari ekingo ziotela berriro, urrunago baitzihoazen, hirira. Odintsovak harridurazko hitz bat esan besterik ez zuen egin, aitari goraintziak emateko eskatu zion Arkadiri, eta izebari deitze-ko agindu zuen gero. Printzesa erdi lo azaldu

zen, eta horrek ohi baino aire gaiztoagoa ematen zion haren aurpegi zahar zimurtsuari. Katia ondoezik zegoen eta ez zen bere gelatik irten. Arkadi bat-batean ohartu zen ezen, gutxienez, Anna Sergeievna ikusteko bezain gogo handia zuela Katia ikusteko. Funtsik gabeko gauzei buruzko berriketan joan ziren lau orduak; Anna Sergeievnak irribarrerik gabe entzun eta hitz egiten zuen. Agurtzeko orduan soilik berpiztu zitzaizkion bihotzean lehengo adiskidetasunaren printzak.

— Triste samar nabil egunotan —esan zuen—, baina zuek ez egin konturik horri eta, biokin ari naiz, itzul zaitezte denboralditxo baten buruan.

Bazarovek eta Arkadik hitzik gabeko burumakurtua eginez erantzun zioten; kotxera igo eta, beste inon gelditu gabe, etxera abiatu ziren, Marinora, nora biharamun arratsaldean iritsi baitziren ezeren okerrik gabe. Bide osoan ez batak ez besteak ez zuten aipatu ere egin Odintsova-ren izena. Bazarovek ia ez zuen behin ere ireki ahoa, eta alde batera begira joan zen denbora guztian, begiak bidetik urrun, halako larritasun temati baten mende.

Haien itzulerak izugarri poztu zituen denak Marinon. Nikolai Petrovitx kezkatzen hasia zen semearen kanpoaldiaren luzeaz; oihu bat egin, hankak dantzatzen hasi eta jauzi txiki bat egin zuen dibanean Fenetxkak haren gelan lasterka sartu eta, begiak dirdiratsu, «jaun gazteak» iritsiak zirela jakinarazi zionean; Pavel Petrovitxek berak halako zirrara atsegin bat nabaritu eta etorkor egin zuen irribarre bidaiari itzuli berriei eskua estutzean. Kontu-kontari eta galdezka hasi ziren; Arkadik inork baino gehiago hitz egin zuen, batez ere afalondoan, gauerdia baino beranduago arte luzatu baitzen. Arestian Moskutik ekarritako garagardo-botila batzuk ateratzeko agindu zuen Nikolai Petrovitxek, eta, edanaren edanaz, kolore gorrimina hartu zuten haren masailek, eta barre egiten zuen etengabe, noiz ume-irri halako batez, noiz algara urduriz. Alaitasun orokor hura neskame-morroien artean ere hedatu zen. Duniasha atzera-aurrera zebilen ero baten pare, atepak danbadaka itxiz behin eta berriro; eta Piotr, gaueko hirurak jo eta gero ere, gitarrarekin bals kosako bat jotzen saiatu zen hamaikagarren aldiz. Soken soinua zinkurinatsu

eta atsegingarri aditzen zen aire geldi-geldian, baina hasierako irrixta labur bat izan ezik, taxuzko doinurik ez zen sortu gelazain ikasiarengandik: naturak musikarako gaitasuna ukatua zion, hala nola beste edozertarakoa ere.

Eta, bitartean, bizitza ez zihoan ondoegi Marion, eta Nikolai Petrovitx dohakabea kinka larrian zegoen. Egunetik egunera landetxeak gero eta buruhahuste gehiago ematen zizkion, buruhauste goibelgarri, zentzugabeak. Jasanezin bilakatu zen soldatako beharginekiko gatazka. Zor guztiak kitatzeko edo soldata igotzeko eskatzen zioten batzuek, eta beste batzuek, berriz, alde egiten zuten berme gisa jarria zuten dirua berreskuratu orduko; gaixotu egiten ziren zaldiak; lanabesek suak bezala erretzen bide zituzten eskuak; zabartasunez lan egiten zen; Moskutik ekarritako garijotzeko makina berria ezin zen erabili, hain zen astuna; beste bat ekarri, eta hondatu egin zen lehenengo erabilaldian bertan; ukuiluaren erdia kiskalirik geratu zen, neskame zahar itsu bati egun haizetsu batean bere behia ilenti batez keztatzea bururatu zitzaiolako —hala ere, atso zaharrak esan zuenez, nagusi jaunak

berak eragin zuen ezbeharrak, gazta eta bestelako esneki berezi-berezi batzuk egitea bururatu baitzitzaion. Administratzailea bat-batean nagitu zen, eta are loditzen hasi ere, hala nola loditu ohi baita errusiarra besteren bizkarretik bizitzea egokitzen zaionean. Nikolai Petrovitx urrunetik ikusi orduko, bere ardura erakuste aldera, txirbilak jaurtitzen zizkion inguruan lasterka zebilen zerrikumeren bati, edo mehatxu egiten zion mutiko erdi biluziren bati, baina, osterantzean, lo egitea zuen jarduera nagusi. Lurra errentan zeukaten mujikek ez zuten alokairua garaiz ordaintzen, eta egurra lapurtzen zuten basoan; jago-leak ehizan ibiltzen ziren ia gauero, eta, batzuetan, «landetxeko» larreetara eramaten zituzten nekazarien zaldiak. Nikolai Petrovitxek diru-isun bat ezarri zuen, kalteak ordainarazteko, baina, gehienetan, zaldiak beren jabeengana itzultzen ziren pare bat egunez jaunaren kontura jaten egon ondoren, eta horrelaxe amaitzen zen auzia. Eta, hori guztia gutxi, mujikak elkarrekin liskartzen hasi ziren: anaiek ondasunen banaketa eskatzen zuten, haien emazteak ezin ziren teila-pe berean bizi; ustekabeak, borrokan hasten

ziren, eta, denek agindu bati jarraituko baliote bezala, hortxe jazartzen ziren nekazari guztiak batera, bulegoaren aurrean bildu eta nagusi jaunari deika hasten ziren, aurpegia ubeldurik eta mozkor-itxuraz sarritan, eta justizia eta zigorra eskatzen zituzten; nonahi aditzen ziren oihuak, garrasiak, emakumeen negar-intziriak senarren biraoekin tartekaturik. Elkarrekin etsaitutakoen kexuak aditu beharra zegoen horrelakoetan, eztarria erlasteraino oihu egin, aurretiaz jakinik ezinezkoa izango zela erabaki zuzenik hartzea. Ez zegoen behar beste esku sega-lanetarako: lur-sail txiki baten jabe izatera iritsia zen mujik ohi batek, oso itxura atsegineko auzolaguna bera, segalariak eskaini zizkion alokairuan, desiatina bakoitzeko bi errublo kendurik, baina modurik lotsagabeenean atzipetu zuen; herrixkako emakumeek prezio izugarri garestiak kobratzen zizkioten, eta, bitartean, garia soroe-tan aletzen zen inork segatu gabe, eta Babes Batzordeak mehatxu egiten zuen, eta korrituak lehenbailehen eta atzerapenik gabe ordaintzera presatzen...

— Ez daukat indarrik! — esaten zuen askotan Nikolai Petrovitxek, etsi gaiztoz—. Ezin dut borrokarik egin, nire printzipioek ez didate uzten barrutiko poliziaburuari deitzen, baina zigorraren beldurrik gabe ez dago ezer lortzerik!

— *Du calme, du calme* — esan ohi zion Pavel Petrovitxek, baina ahapeka kantatu, bekokia zimurtu eta bibotea laztantzen zuen berak.

Bazarovek ez zien konturik egiten liskar haiei; gainera, gonbidatua zen aldetik, han ez zuen besteren arazoetan zertan sarturik. Marino-
ra itzuli eta biharamunean, berriro ekin zien bere igel, infusorio eta konposatu kimikoei, eta horretan ematen zuen denbora guztia. Arkadik, aldiz, bere eginbehartzat hartu zuen aitari laguntzea edo, gutxienez, laguntzeko prest zegoela erakustea. Egonarriz entzuten zion beti, eta behin aholku bat eman zion, ez aitak aholkuari jaramon egin ziezaion, bera ere arduratzen zela iku-sarazteko baizik. Etxaldea gobernatzea ez zitzaion gogaikarri; aitzitik, are atseginez irudikatzen zuen agronomoaren lanbidea, baina garai hartan bestelako ideiak zebilzkion buruan. Bere harridurarako, Nikolskoen pentsatzen zuen eten-

gabe. Lehen, sorbaldak jaso besterik ez zuen egingo baten batek esan balio asper zitekeela Bazarovekin teilape berean bizitzen, batez ere teilape hori gurasoen etxea izanik!; baina, hain zuzen ere, aspertu egiten zen, eta handik alde egiteko gogoia zuen. Nekatu arte paseatzea bururatu zitzaion, baina horrek ez zion batere lagundu. Egun batean, aitarekin hizketan jakin zuen Nikolai Petrovitxek gutun batzuk zeuzkala gorderik, oso interesgarriak, Odintsovaren amak haren emazte zenari aspaldi idatziak, eta ez zion bakerik eman gutun haiek eskuratu arte. Nikolai Petrovitxek goitik behera miatu behar izan zituen hogeitabat kutxa eta tiradera, gutunen bila. Hautsak erdi jandako paper haien jabe egin bezain laster, lasaitu antzeko bat hartu zuen, erdietsi behar zuen jomuga bat-batean bere aurrean ikusi balu bezala. «Biokin ari naiz — xuxurlatzen zuen etengabe—, halaxe esan zian! Joango nauk, horixe joango naizela, mila deabru!» Baina gogora etorri zitzaizkion azken bisita, harrera hotza, lehengo baldartasuna, eta zalantza egin zuen. Nolanahi ere, azkenean, garaile atera zen gaztaroak berezko duen

«agian» hori, bere zoria saiatzeko eta bere indarrak bakarrean eta inoren babesik gabe probatzeko irrika ezkutua. Marinora itzuli zenetik hamar egun ere igaro ez zirela, igande-eskolen nondik norakoa aztertzeko aitzakiarekin, berriro joan zen hirira, eta handik Nikolskoera. Etenik gabe gidariari presa emanaz, borrokara doan ofizial gaztearen antzera oldartu zen hara: izua eta alaitasuna sentitzen zituen aldi berean, eta ezinonak itorik zihoan. «Ez diat pentsatu behar, hori duk garrantzitsuena», errepikatzen zuen bere kolkorako. Oso gidari mutiria egokitu zitzaion; taberna guztien aurrean gelditzen zen, esanez: «Zer, edango dugu?»; eta gero inolako gupidarik gabe akuilatzen zituen zaldia. Azkenean, ikusmenean agertu zen etxe ezagunaren teilatu garaia... «Zertan ari naiz? —etorri zitzaion une batez burura Arkadiri—. Hobe nitek atzera itzuli!» Troika lauoina bizian zihoan, zalu; gidaria, berriz, oihuka eta txistuka ari zen. Zubitxoak karraska egin zuen apatx eta gurpilen azpian, gero eta hurbilago ikusten zen izei adar-motzez osaturiko ibilbidea... Emakume baten soineko arrosakolorea ikusi zen lipar batez berdetasun

ilun hartan, aurpegi gazte batek begiratu zuen eguzkitako arin baten litsen artetik... Arkadik Katia ezagutu zuen, eta Katiak bera. Arkadi, gidariari zaldiak gelditzeko agindu, jauzi batez kotxetik jaitsi, eta neskarengana hurbildu zen. «Zu zara! —esan zuen hark, eta, apurka-apurka, goitik beheraino gorritu zen—. Goazen ahizparen bila, hemen dabil, lorategian; atsegingarri gertatuko zaio zu ikustea.»

Katiak lorategira eraman zuen Arkadi. Bera-ekin topo egin izana oso zantzu zorionekoa iruditu zitzaion Arkadiri; poz handia hartu zuen, senitartekoa balu bezala. Ezin hobeto atera zen dena: otseinburuaren arrastorik ez, bere iristearren iragarpenik ez. Bidearen bihurgune batean ikusi zuen Anna Sergeievna. Berari bizkarra emanik zegoen. Oin-hotsa entzunik, astiro jiratu zen.

Berriz ere aztoratu zen Arkadi, baina Anna Sergeievnaren lehen hitzek berehala lasaitu zuten. «Ongi etorri, iheslari hori! —esan zuen, ahots ezinago gozo eta samurrez, eta berarenanga abiatu zen, irribarrez eta begiak txiloturik

eguzkiaren zein haizearen eraginez—. Non aurkitu duzu, Katia?»

— Anna Sergeievna —hasi zen Arkadi—, inondik inora espero ez duzun gauza bat ekarri dizut...

— Zeure burua ekarri duzu; hori da onena.

XXIII

Arkadi erruki burlatiz agurturik eta bidaiaren benetako helburuaz zalantza-izpirik ere ez zuela aditzera emanik, Bazarov zeharo bakartu zen, lanerako grinak jorik. Jadanik ez zen eztabaidatzen Pavel Petrovitxekin, batez ere hark beraren presentzian aire aristokratikoegia hartzen zuelako eta bere gogoetak hitzez baino gehiago hotsez adierazten zituelako. Pavel Petrovitx behin bakarrik egon zen «nihilista» gaztearekin eztabaidan hasteko zorian, aitoren semeen eskubideak zirela eta, gai hori modan baitzegoen orduan, baina bat-batean gelditu zen, gizalege hotzez esanik: «Alferrik da, guk ezin dugu elkar ulertu; nik, behintzat, ez dut zu ulertzeko ohorea».

— Ez horixe! —egin zuen oihu Bazarovek—. Edonork uler dezake nola dardaratzen den eterra eta zer gertatzen den eguzkian; baina inork ez du ulertzen nolatan bestek norberak ez bezala zintz egin dezakeen.

— Burutsua da hori? —galdetu zion Pavel Petrovitxek, eta alde egin zuen.

Hala ere, batzuetan, esperimentuen lekuko izateko baimena eskatzen zion Bazarovi, eta behin mikroskopiora hurbildu zuen bere aurpegi droga bikainez lurrindu eta garbitua, bertatik bertara ikusteko nola infusorio garden batek hauts-izpi berde bat irentsi eta arduratsu mamurtzen zuen eztarrian zituen hortz-antzeko gingil izugarri zalu batzuekin. Anaia baino askoz sarriagotan joaten zen Nikolai Petrovitx Bazarov ikustera; etxaldeko egitekoek galaraziko ez baliote, egunero joango zen, «ikastera», berak zioen bezala. Ez zion trabarik egiten naturalista gazteari: gelako bazter batean eseri, eta arretaz begiratzen zuen, noizean behin soilik galdera zuhurren bat eginez. Bazkalorduan eta afalorduan, ahaleginak egiten zituen elkarrizketa fisikara, geologiara edo kimikara bideratzeko, zeren beste gai guztiek, are etxaldearen gobernuak berak, eta zer esanik ez politikak, liskarra piztera iritsi gabe ere, guztientzako atsekabeak ekar baitzitzaketen. Nikolai Petrovitxek susmatzen zuen ez zela batere moteldu anaiak Bazarovi

zion gorrotoa. Beste askoren arteko gertaera munta gutxiko batek haren susmoak egiaztatu zituen. Kolera hasi zen agertzen inguruetako zenbait lekutan, eta Marinoko bertako bi lagun ere eraman zituen. Gau batez, oinazealdi bortitz samarra izan zuen Pavel Petrovitxek. Minez egon zen eguna argitu arte, baina ez zuen jo Bazaroven antzearen bila, eta hark, biharamunean ikusi zuenean, galdetu zion: «Zergatik ez didazu deitu?»; eta berak, zurbil-zurbil oraindik baina ordurako ardura handiz orrazturik eta bizar-mozturik, erantzun zion: «Bada, gogoan dudalako behin zerorrek esan zenuela ez duzula medikuntzan sinesten». Horrela igarotzen ziren egunak. Bazarov buru-belarri eta aire goibelez aritzen zen lanean... eta, bitartean, Nikolai Petrovitxen etxean bazen izaki bat zeinari, bere bihotza zabalduko ez bazion ere, atseginez mintzatzen baitzitzaion... Katia zen izaki hori.

Gehienetan, goizean goiz egiten zuen topo berarekin, lorategian edo patioan; inoiz ez zen beraren gelan sartzen, eta Katia behin bakarrik hurbildu zitzaion atera, Mitia bainatu behar zuen galdetzeko. Uste ona zuen Bazarovengan, ez

zion inolako beldurrik, eta, are gehiago, Nikolai Petrovitxen beraren aurrean baino askatasun eta berezkotasun handiagoz gobernatzen zen haren aurrean. Zail da esaten zergatik gertatzen zitzaion hori; beharbada, oharkabean sumatzen zuelako Bazarovek ez zuela jendea aldi berean liluratu eta izutu egiten duen nobletasun eta goitasun horren arrastorik. Katiaren begietan, sendagile bikaina zen, eta gizon xumea. Bera aurrean zelarik ere, bere haurra zaintzen zuen batere uzkuritu gabe, eta behin, ustekabean zorabiatu eta buruko mina jarri zitzaion batean, goilarakada bat sendagai hartu zuen haren eskuetik. Nikolai Petrovitxen presentzian, aldiz, saihestu-edo egiten zuen Bazarov: ez zuen maltzurkeriarengatik egiten hori, moduzkotasun-sentimendu halako batek eraginik baizik. Pavel Petrovitxi, aldiz, inoiz baino beldur handiagoa zion, aspaldion ez baitzion hark begirik kentzen: etengabe zelatatzen zuen, eta atzean azaltzen zitzaion ustekabean, lurpetik sortu balitz bezala, aurpegia zorrotz eta zurrun eta eskuak sakeletan sarturik. «Edonori hotzikarak emateko modukoa dun», kexatzen zitzaion Fenetxka Duniashari,

eta Duniashak, erantzungisa, hasperen egin eta «giza sentimendurik gabeko» beste gizon bategan pentsatzen zuen. Bazarov, berak susmatu ere egin gabe, haren arimaren tirano anker bihurtua zen.

Atsegin zitzaion Bazarov Fenetxkari; baina orobat atsegin zitzaion Fenetxka Bazarovi. Aurregia aldatu ere egiten zitzaion neskarekin hitz egiten zuenean: horrelakoetan, begitarte lasaia jartzen zuen, ia onbera, eta halako arreta jostari bat nahasten zitzaion ohiko axolagabetasunarekin. Fenetxka ederrago zegoen egunetik egunera. Bada sasoi bat emakume gazteen bizitzan, zeinean, udako arrosen antzera, bat-batean loratu eta zabaltzen hasten baitira; sasoi hori iritsia zitzaion Fenetxkari. Den-denak laguntzen zion horretan, are uztaileko sargoriak berak ere, uda minean baitzeuden. Soineko zuri arin batez jantzirik, ohi baino zuriagoa eta arinagoa ematen zuen berak ere: ez zen beltzaran jartzen, baina beroak, zeinetik ezin baitzen begiratu, doi bat gorritatu ohi zizkion masailak eta belarriak, eta, gorputz osoa halako nagitasun lasai batez horniturik, moteltasun logalez islatzen zen haren

begitxo politetan. Ia ezin zuen lanik egin; belau-
netaraino indarge erorita eraman ohi zituen
besoak. Nekez ibiltzen zen eta denbora guztian
aieneka eta kexuka aritzen zen halako ahultasun
jostagarri batez.

— Sarriagotan hartu beharko zenuke bainua
—esan ohi zion Nikolai Petrovitxek. Oihalez esta-
liriko bainutegi handi bat egina zuen bere
urmaeletako batean, zeina ez baitzen artean
idortu.

— Oi, Nikolai Petrovitx! Urmaelera iristen nai-
zenerako, lur jota nago, eta atzera itzultzean
berriro nekatzen naiz. Izan ere, lorategian ez
dago gerizperik.

— Bai, arrazoi duzu, ez dago gerizperik —
erantzun ohi zion Nikolai Petrovitxek, eta bekai-
nak igurtzitzen zituen.

Egun batean, goizeko zazpiak aldera, ohiko
osteratxotik itzultzean, Bazarovek lila-itzaltegi
aspaldi loregabetu baina artean hostotsu eta
berdean aurkitu zuen Fenetxka. Jarlekuan eseri-
rik zegoen, burua zapi zuri batez estalirik, ohi
bezala. Arrosa gorri eta zuriz eginiko sorta bat

zeukan alboan, ihintzaz heze oraindik. Egun ona opa zion Bazarovek.

— Ah! Jevgeni Vasilix! —esan zuen Fenetxkak, eta apur bat jaso zuen zapiaren ertza, Bazarovi begiratzeko, eta ukondoraino biluzik agertu zen haren besoa.

— Zertan ari zara hemen? —galdetu zion Bazarovek, aldamenean esertzeaz batera—. Lore-sorta bat egiten?

— Bai; mahai gainean jarriko dut gosaltzeko orduan. Nikolai Petrovitxek gogoko du hori.

— Baina gosaria urrun dago oraindik. Ene, zenbat lore!

— Oraintxe bildu ditut, berotzen hasiko du laster, eta ez da egongo lorategira irteterik. Orain bakarrik arnastu ahal da airea. Zeharo ahultzen ari naiz sargoriaren eraginez. Beldurrak nago ez ote naizen gaixotuko!

— Irudipen hutsak dira horiek! Ekarri eskua, pultsua hartuko dizut.

Eskua hartu, beti-berdin pilpiratzen zen zaintxo bat aurkitu, eta pilpirak zenbatu ere ez zuen egin.

— Ehun urte biziko zara —esan zion, eskua askatuz.

— Jainkoak gorde nazala horretatik! —egin zuen espantu.

— Zergatik? Ez duzu luzaz bizi nahi?

— Bai, baina ez ehun urte! Nire amonak lau-
rogeita bost urte zituen, eta hori martirioa jasan
zuen! Beltz, gor, konkorturik, beti eztulka, hura
oinazea harena! Hori ez da bizitzea!

— Beraz, hobe da gaztea izatea?

— Bai, horixe hobe dela

— Baina zergatik da hobe? Esadazu!

— Nola zergatik? Ni gaztea naiz orain, eta
edozer egin ahal dut, joan eta etorri, ekarri eta
eraman, eta ez diot ezer eskatu behar inori... Zer
dago hori baino hoberik?

— Niri berdin dit gaztea edo zaharra izateak.

— Nolatan esan dezakezu hori? Berdin dizu?
Ezinezkoa da.

— Zerorrek erabaki, Fedosia Nikolaievna, zer-
tarako balio didan niri gaztetasunak! Bakarrik
bizi naiz, ez nago ezkondurik...

— Beti egongo da zure esku hori aldatzea.

— Bada, ez, ez bakarrik nire esku. Gutxienez baten bat nitaz errukituko balitz!

Fenetxkak begi-ertzetik begiratu zion Bazarovi, baina ez zuen ezer esan.

— Zein liburu da hori? —galdetu zuen, apur batean itxaron ondoren.

— Hau? Zientzi liburu bat da, ulergaitza.

— Eta zu beti zaude ikasten? Ez zara asperetzen? Inondik ere, dena dakizu.

— Argi dago ezetz. Saia zaitez apurtxo bat irakurtzen.

— Ez dut ezer ulertuko. Errusieraz idatzirik dago? —galdetu zuen Fenetxkak, liburukote astuna bi eskuetan harturik—. Bai lodia!

— Errusieraz dago, bai.

— Berdin dio, ez dut tutik ulertuko.

— Ez duzu zertan ulerturik, ez da hori nire asmoa. Begiratu nahi dizut irakurtzen duzun bitartean. Irakurtzean oso modu lirainean mugitzen zaizu sudurtxoaren punta.

Fenetxkak, «Kreosota» izeneko atala ahapeka irakurtzen hasteko gertu baitzegoen, barrez hasi eta liburua askatu zuen... jarlekutik lurrera irristatu zen.

— Atsegin zait zure barre egiteko modua ere
—esan zuen Bazarovek.

— Aski da!

— Atsegin zait nola hitz egiten duzun. Errekato
txo baten murmurioa gogorarazten didazu.

Burua jiratu zuen Fenetxkak.

— Zu bai zu! —esan zuen, hatzak lore artean
jostari—. Nolatan gustatzen zaizu niri entzutea?
Izan ere, hain dama buruargiekin mintzatu izan
zara.

— Ai, Fedosia Nikolaievna! Sinetsidazu: mun-
duko dama buruargi guztiek ez dute zure ukon-
do batek adina balio.

— Ene, nolako gauzak esaten dituzun! —
xuxurlatu zuen Fenetxkak, eta eskuak bildu
zituen.

Bazarovek lurretik jaso zuen liburua.

— Medikuntza-liburu bat duzu hau, zergatik
bota duzu?

— Medikuntza-liburua? —errepikatu zuen
Fenetxkak, eta Bazarovenganantz jiratu zen—.
Badakizu? Tantatxo haiek eman zenizkidanetik,
Mitiak ondo lo egiten du! Ez dakit zer egin zure
laguntza eskertzeko; oso ona zara, benetan.

— Bada, ohitura da sendagileari ordaintzea —esan zuen Bazarovek, irribarretxo batez—. Sendagileok, dakizunez, irabazizaleak gara.

Fenetxkak Bazarovenganantz jaso zituen begiak, zeinek berez baino ilunagoak baitziruditen aurpegiaren goiko aldea argitzen zion leinuru zurixkaren eraginez. Ez zekien txantxetan ari zen ala ez.

— Nahi baduzu, guk atsegin handiz... Nikolai Petrovitxi galdetu behar diot...

— Baina dirua nahi dudala uste duzu? —eten zion Bazarovek—. Ez, nik ez dut zure dirurik behar.

— Zer, orduan? —esan zuen Fenetxkak.

— Zer? —errepikatu zuen Bazarovek—. Ea asmatzen duzun!

— Ez naiz sorgina, aizu!

— Orduan, nik esango dizut; arrosa horietako bat behar dut.

Fenetxkak berriro ekin zion barreari, eta esku-zartaka ere hasi zen, hain iruditu zitzaion dibertigarria Bazaroven nahia. Barre egiten zuen, eta balakaturik sentitzen zen aldi berean. Bazarovek adi-adi begiratzen zion.

— Ondo da, ondo da—esan zuen Fenetxkak azkenean, eta, jarlekuan makurturik, arrosak aukeratzen hasi zen—. Nolakoa nahi duzu, gorria ala zuria?

— Gorria, eta ez handiegia.

Tente jarri zen Fenetxka.

— Hartu hau —esan zuen, baina bertantxe eragin zion atzera beso luzatuari eta, ezpainak hozkaturik, itzaltegiko sarrerara begiratu zuen; belarria zorroztu zuen gero.

— Zer gertatzen da? —galdetu zuen Bazarovek—. Nikolai Petrovitx?

— Ez... mendira joan da... eta, gainera, hari ez diot beldurrik... baina Pavel Petrovitx, aldiz... Iruditu zait...

— Zer?

— Iruditu zait hemen zebilela. Baina ez... ez dago inor. Hartu.

Fenetxkak arrosa bat eman zion Bazarovi.

— Zergatik zara Pavel Petrovitxen beldur?

— Beti dabil ni ikaratzen. Ez dit ezer esaten, baina oso begirada arraroak egozten dizkit. Zuk ere ez duzu begiko. Gogoan izan lehen beti aritzen zinela berarekin eztabaidatzen. Nik ez dakit

zertaz eztabaidatzen zineten, baina ikusten nuen zuk nahierara manaiatzen zenuela, eta...

Fenetxkak eskuekin erakutsi zion beraren ustez Bazarovek nola manaiatzen zuen Pavel Petrovitx.

Irribarre egin zuen Bazarovek.

— Eta bera nagusitu balitz —galdetu zuen—, nire alde egingo zenuen?

— Nolatan egingo nuen nik zure alde? Baina ez, ez dago zu menderatuko zaituenik.

— Hala uste duzu? Bada nik ezagutzen dut esku bat zeinak, nahi izanez gero, lurrera botako baininduke atzamar bakar batez.

— Norena da esku hori?

— Ez dakizu? Usaindu zein lurrin gozoa darion eman didazun arrosari.

Fenetxkak, lepoa luzatu, eta loretxora hurbildu zuen aurpegia... Burutik sorbaldetara lerratu zitzaion zapia, eta agerian geratu zen haren adats sarria, beltz, distiratsu, doi bat nahasirik.

— Egon apur batean, zurekin batera usaindu nahi dut —esan zuen Bazarovek; makurtu, eta musu sendoa eman zion ezpain irekietan.

Dar-dar egin zuen Fenetxkak; bi eskuekin bermatu zen Bazaroven bularrean, indar handirik gabe ordea, eta Bazarovek bere musua berri-tu eta luzatu ahal izan zuen.

Eztul lehor bat entzun zen lilez bestaldean. Fenetxka bertantxe joan zen jarlekuaren beste muturreraino. Pavel Petrovitx agertu zen orduan; buru-makurtu txikia egin, eta halako goibeltasun gaizto batez esan zuen: «Hemen zaudete»; eta han joan zen. Fenetxka, arrosa guztiak berehala batu, eta itzaltegitik irten zen. «Oker handia egin duzu, Jevgeni Vasilix», xuxurlatu zuen alde egi-teaz batera. Zinezko erantzukia sumatzen zen haren xuxurlan.

Bazarovi arestiko beste eszena bat etorri zitzaion gogora, eta, lotsaren lotsaz, destaina eta amorrua sentitu zituen. Baina, bertantxe buruari eraginik, ironiaz zoriondu zuen bere burua «limurtzaileen sailean sarrera formala egina zuelako» eta bere gelara joan zen.

Pavel Petrovitx, aldiz, lorategitik irten eta basora joan zen, astiro ibiliz. Denbora luze sama-rra eman zuen han, eta, gosaltzeko orduan itzu-li zenean, Nikolai Petrovitxek kezkatu galdetu

zion ea ondoezik zegoen: hainbestearaino ilundua
zitzaien aurpegia.

— Badakik, behazun-jarioak izaten ditiat

batzuetan —erantzun zion Pavel Petrovitxek,

lasai.

XXIV

Bi ordu inguru geroago, Bazaroven atea jo zuen.

— Barkatuko didazu zure zientzi jarduera eragozte —hasi zen, leiho ondoko aulki batean eseriz eta bi eskuak bere makila ederraren bolizko heldulekuan bermaturik (makilarik gabe ibili ohi zen)—, baina zure denborako bost minutu eskatu behar dizkizut... bost minutu besterik ez.

— Zure zerbitzuan duzu nire denbora guztia —erantzun zuen Bazarovek, zeinari doi bat mudatu baizitzaion aurpegiera Pavel Petrovitxek atalasea zeharkatzearekin batera.

— Nahikoa izango dut bost minutu. Galdera bat egitera etorri naiz.

— Galdera bat? Zeri buruzkoa?

— Entzun, mesedez. Hasieran, nire anaiaren etxean kokatu zinenean, neure buruari zurekin hitz egiteko plazerra oraindik ukatua ez niolarik, gai askori buruzko zure iritzia entzuteko aukera izan nuen; dena dela, oroimenak hutsik egiten ez badit, ez gure arteko elkarrizketetan eta ez nire

aurrean besterekin izan dituzun solasaldietan, inoiz ez duzu ahotan erabili buruz buruko borroka, edo dueloa. Esadazu, mesedez, zein da zure iritzia gai horri buruz?

Bazarovek, Pavel Petrovitxi harrera egiteko zutitua baitzen, mahaiaren mutur batean eseri eta besoak gurutzatu zituen.

— Hauxe da nire iritzia —esan zuen—: teoriaren ikuspuntutik, dueloa zentzugabekeria da; praktikaren ikuspuntutik, ordea, besterik da.

— Hau da, ondo ulertu badizut, esan nahi duzu ezen, dueloari buruzko zure ikuspuntu teorikoa gorabehera, praktikan, baten batek irain egingo balizu, ez zenukeela etsiko ordainik eskatu gabe, ezta?

— Bete-betean igarri duzu nire pentsamoldea.

— Oso ondo. Izugarri pozten nau zuri hori entzuteak. Zure hitzek zalantzatik atera naute...

— Erabaki ezinetik esan nahi duzu.

— Gauza bera da; uler diezadazun hitz egin dut horrela; ni... ez naiz seminarioko arratoi bat. Zure hitzek eginbehar triste batetik libratu naute. Zure kontra borrokatzea erabaki dut.

Bazarovek zabal-zabal ireki zituen begiak.

— Nire kontra?

— Bai horixe, zure kontra.

— Zer dela eta? Esadazu, mesedez.

— Arrazoia azal niezazuke —hasi zen Pavel Petrovitx—, baina nahiago dut isilean gorde. Zu, nire gusturako, soberan zaude hemen; ezin zaitut jasan, arbuiatzen zaitut, eta hori aski ez balitz ere...

Dir-dir egin zuten Pavel Petrovitxen begiek... Eta txinpartaka hasi ziren Bazarovenak ere.

— Oso ondo —esan zuen—. Ez dago azalpen gehiagoren beharrik. Zure zaldun-espirtua nirekin probatu behar duzula sartu zaizu buruan. Ezezkoa eman niezazuke, baina, tira, ez dizut plazer hori ukatuko!

— Mila esker —erantzun zuen Pavel Petrovitxek—. Horrenbestez, orain espero dezaket nire erronka onartuko duzula bortizkeriazko neurririk hartzera behartu gabe.

— Hau da, alegiarik gabe esanik, zure makila hori dantzatu gabe —esan zuen Bazarovek, odol hotzez—. Guztiz zuzena da hori. Ez nauzu zertan iraindurik. Hori, bestetik, ez litzaizuke arriskurik

gabea gertatuko. *Gentleman* batek bezala jokatzen jarraitu ahal duzu... Nik ere, neure aldetik, *gentleman* batek bezala onartzen dizut erronka.

— Ederto —esan zuen Pavel Petrovitxek, eta bazter batean utzi zuen makila—. Orain, hitz egin dezagun apur batean gure dueloaren baldintzei buruz; baina lehenik jakin nahi nuke ea beharrezkotzat jotzen duzun alde zuretik liskar txiki baten formalismoa betetzea, liskar horrek nire erronkaren aitzakia gisa balio lezake eta.

— Ez, hobeto formalismorik gabe.

— Horixe uste dut nik ere. Eta nago orobat premiagabea irudituko zaizula gure gatazkaren benetako arrazoian sakontzea. Ezin dugu elkar jasan. Zer gehiago behar dugu?

— Zer gehiago behar dugu? —errepikatu zuen Bazarovek, ironiaz.

— Dueloaren baldintzei dagokienez, ez dugu laguntzailerik izango; izan ere, nondik aterako genituzke?

— Horixe diot nik ere, nondik aterako genituzke?

— Beraz, honakoa proposatzen dizut ohore handiz: bihar borrokatuko gara, goizean goiz,

seietan esaterako, basoaz bestaldean, pistolekin; hamar urratsera jarriko dugu muga-lerroa...

— Hamar urrats? Izan ere, guk distantzia horretan gorrotatzen dugu elkar.

— Zortzi urrats izan litezke.

— Bai, zergatik ez?

— Bina aldiz egingo dugu tiro; eta, zer gerta ere, bakoitzak gutun bat eramango du sakelari gorderik. Nork bere heriotzaren erantzukizuna bere gain hartzen duela adieraziko du idazki horretan.

— Horrekin ez nago guztiz ados —esan zuen Bazarovek—. Eleberri frantsesen kutsua du, ez da sinesgarria.

— Baliteke. Nolanahi ere, onartzen duzu ez dela batere atsegina hilketa baten susmagarri izatea?

— Onartzen dut hori, bai. Baina bada modu bat erantzuki triste hori saihesteko. Ez dugu laguntzailerik izango, baina izan dezakegu leku-bat.

— Nor?, jakin nezake?

— Piotr.

— Zein Piotr?

— Zure anaiaren gelazaina. Gaur egungo hezkuntzaren mailan dago, eta horrelako egoera batean ezinbestekoa den *comme il faut* guztiaz beteko du bere eginkizuna.

— Txantxetan ari zarela iruditzen zait, jaun agurgarri hori.

— Inola ere ez. Nire proposamena aztertzen baduzu, argi ikusiko duzu ezinago zentzuzkoa eta xaloa da. Goizago edo beranduago, dena jakingo da, eta ni arduratuko naiz Piotr behar bezala prestatzeaz eta borrokalekura eramateaz.

— Txantxetan jarraitzen duzu —esan zuen Pavel Petrovitxek, aulkitik jaikitzeaz batera—. Baina, erakutsi duzun gertutasun adeitsua ikusirik, ez dut eskubiderik zu estu hartzeko. Beraz, antolaturik dago dena... Baduzu pistolarik?

— Nolatan izango dut nik pistolarik, Pavel Petrovitx? Ez naiz militarra.

— Hala izanik, nireak eskaintzen dizkizut. Ziur egon zaitezke badirela bost urte ez dudala haiekin tirorik egin.

— Oso albiste kontsolagarria da hori.

Pavel Petrovitxek bere makila hartu zuen...

— Beraz, jaun agurgarri hori, eskerrak ematea eta zure zereginetara itzultzen uztea besterik ez zait geratzen. Adeitasunez agurtzen zaitut.

— Gure elkartze atsegina arte, jaun agurgarri hori —esan zuen Bazarovek, bisitariari lagunduz.

Gelatik irten zen Pavel Petrovitx. Bazarov zutik geratu zen atearen aurrean, eta bat-batean esan zuen: «Mila deabru! Hau egoera polita eta zentzugabea! Nolako komedia jokatu dugun! Zakur argiek horrelaxe egiten ditek dantza atzeko hanken gainean. Baina ezin nioan ukorik egin, bestela, beharbada, zartako bat emango zidaan, eta orduan... (Bazarov zurbil jarri zen hori pentsatze hutsarekin; bazirudien haren harrotasun guztia jazarria zela oinaze-gurpilean.) Orduan, lepoa bihurritu beharko nioan katakume bat balitz bezala». Bere mikroskopiora itzuli zen, baina bizkortu egin zitzaizkion bihotz-taupadak, eta bertantxe aienatu lasaitasuna, behaketa-lanerako ezinbestekoa. «Ikusi egin gaitik gaur goizean —pentsatzen zuen—, baina gai ote da hain erokeria handia egiteko anaia defendatzearen? Eta nolako garrantzia du musu batek? Hemen baduk beste zerbait. Bah! Ez ote dago

bera maitemindurik? Bai, seguraski, maitemindurik zegok; eguna bezain argia duk hori. Hau ataka gaiztoa!... Egoera okerra benetan! —erabaki zuen azkenean—. Oso okerra, edonondik begiratuta ere. Lehenik, aurpegia eman beharko diat, eta gero, zer gerta ere, alde egin; baina hor zegok Arkadi... eta Nikolai Petrovitx, hain belaxka bera. Egoera okerra, ezinago okerra.»

Bereziki lasai eta nagi igaro zen eguna. Bazirudien Fenetxka lurraren azaletik desagertua zela; bere gelatxoan gorderik zegoen, sagutxo bere zuloan bezala. Nikolai Petrovitxek kezkatu-itxura zuen. Jakinarazi ziotenez, herdoila agertu zen galtzurian, zeinean itxaropen handia baitzuen. Pavel Petrovitxek bere jendetasun izozkarez nekarazten zituen denak, are Prokofitx bera ere. Bazarov aitari gutun bat idazten hasi zen, baina apurtu eta mahai azpira bota zuen. «Hiltzen banaiz —pentsatu zuen—, jakingo ditek horren berri; baina ez nauk hilko. Ez, oraindik luze jardungo diat mundu honetan.» Biharamunean eguna argitu orduko berarengana joateko agindu zion Piotri, garrantzi handiko kontu bat zela eta; Piotrek pantsatu zuen berekin eraman

nahi zuela Petersburgera. Berandu oheratu zen Bazarov, eta amesgaiztoen estira pairatu zuen gau osoan... Odintsova jirabiraka zebilkion aurrean, ama gisa agerturik, eta kateme bibote-beltz bat zebilen haren atzetik, eta kateme hori Fenetxka zen; Pavel Petrovitx, berriz, oihan handi baten itxuran agertu zitzaion, eta berak, hala ere, borroka egin behar zuen haren kontra. Piotrek goizeko lauretan esnatu zuen; berehala jantzi, eta berarekin irten zen etxetik.

Goiza zoragarria eta hozkirria zen; bildots-itxurako hodeitxo ñabarrak ageri ziren zeru urdin margulean; ihintz-tantatxo ugari zeuden hostoetan eta belar-izpian, eta leinuru zilarkaraz distiratsen zuten armiarma-sareetan; bazirudien lurrak, heze eta ilun, egunsentiaren aztarna gorrixkak gordetzen zituela oraindik; zeruan nonahi entzuten ziren hegazabalen kantuak. Bazarovek, basoaren mugaraino joan, zuhaitz baten gerizpean eseri, eta orduan soilik azaldu zion Piotri zer-nolako zerbitzua nahi zuen berarengandik. Heriozko ikara batek hartu zuen lekaio ikasia; baina Bazarovek berehala lasaitu zuen, esanez urrun gelditu eta handik begiratu

besterik ez zuela egin behar, eta inork ez ziola ezerean erantzukizunik egotziko. «Pentsa ezak — gaineratu zuen—, zeinen eginkizun garrantzitsua betetzea egokitu zaian!» Piotr, besoak zabaldu, burua makurtu, eta, zurbil-zurbil, urki baten enborrharen kontra bermatu zen.

Marinoko bideak basotxoak inguratzen zuen; hauts-geruza mehe bat zuen, aurreko egunetik ezein gurpil edo oinek artean zapaldu gabea. Bazarovek, nahi gabe, bidean aurrera begiratzen zuen noizean behin, belar-izpiak erauzi eta hozkatzen zituen, eta behin eta berriro errepikatzen zuen bere artean: «Hau zozokeria!». Bi aldiz egin zuen dar-dar goizeko haize hozkirriaren eraginez... Piotrek tristuraz begiratu zion, baina Bazarovek irribarretxoak besterik ez zuen egin: ez zen beldur.

Zaldi batzuen oin-hotsa entzun zen bidean... Mujik bat agertu zen zuhaitzen atzetik. Hankak trabaz loturik zeramatzaten bi zaldi akuilatzen zituen bere aurrean, eta, Bazaroven aldamenetik igarotzean, oso modu bitxian begiratu zion eta aurrera jarraitu zuen buru-makurturik egin gabe, eta horrek, antza, aztoratu egin zuen Piotr, zan-

tzu gaiztotzat hartu baitzuen. «Hori ere goiz altxatu duk —pentsatu zuen Bazarovek—, baina, gutxienez, lan egiteko; eta gu?...»

— Uste dut badatorrela —xuxurlatu zuen Piotrek.

Bazarovek, burua jaso, eta Pavel Petrovitx ikusi zuen. Laukizko jaka arin batez eta galtza elurra bezain zuriz jantzirik, bizkor zebilen bidean; kutxa bat zekarren besapean, oihal berde batean bildurik.

— Barkatu; antza denez, itxaronarazi egin dizuet —esan zuen. Bazarov agurtu zuen aurrena, eta Piotr hurrena, une horretan laguntzaile-antzeko zerbait errespetatzen baitzuen berarengan—. Ez nuen nire gelazaina esnatu nahi.

— Ez kezkatu —erantzun zuen Bazarovek—, gu ere oraintxe bertan iritsi gara.

— Ah! Gaitz erdi! —Pavel Petrovitxek ingurura begiratu zuen—. Ez da inor ikusten, inork ez digu eragotziko... Has gaitezke?

— Has gaitezke.

— Ez duzu argibide gehiagorik behar?

— Ez, ez dut behar.

— Kargatu nahi dituzu? —galdetu zuen Pavel Petrovitxek, pistolak kutxatik ateraz.

— Ez, karga itzazu zuk; nik, bitartean, urratsak neurtuko ditut. Nire hankak luzeagoak dira —gaineratu zuen Bazarovek, irribarre txikia egingez—. Bat, bi, hiru...

— Jevgeni Vasilitx —murduskatu zuen, nekez, Piotrek (dardaraka ari zen, sukarra balu bezala)—, zure baimenarekin, urrundu egingo naiz.

— Lau... bost... Urrun hadi, adiskidea, urrun hadi; nahi baduk, zuhaitz baten atzean gorde eta belarriak estali, baina ez itxi begiak... Eta biotako bat erortzen bada, hator bizkor lurretik altxatzera. Sei... zazpi... zortzi... —Gelditu egin zen Bazarov—. Aski da? —esan zuen, Pavel Petrovitxenganantz jiraturik—. Beste bi urrats gehituko ditut?

— Nahi duzun bezala —erantzun zion Pavel Petrovitxek, bigarren bala sartzen zuen bitartean.

— Gehi dezagun, bada, beste bi urrats —esan zuen Bazarovek, eta marra bat egin zuen lurrean botaren puntaz—. Hemen dago muga-lerroa. Baina mugatik zenbat urrats urrundu behar du

bakoitzak? Horrek ere berebiziko garrantzia du. Atzo ez genuen hori eztabaidatu.

— Hamar urrats, nik uste —erantzun zuen Pavel Petrovitxek, Bazarovi bi pistolak emateaz batera—. Hauta ezazu bat, mesedez.

— Atsegin handiz. Baina ez zaizu iruditzen, Pavel Petrovitx, gure duelo hau bitxiaren bitxiaz barregarria ere badela? Gure laguntzaileak nola-ko aurpegia duen ikusi besterik ez duzu.

— Zu beti txantxetarako gogoz —erantzun zuen Pavel Petrovitxek—. Ez dut ukatuko gure dueloaren bitxitasuna, baina nire betebehartzat daukat aurretiaz jakinaraztea seriotan borrokatzeko asmoa dudala. *A bon entendeur, salut!*

— O! Ez dut zalantzan jartzen biok elkar suntsitzeko erabaki sendoa hartu dugula; baina zergatik ez barrerik egin eta utile dolci bateratu? Zuk niri frantsesez egin, eta nik zuri latinez erantzun.

— Seriotan borrokatuko naiz —errepikatu zuen Pavel Petrovitxek, eta bere lekura joan zen. Bazarov, bere aldetik, muga-lerrotik hamar urrats zenbatu, eta gelditu egin zen.

— Prest zaude? —galdetu zuen Pavel Petrovitxek.

— Erabat.

— Elkarrenganantz ibiltzen has gaitezke.

Bazarovek astiro egin zuen aurrera, eta Pavel Petrovitx harenganantz ibiltzen hasi zen, ezkerreko eskua sakelan sarturik eta pistolaren ahoa astiro goratuz... «Sudurrera zuzenean apuntatzen naik —pentsatu zuen Bazarovek—, eta nolako arduraz zorrozten duen begia, zital horrek! Hau sentipen desatsegina! Haren erlojuaren katetxoari begiratuko zioat...» Bat-batean, zer edo zer txistuka igaro zen Bazaroven belarriaren albo-albotik, eta une horretan bertan tiro baten danbatekoa entzun zen. «Entzun diat; beraz, ez zaidak ezer gertatu», pensatu zuen Bazarovek lipar batez. Beste urrats bat egin eta, apuntatu gabe, katua sakatu zuen.

Pavel Petrovitxek, dar-dar txiki bat egin, eta izterrera eraman zuen eskua. Odol-zurrustatxo bat isuri zitzaion galtza zurietan behera.

Bazarov, pistola alde batera jaurti, eta bere aurkariarengana hurbildu zen.

— Zauriturik zaude? —galdetu zion.

— Muga-lerrora hurbil nendin eskatzeko eskubidea zenuen —esan zuen Pavel Petrovitxek—, hau huskeria bat da. Ezarritako baldintzen arabera, beste tiro bana egin dezakegu.

— Barkatu, baina beste baterako utziko dugu hori —erantzun zuen Bazarovek, eta besoez inguratu zuen Pavel Petrovitx, zurbiltzen hasia baitzen—. Orain ez naiz duelista, sendagilea baizik, eta beste ezer baino lehen zauria aztertu behar dizut. Piotr! Hator hona, Piotr! Non ezkutatut haiz?

— Hau guztia zentzugabea da... Ez dut inolako laguntzarik behar —esan zuen, astiro, Pavel Petrovitxek—, eta... nik... berriro...

Bibotea laztandu nahi izan zuen, baina eskuak huts egin, begiak lausotu, eta konortea galdu zuen.

— Hau ezbeharra! Korderik gabe erori da! —atera zitzaion Bazarovi, Pavel Petrovitx belarretan etzaten zuen bitartean—. Ikus dezagun zer duen!

Atera zuen zapi bat, xukatu zuen odola, haztatu zuen zauriaren ingurua... «Hezurra osorik zegok —murduskatu zuen hortz artean—, bala

alderik alde igaro zaiok, *vastus externus* giharra azaletik ukiturik. Hiru aste barru, dantzan egiteko moduan egongo duk!... Baina kordea galtzea ere! Ene, bazegok, gero, jende kiriotsurik! Begira zein azal mehea!»

— Hilda dago? —xuxurlatu zuen haren bizkarran Piotren ahots dardaratsuak.

Ingurura begiratu zuen Bazarovek.

— Hoa segituan ur bila, adiskidea, gu baino gehiago biziko duk hau.

Baina zerbitzari bikainduak, antza, ez zituen ulertzen haren hitzak, eta ez zen bere lekutik mugitzen. Pavel Petrovitxek poliki ireki zituen begiak. «Hiltzen ari da», xuxurlatu zuen Piotrek, eta aitaren egiten hasi zen.

— Arrazoi duzu... Nolako ergel aurpegia duen! —esan zuen, irribarre behartu batekin, *gentleman* zaurituak.

— Hoa behingoz ur bila, mila deabru! —egin zuen oihu Bazarovek.

— Ez da beharrezkoa... *Virtige* igarokor bat izan da... Lagun iezadazu esertzen... horrela... Harramazka hau lotailuren batez estutu, eta oinez iritsiko naiz etxera, edo, bestela, drojkia

bidal dezakete nire bila. Ondo baderitzozu, ez dugu errepikatuko duela. Prestuki jokatu duzu gaur..., gaur, kontuan izan «gaur» esan dudala.

— Ez du merezi iragana gogoratzea —esan zuen Bazarovek—, eta etorkizunari dagokionez ere ez duzu zertan keztaturik, berehala alde egiteko asmoa dut eta. Oraintxe lotuko dizut hanka; zure zauria ez da arriskutsua, baina, hala ere, hobe odol-jarioa gelditzen badugu. Dena dela, lehenik, hilkor hau zuzpertz beharra daukagu.

Bazarovek, Piotri jakaren lepotik heldu, astindu, eta drojkiaren bila bidali zuen.

— Tentuz ibili, ez ikaratu nire anaia —esan zion Pavel Petrovitxek—, eta hitz erdirik ere ez esan honetaz.

Zitzu bizian abiatu zen Piotr, eta, drojkiaren bila zihoan bitartean, bi aurkariak lurrean eseririk geratu ziren, isilik. Pavel Petrovitxek ahaleginak egiten zituen Bazarovi ez begiratzeko; guztiarekin ere, ez zuen berarekin adiskidetu nahi; lotsagarri zitzaion bere harrokeria, bere porrota, lotsagarri zitzaion egin zuen guztia, baina uste zuen auziak ezin zezakeela amaiera hoberik izan. «Gutxienez, ez duk hemen geratuko —

lasaitu zuen bere burua—, eta eskertzekoa duk hori!» Luzatzen ari zen isilaldia, astun eta gogai-karri. Desgogara zeuden biak. Biotako bakoitza konturatzen zen besteak ulertzen zuela. Adiskideei atsegina gertatu ohi zaie sentipen hori, eta etsaiei, aldiz, zeharo desatsegina, batez ere elkarri azalpenik ezin eman eta elkarrengandik aldentzerik ez dutenean.

— Gogorregi lotu dizut hanka? —galdetu zuen Bazarovek azkenean.

— Ez, inola ere ez, oso ondo dago —erantzun zuen Pavel Petrovitxek, eta apur bat geroago gaineratu—: Anaia ez dugu engainatuko, politika dela eta liskartu garela esan beharko diogu.

— Oso ondo —esan zuen Bazarovek—. Anglo-mano guztiak iraindu ditudala esan diezaiokezu.

— Ederto. Zure ustez, orain zer pentsatuko du gutaz gizon horrek? —jarraitu zuen Pavel Petrovitxek, hankak trabaz loturik zeramatzaten zaldiak gidatzen duela baino minutu batzuk lehenago Bazaroven aldamenetik igaro zen eta orain, bidean atzera itzuliz, «jaunak» ikustean txanoa erantzi zuen mujika seinalatuz.

— Batek daki! —erantzun zuen Bazarovek—. Seguraski, ez du ezer pentsatuko. Mujik errusiarra garai batean Radcliffe andreak hainbestetan aipatu zuen ezezagun misterioitsu hori bera da. Nork ulertuko du? Berak ere ez du bere burua ulertzen.

— Ah! Zu bai zu! —hasi zen Pavel Petrovitx, eta bat-batean oihu egin zuen—: Horra zer egin duen zure Piotr inozo horrek! Anaiarekin dator eta!

Bazarovek, burua jiratu, eta Nikolai Petrovitx ikusi zuen drojkian eseririk, aurpegia zurbil. Gelditu baino lehen zalgurditik jaitsi, eta anaiarengana oldartu zen.

— Zer esan nahi du honek? —galdetu zuen, ahotsa dardaraka—. Jevgeni Vasilitx, zer gertatu da?

— Ezer ere ez —erantzun zuen Pavel Petrovitxek—, alferrik kezkarazi haute. Istilutxo bat izan diagu Bazarov jaunak eta biok, eta ezbehar txiki bat gertatu zaidak niri.

— Baina, Jainkoarren, zer dela eta?

— Nola azalduko niake? Bazarov jaunak inolako begirunerik gabe hitz egin dik sir Robert

Peel-ez. Aurrena argitu behar diat ni izan naizela istiluaren errudun bakarra eta Bazarov jaunak ezin hobeto jokatu duela. Nik jo zioat erronka.

— Baina odoletan hago, gero!

— Zer uste huen, bada?, ura dudala zainetan? Baina odol-isuri hau onuragarri ere bazaidak. Ez da hala, sendagile jauna? Lagun iezadak drojkira igotzen eta ez egon kopetilun. Bihar ondo egongo nauk. Horrelaxe, oso ondo. Goazen, gidaria!

Nikolai Petrovitx oinez joan zen drojkiaren atzetik; Bazarov atzean geratu zen...

— Anaia zaintzeko eskatu behar dizut —esan zion Nikolai Petrovitxek—, hiritik beste mediku bat ekarri arte.

Bazarovek baiezkoa egin zuen buruaz, hitzik esan gabe.

Ordu bete geroago, Pavel Petrovitx ohean etzanik zegoen, hanka maisutasunez loturik zeukala. Asaldaturik zegoen etxe osoa; Fenetxka ondoezik jarri zen. Nikolai Petrovitxek itzalgaizka bihurritzen zituen eskuak, eta Pavel Petrovitxek, aldiz, barreak eta txantxak egiten zituen, batez ere Bazarovekin; batistazko alkandora fin bat,

goiz-jakatxo dotore bat eta fez txiki bat jantzi zituen, ez zuen agindu errezelak jaisteko eta oso modu jostagarrian kexatzen zen nahi beste jan ezinaz.

Gaez, hala ere, sukarra izan zuen; buruko mina jarri zitzaion. Azaldu zen hiriko sendagilea. (Nikolai Petrovitxek ez zuen anaiaren esana bete, eta Bazarovek berak ere hori nahi zuen; bere gelan eseririk eman zuen egun osoa, horixaturik eta amorru bizian, eta une labur batez bakarrik joan zen gaixoa ikustera; Fenetxkarekin topo egin zuen pare bat aldiz, baina neska, izurturik, lasterka urruntzen zen berarengandik.) Sendagile berriak edari hotzak aholkatu zizkion, eta, bestetik, Bazaroven ustea berretsi zuen, inolako arriskurik ez zegoela esanik. Nikolai Petrovitxek esan zion anaia berez zauritu zela, zuhurtziarik ezarengatik. Sendagileak «Jum!» bakarrik erantzun zuen, baina, eskuan zilarrezko hogeita bost errublo ipini zizkiotenean, esan zuen: «Jakina! Izan ere, sarritan gertatzen dira horrelako istripuak».

Etxean inor ez zen oheratu, inork ez zuen arroparik erantzi. Nikolai Petrovitx behin eta

berriro sartzen zen oin-puntetan anaiaren gelan, eta oin-puntetan irteten; anaia erdi lo geratzen zen, aihen ahulak egiten zituen, frantsesez esaten zion: «*Couchez-vous*», eta edaria eskatzen zion. Behin, Nikolai Petrovitxek, edalontzi bete limoi-ura eramán ziezaiola esan zion Fenetxkari; Pavel Petrovitxek tinko begiratu zion neskari, eta hondoraino hustu zuen edalontzia. Goizaldean apur bat igo zitzaion sukarra, eta eldarnio arinak izan zituen. Aurrena, loturarik gabeko hitz ulergaitz batzuk esan zituen Pavel Petrovitxek; gero, begiak bat-batean ireki eta, anaia ohe alboan beraren aldera tentu handiz makurtuta ikusirik, esan zion:

— Ez da egia, Nikolai, Fenetxkak Nellyren nolabaiteko antza duela?

— Zein Nellyrena, Pasha?

— Hik hori galdetzea ere! R. printzesarena. Batez ere, aurpegiaren goiko aldean. *C'est de la même famille*.

Nikolai Petrovitxek ez zuen ezer erantzun, eta sentimendu zaharrek gizabanakoarengan duten bizitasunaz harritu zen bere artean. «Horra noiz etorri zaion gogora», pentsatu zuen.

— Oi, nola maite dudan izaki huts hori! —egin zuen erosta Pavel Petrovitxek, tristuraz, eskuak buru atzean jarririk—. Ez diat onartuko ezain lotsagabe bera ukitzen ausartzea... —xuxurlatu zuen unetxo bat geroago.

Nikolai Petrovitxek hasperen soil bat egin zuen; susmatu ere ez zuen egiten anaiak nor zuen buruan hori esan zuenean.

Biharamunean, goizeko zortziak aldera, haren gelara joan zen Bazarov. Ordurako, bilduak zituen bere gauza guztiak, eta aske utziak, berriz, igel, zomorro eta txoriak oro.

— Agur esatera etorri zara? —galdetu zuen Nikolai Petrovitxek, zutik jartzeaz batera.

— Bai.

— Ulertzen zaitut, eta erabat onesten dut zure erabakia. Zalantzarik gabe, nire anaia dohakabea izan da erruduna, eta bere zigorra jaso du. Berak aitortu didanez, ez zizun inolako aukerarik eman bestela jokatzeko. Ziur nago ezin izan duzula saihestu duelo hori, zeina, neurri batean behintzat, zuen iritzien kontrakotasun etengabearen argitan besterik ezin baita ulertu. (Nikolai Petrovitx nahaspilatu egiten zen bere

hitzien korapiloan.) Nire anaia lehengo era zaharreko gizona da, suminkorra eta setatsua... Esker-rak eman behar dizkiogu Jainkoari auzia horrela amaitu delako. Premiazko neurri guztiak hartu ditut gertatutakoaren albistea zabal ez dadin...

— Badaezpada, nire helbidea utziko dizut, ezustekorik gertatuko balitz ere —esan zuen Bazarovek, zabar.

— Espero dut ez dela inolako ezustekorik gertatuko, Jevgeni Vasilitx... Tamalgarri zait nire etxean egin duzun egonaldiak horrelako... horrelako amaiera izatea. Eta are mingarriago zait pentsatzea ezen Arkadi...

— Seguraski, berarekin izango naiz —eten zion Bazarovek, zeinarengan edonolako «azalpen» eta «adierazpenek» halako urduritasun-sentimendu bat sortzen baitzuten beti—, bestela, eskertuko nizuke nire izenean agurtzea eta gertatutakoa damu zaidala jakinaraztea.

— Eta nik eskertuko nizuke... —erantzun zuen Nikolai Petrovitxek, buru-makurtua eginez. Baina Bazarov gelatik irten zen hark esaldia amaitu arte itxaron gabe.

Bazarov joatekoa zela jakinik, Pavel Petrovitxek azken aldiz ikusi nahi izan zuen, bostekoa emateko. Baina Bazarov izotza bezain hotz egon zen abagune horretan ere; ulertzen zuen Pavel Petrovitxek gogo-zabal agertu nahi izatea. Ez zuen aukerarik izan Fenetxkari agur esateko: leihotik begirada bat trukatzeari besterik ez zuen lortu. Aurpegi tristea zuela iruditu zitzaion. «Beharbada, oker joko zioke kukuak! —egin zuen bere artean—. Baina nola edo hala aterako duk aurrera!» Piotr hainbestearino hunkitu zen, ezen negar egin baitzuen Bazaroven besaburuan, harik eta hark galdera honekin lasaitu zuen arte: «Iturria daukake begien ordeztu?». Duniashak, azkenik, lasterka ihes egin behar izan zuen basora, bere bihotzondokoa ezkutatzearren. Nahigabe horren guztiaren eragileak telegara igo eta zigarro bat piztu zuen, eta, lau versta ibilitakoan bidearen bihurgune batean Kirsanoven etxaldea eta jauretxe berria lerro-lerro begien aurrean azken aldiz azaldu zitzaizkiolarik, tu egin eta hortz artean esan zuen: «Jauntxo malapartatuak!»; eta estuago bildu zen longainean.

Pavel Petrovitxek laster egin zuen onera, baina aste bete inguru egon behar izan zuen ohean. Nahikoa pairakor zeraman bere gatibutasuna —hala deitzen baitzion berak—, baina, hori bai, biziki arduratzen zen bere garbikuntzaz, eta gela Kolonia urez lurrintzeko agintzen zuen etengabe. Nikolai Petrovitxek aldizkariak irakurtzen zizkion; Fenetxka atsegin ematen saiatzen zen, lehen bezala, eta denetarik eramaten zion: salda, limoi-ura, arrautza errearinak, tea; baina izu gorde bat nabaritzen zuen haren gelan sartzen zen bakoitzean. Pavel Petrovitxen ekintza ustekabekoak etxeko gutziak ikaratu zituen, eta Fenetxka beste inor baino gehiago; Prokofitx soilik ez zen batere asaldatu, eta esaten zuen bere garaian jaunak buruz buru borrokatu ohi zirela, «baina aitoren semeak soilik, eta horrelako alproja bat zalditegian jipoitzeko aginduko zuten, haren basakeria zigortzeko».

Kontzientziako harrak ia ez zion zimikorik egingen Fenetxkari, baina liskarraren benetako zioaren ideiak oinaze ematen zion batzuetan; eta Pavel Petrovitxek hain modu bitxian begiratzen zion... halako moldez, ezen, bizkarra ematen zio-

nean, bere gainean sumatzen baitzituen haren begiak. Argaldu egin zen barruko larritasunaren eraginez, eta, horrelakoetan gertatu ohi denez, are xarmagarriago bihurtu zuen horrek.

Goiz batean, ohetik dibanera aldatu zen Pavel Petrovitx, indarberriturik sentitu baitzen, eta Nikolai Petrovitxek, anaiaren osasun-egoeraren berri jakinik, aletegira joan zen. Fenetxkak kikara bete te eraman zion, eta, ontzia mahaitxoan utzirik, gelatik irtetera egin zuen. Baina Pavel Petrovitxek geldiarazi egin zuen.

— Norako presa duzu, Fedosia Nikolaievna?
—hasi zen—, baduzu zereginik?

— Ez... bai... Tea zerbitzatu behar diet bestei.

— Duniashak egingo du hori zure laguntzarik gabe; gera zaitetz apur batean gaixo honekin, zurekin hitz egin behar dut eta.

Fenetxka, isilik, besaulkiaren muturrean eseri zen.

— Entzun, mesedez —esan zuen Pavel Petrovitxek, bibotea laztanduz—, aspaldi da gauza bat galdetzeko gogoia dudala: beldur didazu?

— Nik?

— Zuk, bai. Inoiz ez didazu begiratzan, kontzientzia garbi edukiko ez bazenu bezala.

Gorri jarri zen Fenetxka, baina so egin zion Pavel Petrovitxi. Nolabait bitxia iruditu zitzaion agurea, eta dar-dar txiki bat sumatu zuen bihotzean.

— Garbi daukazu kontzientzia? —galdetu zion Pavel Petrovitxek.

— Zergatik ez dut, bada, garbi edukiko? — xuxurlatu zuen Fenetxkak.

— Batek daki! Dena dela, noren aurrean izan zintezke errudun? Nire aurrean? Hori sinesgaitza da. Etxeko beste bizilagunen aurrean? Horrek ere ez du zentzurik. Anaiaren aurrean, behar bada? Baina maite duzu, ezta?

— Bai, maite dut.

— Arima guztitik eta bihotz-bihotzez?

— Bihotz-bihotzez maite dut Nikolai Petrovitx.

— Benetan? Begira iezadazu, Fenetxka (aurreneko aldiz deitzen zion horrela)... Ez daki-zu gezur esatea bekatu larria dela?

— Ez naiz gezurretan ari, Pavel Petrovitx. Nikolai Petrovitx maite ez banu, ez nuke nahi bizirik jarraitu.

— Ez duzu beste inor bera baino maiteago?

— Eta nor izan nezake bera baino maiteago?

— Batek daki! Joan berria den jaun hori, esaterako.

Zutik jarri zen Fenetxka.

— Jainkoarren, Pavel Petrovitx, zergatik oinazetzen nauzu? Zer egin dizut nik? Nolatan esan dezakezu horrelakorik?...

— Fenetxka —esan zuen Pavel Petrovitxek, ahots goibelez—, kontua da ikusi nuela...

— Zer ikusi zenuen?

— Bada, han... itzaltegian.

Ile eta belarrietaraino gorritu zen Fenetxka.

— Eta ni naiz horren erruduna? —esan zuen Fenetxkak, nekez.

Gorputza tentetu zuen Pavel Petrovitxek.

— Zu ez zara erruduna? Ez? Ez duzu inolako errurik?

— Nikolai Petrovitx bakarrik maite dut mundu honetan, eta beti maiteko dut! —esan zuen Fenetxkak, bat-bateko adorez eta negar-zotinka

hastear—. Eta zuk ikusitakoari dagokionez, Azken Judizioan ere aldarrikatuko dut nik ez dudala inolako errurik izan, eta nahiago nuke oraintxe bertan hil jendeak horrelako zerbaiten susmagarritzat hartzea baino, eta Nikolai Petrovitx nire ongilearen aurrean...

Baina, horra iritsirik, huts egin zion ahotsak, eta aldi berean sentitu zuen Pavel Petrovitxek eskua hartu eta estutzen ziola... Agureari begiratu, eta harri eginik geratu zen: lehen baino zurbilago zegoen, dirdirka zeuzkan begiak, eta — hori izan zen harrigarriena— malko lodi, bakar bat lerratu zizaion masailan behera.

— Fenetxka! —esan zuen, halako xuxurla berezi batez—. Maite ezazu, maite ezazu nire anaia! Hain da ona, hain bihotz-zabala! Ez truka-tu munduko beste inorekin, ez entzun beste inoren hitzik! Kontuan izan askoz ere ikaragarriagoa dela maitatua izan gabe maitatzea! Ez abandonatu inoiz nire Nikolai errukarria!

Fenetxkari begiak idortu eta beldur guztia aienatu zitzaion, hain zegoen harriturik. Baina are txundituago geratu zen noiz eta Pavel Petrovitx —nor eta Pavel Petrovitx bera!— ezpainak

haren eskuaren kontra estutu eta, muin egin gabe, goitik beherainoko dar-dar batez hasperenka hasi baitzen...

«Ene Jainkoa! —pentsatu zuen Fenetxkak—. Alditxarrak hartuko ote du?...»

Baina alferrik galdutako bizitza oso bat zen une horretan haren baitan dardaraka ari zena.

Zurubiak karraska egin zuen norbaiten urrats lasterren azpian... Pavel Petrovitxek, tupustean Fenetxka beregandik urrundu, eta bururdiaren gainean jarri zuen burua. Atea ireki, eta Nikolai Petrovitx sartu zen, pozik, sasoitsu, zurigorri. Mitia, hura bezain sasoitsu eta zurigorri, alkan-doratxo soil batez jantzirik, jauzika ari zen aitarren bularrean, ointxo biluziak haren beroki zakarreko botoi handietan trabatzen zitzaizkiola.

Fenetxkak oldarrean jo zuen haiengana, eta, biak besoez inguraturik, Nikolai Petrovitxen besaburuaren kontra estutu zuen burua. Harriturik geratu zen Nikolai Petrovitx: Fenetxkak, lotsatia eta neurritsua izanik, inoiz ez zion lazta-nik egiten besteren aurrean.

— Zer duzu? —esan zion, eta, anaiari begiraturik, amaren besoetan utzi zuen Mitia—. Ondo-

ezik hago? —galdetu zuen, Pavel Petrovitxengana hurbildurik.

Anaiak aurpegia gorde zuen batistazko zapian.

— Ez... ez diat ezer... Alderantziz, askoz hobeto nagok.

— Goizegi aldatu haiz dibanera. Nora zoaz? —gaineratu zuen Nikolai Petrovitxek, Fenetxkarenganantz jiraturik, baina ordurako danbateko batez itxia zuen atea bere atzean—. Nire bogatira erakutsi nahi nian; osabaren mina zian. Zergatik eraman du? Baina zer duk? Zerbait gertatu da zuen artean?

— Anaia! —esan zuen, handikiro, Pavel Petrovitxek.

Bihotza jauzi zitzaion Nikolai Petrovitxi. Ikartu egin zen, berak ere zergatik ez zekiela.

— Anaia —errepikatu zuen Pavel Petrovitxek—, hitzeman iezadak jaramon egingo dioala nire eskari bati.

— Zein eskariri? Hitz egin ezak.

— Berebiziko garrantzia dik; nire ustez, horren mende zegok hire bizitzako zorion guztia. Aspaldion luze hausnartu diat orain esango dia-

dana... Anaia, bete ezak hire eginbearra, gizon prestu eta zintzoaren eginbearra, bertan behera utzi bekatua eta hi, gizon guztien artean onena haizen hori, ematen ari haizen erakutsi gaiztoa!

— Zer esan nahi duk, Pavel?

— Ezkon hadi Fenetxkarekin... Maite hau; hire semearen ama duk.

Nikolai Petrovitxek, urrats bat atzera egin, eta harriduraz elkartu zituen eskuak.

— Hik esaten didak hori, Pavel? Hik, beti horrelako ezkontzen etsai amorratutzat eduki haudan horrek! Hik esaten duk hori! Ez badakik ere, hireganako begirunearengatik soilik ez diat bete horren zuzenki nire eginbehartzat jotzen duan hori!

— Bada, kasu honetan, ez huen nireganako begirunez zertan jokaturik —esan zuen Pavel Petrovitxek, irribarre triste batez—. Pentsatzen hasia nauk Bazarovek arrazoi zuela aristokratis-moa leporatzen zidanean. Ez, anaia maitea, aski duk, alferrikakoa diagu tematzea eta munduaz arduratzen jarraitzea: jende zahar eta lasaiak gaituk dagoeneko; ameskeria guztiak baztertze-

ko ordua iritsi zaiguk. Bete dezagun gure eginbeharra, eta, agian, zorientasuna ere aurkituko diagu horrela.

Nikolai Petrovitx lasterka joan zen anaia besarkatzera.

— Erabat ireki dizkidak begiak! —egin zuen oihu—. Beti uste izan diat munduko gizonik onena eta buruargiena haizela, eta zuzen nengotan; eta orain, gainera, gogo-zabal bezain zentzuduna haizela ohartu nauk.

— Lasai, lasai —eten zion Pavel Petrovitxek—. Hanka minduko diok hire anaia zentzudun honi, zeina berrogeita hamar urteen jiran dueloan borrokatu baita, alfereza bailitzan. Beraz, erabakita zegok: Fenetxka nire *belle-soeur* izango duk.

— Ene Pavel bihotzekoa! Baina zer esango du Arkadik?

— Arkadik? Poztu egingo duk, jakina! Ezkontzea ez dik bere printzipioetako bat, baina haren berdinzaletasunak atsegin hartuko dik. Izan ere, zertan dira leinuak *au dix-neuvième siècle?*

— Ai, Pavel, Pavel! Uztak beste bi musu ematen. Ez beldurtu, tentuz ibiliko nauk.

Elkar besarkatu zuten bi anaiek.

— Zer egingo duk?, oraintxe bertan emango diok hire asmoaren berri? —galdetu zuen Pavel Petrovitxek.

— Zergatik hain presa handia? —esan zuen Nikolai Petrovitxek—. Elkarrekin hitz egin duzue horretaz?

— Hitz egin guk? *Quelle idée!*

— Ederto. Lehenik, senda hadi; oraingo, isilean edukiko diagu erabakia, ondo pentsatu beharra zegok, patxadaz hausnartu...

— Baina ez hago erabakirik?

— Horixe erabakirik nagoela, eta bihotz-bihotzez eskertzen diat. Bakarrik utziko haut orain; atsedeen hartu behar duk; kaltegarri zaizkik zirrarak... Baina berriro hitz egingo diagu horretaz. Lo egin, maitea, eta Jainkoak osasuna eman diezaa-la!

«Zergatik erakusten dit hain esker on handia? —pentsatu zuen Pavel Petrovitxek bakarrik geratu zenean—. Azken batean, haren esku zegoan erabaki hori hartzea! Ezkontzen diren bezain laster, nora edo hara joango nauk, leku urrunen batera, Dresdenera edo Florentziara, eta hain biziko nauk hil arte.»

Bekokia Kolonia urez hezetu eta begiak itxi

zituen Pavel Petrovitxek. Eguneko argitasun

bizirik bildurik, bururdi zurian zetzan haren aur-

pegi zimeldu ederra, hilotz batena bailitzan...

Eta, izan ere, hilotz zen.

XXV

Nikolskoen, lorategian, lizar garai baten gerizpean, zurezko jarleku batean eseririk zeuden Katia eta Arkadi; haien alboan Fifi zegoen, lurrean etzanik, bere gorputz luzea oso modu lerdenean bildurik, ehiztariak «erbi uzkurtua» esaten dioten jarrera horretan. Isilik zeuden biak; Arkadik liburu erdi ireki bat zeukan eskuetan, eta Katiak, berriz, saskitxoan geratzen zitzaizkion ogi-apurrak hartu eta txolarre banaka batzuei botatzen zizkien, zeinak, berezko duten ozartasun koldar horrekin, jauzika eta txioka ari baitziren haren oinen inguruan bertan. Haize mehe batek, lizarreko hostoen artean xuxurlaka, emeki higitzen zituen atzera-aurrera argi-printza urrekara batzuk bidezidor ilunean eta Fifiren bizkar ilehorian; lizararren itzal trinkoak erabat biltzen zituen Arkadi eta Katia; noizean behin soilik, eguzki-izpi argitsu batek dir-dir egiten zuen neska-karen adatsean. Isilik zeuden biak; baina isilik egoteko modu hori, elkarren aldamenean eseririk egoteko modu hori, hain zuzen ere, uste

oneko kidesan lasai baten erakusgarri zen: itxuraz, bietako inork ez zuen bestearengan pentsatzen, baina barne-muinean biak pozten ziren bestearen hurbiltasunaz. Eta haien aurpegiak ere aldatuak ziren azken aldiz ikusi ditugunetik: Arkadik lasaiagoa zirudien, eta Katiak, berriz, biziagoa, bipilagoa.

— Ez zaizu iruditzen—hasi zen Arkadi— itzal egiten digun zuhaitz honek oso izen egokia duela errusieraz? Izan ere, ez dago beste zuhaitzik airean hain lirain eta argitsu altxatzen denik.

Katiak, begiak gorantz jaso, eta esan zuen: «Bai»; eta Arkadik pentsatu zuen: «Gutxienez, honek ez zidak erantzuki egiten eder mintzatzegatik».

— Ez zait gustatzen Heine —esan zuen Katiak, Arkadik eskuetan zeukan liburua begiekin seinalatuz— ez barre egiten duenean eta ez negar egiten duenean: triste eta pentsakor dagoenean atsegin zait.

— Niri, ordea, barre egiten duenean gustatzen zait —esan zuen Arkadik.

— Zure lehengo joera satirikoaren aztarna zaharrak dituzu horiek... («Aztarna zaharrak! —

pentsatu zuen Arkadik—. Bazarovek entzungo balu!») Pazientzia hartu, onbideratu egingo zaitugu.

— Nork onbideratuko nau? Zuk?

— Nork? Ahizpak; Porfiri Platonitxek, jadanik ez baitzara eztabaidatzen berarekin; izebatxoak, herenegun elizara lagundu baitzenion.

— Ezin izan nion ezezkorik eman! Eta Anna Sergeievnari dagokionez, gogoan izan Jevgenirekin ados egoten zela gauza askotan.

— Ahizpa haren eraginpean zegoen orduan, zu bezalaxe.

— Ni bezalaxe! Dagoeneko haren eraginetik askatu naizela uste duzu?

Isilik geratu zen Katia.

— Badakit —esan zuen Arkadik— Jevgeni ez zaizula inoiz gustatu.

— Ni ez naiz nor hura epaitzeko.

— Badakizu, Katerina Sergeievna?, askotan entzun dut erantzun hori, baina inoiz ez dut sinesgarritzat jo... Ez dago gizabanakorik gutariko edonork ezin epai dezakeenik! Hori aitzakia baino ez da.

— Orduan, zera esango dizut... kontua ez da ez zaidala gustatzen, kontua da arrotz zaidala, eta ni arrotz natzaio berari... eta zu ere arrotza zara berarentzat.

— Zergatik?

— Nola azalduko nizuke?... Bera basapiztia da, eta gu, aldiz, etxe-abereak.

— Ni ere etxe-aberea naiz?

Katiak baiezkoa egin zuen buruaz.

Arkadik hatz egin zuen belarriaren atzean.

— Entzun, Katerina Sergeievna: hori, funtsean, iraingarria da.

— Zuk basapiztia izan nahi zenuke?

— Basapiztia ez; baina bai gogorra, adoretua.

— Ezinezkoa da hori nahi izatea... Zure adiskideak ez du horrelakoa izan nahi, baina horrelakoxea da.

— Jum! Beraz, Anna Sergeievnarengan eragin handia zuela uste duzu?

— Bai. Baina ez dago inor nire ahizpa luzaz azpira dezakeenik —gaineratu zuen Katiak, aha-peka.

— Zergatik uste duzu hori?

— Oso harroa da... ez nuen hori esan nahi... estimu handitan dauka bere burujabetasuna.

— Eta nork ez dauka estimu handitan hori? — galdetu zuen Arkadik, eta une batez pentsatu zuen: «Zertarako balio du, ordea?»; «Zertarako balio du, ordea?», pentsatu zuen une batez Katiak ere. Adiskide izaki sarritan elkartzen diren gazteei maiz gertatzen zaie biek gauza bera pentsatzea.

Arkadik, irribarre egin, eta, Katiarengana apur bat hurbildurik, xuxurlaka esan zion:

— Aitor ezazu beldur pittin bat diozula.

— Nori?

— Ahizpari —argitu zion Arkadik, ahots-doinu adierazkorrez.

— Eta zuk? —galdetu zuen Katiak.

— Nik ere bai; ohar zaitez *nik ere bai* esan dudala.

Atzamarraz mehatxatu zuen Katiak.

— Harrigarri zait hori —hasi zen—, ahizpak inoiz ez zaitu orain bezain begiko izan, zeren aurreneko aldiz etorri zinenean baino askoz ere begikoago zaitu orain.

— Ez da izango!

— Ez zara horretaz konturatu? Horrek ez zaitu pozten?

Pentsakor geratu zen Arkadi.

— Zer dela eta irabazi dut Anna Sergeievna-ren onginahia? Zure amaren gutunak ekarri dizkiodalako, agian?

— Badaude beste arrazoi batzuk ere, baina ez dizkizut esango.

— Zergatik?

— Ez dizut esango.

— Oi! Banekien oso burugogorra zarela.

— Burugogorra naiz, bai.

— Eta begi-zorrotza.

Katiak zeharka begiratu zion Arkadiri.

— Haserrerik eragin dizu horrek? Zer pentsatzen ari zara?

— Pentsatzen ari naiz nondik ote datorkizun oharmen ezin ukatuzko hori. Hain zara herabea, hain fidakaitza; zaputza zara mundu guztiarekin...

— Luzaro bizi izan naiz bakarrik; eta bakarrik bizi denak nahitaez hausnartzen du. Baina mundu guzti-guztiarekin naiz zaputza?

Esker oneko begirada bat egotzi zion Arkadik.

— Ederra da hori guztia —jarraitu zuen—, baina zure gizarte-mailako jendea, hau da, jende aberatsa, gutxitan izaten da dohain horren jabe, egia nekez iristen da haienganaino, errege-erreginenganaino ere nekez iristen den bezalaxe.

— Baina ni ez naiz aberatsa.

Arkadik, harriturik, ez zion behingoan ulertu Katiari. «Izan ere, ondasun guztiak ahizparenak dituk!», etorri zitzaion bat-batean burura; ideia hori ez zitzaion desatsegina gertatu.

— Zein ondo esan duzun hori! —ohartarazi zuen Arkadik.

— Nola esan dut, bada?

— Oso ondo esan duzu, xumetasunez, lotsarik eta harrokeriarik gabe. Nire ustez, txiroa dela dakien eta aitortzen duen gizabanakoak badu zerbait berezia, bere gisako harrotasun halako bat.

— Nik, ahizpari esker, inoiz ez dut horrelakorik pairatu; hitzak hizpidea ekarri duelako soilik hartu dut ahotan neure egoera.

— Ondo da; baina onar ezazu baduzula esan berri dudan harrotasun horren puska txikitxo bat.

— Esaterako?

— Esaterako, eta barka iezadazu hau galde-
tzea, gizon aberats batekin ezkonduko zinateke?

— Oso maiteko banu... Ez, uste dut kasu
horretan ere ez nintzatekeela harekin ezkondu-
ko.

— Horra! Ikusten? —egin zuen oihu Arkadik,
eta isilune labur baten ondoren gaineratu—: Eta
zergatik ez zinateke, bada, harekin ezkonduko?

— Bada, are abesti ezagun batek ere emazte-
gaiaren maila apalagoak dakarrenaz hitz egiten
duelako.

— Zuk, beharbada, menderatzaile izan nahi
duzu, edo...

— Oi, ez! Zertarako? Alderantziz, prest nago
mendeko izateko; kontua da berdintasunik eza
latza izan ohi dela. Baina ulertzen dut nork bere
burua errespetatuz mendeko izatea; horixe da
zorientasuna; baina inoren eskumendean bizi-
tzea... hori ez, ez hurrik eman ere!

— Ez hurrik eman ere! —errepikatu zuen
Arkadik, Katiaren ondotik—. Bai, bai —jarraitu
zuen—, ezagun duzu Anna Sergeievnaren odol
berekoa zarela; bera bezain burujabea zara,

baina isilkorragoa. Ziur nago inoiz ez zinatekeela lehena izango zure sentimendurik besteri adierazten, sentimendu hori denik eta biziena eta sakratuena balitz ere...

— Badago bestela jokatzetik? —galdetu zuen Katiak.

— Zu, hala ere, buruargia zara; ahizpak bezain nortasun handia duzu, edo handiagoa...

— Ez alderatu ahizparekin, mesedez —eten zion Katiak, bizkor—, horrek ez dit inolako mesederik egiten. Nonbait, ahaztu egin zaizu ahizpa ederra dela, eta buruargia, eta... zuk, batez ere zuk, Arkadi Nikolaitx, ez zenuke horrelakorik esan behar, eta are gutxiago hain aurpegi serioz.

— Zer esan nahi du *batez ere zuk* horrek?, eta nondik atera duzu txantxetan ari naizela?

— Txantxetan ari zara, jakina.

— Hala uste duzu? Eta bete-betean sinetsiko banu esan dudana? Eta uste banu oraindik ez dudala behar bezain argi hitz egin?

— Ez dizut ulertzen.

— Benetan? Ondo da, oraintxe konturatu naiz gehiegi goretsi dudala zure oharmena.

— Zer?

Arkadi alde batera jiratu zen ezer erantzun gabe, eta Katiak saskitxoan beste ogi-apur batzuk aurkitu eta txolarreei bota zizkien; baina bortitzegi mugitu zuen eskua, eta txolarreak hegan joan ziren, mokoan ogi-apurrik hartzeko denborarik gabe.

— Katerina Sergeievna! —hasi zen bat-batean Arkadi—. Beharbada ez dizu axolarik, baina jakin ezazu inor ez dudala zu baino gogo-koago, ez ahizpa eta ez mundu honetako beste inor.

Zutik jarri, eta bizkor urrundu zen, mihitik itzuri zitzaizkion hitz haiek ikaratu balute bezala.

Katiak, saskitxoarekin batera bi eskuak belaunen gainera erortzen utzi, eta, burua okerturik, luzaz jarraitu zion Arkadiri begiekin. Apurka-apurka, kolore gorrixka bat agertuz joan zen haren masailetan, baina ezpainen ez zuten irribarrerik egiten, eta begi ilunetan nahasmendua atzematen zitzaion, artean izenik ez zuen beste sentimendu batekin batera.

— Bakarrik zaude? —entzun zen haren atzean Anna Sergeievnaren ahotsa—. Ez zara Arkadirekin irten lorategira?

Katiak presarik gabe aldatu zituen begiak ahizparengana (bidezidorrean zegoen, apain, aukeran dotoreegi jantzirik, eta eguzkitako irekiaren puntaz Fifiren belarriei eraginez), eta presarik gabe esan zuen:

— Bakarrik nago.

— Ikusten dut —erantzun zion ahizpak, barrez—. Bere gelara joan da Arkadi?

— Bai.

— Elkarrekin irakurtzen egon zarete?

— Bai.

Anna Sergeievnak, Katiari kokospetik heldu, eta aurpegia jaso zion.

— Ez zineten liskartuko, ezta?

— Ez —esan zuen Katiak, eta, emeki, kokospetik kendu zuen ahizparen eskua.

— Zein handikiro erantzuten didazun! Ziur nengoen hemen aurkituko nuela, nirekin osteratxo bat egitea proposatu nahi nion. Askotan eskatu dit berak hori. Feltrozko bota pare bat ekarri dizute hiritik, zoaz saiatzera: oraingoak guztiz maizturik dauzkazula ohartu nintzen atzo. Izan ere, zu ez zara behar beste arduratzen gauza horietaz, eta hain ointxo liluragarriak ditu-

zu! Eskuak ere politak dituzu... baina aukeran handiak; horregatik, apain erakutsi behar dituzu ointxoak. Baina zu ez zara batere irtirina.

Bidean aurrera joan zen Anna Sergeievna, bere soineko ederraz hots leuna ateraz; Katiak, jarlekutik jaiki, eta, Heine harturik, alde egin zuen berak ere, baina ez zen joan botak saiatzerara.

«Ointxo liluragarriak —pentsatzen zuen, astiro eta aise terrazara igoz harrizko maila eguzkiak berotuetan gora—, ointxo liluragarriak esan duzu... Bada, haien azpian jarriko dinat Arkadi Nikolaitx.»

Baina lotsak hartu zuen hori pentsatu orduko, eta bizkor egin zuen gorantz.

Korridoretik bere gelarantz zihoalarik, otseinburua lasterka inguratu zitzaion Arkadiri, eta jakinarazi zion Bazarov jauna haren gelan zegoela.

— Jevgeni! —murduskatu zuen Arkadik, ia ikaraz—. Aspaldi iritsi da?

— Oraintxe bertan. Anna Sergeievnari haren iristearen berri ez emateko eta zuzenean zure gelara eramateko agindu dit.

«Ezbeharren bat gertatu al da etxean?», pentsatu zuen Arkadik, eta, mailadia lasterka igorik, brastakoan ireki zuen atea. Bazaroven itxurak berehala lasaitu zuen, nahiz eta begi trebatuago batek, seguraski, barne-asaldu baten aztarna atzemango zuen ustekabeko bisitari lehen bezain adoretu baina orain argalduaren irudian. Leihoan eseririk zegoen, longain haustsu bat sorbaldan eta aurrealdean hegala duten kapela horietako bat buruan. Ez zen bere lekutik altxatu Arkadi oihu ozen batez lepora jauzi zitzaiotzanean ere.

— Hau ezustea! Zer dela eta hi hemen? — egin zuen espantu, urrats lasterrez gelan hara-hona ibiliz, hala nola egingo bailuke gertakari jakin batengatik pozik dagoela imajinatzen duen eta inoren aurrean hala agertu nahi duenak—. Dena ondo zoak etxean, osasuntsu zeudek denak, ez da hala?

— Ondo zoak dena hire etxean, baina denak ez zeudek osasuntsu —esan zuen Bazarovek—. Baina ez hasi berriketan, kvasa ekartzeko agindu, apur batean eseri, eta entzun ezak zer kon-

tatuko diadan hitz labur baina, hala espero diat, behar bezain adierazkorrez.

Isildu egin zen Arkadi, eta Pavel Petrovitxekin izaniko dueloaren berri eman zion Bazarovek. Oso harritu zen Arkadi, baita goibeldu ere; baina ez zuen beharrezkotzat jo hori agertzea; bakkarririk galdetu zuen ea osabaren zauria benetan ez zen arriskutsua, eta, Bazarovek erantzun zionean zauria interesgarria zela, baina ez medikuntzaren ikuspuntutik, gogorik gabe irribarre egin eta beldurra eta nolabaiteko lotsa sumatu zituen bihotzean. Bazarovek, antza, igarri egin zion.

— Bai, adiskidea —esan zuen—, horrelako ondorioak ekartzen ditik jaun feudalekin bizitzek. Jaun feudalen artean egotea egokitzen bazaik, zaldun-borroketan parte hartu beharko duk. Gauzak horrela, berehala abiatu nauk «aitarenera» —halako doinu berezi batez ebaki zuen hitz hori—, eta bidean hona inguratzea erabaki diat... hori guztia kontatzera... behinik behin, hori esango niake alferrikako gezurra ergelkeriatzat edukiko ez banu. Ez, deabruak zekik zertarako inguratu naizen hona. Batzuetan, onuraga-

rria izaten duk nork bere kalparrari heldu eta bere barrua kanpora ateratzea, errefaua baratzetik erauzten den bezalaxe; nik horixe egin diat egunotan... Baina gogoan nian berriro begiratzeko atzean utziko dudan horri, sustraiturik egon naizen baratzeari.

— Ez haiz nitaz ari —esan zuen Arkadik, urduri—, ez duk niregandik bereizteko asmorik. Hala espero diat behintzat!

Bazarovek tinko begiratu zion, begiak biezten eginik ia.

— Atsekabe handia litzateke hori hiretzat? Uste diat hi dagoeneko bereizi haizela niregandik. Hain hago mardul eta garbi... inondik ere, ezin hobeto zoazak Anna Sergeievnarekiko harremanak.

— Anna Sergeievnarekiko harremanak? Zertaz hari haiz?

— Ez haiz berarengatik etorri hiritik hona, nire jarratzaile gazte hori? Bestela, esadak, zertan dira igande-eskolak? Ukatuko didak Anna Sergeievnaz maitemindurik hagoela? Ala apal agertzeko ordua iritsi zaik?

— Jevgeni, hik badakik tolesgabea izan naizela beti hirekin; segurtatzen diat, zin egiten diat, oker hagoela.

— Jum! Hitz berri bat —esan zuen Bazarovek, ahapeka—. Baina ez duk zertan beroturik, niri bost axola zidak kontu horrek. Erromantiko batek zera esango likek: sumatzen diat gure bideak elkarrengandik bereizten hasi direla; nik, ordea, besterik gabe zioat zeharo nazkatu garelata bata besteaz.

— Jevgeni...

— Hori ez duk txarra, ene adiskide maitea! Gauza askoz gogaikarriagoak zeudek munduan! Baina uste diat elkarri agur esateko ordua dela. Hemen nagoenetik, ezinago nardaturik sentitzen nauk, Gogolek Kalugako gobernadorearen emazteari idatziriko gutunak irakurtzen egon banintz bezala. Gainera, ez diat eman zaldia askatzeko agindurik.

— Baina hori ezinezkoa duk!

— Zergatik?

— Orain ez nauk nigatik mintzo; baina hori zapuzkeria izugarria lukek Anna Sergeievnarentzat; zalantzarik gabe, hi ikusteko gogoia dik.

— Oker hago horretan.

— Nik, aldiz, ziur nagok hala dela —esan zuen Arkadik—. Zergatik ari haiz itxurak egiten? Aitor ezak bera ikustearren inguratu haizela hona!

— Balitekek hala izatea, baina, dena dela, oker hago.

Baina zuzen zegoen Arkadi. Anna Sergeiev-nak Bazarovekin egon nahi zuen, eta berarekin elkartzeko gonbita helarazi zion otseinburuaren bidez. Bazarovek jantzia aldatu zuen harengana joan aurretik: izan ere, aise ateratzeko moduan gorde zuen bere jantzi berria mailetan.

Odintsovak ez zuen Bazarov hartu hark bere maitasuna hain ustekabean aitortu zion gela hartan, harrera-gelan baizik. Adeitasunez luzatu zizkion bere atzamarren puntak, baina haren aurpegiak nahi gabeko larritasuna erakusten zuen.

— Anna Sergeievna —esan zion Bazarovek berehala—, beste ezer baino lehen, lasaitu egin behar zaitut. Zure aurrean daukazun hilkor hau aspaldi zentzatu da eta espero du besteek ere honezkero ahaztua izango dutela haren buruga-betasuna. Luzarorako alde egingo dut, eta, uler-

tuko duzunez, gizon sentibera ez banaiz ere, tris-tagarri litzaidake gorrotoz gogoratzen nauzulako ustea eramatea nirekin.

Anna Sergeievnak hasperen sakona egin zuen, mendi-gailur garai batera igo berria denak egingo lukeen bezala, eta irribarre bat loratu zitzaion aurpegian. Bigarren aldiz luzatu zion eskua Bazarovi, eta gogoz erantzun zion haren estutzeari.

— Ez dut gogoan iragana, ez dut atzera begiratzen —esan zuen Anna Sergeievnak—, are gutxiago kontuan izanik ezen, egia esan, nik ere oker jokatu nuela orduan, beharbada ez nintzen irtirina izan, baina bai beste zerbait. Hitz batean: izan gaitezen berriro adiskide, lehen bezala. Amets bat izan zen hura, ezta? Eta nork gogoratzen ditu ametsak?

— Nork gogoratzen ditu? Eta, gainera, maitasuna... alegiazko sentimendua da.

— Benetan? Oso pozten nau hori entzuteak.

Hala mintzatu zen Anna Sergeivena, eta hala mintzatu zen Bazarov; egia ziotela uste zuten biek. Bazen egiarik, egia osorik, haien hitzetan? Haiek ez zekiten, eta autoreak are gutxiago.

Baina elkarrri itsu-itsuan sinetsiko baliote bezala hasi ziren hizketan.

Anna Sergeievnak, besteak beste, Kirsanoven etxean zer egin zuen galdetu zion Bazarovi. Pavel Petrovitxekin izaniko dueloaren berri jakinaraztekotan egon zen, baina ez zion aipatu ere egin, interesa piztu nahi ziola pentsatuko ote zuen beldurrez, eta erantzun zion lanean jardun zuela denbora guztian.

— Bada, ni —esan zuen Anna Sergeievnak—, goibel samar ibili nintzen hasieran; Jainkoak daki zergatik, atzerrira joatea ere bururatu zitzaidan, hortik atera kontuak! Gero, berez joan zitzaidan tristura hori; zure adiskide Arkadi Nikolaitx etorri zen, eta neure bidera itzuli nintzen, neure benetako eginkizunera.

— Eta, barkatu galdetzea, zein duzu eginkizun hori?

— Izebarena, irakaslearena, amarena, nahi duzun bezala deitu. Bestetik, badakizu hasieran ez nuela ulertzen Arkadi Nikolaitxekin lotzen zaituen adiskidetasun estu hori? Ezdeus samarra iruditzen zitzaidan zure laguna. Orain, aldiz, hobeto ezagutzeko aukera izan dut, eta buruar-

gia dela konturatu naiz... Eta, batez ere, gaztea, gaztea... gu ez bezala, Jevgeni Vasilix.

— Oraindik ere kikiltzen da zure aurrean? — galdetu zuen Bazarovek.

— Beharbada... —hasi zen Anna Sergeievna, eta, apur batean pentsakor geraturik, gaineratu zuen—: Orain konfiantza handiagoa du, hitz egiten du nirekin. Lehen, ordea, ihes egiten zidan. Dena dela, nik ere ez nuen haren lagunartea bilatzen. Katiaren lagun handia da.

Gogaitzen hasia zen Bazarov. «Emakumezkoak amarrukeriatan beti!», pentsatu zuen.

— Ihes egiten zizula esan duzu —ohartarazi zion Bazarovek, irribarre hotz batez—, baina ez zenion antzematen zutaz maitemindurik zegoe-la?

— Nola? Bera ere bai? —itzuri zitzaion Anna Sergeievnari.

— Bera ere bai —errepikatu zuen Bazarovek, burua apaltasunez makurtuz—. Ez zenekien?, nik eman dizut albistea?

Begiak beheratu zituen Anna Sergeievnak.

— Oker zaude, Jevgeni Vasilix.

— Ez dut uste. Dena dela, beharbada, ez nuen aipatu behar kontu hori.

«Baina aurrerantzean joka ezan amarrurik gabe!», gaineratu zuen bere kolkorako.

— Zergatik ez? Kontuak kontu, uste dut orain ere garrantzi handiegia eman diozula irudipen igarokor bati. Susmatzen hasia naiz gauzak beren neurritik ateratzeko joera duzula.

— Hobe genuke horretaz ez hitz egin, Anna Sergeievna.

— Zergatik? —esan zuen, baina hitz beste egin zuen berak. Dena dela, estugarri zitzaion Bazarovekin egotea, nahiz eta dena ahazturik zeukala esana zion eta bera ere hori hala zela sinesten ahalegindua zen. Bazarovekin gairik arruntenez hitz eginik ere, berarekin txantxetan ariturik ere, halako izu-ikara baten zama arina sumatzen zuen barnean. Horixe gertatu ohi zaie itsas zabalean ontzi batean daudenei: berriketan eta barrezka aritzen dira patxada ederrean, lehorrean egingo luketen bezalaxe, baina denik eta geldiunerik ñimiñoena gertatuz gero, ezohiko ezein gorabeheraren seinalerik ñimiñoena atzemanetz gero, bertantxe azaltzen da aurpegi

guztietan halako asaldu berezi bat, etengabeko arriskuaren kontzientzia etengabearen adierazgarri.

Anna Sergeievna eta Bazaroven arteko elkarrizketak ez zuen luze iraun. Anna Sergeievna berehala hasi zen pentsakor geratzen eta edonola erantzuten, eta, azkenean, egongelara aldatzea proposatu zion Bazarovi. Printzesa eta Katia aurkitu zituzten han. «Non da Arkadi Nikolaitx?», galdetu zuen etxeakoandreak, eta, jakinik ordu bete baino gehiago zeramala desagerturik, haren bila joateko agindu zuen. Ez zuten berehala aurkitu: lorategiko sasiarterik sarrienean gorderik zegoen, eseririk, kokotsa esku gurutzatuetan bermaturik zeukala eta gogoetetan murgildurik. Sakonak eta axolazkoak ziren haren gogotak, baina ez goibelak. Bazekien Anna Sergeievna bakar-bakarrik zegoela Bazarovekin, baina, garai batean ez bezala, ez zuen jeloskortasunik sentitzen; alderantziz, pozik zegoen, haren aurpegiak lasaitasuna erakusten zuen; bazirudien zer edo zertaz harriturik zegoela, eta erabaki sendo bat hartua zuela.

XXVI

Odintsov zenak ez zituen gogoko berritasunak, baina neurri batean onartzen zuen «gustu finduaren jolasa», eta, horrenbestez, arkupe grekoen tankerako eraikin bat altxatu zuen lorategian, berotegiaren eta urmaelaren artean, Errusiako adreiluz. Odintsovek sei nitxo eginarazi zituen arkupe edo lorio horren atzealdeko horma trinkoan, atzerritik ekartzeko asmoa zuen estatua batzuk hor jartzeko. Estatua haiek honakoa irudikatuko zuten hurrenez hurren: Bakartasuna, Isiltasuna, Hausnartzea, Malenkonia, Lotsa Ona eta Sentiberatasuna. Ekarri zuten haietako bat, Isiltasunaren jainkosa, atzamarra ezpainetan zeukala, baita zegokion lekuan ipini ere, baina lehen egunean bertan mutiko batzuek sudurra apurtu zioten; inguruko hargin batek hitzeman zuen sudur berri bat egingo zuela, «lehengoa baino bi aldiz hobea», baina, hala ere, estatua kentzeko agindu zuen Odintsovek, eta urte asko egin zituen aletegiko zoko batean, herrixkako emakumeengan sineskeriazko izu-laborria sor-

tuz. Arkupearen aurrealdea aspalditik zegoen zuhamuxka hostosarriz estalirik; harroinen kapitelak soilik ikusten ziren sastraka itsuaren gainean. Arkupeko giroa hozkirria izaten zen are eguerdian ere. Anna Sergeievnak, leku hartan suge bat ikusi zuen egunaz geroztik, ez zuen gogoko hara joatea; Katia, ordea, sarritan eseritzen zen nitxoetako baten azpian eginiko harrizko jarleku handian. Itzal eta freskotasunez inguraturik, irakurri edo josi egiten zuen, edo, besterik gabe, gorputz eta arimaz ematen zen isiltasun erabatekoaren sentipenera, zeina, inondik ere, denok ezagutzen baitugu eta zeinaren xarma baita gure inguruan eta gure barnean etengabe pilpiratzen den bizi-uhin zabal horren hautemate lausoa, zelatatze isila.

Bazarov iritsi eta biharamunean, Katia bere jarleku kuttunean eseririk zegoen, oraingoan ere Arkadi aldamenen zeukala. Hain zuzen ere, Arkadik eskatu zion berarekin arkupera joateko.

Ordu bete inguru falta zen bazkarirako; ihintzugariko goiza egun sargori bilakatzen hasia zen jadanik. Arkadik bezperako begitarte berbera zuen. Katiak kezkatua zirudien. Tea hartzen

amaitu bezain laster, ahizpak bere gelara deitu zion, eta, aurretiaz laztantxo batzuk eginik — horrek apur bat ikaratzen zuen beti Katia—, aholku eman zion Arkadirekiko harremanetan tentuz ibiltzeko eta, batez ere, berarekin bakar-ka solasean aritzea saihesteko, zeren hala izeba nola etxeko beste bizilagun guztiak horretaz jabetuak baitziren ordurako. Anna Sergeievna, bestetik, aldarte txarreko zegoen aurreko eguneko arratsetik beretik; Katia bera ere urduri zegoen, errudun sentituko balitz bezala. Arkadiren eskariari amore eman bazion ere, azkeneko aldia zela agindu zion bere buruari.

— Katerina Sergeievna —hasi zen Arkadi, halako askatasun herabe batez—, zurekin etxe berean bizitzeko zoriona dudanetik, gai askori buruz hitz egin dut zurekin, baina bada... kontu bat, niretzat garrantzi handikoa, oraindik aipatu ez dizudana... Atzo esan zenidanez, onbideratu egin naute hemen —gaineratu zuen, Katiak berarengan josia zuen begirada galderatia aldi berean bilatuz eta saihestuz—. Izan ere, nabarmen aldatu naiz hemen nagoenetik, eta zuk

inork baino hobeto dakizu hori, zeren eta, azken batean, zeuri zor baitizut aldaketa hori.

— Niri? —esan zuen Katiak.

— Dagoeneko ez naiz hona iritsi nintzeneko ume harroputz hori —jarraitu zuen Arkadik—. Hogeita hiru urte bete ditut, eta ez alferrik. Lehen bezala, ganorazkoa izan nahi dut, egiaren zerbitzuan jarri nahi ditut nire indar guztiak; baina orain ez ditut nire idealak lehengo leku berean bilatzen; orain askoz ere... hurbilago agertzen zaizkit. Orain arte ez dut nire burua ulertu, nire ahalez gorako arazoez arduratzen nintzen... Duela gutxi, ordea, begiak ireki zaizkit, sentimendu bati esker... Beharbada, ez naiz argi eta garbi mintzo, baina ulertuko didazula espero dut...

Katiak ez zuen ezer erantzun, baina Arkadirengandik aldendu egin zuen begirada.

— Uste dut —ekin zion hark berriro, ahotsa dardaratsuago eta beraren gainean txonta bat arduragabe kantuan ari zela urki bateko hostoen artean—, uste dut gizabanako prestu orok tolesgabea izan behar duela jendearekin... zera,

lagun hurkoarekin... hitz batean, maite duen jendearekin, eta horregatik nik... erabaki dut...

Baina hortxe eten zen Arkadiren etorria; korapilatu, jardunaren haria galdu, eta isilune laburra egin behar izan zuen. Katiak ez zituen begiak jasotzen. Antza, ez zuen ulertzen nora iritsi nahi zuen Arkadik, eta zerbaiten ustean zegoen.

— Inondik ere, harritu egingo zaitut —hasi zen Arkadi, indarrak berriro bildurik—, batez ere sentimendu horrek, nola edo hala... ohar zaitetz nola edo hala esan dudala, zu ukitzen zaituelako. Gogoan izango duzunez, seriotasun falta leporatu zenidan atzo —jarraitu zuen Arkadik, zingira batean sartu den eta, urratsez urrats gero eta gehiago hondoratzen dela konturaturik ere, arinago irteteko esperantzan, aurrera lehiatzen denaren antzera—, jende gazteari askotan aurpegiratzen diote hori... sarritan egozten diote... are erantzuki hori merezi izateari utzi dionean ere; eta neure buruaz segurantza handiagoa banu... («Lagun iezadazu, arren, lagun iezadazu!», pentsatzen zuen Arkadik, etsi gaiztoz,

baina Katiak, lehen bezala, ez zuen burua jiratzzen.) Espero ahal banu...

— Diozunaz ziur egon ahal banintz —entzuzen une horretan Anna Sergeievnaren ahots argia.

Bertantxe isildu zen Arkadi, eta zurbil jarri Katia. Arkupea estaltzen zuten zuhamuxkez bestaldean bidezidor bat zegoen. Anna Sergeievna bidezidor horretatik zihoan, Bazarov lagun zuela. Katiak eta Arkadik ezin zituzten ikusi, baina argi entzuten zituzten haien hitz guztiak, soinekoaren firfira, arnasa bera. Urrats batzuk egin, eta, berariaz bezala, arkupearen aurrez aurre gelditu ziren Odintsova eta Bazarov.

— Ikusten? —zioen Anna Sergeievnak—, okergenbiltzan biok; jadanik ez gaude lehen gaztaroan, batez ere ni; bizi izan gara, nekaturik gaude; gure artean ez dugu konplimendurik behar, buruargiak gara; hasieran, interesa piztu genuen bata bestearengan, jakinmina kilikatu genion elkarri... baina gero...

— Baina gero ni aienatu egin nintzen —tartetatu zuen Bazarovek.

— Badakizu ez zela hori izan gure liskartzearen arrazoia. Dena dela, ez genuen elkarren premiarik, hortxe dago gakoa. Gu... nola azalduko nuke?... elkarren antzekoegiak gara. Ez ginen behingoan jabetu horretaz. Arkadi, aldiz...

— Haren premia duzu? —galdetu zuen Bazarovek.

— Aski da, Jevgeni Vasilix! Zuk diozu ez dela nirekiko axolagabe, eta niri ere beti iruditu zait atsegin natzaiola. Badakit haren izeba izan nintekeela, baina ez dizut ezkutatu nahi berarengan sarriagotan pentsatzen hasi naizela. Sentimendu gazte eta garbi horrek badu halako lilura berezi bat...

— Horrelako kasuetan *xarma* hitza erabili ohi da —eten zion Bazarovek; behazunaren borborra entzuten zen haren ahots lasai baina garra-tzean—. Arkadik isil-kontu batzuk esan zizkidan atzo, eta ez zuen hitzik egin ez zutaz, ez zure ahizpaz... Garrantzi handiko zantzua da hori.

— Neba baten antzera jokutzen du Katiarekin —esan zuen Anna Sergeievna—, eta gogoko dut hori, nahiz eta nik, beharbada, ez nien utzi behar hain harreman estua izaten.

— Ahizpa gisa diozu hori? —galdetu zuen Bazarovek, ahots beti-berdinez.

— Esan gabe doa... Baina zergatik gaude hemen geldirik? Goazen. Bai elkarrizketa bitxia gurea, ezta? Sekula ez nuen pentsatuko egunen batean honela mintzatuko nintzenik zurekin! Dakizunez, beldur dizut... baina, aldi berean, uste sendoa dut zuregan, funtsean oso ona zara eta.

— Lehenik, ni ez naiz batere ona; bigarrenik, dagoeneko ez dut inolako garrantzirik zuretzat, eta ona naizela diostazu... Hilaren buruan lorekora ipintzearen parekoa da hori.

— Jevgeni Vasilix, guk ezin dugu... —hasi zen Anna Sergeievna, baina haizea jaso zuen, hots eragin zien hostoei eta haren hitzak eraman zituen.

— Baina zu askea zara —esan zuen Bazarovek handik apur batera. Ezin izan zen gehiagorik ulertu; urrundu ziren urratsak... isilik geratu zen dena.

Katiarenganantz jiratu zen Arkadi. Lehengo jarrera berean eseririk zegoen, baina beheraxea-go zeukan burua.

— Katerina Sergeievna —esan zion, ahotsa dardaraka eta eskuak estuturik—, maite zaitut, betiko eta atzerabiderik gabe, eta ez dut beste inor maite. Horixe esan nahi nizun, zure iritzia jakin eta nirekin ezkontzeko eskatu; ez naiz aberatsa, baina denetariko sakrifizioak egiteko prest nago... Ez didazu erantzuten? Ez didazu sinesten? Arinkeriaz mintzo naizela uste duzu? Gogoa izan azken egun hauek! Oraindik ez al duzu argi ikusi nola gainerako guztia, uler iezadazu, gainerako guzti-guztia, aspaldi desagertu den arrastorik utzi gabe? Begira iezadazu, esadazu hitz bat... Maite zaitut... maite zaitut... sinets iezadazu!

Katiak begirada serio eta argitsua egotzi zion Arkadiri eta, luzaz hausnartu ondoren, irribarretxoa egin, eta esan zuen:

— Bai.

Arkadi ziplo altxatu zen jarlekutik.

— Bai! Bai esan duzu, Katerina Sergeievna! Zer esan nahi du hitz horrek? Maite zaitudala, sinesten didazula... Ala... ala... ez naiz ausartzen esaldia amaitzen...

— Bai —errepikatu zuen Katiak, eta oraingotan bai ulertu zion Arkadik. Neskaren esku handi ederrak hartu eta, pozaren handiak arnaslarririk, bere bihotzaren kontra estutu zituen. Nekez eusten zion gorputzari hanken gainean, eta behin eta berriro errepikatzen zuen: «Katia, Katia...», eta Katiak negarrari eman zion, halako xalotasun batez eta isilean barre eginez bere malkoen kontura. Maitearen begietan horrelako malkorik ikusi ez duenak ez daki gizakia, esker eta lotsa onez gainezka, zein neurritaraino izan daitekeen lurrean zoriontsu.

Biharamunean, goizean goiz, Bazarovi bere gelara deitzeko agindu zuen Anna Sergeievnak, eta, gogoz bestera barre eginez, paper-orri tolestu bat eman zion. Arkadiren gutun bat zen, non ahizparekin ezkontzeko mandatu egiten baitzion.

Bazarovek, gutuna bizkor irakurririk, ahaleginak egin behar izan zituen bularrean bat-batean piztu zitzaion sentimendu makurra ez azalera-tzeko.

— Horra, bada! —esan zuen—, eta atzo bertan etsita zeunden neba-arreben arteko maita-

sunez maite duela Katia. Zer egiteko asmoa duzu orain?

— Zuk zer aholkatzen didazu? —galdetu zuen Anna Sergeievna, barre egiteari utzi gabe.

— Nik uste dut —erantzun zuen Bazarovek, berak ere barrez, nahiz eta, Odintsovak bezala, batere alai egon ez eta barre egiteko inolako gogorik izan ez—, nik uste dut onespina eman behar zaiela bi gazteei. Ezkontza ona da edonondik begiratuta ere; Kirsanovtarrek fortuna ederra dute, Arkadi seme bakarra da, eta aitak bihotz handia du, ez du oztoporik jarriko.

Odintsova hara-hona zebilen gelan. Noiz gorri noiz zurbil jartzen zitzaion aurpegia.

— Hala uste duzu? —esan zuen—. Zergatik ez? Ez dut inolako eragozpenik ikusten... Pozten naiz Katiarengatik... eta Arkadi Nikolaitxengatik. Hori bai, haren aitaren erantzunaren zain geldituko naiz. Arkadi bera bidaliko dut harengana. Dena dela, zuzen nengoen atzo, dagoeneko zaharrak garela esan nizunean... Nolatan ez dut ezer susmatu? Harriturik nago!

Anna Sergeievna, berriro ere barrez hasi, eta beste aldera jiratu zen.

— Gaur egungo gazteak izugarri maltzurak dira —esan zuen Bazarovek, eta barrez hasi zen bera ere—. Agur —gaineratu zuen, isilune labur baten ondoren—, kontu honek amaierarik atsegina izatea opa dizut; ni urrunetik poztuko naiz...

Odintsova bizkor jiratu zen harenganantz.

— Bazoaz, ala? Zergatik ez zara *orain* gertzen? Gera zaitez... alaigarria da zurekin hitz egitea... amildegia ertzetik ibiltzearen parekoa. Hasieran, kikildu egiten zara, baina gero adore hartzen duzu nondik edo handik. Gera zaitez.

— Eskertzen dizut eskaintza, Anna Sergeievna, eta hizketarako dudan antzeari buruzko iritzi balakagarri hori ere bai, baina uste dut dagoeneko denbora luzeegia egin dudala arrotz zaidan giro batean. Arrain hegalariairean egon daitezke apur batez, baina luze gabe uretan murgildu behar dute berriro; uztazu, mesedez, neure elementura itzultzen.

So egin zion Odintsovak. Irribarre mingots batek aurpegi zurbila kizkurtu zion. «Gizon honek maite izan nain!», pentsatu zuen, eta

errukitu zitzaion, eta begikotasunez luzatu zion eskua.

Baina Bazarovek ere igarri egin zion.

— Ez! —esan zuen, eta urrats bat egin zuen atzera—. Txiroa naiz, baina orain arte inoiz ez dut limosnarik onartu. Agur eta ondo izan.

— Espero dut hau ez dela izango elkar ikusten dugun azkeneko aldia —esan zuen Anna Sergeievna, nahi gabeko keinu bat eginez.

— Edozer gerta daiteke mundu honetan —erantzun zuen Bazarovek, buru-makurtua egin eta gelatik irteteaz batera.

— Beraz, heure habia egitea erabaki duk? —esan zion egun horretan bertan Arkadiri, kukubilko jarririk maleta egiten zuen bitartean—. Ondo zegok hori. Baina alferrik ibili haiz itxurakeriatan. Bide zeharo bestelako bat hartuko huela espero nian. Ala, beharbada, gertaturikoak txunditurik utzi hau heu ere?

— Egia esan, hiregandik bereizi nintzenean, ez nian susmatu ere egiten horrelakorik gertatuko zenik —erantzun zuen Arkadik—, baina hi ere itxurakeriatan ari haiz. Zergatik diok ondo dago-

ela? Oso ondo zekiat zer pentsatzen duan ezkontzeaz.

— Ai, ene adiskide maitea! —esan zuen Bazarovek—. Hori duk hitz egiteko modua! Begira zertan ari naizen: maleta barruan baduk oraindik lekurik, eta belarrez betetzen ari nauk; horixe bera gertatzen duk gure bizitzaren maletan: edozereze bete beharra zegok, hutsunerik gera ez dadin. Ez mindu, mesedez: inondik ere, gogoan duk nolako iritzia izan dudan beti Katerina Sergeievnari buruz. Beste andereño batzuek buruargi-fama ditek bakar-bakarrik buruargitasunez egiten dutelako hasperen; hireak, aldiz, bere burua aldeztuko dik, halako moldez aldeztu ere, ezen bere mendean edukiko bai hau, horixe gertatuko duk.

Danbateko batez maleta itxi, eta lurretik altxatu zen.

— Eta orain, agur berriro... ez baitugu geure burua zertan engainaturik: behin betiko bananduko gaituk, eta hik badakik hori... Zentzuz jokatuko duk; hi ez haute sortu gure bakar-bizitza mingots, latzerako. Hik ez duk ozartasunik, ez gaiztotasunik, hik gaztetasunaren adorea eta keme-

na dituk. Horrek ez dik gure eginkizunerako balio. Zuek, aitoren semeok, ez zarete gai otzantasan nobletik edo suhartasun nobletik harago joateko, eta horiek huskeriak dituk. Zuek, esaterako, ez duzue borroka egiten, eta, hala ere, bulartsutzat daukazue zeuen burua; guk, aldiz, borroka egin nahi diagu. Bai horixe! Gure hautsak begiak minberatuko lizkiake, gure lohiak zikindu egingo hinduke, gazteegia haiz guretzat, nahi gabe heure burua maite duk, atsegin zaik heure buruari kargu hartzea, eta hori gogaikarri zaiguk guri. Guk besteak zapaldu behar ditiagu! Guk besteak suntsitu beharra zeukaagu! Hi gizon zintzoa haiz, baina, azken batean, aberaskume belaxka eta liberal bat, *volatu* bat, nire aitak esaten duen bezala.

— Betiko esaten didak agur, Jevgeni —esan zuen Arkadik, tristuraz—, eta ez duk beste hitzik niretzat?

Bazarovek hatz egin zuen garondoan.

— Badiat, Arkadi, badiat beste hitzik, baina ez dizkiat esango, hori erromantizismoa duk, melengakeria. Ezkon hadi lehenbailehen, antolatu heure habia eta haur asko ekarri. Buruargiak

izango dituk, garaiz jaioko baitira, gu ez bezala. Hara! Ikusten dudanez, prest zeudek zaldiak. Ordua duk! Agur esan zieat guztiei... Zer, besar-kada bat?

Arkadi lepora jauzi zitzaion bere gidari eta adiskide ohiari, eta malko mardulak lehertu zitzaizkion bi begietan.

— Oi, gaztetasuna! —esan zuen Bazarovek, lasai—. Uste handia diat Katerina Sergeievnarengan. Ikusiko duk zein arin kontsolatzen hauen!

— Agur, adiskidea! —esan zion Arkadiri, eta, ordurako telegan eseririk, zalditegiko teilatuan elkarren aldamenean zeuden bi belatxinga seinalatu zizkion—. Horra hor! Ikas ezak!

— Zer esan nahi duk? —galdetu zion Arkadik.

— Nola? Hain txarto habil natur historian?, ala ahaztu zaik belatxinga dela hegazti guztietan agurgarriena eta familiazaleena? Har ezak eredutzat!... Agur, *seigneur!*

Telega, dar-dar egin, eta abian jarri zen.

Zuzen zegoen Bazarov. Arratsaldean, Katia-ekin hizketan, Arkadi erabat ahaztu zen bere gidariaz. Emaztegaiaren mende jartzen hasia zen jadanik; ohartzen zen horretaz Katia, eta ez

zen harritzen. Biharamunean Marinora joan behar zuen Arkadik, Nikolai Petrovitxengana. Anna Sergeievnak ez zien bi gazteei eragotzi nahi, eta moduzkotasunak eraginik soilik ez zituen denbora gehiegi uzten bakarrik. Gogozabal, haiengandik urrundu zuen printzesa, ezkontzaren albisteak amorruez negar egiteraino sumindu baitzuen. Hasieran, Anna Sergeievna beldur zen haien zoriontasunaren ikuskizuna jasangaitz samarra irudituko ote zitzaion; baina guztiz kontrakoa jazo zen: ikuskizuna, jasangarria ez ezik, kilikagarria ere gertatu zitzaion, eta samurtu egin zuen azkenean. Poztu eta tristatu egin zen aldi berean. «Argi zegon Bazarovek arrazoi zuela —pentsatu zuen—, jakinmina jakinmin besterik ez dun, eta lasai bizitzeko gogoia, eta berekoikeria...»

— Umeok! —esan zuen, ozenki—. Maitasuna alegiazko sentimendua ote da?

Baina Katiak eta Arkadik ulertu ere ez zioten egin. Ihes egiten zioten; nahi gabe entzuniko elkarrizketa hura ez zitzaien ezabatzen burutik. Nolanahi ere, Anna Sergeievnak laster lasaitu

zituen; eta ez zitzaion zaila gertatu: bera ere

lasaitua zen.

XXVII

Zenbatenaz gutxiago espero baitzuten semea luze gabe berriz ikustea, hainbatenaz poz handiagoa eman zien gurasoei Bazaroven uste-kabeko itzulerak. Hainbeste asaldatu zen Arina Vlasievna, hain joan-etorri urduriak egin zituen etxean barrena, ezen Vasili Ivanovitxek «eper» batekin alderatu baitzuen: izan ere, atorra laburraren mendel estuak txori-antz halako bat ematen zion. Baina Vasili Ivanovitxek berak marru besterik ez zuen egiten, eta ezpain-ertzean hozkatzen zuen txibukiaren anbarra, eta, atzamarrekin lepoari heldurik, ezker-eskuin jiratzen zuen burua, ondo torlojoturik zeukala egiaztatu nahi balu bezala, eta bat-batean bere aho handia zabal-zabal ireki eta barrez hasten zen inolako hotsik atera gabe.

— Sei asterako etorri naiz etxera, aita —esan zion Bazarovek—, lan egin nahi dut, eta mese-dez eskatzen dizut trabarik ez egiteko.

— Nire aurpegia bera ere ahaztuko zaik, hain traba gutxi egingo diat! —erantzun zion Vasili Ivanovitxek.

Hitza bete zuen. Aurrekoan bezala, bere langela utzi zion semeari. Ia inoiz ez zen haren ikusmenean azaltzen, eta, gainera, gehiegizko samurtasun-agerpen guztiak bazterrera utzi behar zituela ohartarazi zion emazteari. «Zuk eta biok, ene emazte laztana —esan zion—, aurrekoan apur bat gogaitu genuen Jeniushka; oraingoan zuhurrago jokatu beharra daukagu.» Arina Vlasievna bat etorri zen senarrarekin, baina horrek ez zion onura handirik ekarri: mahaian soilik ikusten zuen semea, eta guztiz beldur zen berarekin hitz egiteko. «Jeniushenka!», esan ohi zuen, baina, semeak berarengantz jiratzeko denborarik izan aurretik, bere eskuzorroaren lokarriekin jolasten hasi eta zezelka esaten zuen: «Ezer ez, ezer ez, ez dut ezer nahi»; eta gero Vasili Ivanovitxi galdetzen zion, masaila eskuan bermaturik: «Laztana, nola jakin Jeniushak zer nahi duen gaur bazkaltzeko, aza-zopa ala eltzekaria?». «Zergatik ez diozu berari galdetzen?» «Ez eragoztearren!» Nolanahi ere,

Bazarovek laster amaitu zuen bere itxialdia: iraungi zitzaion lanerako grina, eta aspertasun goibel batek eta larritasun sakon batek hartu zuten haren lekua. Halako neke bitxi bat igaritzen zitzaion mugimendu guztietan; ibilera bera ere bestelakotu zitzaion, ordu arte sendo, ozar eta oldartsua izan baitzen. Bakarrik paseatzeari utzi, eta lagunartea bilatzen hasi zen; egongelan hartzen zuen tea, hara-hona ibiltzen zen baratzean Vasili Ivanovitxekin batera, eta berarekin erretzen zuen, «isilean»; behin, aita Alekseiren galdea egin zuen. Hasieran, Vasili Ivanovitxek pozik hartu zuen aldaketa hori, baina laburra izan zen haren pozaldia. «Pena ematen dit Jeniushak —kexatzen zitzaion, isil-gordeka, emazteari—, ez dago atsekabeturik edo haserre, hori ez litzateke kezka garria; kopetilun dabil, triste, horixe da ikaratzekoa; beti dago isilik, nahiago nuke noizean behin errieta egingo baligu; argaltzen ari da, kolore txarra du aurpegian.» «Jainkoa, Jainkoa! —xuxurlatzen zuen emazte zaharrak—. Kutun bat jarriko nioke lepoan, baina ez lidake utziko.» Vasili Ivanovitx behin baino gehiagotan saiatu zen, ahalik eta modurik

zuhurrenean galdetuz, Bazarovi zer edo zer ateratzen beraren lanaz, beraren osasunaz, Arkadiz... Baina Bazarovek gogoz bestera eta zabarki erantzuten zion beti, eta behin, solasean asmo ezkuturen bat zerabilela antzemanik, haserre esan zion: «Zergatik zabilta denbora guztian nire inguruan oin-puntetan bezala? Jokabide hori lehengoa baino okerragoa da». «Ondo da, ondo da, ez haserretu!», erantzun zion berehala Vasili Ivanovitx errukarriak. Saio horiek bezain antzuak gertatu zitzaizkion politikaren inguruko iruzkinak. Behin, aurrerabideaz eta nekazarien askapen hurbilaz hasi zen hizketan, semearen interesa piztuko zuelakoan; baina Bazarovek axolagabekeriaz esan zuen: «Atzo hesiaren albotik igaro nintzen, eta entzun nuen nola hemengo nekazarien mutikoak, kanta zaharrak abestu beharrean, honakoa kantatzen ari ziren garrasi batean: *Badator denbora iraunkorra, bihotzak maitasuna sentitzen du...* Horra hor aurrerabide!».

Batzuetan, herrira joaten zen Bazarov, eta, ohi bezala trufa eginez, hizketan hasten zen mujiken batekin edo besterekin. «Ea —esaten

zion—, azal iezadak nola ikusten duan hik bizitza, adiskidea: diotenez, zuengan zegok Errusiaren ahal guztia eta etorkizuna bera, historiaren aro berri bat hasiko da zuekin, zuek emango dizkiguzue legeak eta benetako hizkuntza.» Mujikak batzuetan ez zion ezer erantzuten, eta beste batzuetan tankera honetako hitz lausoak esaten zizkion: «Guk ere... ahal dugu... eta horrexegatik beraz... begira, esaterako, zertan den garen...».

— Baina esadak erraz ulertzeko moduan nolakoa den zuen mundua! —eteten zion Bazarovek—. Hiru arrain euskarri dituen mundu hori bera da?

— Lurra da, jauna, hiru arrain euskarri dituen —argitzen zion mujikak, lasai asko, onginahizko doinu patriarkal gozo batez—, mundua, hau da, gure mundua, jaunen borondatearen mende dago, jakina denez; zuek gure aitak zarete eta. Eta jauna zenbat eta gogorragoa izan, orduan eta otzanagoa mujika.

Behin, Bazarovek, horrelako hitzak entzunik, sorbaldak destainaz jaso eta bizkarra eman zion mujikari, eta mujika tipi-tapa abiatu zen etxera.

— Zertaz ari zen? —galdetu zion tarteko adineko eta itxura goibeleko beste mujik batek urrunetik, bere izbako atetik, Bazarovekiko elkarriketaren lekuko izan baitzen—. Zor ditugun zergez?

— Nongo zergak, adiskidea? —erantzun zuen lehen mujikak, eta ahotsean ez zitzaion geratzen doinu gozo patriarkalaren arrastorik; alderantziz, halako gordintasun zabar batez mintzo zen—. Honetaz eta hartaz hitz egin dik; mihia dantzatzeko gogoia zian. Nabari zaiok jauna dela; ezer ulertzen al du?

— Zer ulertuko du, gero? —erantzun zuen beste mujikak, eta, txanoei eraginik eta gerrikoak estuturik, beren arazo eta premiez hitz egiten hasi ziren. Ai! Sorbaldak destainaz jasotzen zituen eta (eztabaida batean Pavel Petrovitxi harro-harro esan zionez) mujikekin nola hitz egin behar zen hain ondo omen zekien Bazarov horrek, bere buruaz hain segurantz handia zuen Bazarov horrek berak ez zuen susmatzen ezen, hala eta guztiz ere, haien begietan halako txoriburu barregarri bat besterik ez zela...

Bestalde, bere neurriko langintza bat aurkitu zuen azkenean. Behin, bera aurrean zela, Vasili Ivanovitxek hanka zauritua lotu zion mujik bati, baina, eskuek dar-dar egiten ziotenez, agureak ez zuen asmatzen lotailua ondo jartzen; semeak lagundu zion, eta harrezkeroztik aitaren jardunean esku hartzen hasi zen, lehen bezala orduan ere barre eginez haren sendabideei —berak aholkatzen bazizkion ere— eta aitari berari —berehala baliatzen baitzen sendabide horietaz. Hala ere, Bazaroven isekek ez zuten batere aztoratzen Vasili Ivanovitx; aitzitik, poztu ere egiten zuten. Bi atzamarrez mantal krakatsuari urdailaren parean heldurik eta pipa errez, atseginez entzuten zion Bazarovi, eta haren purrustadetan zenbat eta gaiztotasun handiagoa egon, hainbat eta onberago egiten zuen barre aita zoriontsuak, bere hortz beltz guztiak erakutsiz, lehenetik hasi eta azkeneraino. Errepikatu ere egiten zituen semearen ateraldiak, batzuetan zozoak edo zentzugabeak baziren ere, eta, besteak beste, denboraldi batez, harira etorri zein ez, behin eta berriro esaten zuen: «Zeregin hori guztietan bederatzigarrena da!», zergatik eta, soil-soilik,

semeak esamolde hori erabili zuelako matutieta-
ra joan ohi zela jakin zuenean. «Jainkoari eske-
rrak, joan zaio tristura! —xuxurlatzen zion emaz-
teari—. Sekulakoak esan dizkit gaur! Mirari han-
dia da, gero!» Eta horrelako laguntzailea zuela
pentsatze hutsak zoratzeraino alaitu eta harrota-
sunez betetzen zuen. «Bai, bai, maitea —esaten
zion kitxkaz eta gizonezko armiak jantziriko
edozein emakumeri, flasko bat berun-ur edo
poto bete erabelar-ukendu ematen zion bitar-
tean—, etengabe eman behar dizkiozu eskerrak
Jainkoari semea etxean dudalako: orain, denik
eta metodorik zientifikoenaz eta berrienaz balia-
tzen ari naiz zu sendatzeko, ulertzen duzu hori?
Frantsesen enperadoreak, Napoleonek, ez du
sendagile hoberik.» Eta emakumeak, «jauzikako
min-ziztadak» zituela esanez etorria baitzen
kexuka (nahiz eta berak ere ez jakin hitz horien
esanahia argitzen), besterik gabe buru-makur-
tua egin eta kolkoa arakutzen zuen, lau arrautza
baitzeuzkan hor, eskuoihal baten muturrean bil-
durik.

Behin, Bazarovek hagin bat atera zion herriz
herri ehunak saltzen zituen erre kardari bati, eta,

hagin hura arrunt-arrunta bazen ere, Vasili Ivanovitxek bitxikeria bat balitz bezala gorde zuen, eta aita Alekseiri erakusten zion sarritan, beti hitz berberak errepikatuz:

— Begira nolako erroa! Bai indartsua Jevgeni! Airean gora altxatu zuen saltzailea bera... Uste dut aise erauziko lukeela haritz bat ere!

— Miresgarria! —esaten zuen azkenean aita Alekseik, zer erantzun eta agure estasiatutik nola libratu asmatu ezinik.

Behin batean, auzo herriko mujik batek anaia ekarri zion Vasili Ivanovitxi, tifusak jorik baitzegoen. Lasto-sorta batean ahoz behera etzanik, hil zorian zegoen gaixo dohakabea. Orban ilunez beterik zeukan gorputza, eta aspaldi galdua zuen konortea. Vasili Ivanovitxek tamala agertu zuen inori ez zitzaiolako lehenago bururatu medikuntzaren laguntzaren bila jotzea, eta gaixo hura salbatzerik ez zegoela jakinarazi zuen. Eta, izan ere, mujik hark ez zuen anaia etxeraino eramanean: telegan bertan hil zitzaien.

Hiru egun geroago, Bazarov aitaren gelan sartu zen eta erre-harririk bazeukan galdetu zion.

- Bai; zertarako behar duk?
- Behar dut... zauritxo bat erretzeko.
- Nork du zauria?
- Nik.
- Hik? Zer gertatu zaik? Zer zauri da hori?

Non duk?

— Hemen, atzamarrean. Gaur auzo herrira joan naiz, badakizu, tifusa zuen mujik haren herrira. Zergatik ez dakidala, gorpuari autopsia egitea erabaki dute, eta ni aspaldian aritu gabea nintzen zeregin horretan.

— Eta?

— Laguntzen uzteko eskatu diot probintziako sendagileari, eta ebakitxo hau egin dut.

Vasili Ivanovitx goitik beheraino zurbildu zen hori entzun orduko, eta, hitzik esan gabe, lasterka joan zen bere langelara, eta berehala itzuli, eskuan erre-harri zatitxo bat zeukala. Bazarovek, harria hartu, eta gelatik irtetera egin zuen.

— Jainkoaren izenean! —esan zuen Vasili Ivanovitxek—, utzi niri hori egiten.

Irribarretxo egin zuen Bazarovek.

— Atsegin duzu, gero, praktikak egitea!

— Txantxarik ez, mesedez. Erakutsi atzamarra. Oso zauri txikia duk. Minik ematen diat?

— Sakatu gogorrago, ez izan beldur.

Gelditu egin zen Vasili Ivanovitx.

— Zer uste duk, Jevgeni, ez genuke hobe burdinaz erre?

— Lehenago egin behar genuen hori; orain, egia esan, erre-harria ere alferrikakoa da. Gaitza kutsatu bazait, berandu da jadanik.

— Nola... berandu... —esan zuen Vasili Ivanovitxek, nekez.

— Bai horixe! Lau ordu eta gehiago igaro dira ebakia egin dudanetik.

Vasili Ivanovitxek apur bat gehiago erre zuen zauritxoa.

— Probintziako medikuak ez zeukan erre-harririk?

— Ez.

— Ene Jainkoa, egundo horrelakorik! Medikua duk, eta ez zeukak hain gauza ezinbestekoa!

— Haren ziztailua ikusi behar zenuen —esan zuen Bazarovek, eta gelatik irten zen.

Arrats berandua arte eta hurrengo egun osoan, Vasili Ivanovitxek denetariko aitzakiak

asmatu zituen semearen gelan sartzeko, eta, zauria ez aipatzeaz gain horrekin inolako zerikusirik ez zuten gauzez mintzatzan saiatzen bazen ere, hain setatsu begiratzen zion begietara eta hain urduri zelatatzen zuen, ezen Bazarovi egonarrria ahitu baitzitzaion eta alde egingo zuelako mehatxua egin baitzion. Vasili Ivanovitxek hitzeman zion ez zela gehiago kezkatuko, zeren eta, gainera, Arina Vlasievnak, zeinari, esan gabe doa, dena ezkutatu baitzion, gero eta estuago hartzen baitzuen, zergatik ez zuen lorik egiten eta zer gertatzen zitzaion galdetuz. Bi egun iraun zuen adoretu, semeari oso itxura onik hartzen ez bazion ere; itzalgaizka begiratzen zion denbora guztian, eta hirugarren egunean, bazkaritan, ezin izan zuen bere burua gehiago menderatu. Bazarov burumakur zegoen eseririk, jaki bat bera ere probatzen ez zuela.

— Zergatik ez duk jaten, Jevgeni? —galdetu zion, aurpegiari ahalik eta airerik arduragabeena emanik—. Janariak oso itxura ona dik.

— Ez dut nahi, horregatik ez dut jaten.

— Ez haiz gose? Eta burua? —gaineratu zuen, ahots herabez—. Min duk?

— Min dut, bai. Zergatik ez dut, bada, minik izango?

Arina Vlasievna, gorputza tentetu, eta adi jarri zen.

— Ez haserretu, mesedez, Jevgeni —jarraitu zuen Vasili Ivanovitxek—, baina ez hidake utziko pultsua hartzen?

Doi bat altxatu zen Bazarov.

— Pultsua hartu gabe ere, badakit sukarra dudala.

— Eta hotzikararik izan duk?

— Bai, hotzikarak ere izan ditut. Ohera noa; agindu ezki-ura eraman diezadaten. Inondik ere, hotzen bat harrapatuko nuen.

— Bai, bai, bart eztulka aritu haiz, entzun diat —esan zuen Arina Vlasievnak.

— Hotza harrapatu dut —errepikatu zuen Bazarovek, eta han joan zen.

Arina Vlasievnak ezki-lorezko ura prestatzea-ri ekin zion, eta Vasili Ivanovitx, aldameneko gelara joan, eta buruko ileak erauzten hasi zen, isilik.

Bazarov ez zen gehiago jaiki egun horretan, eta lozorro astun, ia konorterik gabeko batean

igaro zuen gau osoa. Goizeko ordu bata aldera, begiak nekez irekirik, kriseiluaren argitan aitaren aurpegi zurbila ikusi zuen bere gainean, eta gelatik irteteko agindu zion. Hala egin zuen aitak, baina berehala itzuli zen, oin-puntetan, eta, armairuko atearen atzean erdi ezkutaturik, semeari begira geratu zen. Arina Vlasievna ere ez zen oheratu, eta, langelako atea apur bat irekita utzirik, behin eta berriro inguratzen zen «Jeniushak ea nola hartzen zuen arnasa» entzuztera eta Vasili Ivanovitxi begiratzera. Haren bizkarra baino ezin zuen ikusi, geldi-geldi eta konkorturik, baina ikuspen soil horrek nolabait arintzen zion barrua. Goizean, ohetik altxatzen saiatu zen Bazarov; zorabioak hartu zuen, sudurrera bildu zitzaion odola; berriro etzan zen. Vasili Ivanovitxek isilik zaintzen zuen; Arina Vlasievnak, langelara sartu, eta zer moduz zegoen galdetu zion. «Hobeto», erantzun zion semeak, eta horma aldera jiratu zen. Vasili Ivanovitxek alde egiteko keinua egin zion emazteari bi eskuekin; emazteak ezpainak hozkatu zituen, negarrik ez egiteko, eta gelatik irten zen. Bat-batean ilundua zirudien etxe osoak; goibel zeuden aurpegi guz-

tiak, eta isiltasun berezi bat zen nagusi; eskortatik herrixkara aldatu zuten oilar zalapartari bat, zeinak denbora luzean ezin izan baitzuen ulertu jokabide horren zioa. Bazarov ohean zetzan denbora guztian, hormari begira. Vasili Ivanovitx berarekin hitz egiten saiatu zen, askotariko galderak eginez, baina hori nekagarri zitzaion gaxoari, eta aita geldirik geratu zen bere besaulkian, tarteka hatzak klaskatu beste mugimendurik egiten ez zuela. Noizean behin, lorategira irteten zen apur batez, eta hantxe egoten zen zutik, estatua baten antzera, ezin azalduzko harridura batek zurturik baleuka bezala (harridura ez zitzaion ezabatzen aurpegitik), eta gero atzera itzultzen zen semearen ondora, emaztearen galderak saihesteko ahaleginak eginez. Halako batean, ordea, eskutik heldu zion emazteak, eta, dar-dar batean, ia mehatxuz, galdetu: «Zer du?». Erantzun gisa, gogoz besteko irribarre bat saiatu zuen, baina, beraren izu handirako, irribarrearen ordeaz barrea jaulki zitzaion nonbaitetik. Goiz horretan bertan, sendagilearen bila bidalia zuen morroi bat. Beharrezkotzat jo

zuen semea jakinaren gainean jartzea, haserre ez zedin.

Bazarov bertantxe jiratu zen dibanean, eta, begi motelak aitarengan landaturik, edaria eskatu zion.

Ura eman zion Vasili Ivanovitxek, eta, bide batez, bekokia ukitu. Sutan zeukan.

— Aita —hasi zen Bazarov, astiro eta ahots erlatsez—, nireak egin du. Gaitza kutsatu zait, eta egun gutxiren buruan lurperatu beharko nauzu.

Zabu egin zuen Vasili Ivanovitxek, norbaitek hanketan jo balu bezala.

— Jevgeni! —murduskatu zuen—. Ez esan horrelakorik, Jainkoarren!... Hotzeria duk...

— Aski da —eten zion Bazarovek, presarik gabe—. Mediku batek ez du zilegi horrela mintzatzea. Ondo asko dakizu kutsapenaren zantzu guztiak ditudala.

— Non dituk... kutsapenaren zantzuak, Jevgeni?... Mesedez!

— Zer da hau, orduan? —esan zuen Bazarovek, eta, alkandoraren mahuka gora bildurik,

azalmintzean agertuak zitzaizkion zorigaiztoko gorriuneak erakutsi zizkion.

Zirgit egin zuen Vasili Ivanovitxek, izuaren izuz hotz-harriturik.

— Demagun —esan zuen azkenean—, demagun... hori... kutsapena... edo horrelako zerbait dela...

— *Piohemia* —zehaztu zion semeak.

— Hori... epidemia... edo dena delakoa...

— Piohemia —errepikatu zuen Bazarovek, zakar eta zehatz—. Ahaztu zaizkizu zure koadernoak?

— Tira, tira, nahi duan bezala... Nolanahi ere, sendatu egingo haugu!

— Baita zera ere! Baina kontua ez da hori. Ez nuen espero hain gazterik hilko nintzenik; egia esan, oso halabehar desatsegina egokitu zait. Zuk eta amak zuen kristau-fede sendoaz baliatu beharko duzue orain; proban jartzeko aukera izango duzue.

Ur apur bat edan zuen berriro.

— Gauza bat eskatu nahi dizut... —jarraitu zuen— oraindik neure buruaren jabe naizelarik. Dakizunez, bihar edo etzi nire burmuinak erreti-

roa hartuko du. Ez nago guztiz ziur orain ere argi mintzo naizen. Ohean nengoela, denbora guztian iruditzen zitzaidan zakur gorriak zebiltzala lasterka nire inguruan, eta zuk ehizako geraldia egiten zenidan, basoilarra banintz bezala. Bazirudien mozkorturik nengoela. Ondo ulertzen didazu?

— Jakina, Jevgeni, zuzen eta argi hitz egiten ari haiz.

— Hainbat hobe; sendagileari deitu diozula esan didazu... Zeure burua lasaitze aldera egin duzu hori... bada, orain emadazu niri atsegin: bidali norbait lehenbailehen...

— Arkadi Nikolaitxenera —eten zion aitak.

— Nor da Arkadi Nikolaitx? —galdetu zuen Bazarovek, zalantza-antzean—. Ah, bai! Bixarguri hori! Ez, utzi bakean: orain belatxinga bihurtu da. Ez harritu, oraindik ez nago sukar-ametsetan. Bidali norbait lehenbailehen Odintsovarenera, Anna Sergeievna-renera; andre lurjabe bat da..., ezagutzen duzu? (Vasili Ivanovitxek baiezkoa egin zuen buruaz.) Esaiozue Jevgenik, zera, Bazarovek goraintziak bidaltzeko agindu duela

eta agindu duela jakinarazteko hiltzen ari dela. Hala egingo duzu?

— Bai... Baina litekeena da hi hiltzea, hi, Jevgeni?... Egin kontu! Horren ondotik, non dateke justizia?

— Ez dakit; baina bidali norbait lehenbailehen.

— Oraintxe bertan, eta neronek idatziko diat gutun bat.

— Ez, zertarako? Esaiozue goraintziak emateko agindu dudala, ez dago besteren beharrik. Eta orain banoa berriro nire zakurrekin elkartzera. Bai bitxia! Heriotzan pentsatu nahi dut, eta ez zait ezer etortzen burura. Halako orban bat ikusten dut... besterik ez.

Nekez jiratu zen berriro horma aldera; langelatik irten zen Vasili Ivanovitx, eta, emaztearen logelara iritsi orduko, belauniko erori zen imajinen aurrean.

— Otoitz egin, Arina, otoitz egin! —esan zuen, intzirika—. Hil zorian dugu semea.

Iritsi zen sendagilea, erre-harririk ez zeukan mediku hura bera, eta, gaixoa azterturik, zain egotearen metodoari eusteko aholkatu zuen, eta

berehala gaineratu, hitz gutxitan, agian bazite-keela sendatzea.

— Ikusi duzu inor nire egoeran egonik Eliseo-ko Zelaietara joan ez denik? —galdetu zuen Bazarovek, eta, dibanetik hurbil zegoen mahai astunaren hanka bati heldurik, gogor eragin eta bere lekutik mugitu zuen.

— Hemen da oraindik nire indarra, nire indar guztia —esan zuen—, eta hil egin behar, hala ere!... Zaharrek, gutxienez, denbora izan dute bizitzeko ohitura galtzeko; nik, ordea... Baina zoaz eta saia zaitez heriotza ukatzen. Berak ukatzen zaitu zu, eta kitto! Nor dago hor negarrez? —gaineratu zuen isilune labur baten ondoren—. Ama? Errukarria! Nor elikatuko du orain bere eltzekari zoragarriaz? Eta zu ere negar-zotinka ari zara, Vasili Ivanitx? Bada, kristautasunak laguntzen ez badizu, izan zaitez filosofo, edo estoiko, edo beste edozer! Ez zenuen, bada, harro-harro aldarrikatzen filosofoa zarela?

— Filosofo ederra ni! —egin zuen garrasi Vasili Ivanovitxek, eta malkoak isurtzen hasi zen masailetan behera.

Bazarov okerragora zihoan ordutik ordura; gaitzak abiada handia hartu zuen, kirurgiako pozoitzeetan gertatu ohi denez. Artean ez zuen oroimena galdu eta ulertzen zuen esaten ziotena; borroka egiten zuen oraindik. «Ez diat burua galdu nahi —xuxurlatzen zuen, ukabilak estuturik—, zentzugabekeria handiagorik!» Eta berehala esaten zuen: «Zenbat da zortzi ken hamar?». Vasili Ivanovitx ero baten pare ibiltzen zen batetik bestera, noiz sendabide bat noiz beste bat proposatuz, baina semeari hankak behin eta berriro estali besterik ez zuen egiten. «Izara hotzetan bildu... okagarria... txaplatak sabelean... odolustea...», esaten zuen, estu eta larri. Sendagileak, etxean gera zedin lortu baitzuen Vasili Ivanovitxek, ontzat ematen zuen dena, limoi-ura edanarazten zion gaixoari, eta beretzat pipa eskatzen zuen batzuetan, eta beste batzuetan, berriz, «zuzpergarri-berogarrria», hau da, vodka. Arina Vlasievna ate ondoan zegoen beti, jarleku txiki batean eseririk, eta noizean behin soilik irteten zen, otoitz egitera; zenbait egun lehenago, apain-mahaiko ispilutxoia eskuetatik irristatu zitzaion eta apurtu egin zen,

eta berak zantzu gaiztotzat eduki zuen beti hori; Anfisushka bera ez zen gain izan etxekoandreari deus esateko. Timofeitx Odintsovaren etxera joan zen.

Gaua txarra izan zen Bazaroventzat... Sukar bortitz batek eraso zion. Goizean onera egin zuen. Orraz zezan eskatu zion Arina Vlasievnari, eskuan muin egin zion eta bi zurrutada te edan zituen. Doi bat piztu zen Vasili Ivanovitx.

— Jainkoari eskerrak! —esan zuen—. Etorri da krisia... joan da krisia.

— Hara bestea! —erantzun zuen Bazarovek—. Nolako garrantzia duen hitz batek! «Krisia» esan, eta alaitu egin da. Harrigarria da nola giza-kiak hitzetan sinesten duen oraindik. Ergela deitu, esaterako, eta goibel jarriko da, jo ez badute ere; buruargia deitu, eta pozik jarriko da, dirurik eman ez badiote ere.

Bazaroven hizketa labur horrek biziki hunkitu zuen Vasili Ivanovitx, lehengo «ateraldiak» eka-ri baitzizkion gogora.

— Hori duk eta! Ederki hitz egin duk, ederki! —esan zuen, txalo jotzeko keinua eginez.

Bazarovek irribarre egin zuen, tristuraz.

— Beraz, zure ustez —esan zuen—, krisia joan ala etorri egin da?

— Ikusten dudanez, onera egin duk, horregatik poztu nauk —erantzun zuen Vasili Ivanovitxek.

— Ondo dago hori; poztea inoiz ez da txarra. Bidali duzu mezularia?

— Bai, jakina.

Hobealdiak ez zuen luze iraun. Gaixotasunak erasoari ekin zion berriro. Vasili Ivanovitx Bazaroven aldamenean eseririk zegoen beti. Berealdiko samintasun batek oinazetua zirudien agurreak. Hitz egiten saiatu zen hainbat aldiz, eta ezin izan zuen.

— Jevgeni! —esan zuen azkenean—. Nire semea, nire laztana, nire seme maitea!

Ezohiko hitz samur horiek eragina izan zuten Bazarovengan... Burua doi bat jiratu, eta, lozorroaren zama itogarriaren azpitik irteteko ahalegin nabarmenak eginez, esan zuen:

— Zer, aita?

— Jevgeni —jarraitu zuen Vasili Ivanovitxek, eta belauniko jarri zen Bazaroven aurrean, nahiz eta semeak ez zituen begiak ireki eta ezin ikus

zezakeen—. Jevgeni, orain hobeto hago; Jainkoak hala nahi badu, sendatuko haiz; baina balia hadi egokiera honetaz, kontsola itzak heure gurasoak, bete ezak kristauen eginbeharra! Izugarria zaidak hiri hala mintzatzea..., baina are izugarriagoa lukek... hori betikoa baita, Jevgeni... kontuan izan...

Eten egin zen agurearen ahotsa, baina semearen aurpegian, etzanik eta begiak itxita jarraitzen bazuen ere, aldaketa bitxi bat gertatu zen.

— Hori kontsolagarri bazaizue, ez diot ezezkoa emango —esan zuen azkenean—, baina uste dut oraindik ez dugula zertan presaturik. Zerorek esan duzu hobeto nagoela.

— Hobeto hago, Jevgeni, hobeto hago, bai, baina ezin jakin Jainkoaren borondatea, eta egokiera honetaz baliatzen bahaiz...

— Ez, itxarongo dut —eten zion Bazarovek—. Krisia etorri dela esan duzu, eta ados nago zurekin. Eta oker bagaude, zer egingo zaio! Korderik gabe daudenek ere jaunartzen dute.

— Mesedez, Jevgeni...

— Itxarongo dut. Eta orain lo egin nahi dut. Ez eragotzi.

Eta lehengo leku berean jarri zuen burua.

Agurea, lurretik altxatu, besaulkian eseri, eta, kokotsa eskuan bermaturik, hatzak hozkatzten hasi zen.

Bat-batean, belarrietara iritsi zitzaion kotxe baleztadun baten zarata, ezohikoaren ezohikoaz bazter herrietan hain deigarria izaten den zarata hori. Gero eta hurbilago zeuden zalgurdiaren gurpil arinak; luze gabe, zaldien arnasestua ere entzun zen... Vasili Ivanovitx, jauzi batez zutitu, eta leihora oldartu zen. Bi eserlekuko kotxe bat sartzen ari zen etxeko patioan, lau zaldik tiraturik. Horren esanahiaz jabetu gabe, hanken ahal guztian irten zen atarira, halako bozkario zentzugabe batek bultzaturik... Libreaz jantziriko lekaio batek kotxearen atetxoa ireki zuen; dama bat jaitsi zen, aurpegi-estalki beltz batez eta sorbalda-oihal orobat beltz batez...

— Odintsova naiz —esan zuen—. Bizirik dago Jevgeni Vasilievitx? Haren aita zara? Sendagilea ekarri dut nirekin.

— Gure ongilea! —egin zuen oihu Vasili Ivanovitxek, eta, haren eskua harturik, asaldu bizian estutu zuen bere ezpainen kontra. Bitartean, presarik gabe jaitsi zen kotxetik Anna Sergeievnak ekarritako sendagilea, alemaniar aurpegiko gizon txiki betaurrekoduna bera—. Bizirik dago, bizirik dago oraindik nire Jevgeni, eta orain salbatu egingo da! Emaztea! Emaztea!... Zeruko aingeru bat etorri da...

— Jainkoaren izenean, zer gertatzen da? —murduskatu zuen emazte zaharrak, egongelatik lasterka irteteaz batera, eta, ezer ulertu gabe, atarian bertan Anna Sergeievnaren oinetan ahuspeztu eta haren soinekoa musukatzen hasi zen, ero legez.

— Zertan ari zara? Zertan ari zara? —errepikatu zuen Anna Sergeievnak; baina Arina Vlasievnak ez zion entzuten, eta Vasili Ivanovitxek behin eta berriro esaten zuen: «Aingerua! Aingerua!».

— *Wo ist der Kranke?* Non da gaixoa? —galdetu zuen sendagileak, ez nolabaiteko haserre-rik gabe.

Bere onera itzuli zen Vasili Ivanovitx.

— Hemen, hemen, etorri nirekin, mesedez, *wertester Herr kollega* —esan zuen, garai bateko ohitura zaharrari jarraituz.

— Ah! —esan zuen alemaniarrak, eta irribarre hotz zabala egin zuen.

Langelara eraman zuen Vasili Ivanovitsek.

— Anna Sergeievna Odintsovak sendagilea bidali dik —esan zion semeari, belarriraino bertaraino makurturik—, eta bera ere hemen duk.

Bazarovek begiak ireki zituen bat-batean.

— Zer esan duzu?

— Esan diat Anna Sergeievna Odintsova hemen dela eta sendagile jauna ekarri dila.

Bazarovek ingurua arakatu zuen begiekin.

— Hemen da... ikusi nahi dut.

— Ikusiko duk, Jevgeni; baina aurrena sendagile jaunarekin hitz egin behar diat. Sidor Sidoritx joan denez (hala zeritzon probintziako sendagileari), nik azalduko zioat gaixotasunaren historia guztia, eta osasun-azterketa xume bat egingo diagu.

Alemaniarrari begiratu zion Bazarovek.

— Tira, hitz egin ezazue lehenbailehen, baina ez latinez, ulertzen dut *jam moritur* hitzen esanahia.

— *Der Herr scheint des Deutschen mächtig zu sein?* —hasi zen Eskulapioren jarratzaile berria, Vasili Ivanovitxi zuzendurik.

— *Ich... habe...* hobe errusieraz egiten badugu —esan zuen agureak.

— Ah! Beraz, hau da kontua... Ikus dezagun... Eta gaixoa aztertzen hasi ziren.

Ordu erdi geroago, Anna Sergeievna langelan sartu zen Vasili Ivanovitxekin batera. Sendagi-leak denbora izan zuen belarrira xuxurlatzeko gaixoaren sendatzean pentsatzerik ere ez zegoe-la.

Bazarovi begiratu zion... eta atean gelditu zen, hain zirrara handia eragin zion begi lausoak berarengan tinko josirik zeuzkan aurpegi handitu eta zurbil hark. Izua soilik sumatu zuen, halako izu hotz eta abailgarri bat; maite balu horrelakorik sentituko ez lukeela pentsatu zuen lipar batez.

— Eskerrik asko —hasi zen Bazarov, ahalegin handiz—, ez nuen hau espero. Egintza ona da.

Hara non berriro ikusi dugun elkar, zuk hitzeman zenuenez.

— Anna Sergeievna hain izan da ona gurekin... —hasi zen Vasili Ivanovitx.

— Aita, utzi bakarrik... Ondo deritzozu, Anna Sergeievna? Beharbada, orain...

Bere gorputz indargabe luze-luze etzana seinalatu zuen buruaz. Vasili Ivanovitx gelatik irten zen.

— Eskerrik asko —errepikatu zuen Bazarov— Tsar baten antzera jokatu duzu. Diotenez, tsarrak ere hil hurrenak ikustera joaten dira.

— Jevgeni Vasilievitx, espero dut...

— Ea, Anna Sergeievna, aitor dezagun egia. Nireak egin du. Gurpilen azpira erori naiz. Eta gertatu da alferrikakoa zela etorkizunean pentsatzea. Kontu zaharra da heriotza, eta berria, hala ere, norberarentzat. Oraingo ez naiz beldur... baina laster kordea galduko dut, eta akabo! (Ahul eragin zion eskuari.) Eta zer esan ahal dizut?... Maite izan zaitudala? Horrek lehen ere ez zuen inolako zentzurik, eta orain are gutxiago. Maitasuna forma da, eta nire forma usteltzen ari da jadanik. Hobe esaten badizut

zoragarria zarela. Eta orain hor zaude, nire aurrean, hain ederra...

Anna Sergeievnak dar-dar egin zuen nahi gabe.

— Lasai, ez larritu... eseri han... Ez hurbildu niregana: nire gaixotasuna kutsakorra da.

Anna Sergeievnak bizkor zeharkatu zuen gela, eta besaulki batean eseri zen, Bazarov zetzan dibanaren alboan.

— Oso bihotz-zabala zara! —xuxurlatu zuen Bazarovek—. Oi, zein hurbil zauden, eta hain gazte, lirain, garbi... gela ziztrin honetan! Ea, agur! Bizi zaitez luzaz, hori da onena, eta bizitzaz gozatu ahal duzun artean. Begira zein ikuskizun nazkagarria: oraindik ere herrestatzen tematzen den hartxo erdi zapaldu bat. Eta etsita nengoen gauza asko egingo nituela, ez nintzela hilko. Arazo ugari daude, baina ni erraldoia naiz! Orain, aldiz, ganoraz hiltzea da erraldoiaren ardura bakarra, nahiz eta horrek ez dion inori axola... Berdin dio: orain ezin hasiko naiz inori atsegin ematen.

Bazarov, isildu, eta edalontziaren bila hasi zen haztamuka. Anna Sergeievnak edaten eman

zion, eskularria erantzi gabe eta beldurrez arnastuz.

— Ahatzu egingo nauzu —ekin zion berriro Bazarovek—, hila ez da biziaren lagun. Errusiak gizon paregabea galdu duela esango dizu aitak... Zozokeriak dira, baina, mesedez, ez zapuztu zaharraren ametsak. Badakizu zer dioen esaera zaharrak: haurrak jolasa behar, bestela negar. Eta izan zaitez txeratsua amarekin ere. Gogotik bilatu arren, ez duzu haiek bezalako jenderik aurkituko zure mundu zabalean... Errusiak nire beharra dauka... Ez, argi dago ez daukala nire beharrik. Noren premia du, orduan? Zapatariaren premia, jostunaren premia, harakinarena... okela saltzen du... harakinak... egon apur batean, nahasten ari naiz... Oihana dago hemen...

Bazarovek bekokian jarri zuen eskua.

Anna Sergeievna berarenganantz makurtu zen.

— Jevgeni Vasilievitx, hemen nago...

Bazarovek eskua hartu zion eta dibanean agondu zen.

— Agur —esan zion, tupusteko indarrez, eta haren begiek azken dirdai batez distiratu zuten—. Agur... Entzun... egun hartan ez nizun musu eman... Putz egiozu orain sugar ahul honi, eta itzal dadila...

Anna Sergeievnak bekokia ukitu zion ezpainekin.

— Aski da! —esan zuen Bazarovek, eta bururdian amildu zen—. Orain... ilunpea...

Anna Sergeievna isilik irten zen gelatik.

— Eta? —galdetu zion Vasili Ivanovitsek, ahots apalez.

— Lo hartu du —erantzun zion Anna Sergeievnak, doi-doi entzuteko moduan.

Bazarov ez zen gehiago esnatuko. Iluntze aldera kordegabetasun hondogabe batek hartu zuen, eta biharamunean hil zen. Aita Alekseik elizakoak ekarri zizkion. Azken oliadura eman eta krisma santuaz bularra ukitu zionean, zabal-zabal ireki zen haren begietako bat, eta beldur-ikararen antzeko zerbait igarri zitzaion une batez aurpegi zurbilean, apaizaren meza-jantziak, intsentsu-ontzi ke-jarioak eta imajinen aurreko argizariak izutu balute bezala. Bazarovek azken

hatsa eman eta etxe osoa intziri bilakatu zenean, bat-bateko amorru batek eraso zion Vasili Ivanovitxi. «Erosta joko nuela esan nuen —egin zuen garrasi, ahots erlatsez, dena su eta zimur aurpegia, ukabilari airean eraginez, norbaiti mehatxu egingo balio bezala—, eta erosta jotzen dut, erosta jotzen dut!» Baina Arina Vlasievna, negarretan urturik, lepotik eseki zitzaion, eta belauniko erori ziren biak lurrera. «Halaxe gertatu da —esan zuen gero Anfisushkak, zerbitzarien gelan—, tristuraz apaldu dute biek burua, bildotsek eguerdian egiten duten bezalaxe...»

Baina joaten da eguerdi sargoria, eta etortzen da arratsaldea, eta gero gaua, eta, berarekin batera, aterpe isilera biltzeko ordua, non lo gozoa egiten baitute nahigabetuek eta akituek...

XXVIII

Sei hilabete igaro ziren. Etorri zen negua, zuri, hodeirik gabeko izozteen isiltasun latzarekin, elur lodi, kirrizkariarekin, zuhaitzetako intzigar arrosakararekin, zeru esmeraldakolore hitsarekin, tximinietako ke-adatsekin, ate unetxo batez irekietako lurrun-boladekin, jendearen aurpegi musu-gorri, marraskatu-antzekoekin eta zaldi hozminduen lauoinka nekezarekin. Urtarri-leko eguna amaitzear zegoen; arratseko hotzak gogorrago estutzen zuen aire geldia, eta bizkor itzaliz zihoan ilunabar odolkolorea. Marinoko etxeko leihoetan dirdirka hasi zen kriseiluen argia; Prokofitx, frak beltzez eta eskularru zuriz jantzirik, zazpi afaltiarrentzako mahaia ipintzen ari zen, ezinago handikiro. Aste bete lehenago, herrixkako elizatxoan, apaltasunez eta ia lekukorik gabe, bi ezkontza egin ziren: Arkadi eta Katia-rena eta Nikolai Petrovitx eta Fenetxkarena; eta egun horretan bertan Nikolai Petrovitxek agurbazkari bat eman eman zuen anaiaren omenez, Moskura joatekoa baitzen, han egitekoak zituela

eta. Anna Sergeievna haraxe abiatu zen ezkontza amaitu bezain laster, gazteei ezkon-opari ederra eginik.

Hiru-hiruretan mahai inguruan bildu ziren denak. Haiekin zen Mitia ere, zeinak ordurako bazuen haurtzain bat, sedazko buruko distiratsu batez jantzia. Pavel Petrovitx Katia eta Fenetxkaren artean eseri zen, harro; «senarrak» zein bere emaztearen aldamenen jarri ziren. Azkenaldian nolabaiteko aldaketa gertatua zen gure lagunengan: ederrago eta gizonago ziruditen. Pavel Petrovitx soilik argaldu zen, baina horrek, hala ere, itxura dotoreagoa eta *grand signeur* baten aire handiagoa ematen zien haren hazpegi adierazkorrei... Fenetxka ere aldatu zen. Sedazko soineko berri batez, belusezko buruko zabal batez, urrezko katetxo bat lepoan, geldi eta begirunez zegoen eseririk, bere buruarenganako zein inguruan zeuzkan guztienganako begirunez, eta irribarre egiten zuen, hau esan nahi balu bezala: «Barkadazue, nik ez dut errurik». Berak ez ezik, gainerako guztiek ere irribarre egiten zuten, barkamena eskatuz bezala haiek ere. Denak sentitzen ziren apur bat urduri, apur bat

triste, baina, barne-muinetan, oso ondo. Elkarri atsegin ematen saiatzen ziren, halako adeitasun barregarri batez, denak elkar harturik komedia xalo bat antzeztea erabaki balute bezala. Katia inor baino lasaiago zegoen: uste onez begiratzen zuen ingurura, eta nabaria zen Nikolai Petrovitxek zoratzeraino maitatzea lortu zuela. Bazkaria amaitu aurretik, zutik jarri zen Nikolai Petrovitx, eta, kopa eskuan harturik, Pavel Petrovitxi zuzendu zitzaion.

— Utziko gaituk... utziko gaituk, anaia maitea —hasi zen—, ez luzerako, jakina; hala ere, ez zekiat nola adierazi nire... gure... nik... guk zenbateraino... Hau tamala!, nik ez zekiat topahitzik esaten! Esan hik, Arkadi.

— Ez, aitatxo, ez dut ezer prestatu.

— Ezta nik ere! Hitz batean, anaia, uztak besarkatzen eta zoririk onena opatzen, eta itzul hadi lehenbailehen!

Pavel Petrovitxek musu eman zien guztiei, Mitiaz ahaztu gabe, jakina. Fenetxkari, gainera, muin egin zion, nahiz eta hark oraindik ez zekien eskua behar bezala eskaintzen, eta, bere kopari beste zurrutada bat eginik, hasperen sakon

batez esan zuen: «Zoriontsuak izan, maiteok! *Farewell!*». Inork ez zion erreparatu ingelesezko hitz horri, baina denak hunkitu ziren.

«Bazaroven oroimenez», xuxurlatu zuen Katiak senarraren belarrira, eta haren kopa jo zuen berearekin. Arkadik, erantzun gisa, gogor estutu zion eskua, baina ez zen erabaki topa hori ozen proposatzera.

Amaiera dirudi horrek. Baina, agian, gure irakurleren batek jakin nahi du zertan dabilen orain, hain zuzen ere orain, gure pertsonaietako bakoitza. Atsegin emateko prest gaude.

Anna Sergeievna duela gutxi ezkondu da — ez maitasunez, baizik eta ziurtasunez— egunen batean errusiar ekintzaile izango den gazte horietako batekin. Oso gizon argia da, legelaria, praktikotasunaren zentzu handia du, borondate irmoa eta hizketarako dohain paregabea. Gaztea da oraindik, onbera eta izotza bezain hotza. Bake onean bizi dira elkarrekin, eta denboraren poderioz, agian, zoriontasuneraino iritsiko dira... maitasuneraino agian. Kh*** hila da, heriotzako egunean bertan ahaztua. Kirsanovtarrak, aita eta semea, Marinon kokatu dira. Konpontzen

hasi dira haien arazoak. Arkadi etxejaun arduratsua da, eta «landetxeak» etekin handiak ematen ditu orain. Nikolai Petrovitx bake-epaile izendatu dute, eta ahaleginean betetzen du bere eginkizuna; etengabe bidaiatzen da eskualdean barrena, hitzaldi luzeak egiten ditu (etsirik dago mujikak «zentzatu» beharra dagoela, hau da, hitz berberak behin eta berriro errepikatuz haien indar guztiak ahitu), eta hala ere, egia esan, ez ditu erabat gogobeterik uzten ez aitoren seme ikasiak —zeinek noiz arrandiaz noiz malenkoniaz hitz egiten baitute «emantzipazioaz» (*an* sudurraz ebakiz)—, ez aitoren seme ezikasiak —zeinek, inolako konplimendurik gabe, sekulakoak esaten baitituzte «ditxosozko *manzipazio*» horretaz. Hala batzuek nola besteek bigunegitizat daukate Nikolai Petrovitx. Katerina Sergeievnak beste haur bat izan du: Kolia; Mitia mutil koskorra eginda dago eta oso berritsua da. Fenetxkak, Fedosia Nikolaievnak, senarra eta Mitiaren ondoren, ezkonahizpa maite du gehien, eta, hura pianora esertzen denean, alaitasuna ez zaio egun osoan ezabatzen. Aipa dezagun Piotr ere. Ergeltasunaren eta harrokeriaren goia jo du,

iu ahoskatzen du e behar duen tokian: *tiupir*, *obiuspiutxiun*; baina bera ere ezkondu da, hiriko ortuzain baten alabarekin, eta ezkontsari oparoa jaso du; emazteak ezezkoa emana zien bi ezkon-gai oni, erlojurik ez zutelako bakarrik: Piotrek, ordea, erlojua ez ezik, txarolezko oinetakoak ere baditu.

Dresden-en, Briulevskaia terrazan, ordu bietatik lauretara bitartean, paseatzeko ordurik dotoreenean alegia, berrogeita hamar urte inguruko gizon bat aurki dezakezue, ileurdina eta, itxuraz, hezueriak joa, baina guztiz ederra oraindik, apain jantzia eta gizarteko goi-mailetan luze ibili izanak soilik ematen duen ukitu berezi horren jabe. Pavel Petrovitx da. Moskutik atzerri-ra joan zen, osasuna lehengoratze aldera, eta Dresden-en geratu da bizitzen, batez ere ingelesekin eta bidaiari errusiarrekin elkartzen dela. Ingelesekin xaloki jokutzen du, ia apaltasunez, baina ez duintasunik gabe; aspergarri samar deritzote, baina begirunea erakusten diote, haien ustez *gentleman* bikaina baita, «*a perfect gentleman*». Errusiarrekin mutiriagoa da, bere behazun guztia askatzen du, iseka egiten die

haiei eta bere buruari; baina hori guztia oso atsegina gertatzen da berarengan; zabar eta taxuz jokatzeko du aldi berean. Ideia eslavofiloak aldeztu ditu: hori, jakina denez, *trés distingué* da goi-gizartean. Ez du ezer irakurtzen errusieraz, baina lapti-formako hautsontzi zilarrezko bat dauka idazmahaiaren gainean. Gure turistak oso txeratsuak izaten dira berarekin. Matvei Ilitx Koliazinek, «behin-behineko oposizioan» zegoela, handientzaz beteriko bisita bat egin zion, Bohemiako uretara bidean; eta bertakoek, haiekin oso harreman urriak baditu ere, ia gurtu egiten dute. Inork ez ditu *der Herr Baron von Kirsanoff*-ek bezain erraz eta laster jasotzen Gorteko korurako, antzerkirako eta abarretarako gonbitxartelak. Ongia egiten du beti, ahal beste; oraindik ere zalaparta apur bat ateratzen du bazterretan: ez zen alferrik izan hots handiko galaia bere denboran. Baina neketsu zaio bizitza... berak uste baino neketsuago... Merezki du berari begiratzea eliza errusiarrean, noiz eta, bazter batean hormaren kontra jarririk, pentsakor geratu eta denbora luzean ez baitu zirkinik ere egiten, ezpainak gogor estuturik; gero, bat-batean

bere senera etorri, eta nekez atzemateko moduan hasten da aitaren egiten...

Kukshina ere atzerrira joan zen. Heidelberg bizi da orain, eta jadanik ez ditu natur zientziak ikasten, arkitektura baizik, non, berak dioenez, lege berriak aurkitu baititu. Lehen bezala, ikasleekin ibiltzen da maiz, batez ere fisikari eta kimikari errusiar gazteekin, oso ugariak baitira Heidelbergean. Hasieran ikasle horiek harriturik uzten dituzte irakasle alemaniar lañoak beren mundu-ikuskeraz zentzudunarekin, eta gero harriturik uzten dituzte irakasle horiek berak beren nagitasunarekin eta zabartasun erabatekoarekin. Oxigenoa nitrogenotik bereizten ez dakiten baina handiustez eta orotariko ukoz beterik dauden kimikari horietako bizpahirurekin eta Elisevitx handiarekin nahasirik dabil Sitnikov Petersburgen, bera ere gizon handia izateko prestatzen ari baita, eta, baieztatzen duenez, Bazaroven «bideari» jarraitzen dio. Diotenez, baten batek jipoitu du duela gutxi, baina berak ordaina bihurtu dio: jipoitzailea koldarra dela eman du aditzera aldizkari ilun batean argitaraturiko artikulu ilun batean. Ironia deitzen dio

horri. Aitak, beti bezala, tratu txarra ematen dio; emazteak, berriz, ergeltzat dauka... eta literatizat.

Errusia zabaleko bazter leku horietako batean hilerri txiki bat dago. Gure hilerri gehienek bezalaxe, itxura penagarria du: inguruko lubakiak sasiz bete ziren aspaldi; zurezko gurutze grisak okerturik daude eta apurka-apurka usteltzen ari dira beren teilatutxo behinola margotuen azpian; hilarri guztiak mugiturik daude, norbaitek azpitik bultzatu balitu bezala; bizpahiru zuhaitz soilek itzal urria egiten dute; ardiak oztoporik gabe ibiltzen dira hilobien artean... Baina hilerri horretan bada hilobi bat ezein gizaki hurbiltzen ez zaiona eta ezein animaliak zapaltzen ez duena: txoriak soilik gelditzen dira haren gainean, eta kantuan aritzen dira egunsentian. Burdin hesi bat du inguru guztian; izei gazte bat dago landaturik alde bakoitzean: Jevgeni Bazarov datza hilobi horretan ehortzirik. Sarritan inguratzen dira hara, auzo herrixkatik, bi zahar okitu, senar eta emazte. Nekez ibiltzen dira, elkarri eutsiz; burdin hesira hurbildu, belauniko jarri, eta luze eta mingots egiten dute negar, eta